



Joxe Lizaso

Nere aldiko kronika

Joxe Mari Iriondo





Joxe Mari Iriondo

Joxe Mari Iriondo Unanue (Urrestilla, Azpeitia, 1938) oso ezaguna da euskal kulturagintzan; batez ere kazetaritzaren eta bertsolaritzaren arloetan.

Gazterik hasi zen lanean Loiolako Herri Irratian eta bertan eman zituen hogeita bi urte oparo (1961-1983). Lehenengo aldiz euskarazko telebista egin zituen Telenorten (1975-1983). Handik Euskal Telebistara pasatu zen, eta bertan jarraitzen du gaur egun.

Berrogei urte luze horietan, barru-barrutik bizi izan du euskal kulturaren taupada, baina lekuko soila izatera mugatu gabe. Hala, besteak beste, euskal kantagintza bultzatu du (*Ez Dok Amairu* sortuz, beste zenbaitekin; kantuen hitzak itzuliz edo eginez...), eta gogotik eragin dio trikiti-munduari.

Baina, kultur arloan, bertsolaritzan jardun du batik bat: bertso-jaialdietako gaiak prestatzen eta aurkezten, 1963tik 1984 ra; bertsolari-txapelketak eratzten eta aurkezten (Bertsolari gazteen sariketa, Loiola Irratian, 1962tik 1972ra; Bertsolari-txapelketa nagusia, 1979 eta 1982an).

Gaur, euskaltzain urgazle izanik, Euskaltzaindiaren Herri Literatura batzordeko kide da.



Joxe Mari Iriondo

Joxe Lizaso

Nere aldiko kronika

Auspoa Liburutegia
275



AUSPOA



• SENDOA

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. 943 49 35 51 - 49 35 52

Fax 943 49 35 48

www.sendoa.com

editorial@sendoa.com

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Joxe Mari Iriondo

Joxe Lizaso

Nere aldiko kronika

Auspoa Liburutegia
(2001)

© Joxe Lizaso

© Joxe Mari Iriondo

© SENDOA ARGITALDARIA

ISBN: 84-95378-46-9

Legezko Gordailua: NA - 2950 / 2001

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Serinte

Txillarramendi zalea
deitutzen didate.
Maiz aitatzen det eta
arrazoi daukate.
Antxe pasatu nittun
ia ogei urte.
Munduratu nintzan ta
bearko nunbaite.
Aitortzen didate:
estimatzen naute.
Aterikan ate,
danak ditut maite,
Enparangaindik asita
Santa Engrazirarte.

J. Lizaso

Aurkezpena	11
Atarian hitz bi	15
Azpeitiko kalean jaio	21
Txillarramendiko bertso giroa	49
Azpeitiko kalean girorik ez	55
Lanera	67
Uztapide eta Basarri	85
Gai-jartzailerik gabe	93
Lehenengo plazak	111
Santa eskean	117
Ondarretako kartzelan	129
Txapelketa eta sariketak	145
Soldaduzka	159
Xalbador eta Mattin	165
Etxean bertsorik ez	177
Bertsolari zaharrei itzala	183
Gaztetako kontuak.....	199
Ezkontza	203
Landetako Unibertsitatea	213
Enborretik ezpala	223
Bertsolari ausarta	247
Bertsolariaren bizimodu gogorra	285
Bertsoak irratian	291
Beste gai eta ofizioak	309
Puntutan	367
Omenaldiak	385
Zenbait goralmen	413
Antonio Zavala <i>Doctor Honoris Causa</i>	418

Aurkezpena

Ez dakit zenbat aldiz gertatuko zitzaizun, irakurle, liburu bat amaituta gero ere irakurtzen jarraitu nahi izatea. Gutxitxo iruditu, alegia, eta gehiago nahi. Hori omen da, gainera, liburu bati egin dakioken laudoriorik handiena.

Horrelako zerbait gerta dakizuke honekin ere. Zu egarri izan, liburuak egarria kendu, baina aldi berean kendu adina eman; edo gehiago, agian. Izan ere...

Bertsozalea bazara, hementxe dituzu Joxe Lizasoren ehundaka bertso, lagunekin nahiz bakarka kantatutakoak. Ehundaka bertso, Joxe Mari Iriondok gustu handiz eta begi zorrotzez aukeratutakoak. Eta, hala ere, gehiago nahiko zenituzke, beharbada. Edo zuk gogoan dituzun batzuk falta direlako. Edo garai jakin bateko gehiago espero zenituelako. Edo azpeitiarraren bertsoak, lehenaz gain, erabat liluratu zaituelako. Ez litzateke harritzekoa izango.

Joxe Lizasoren bertso-ibilbidea aztertzeke aukera ere eskaintzen dizu liburu honek. Eta, akaso, ez duzu jakingo zer gehiago miretsi: edo zeinen zorrotz erabiltzen zuen Joxek errima gaztetan edo zenbat esan ohi duen beti bertsoetan. Eta gero eta hizketa-kutsu handiagoa hartuko diezu, gainera, haren bertso beteei eta haren jario oparoari.

Bai. Joxe Lizasoren bertsoak airoso gaintitzen du paperaren proba. Are gehiago: inor gutxirenak bezain airoso. Eta proba zailagorik eta beldurgarriagorik! Izan ere, badira bertsoak, dena delakoagatik, bat-batean onak eman baina gero, paperean idatzitakoan, asko galtzen dutenak. Horren beldur izan zaitezke, irakurle,

Lizaso handiaren bertsoekin. Ba, hona hemen, liburu honetan, zalantza guztiak uxatzeko moduko proba eta froga. Egingo nuke, gainera, irabazi ere egiten duela Joxeren bertsoak.

Izan ere, tranpa gutxikoa da Joxeren bertsoa. Esaterako, neurrira eta errimara errenditu behar horretan, nahiago du errima lasatu euskara narrastu baino; nahiago du bertsoa saretu hizketa saretu baino. Horregatik da hain betea, hain naturala, hain gustagarria haren bertsoa.

Baina ez da Joxeren bertso-jarduna bakarrik. Hainbeste bertsolarirekin jardun du azpeitiarrak! Oker ez banabil, hogeita hiru bertso-lagun kontatuko dizkiozu liburu honetan: Txapel, Basarri, Uztapide, Xalbador, Mattin, Arozamena, Lazkao Txiki, Lasarte, Agirre, Lazkano, Gorrotxategi, Azpillaga, Lopategi, Larrañaga... Eta, nola ez, Sebastian semea eta Beñat iloba.

Eta, hala ere, hor geratuko zara egarriz, gutxitxo iritzita. Izan ere, pozik irakurriko zenituzke, esaterako, Joxeren lehenengo plazako bertsoak: Azpeitian, Arane kaleko San Migeletan, hamazapi urte zituela kantatutakoak, Txapel eta Uranga lagun zituela. Edo Gaintxurizketan kantatu zituenak, Zepairekin batera, gau osoa lo handirik egin gabe pasatu ondoren, urduri baino urduriago. Edo Donostiako Trinitadeko plazan kantatutakoak, Saiburu, Txapel eta Zepairekin. Horiek denak soldaduzkara joan aurretik. Edo, Ansoainen soldadu zegoela, Manuel Lasarte kinto-lagunarekin kantatutakoak...

Bai. Joxe Lizasoren bertsoak baino gehiago dituzu hemen: Joxerenak eta bere garaikoak, eta dagokien ingurumaria. Horrexegatik dio izenburuaren bigarren zatia, egoki asko: *Nere aldiko kronika*. Izan ere, azpeitiarraren bertsoak eta bertso-lagunenak ez ezik, hementxe dituzu gai-emaielen izenak eta jardunak, eta aldian aldiko gertaerak, eta giroa... Landareak bezala bildu baititu Joxe Mari Iriondok bertsoak: zain, sustrai, lur eta guzti.

Benetan estimatzekoa da horrelako lan isila eta askotan oharkabean pasatzen dena. Adibidez, liburu honetan datoz, berriro ere, Uztapidek eta Joxe Lizasok Aiako Santio auzoan, 1963ko Santiago egunez, bazkailondoan kantatutako bertsoak. Orduan, Manuel Lasarte larri ibilia zen osasunez, eta kinto-laguna hartuko du hizpide Joxek une batean. Baita egoki segitu ere Uztapidek, bertso batean negarrez amaitzeraino.

Saio hori lehendik ere argitaratuta dago, Uztapide-ren bi bertso-liburutan: 1964an, *Noizbait* izenekoan (Auspoa, 42); eta oraintsu ateratako *Berriz plazara* bi-koitzean (Auspoa Sail Nagusia, 11-12; hain zuzen, 11.ean dator aipatutako saioa). Baina bi hutsune-edo daude liburu horietan: batetik, zuzenean ez da esaten Uztapidek negar egin zuenik eta, bestetik, bertso bat osorik falta da eta beste bi erdizka, argia joan eta magnetofoiak hartu ez zituelako. Liburu honetan, berriz, osorik datoz bertso guztiak, eta baita Uztapidek zein bertsoan egin zuen negar ere. Joxe Lizasoren oroimen harrigarriari esker berreskuratu omen ditu Joxe Mari Iriondok bai bertsoak eta bai Uztapidek noiz negar egin zuen ere.

Horrelako lanak ditu bertso-bilduma batek. Eta, hala ere, beti izango da gehiago nahi duenik. Esaterako, liburuan ez datorren zertzelada bat: nola Aiako saio hori bukatu zenean, Manuel Lasarteri bisita egitera joan zitzaion Joxe Lizaso eta nola egun hartan irabazitakoa eman zion. Agian, azpeitiarrak ez zion inori esango, ezta Joxe Mari Iriondori ere. Baina herriaren oroimen harrigarriak badaki esker onekoa izaten.

Horrelako zertzeladaz eta ñabarduraz dago zipriztin-dua bertsolari baten bizitza. Horrelakoek kokatzen dute bertso-saio bat eta bertsolaria bere lekuan. Eta, hain zuzen, bertsoak egoki kokatzeko ahaleginaren emaitza dira liburu honetako hainbat orrialde bikain, Joxe Lizasoren bizitzaren berri ematen dutenak, Joxeren beraren hitzetan. Kontalari handi baten pasarteak dira.

Zirraragarriak batzuk, Ondarretako kartzelakoa bezala. Ezin hunkigarriagoak beste batzuk; esaterako, oso eguraldi txarra zen batean, “euria eta kaskabarra, aizea eta bisutsa”, Joxek zer-nolako elkarrizketa izan zuen aita zenarekin, honekin topo egin zuenean, Txillarramendira abiatzera zihoala. Ez da harritzekoa, irakurle, horrelako pasarte gehiago nahi izatea. Hain dira jakingarriak! Hain daude ondo kontatuak!

Horregatik, esker oneko hitzak besterik ez zaizkigu sortzen liburu hau irakurrita gero. Eskerrik beroenak Joxe Mari Iriondorentzat, egin duen lan eskerga eta bikainagatik. Eta eskerrik bizienak zuretzat, Joxe, horren bihotz handia erakusten diguzulako, nola bertotan, hala bizitzaren joanean.

Mila esker eta ez adiorik.

Pello Esnal
Zarautz, 2001.eko uztailaren 9an

Atarian hitz bi

Ez dakit ordurarteko San Isidrotan bertsolaririk izaten zen herrian, baina 1948ko San Isidro domekan bertsolariak ekarri zituzten Aratz-errekara, urteko zaindari-jaietarako. Eusebio Eizmendi *Txapel* zen bata, eta Joxe Lizaso bestea.

Bederatzi urte besterik ez nik, baina arratsalderdi hartan Sakristauko balkoira irten ziren aitona eta mutil gazte lerden haren irudia begien bistan daukat oraindik ere. Ez nekien bertsolaria zer izaten zenik, Aitzumarrigaineko Pedro zenari bertso zahar asko entzunda banengoen ere. Baina saio hark sekulako grazia egin zidan.

Bertsotan hasi eta orduerdi batez jardun ziren kantari, txandan. Noizik behin doinua aldatzen zuten, eta segi, batek hau esan eta besteak hura erantzun. Eta saioaren hasieran arreta haundiz egon nintzaien; baina gero, denbora pasatu ahala, pittin bat aspertu egin nintzen. Bederatzi urte besterik ez zuen ume mukizua-ren kontuak izango ziren, noski.

Halako batean, gazteak doinua aldatu zuen eta honela eraso zion zaharrari:

Lizaso: Puntua jarri biar
diot aitonari...

Txapel: Laster makurtuko aut,
argi ibilli adi.

Lizaso: Indartsu nago gero,
sendo eta lodi.

Txapel: Gaztearen indarra
zarraren pozgarri.

Ondorengo egunetan, erdi bertsolari baino zerbait gehiago den Aitzumarri-gaineko Juanito, Aitzumarri-azpiko Inaxio eta hirurok ahaleginak egin genituen atariko lizar txikiaren gainera igo eta haien imintzioak egingen. Baina, hutsa! Ez zen aski San Isidro domekako lezio bakar hura, itxuraz.

Urteak joan dira, eta geroztik Joxe Lizasorekin hamaika aldiz biltzeko egokiera eta zoria izan dut azkenengo berrogei urte honetan. Jaialdi askotan bertsotarako gaiak ematen, batetik. Beste askotan, berriz, bere emazte Julik esan ohi zuen bezala, *gezur-poltsie* bizkarrean hartu eta bertso eske joaten nintzaien aitari nahiz semeari. Eta haien etxeko atak beti zabalik izan nituen eta ditut, eta hori eskertzekoa da nik izan dudan ofizio/afizioan. Oraintxe ere hamaika endredo eman diet Azillerriberriko etxean, liburu hau prestatu behar-eta. Halare, desafio-rik txarrena txakolina eta urdaiazpikoa izan dira, ordainetan.

Joxe Lizaso Mendizabal, Lizaso bertsolaria, Azpeitiko Enparan kaleko 8-4an jaio zen, 1927ko martxoaren 10ean; eta hilaren 13an bataiatu zuten, parrokiako agiriak dioenez. Bere aita, Jose Inazio Kruz Basilio Lizaso Larrarte, zestoarra zen; eta ama, Manuela Josefa Mendizabal Landa, berriz, Azpeitiko Odria bailarako Saberri edo Saraberri baserrikoa.

Bertsozaletasuna amaren aldetik zetorkion Joxeri, inondik izatekotan. Edo amaren jaiotetxe inguruan bizi izan zuen girotik, agian. Han-hor-hemen begira ibili naiz, baina ez dut aurkitu Joxeren aurreko beste Lizaso bertsolaririk Urolaldean.

Joxek aitaren aldera jo eta haren zaletasunak iraun izan balio, txistulari izan zitekeen, edo herriko musika-bandako musikari. Izan ere, urteetan aurrera doan azpeitiar askok gogoan izango duenez, txistulari haundi eta famatua zen Basilio txistularia. Eta, txistua ez ezik, herriko musika-bandan beste hiru-lau instrumentu ere

jotzen omen zituen. Hura hala ikusita, oso harro senti-tzen zen semea, berak esan digunez. Aitaren aldeko ai-tona eta Joxeren aitaponteko Juan Joxe ere musikaza-le porrokatua zen, eta ahaleginak egiten zituen bere besoetako bilobari horretara eragiten. Alabaina, serio eta benetan hasitako musika-ikasketa erdibidean utzi zuen gerra hasi zenean.

Hamazazpi-hemezortzi urterekin herriko Arane ka-leko San Migeletan bertsotan hasi eta gero, zientoka edo milaka plaza eta aretotan kantatu du, eta kanta-tzen jarraitzen oraindik ere. Gipuzkoako herri eta auzo gehienak banan-banan pasatu ditu behin eta berriz; Bizkaia aldean asko ibili da, eta Nafarroa eta Iparral-deko herrietan zer esanik ez.

Ez omen zuen izan Txirrita ezagutzeko zoririk, bai-na Txapel eta Zepairekin hasi eta haien garaiko eta on-dorengo bertsolari guztiekin kantatzea egokitu zaio ur-teetan zehar: Saiburu, Zubeltzu, Basarri, Uztapide, Paulo Zubiarrain *Hernani Txikia*, Antonio Mari Eiz-mendi *Loidisaletxe*, Bidaniko Muño, Balendin Enbeita, Lasarte, Mitxelena, Arozamena, Xalbador, Mattin, Xanpun, Lazkao Txiki, Lexoti, Azpillaga, Lopategi, Agi-rre, Lazkano eta abar, hamazazpi urterekin hasi eta hirurogeita hamalau arte etenik gabe baitabil bertso-tan, izan ere. Eta tarte horretan konta ezin ahala jaialdi eman du, urtean ehun edo gehiagotara joanez. Inoiz ez du izan nondik nora ibili den kontuak egiteko zale-tasunik, baina ekina egina da, eta horrelaxe beharko du honezkero.

Bere kapritxo edota konpromisoko jaialdi batzuk ba-karrik onartzen ditu orain, eta ahal duen gutxiena mu-gitzen da. Gauez egiten diren jaialdiei uko egiten die, batez ere.

Inor bada-ta, hitzetik hortzerako bertsolaria da Liza-so. Edozein gai ezustean ematen zaiolarik ere, zirt-zart!, bizkor erasotzen dion horietakoa. Eta bertsoa kantatu, azkar kantatzen du, gainera. Ez dakit hau oso

akademikoa den, baina bertsoa zenbat denboran botatzen duen egon izan natzaio inoiz, kronometroa eskuan. Hogeita hamabost segundoan bota zuen ordukoa, zortziko nagusian. Eta, halare, bere meriturik onenak zortziko txikian eta puntutan egiten ditu, nere iritziz. Sekulako abiada du, eta entzuleari txalo jotzeko astirik eman gabe hasten da, askotan. Bertso-borroka giroan sartzen baita buru-bihotz, lehengo zaharrek egiten omen zuten bezala.

Bertso idatzirako joera gutxiago izan badu ere, aspaldidanik gordeta nituen ale batzuk argitaratzeko aukera eman dit orain liburuki honek. Hementxe doaz, adibidez, Loiolako Herri Irratian larunbat arratsero egiten genuen *Beti Jai* irratsaiorako jaso eta gorde-ta nituen batzuk. Balio oneko ereduak direlakoan nago.

Bat-bateko bertsolaria da Joxe, eta oso ausarta gainera, esan beharrekoak zirt-zart! esaten dituen horietakoa. Eta mikrofonoaren aurrean ari denean, aldamenen duen bertso-laguna eta aurrean entzuten duen bertsozalea gogoan, irudi eta aditz-aldaketak bizkor egin ohi ditu, hura ezagutzen duen edonor edota bilduma honetako irakurlea laster ohartuko denez.

Urteak daramatza plazaz plaza, baina inoiz ez da ohitu lasai joaten bertso-tara, berak dioenez. Jendaurrean kantatu beharra, plazan edo aretoan jendeari aurpegia eman eta burura zer etorriko inprobisatu behar hori, berez da korapilo eta arriskutsu. Alabaina, bertso-plazarik zailena bere jaioterria iruditu izan zaio beti. Izan ere, mikrora hurbildu eta aurrera begiratzean, denak senide, lagun edo auzoko izaten baitira han. Halare, hasteko garaia datorrenean hasi egin behar, ordea, 1990eko otsailaren 23ko hartan kantatu zuen bezela:

Ikaratua nago,
au da komeria!
Utsa izandu banu
lelengo aldia.
Naiz pasia eduki
Euskadi guztia,
nere tontoan nago
bapo igarria
astunena oi dala
norbere erria.

Dena dela, hemen duzu aspaldidanik osatzen ari nintzan bilduma, edo nere aldiko kronika izan daitekeen hau. Nolabait egituratu behar-eta, atzera-aurrera, hedabiderako kronika luze baten itxura ematen saiatu naiz. Eta bertantxe aurkituko duzunaren balio eta meritua Lizasorenak dira, oso-osorik. Akats eta makurak nere ahulezia eta ezinaren erru.

Atariko berriketaldi hau amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiet bere laguntza oparoa eman didatenei: aholku zuhurrak eman eta gainbegiratu zorrotza ematen saiatu diren Pello Esnali eta Sendoako Eneka Berasategiri, Euskadi Irratiko Nikolas Aldairi, Xabier Unanue zestoarrari, Azpeitiko Kaito Telebistari eta, batez ere, Joxe Lizaso eta bere emazte Juliri. Behin behar-eta, zordun natzaie berriz ere.

Lorez-lorez dabilen erleak ezti gozoa egiten duen bezala, jaialdi batetik bestera saltoka egindako sorta honen atarian Joxeren argazki egoki bat nahi nuen, bestalde. Eta nekez aurki nezakeen, noski, bere seme Sebastianek, Loidisaletxeren omenez 1980an Errezilen egindako jaialdian bota zituen bertso hauexek baino egokiagorik:

Bertsozale ta txistularia
Basilio aitona zena.
Berarengandik artu zenduen
bertsotako dezun sena.
Zeuk dakizuna nei erakusten
ain izan zera zuzena.
Eskerrak, aita, orain ta beti
al dedanikan maizena,
guztia zuri zor baitizut nik:
izena eta naizena.

Zure barruan nabaitutzen da
erri-maitalean sua;
orrek bultzata zure lan denak,
orrek bultzata bertsua.
Aitor nezake: ezagun dezu
ia Euskalerra osua.
Neretzat aita, askontzat Joxe
ta lagunentzat Rusua.
Langile, gizon, bertsolari ta
egiazko gurasua.

Lanaren bidez artu diozu
munduko bizitzai gaiña,
gu aztearren nekatuz beti
besoak eta mingaiña.
Maitasunean eman nai dizut
zor dizudanan ordaiña.
Norbere aita maite dutenak
emen asko gera baiña
jakingo nuke zeiniek maite dun
merezi oi duen aiña.

Azpeitiko kalean jaio

Lehen esan dizudanez, Azpeitiko kalean jaio eta Odria bailaran orain lur jota dagoen Txillarramediko Saberri (Saraberri) baserrian hazi zen Joxe. Sei senide-tan bigarrena da, eta amaren jaiotetxera eramán zuten oso haurra zela. Bere nondik-norako guztien berri ba-genekiela uste genuen, baina kontakizun zehatz eta zu-zena bere ahotik jasotzea nahiago izan dugu, orain ar-te oker kontaturik balego zuzentzeko ere. Hemen laburbildu ditugunak, patxadán, luze eta zabal, hone-laxe kontatu dizkigu bertsolariak.

Azpeitiko Enparán kaleko 8an zegoen Boldronenekoa esaten zioten etxean jaio nintzan ni. Urolako trenaren estazioko kontserje tripa-aundi bat zan zalako Bol-dron ura. Eta inoiz ez tet jakin zergatik deitzen zioten orrela, baiña ark eman izango zion izena gu jaio giñan etxeari. Laugarren pisuan bizi giñan gu, guraso-ak eta lau anaia eta bi arreba. Danetan zarrena Rosario da; gero, ni etorri nin-tzan. Eta ondoren, Bixente, Emili, Xabin Arto eta Iñaki, gazteena.

Oraindik ere gogoan daukat gure etxe-pean soziedade edo batzoki bat nola zego-en. Eta an kuadrilla aundia biltzen zan egunero. Neretzat ezagunenak Galtxane-ko Joan Mari, Zakeletxe Txapistie eta oiek ziran.

Esaten zutenez, otordu bat egiten ari ziranean, urrengoa preparatzen omen zu-

ten aiek. Gosaltzen ari zirala, zer bazkaldu erabakitzen zuten; eta bazkaltzekoan, gero zer afalduko. Orrelaxe bizi ziran: jan, edan eta lan. Oraintxe ez ezik, tripazai aundiak baziran orduan ere Azpeiti alde onetan.

Batzoki ura errepublikanoen zentrua omen zan, gero jakin nuenez. Eta garai artako erriko apaiz eta agintariak nai baiño jende geiago biltzen zan, iñolaz ere. Danak edo geienak erritarrak izango ziran, Azpeitian errepublikano eta gorri asko omen zan-eta garai artan. Illunabarrean biltzen ziran, batez ere. Eguna lanean pasatu, eta gero bere eginkizunak izango zituzten. Itz egin eta erabakitzekoak, edo ardo-botilla bat aurrean zutela, denborapasa berriketan egiñez erria konpondu, auskalo! Garai artan etzan beste dibertsio aundirik izaten, dirurik ere etzan-eta.

An biltzen ziran aietako batzuk gero ezagutu nituen, zerbait koskortu nintzanean. Esate baterako, Jexux Aranberri *Diabru*. Izugarri bertsozalea zan, eta guregana biltzen zan al zuen guztietan. Gu nora, ura ara. Bertsotan ez nuen sekula ikusi, baiña arexek baiño ateraldi xeble eta txisteak azkarrago moldatzen zituenik nekez izango zan. Au kontatu eta ari arrazoa arrapatu, emendik ziri eta andik ziri, etzan isilduko. Umore aundiko gizona zan, bizitza onetan asko sufritu bear izan bazuen ere.

Bere kargutxoak ere izan omen zituen dalako errepublikanoen elkarte orretan.

Beste asko bezelaxe, burua goian erabil-tzea gustatzen zitzaion gizona zan ura ere. Eta kontu kontari asten zanean, aparteko etorria zuen. Ateraldi asko kon-tatuko nizkizuke emen, baiña bat oso po-lita: Eibarren entzun nion diskusio ura-xe.

Manuel Lasarteren omenaldia zan, eta Azpeititik alkarrekin joan giñan, beste askotan bezela. Bertso-saioa egin genuen ba, eta Txaltxa jatetxera joan giñan gure bazkari pasada egitera. Txirrindula-rien Espainiako Itzulia edo dalakoa joka-tzen ariko zan egun aietan. Eta bazkal-darren artean, beste askorekin batera, Juanito Gisasola *Txoko*, Juan San Mar-tin, aita Zavala, Basarri eta abar alkarre-kin giñan. An ari ziran *Vuelta a España* dalako proba orren kontuak esaten. Eta norbaitek esan zuen nola Jesus Loroñok proba irabazi zuen batean ogei milla du-ro bakarrik eman omen zizkiotela, sari-tzat.

Batzuen iritziz, diru asko zan ori. Bai-ña beste askoren ustez, orrelako proba bat irabazten zuen gizonak diru geiago ere merezi zuen, noski. Espainiako Itzulia irabazi eta diru ori besterik ez?

Isil-isilik zegoen gure *Diabru*, dana adi-tzen. Eta alako batean itza artu eta bere erabakia zorrotz asko eman zuen:

—Nola esan dezute? Espaiñiari bizikle-tan buelta eman eta ogei milla duro diru gutxi dala? Zuek etzaudete burutik sano, mutillak. Aundiagoak egin genizkian guk, garai batean. *Vuelta a España* iru bider


ere egin bear izan genian, eta ogei milla duroko sariaren orde z zazpi urteko kartzela eman ziguten. Alde ederra zegok, orratio!

Orrelaxe, jendea aboa bete ortz utzi zuen *Diabruk*. Beste batzuekin batera Castro Urdiales alde orretan arrapatu omen zuten, eta propina ederra eman zioten gizarajoari. Iztun egokia eta txispa aundiko gizona zan, esan bezela. Momen-tuan momentuko giroari zukua ateratzen zekiena. Ura eta beste azpeitiar askoren ateraldiak bildu bearko lirakeela uste det, gure belaunaldiarekin danak joan eta az-tu baiño len.

Dana dala, gurean ere norbaitek bear zuen ardi beltz izan, eta neuri tokatu zit-zaidan. Baiña oso aurtzaro ederra izan nuen nik Txillarramendin. Orrela iruditz-en zait beintzat orain.

Saberri, Azpeitiko Odria baillarako az-kenengo baserria da, Errezil aldera. Bi errien muga-mugan dago, edo... zegoen; ez au eta ez ori, baserria erre egin baitzan, edo erre egin zuten. Eta sekula ez degu jakin nolatan erre zanik. Oraintxe ere sasiak arturik dauden orma zarrak eta muga ura ederki ikusten ditut bizi naizen lekutik. Egunero begiratzen diot, negargura ematen badit ere.

Mugatik bestaldera, Munoaundi-bekoa eta Munoaundi-goikoa daude, Errezilgo lenbiziko baserriak. Eta gero, Premi-Etxeberri, Orkazarre, eta oiek. Aruntzago, Etumeta Benta eta Etumeta Zarra, bi



... Saberri baserria erre egin zen, edo erre egin zuten. Orain, hango horma zaharrak, huntzak eta sasiak hartuta daude

(Arg. J. M. Iriondo)

bizitzakoa. Eta Aizarna aldera, Ariztain eta oiek egongo dira, oker ezpanago.

Komunio txikia egin eta andik laster geure jaiotetxera ekarri ninduten berriro. Eta antxe bildu giñan familia. Zazpi-zortzi urte izango nituen nik garai artan. Txillarramendiko askatasunean oso gustora nengoen, Saberriko aitona-amonei eta neretzat guraso bezela ziran osaba eta izebari nai nituenak egiñez. Eskolara joaten asi gabe nengoen artean, garai artako oitura orrela zan-eta. Etxean erakusten zigutena, badakizu: errosarioa, letaniak buruz, eta abar, gero gauero errezatzeko. Ederra izaten zan, ba, ura.

Eguna ganaduak zaintzen edo itulan ibilli eta gero, illuntzean, errosarioa erreztatu bear. Etzan alako lo-belarrik munduan logureak azkar jotzeko! Baiña antxe aguantatu bear izaten gendun; kaskarra bero-bero egitea nai ezpagendun, beintzat. Gauzak orrelaxe izaten ziran garai artan.

Jaiotetxera ekarri nindutenean, eskolara asi nintzan segituan. Eta solfoea ikasten ere bai. Bai gure aita zana eta bai nere aitapunteko zan aitona Juan Joxe oso musikazaleak ziran, zestoar asko bezela. Eta bearko musika ikasi gurean! Bazkailondoan etxean saio bat egiten nuen, eta gero Pelota-leku aldean bizi zan *Ierra* esaten genion batengana bidaltzen ninduten. Ondoren gure aitonak berriz ere lezioa artzen zidan etxera itzultzean, noizik bein kaskarreko batzuk eman ez. Eta azkenean, egunero-egunero herriko *Musico Mayorra-rengana* joaten nintzan illunabarretan, nere maisu ofiziala ura zan-eta.

Arrituta egoten omen zan nerekin, eta musiko ona izan nintekeela esaten omen zien gure gurasoei. Jakin izan balu zer alegin egin bear izaten nituen batere gogorik gabe!

Baiña ogeita amaseiko gerra etorri zanean, atzera berriz ere Txillarramendira ni, gurean gauzak larri zeuden-eta. Gustora joan nintzan, gaiñera; baiña gauzak bapo aldatu ziran an ere. Ditzosozko eskolara asi bear, ba, garaia zala-ta! Etzitzaidan asko gustatzen, baiña agindutakoa egin bear an ere.


Bi eskola

Bi eskola ziran Txillarramendin nere garaian. Zortzi-amar bat baserri eta bi eskola. Ori da mailla, ori! Eta antxe ibilli nintzan, prefezio ederrean, *Katona* letzen ikasi; orain esaten duten bezala, *batuketa/kenketak* egiten ikasi, guk orrela esaten ezpagueuen ere. *Sumar/restar* esaten ziguten guri. Dotriña txikia ere goitik bera ikasi genuen. Bearko! Ori egin bear izaten genuen garai artako neska-mutilak. Eta gero, lanera al zanik-eta azkarraren.

Gerra aurretik eskola bakarra omen zan Txillarramendin, karlistak kontrolatzen zutena, itxura danez. Neu ez nintzan ibilli an sekula eta eztakit nun zegoenik. Baiña an eskola ematen zuen maistra, Patxi Iturzaeta *Patxi Zarra* bertsolariaren alaba omen zan.

Baiña, dirudiencez, auzotar danak etziran pentsakera berdiñekoak izango an ere, eta karlista eta nazionalisten artean konpotezin aundia zegoen, esaten zutenez. Gu ez giñan asko enteratzen, zorionez. Eta ola, beintzat, bigarren eskola berria egin eta martxan jarri zuten Premi-Etxeberri baserriaren azpikaldean. Oraindik ere eskolaetxe ura zutik dago, beste zeregin batzuetarako erabiltzen badute ere.

Azpeitian erretore zegoen don Kasiano Garaialde eta oiek jakingo zuten ondo an gertatzen zanaren berri: karlista eta nazionalisten arteko asarreak nola ziran,



“...gero eskola berria egin zuten Premi-Etxeberri ondoan...”

(Arg. J. M. Iriondo)

zergatik eta zertarako egin zuten bigarren eskola ura. Urrestillako Rafaela Azkue Zabala-Antxieta *señorita zarrak* asko lagundu omen zuen eskola berria egiten, nik aditzera dedanez. Badakizu: baserri askoren jabe ere bazan ura, eta nazionalista fiña omen zan, gaiñera, pentsakeraz. Orrela, beintzat, bigarren eskolaren aukera izan genduen auzoan, eta ni aruntza

bidali ninduten, guretik urbillena ere be-
ra zegoen-eta.

Maistra bat bear-eta, Antzuolako nes-
ka gazte esku-motz bat ekarri zuten, le-
lengo. Eta arekin asi giñan auzoko ume
mordoska bat; zazpi-zortzi urtez gorako-
ak danak, jakiña. Orduan etzan orain be-
zala iru-lau urteko aurrik eskolara bidal-
tzen sekula.

Baiña maistra gaztetxo ura ere danen
gustoko ez izan nunbait, ba, eta aldatu egin
zuten. Endoiako Klaudia zeritzon neska
gazte bat ekarri zuten berealaxe. Ura ere
oso gaztea zan, noski. Amazazpi-emezortzi
urte izango zituen, asko jota. Eta jakin, gu-
ri erakusteko aiña aise jakingo zuen, etzan
zailla-ta. Orrela, ba, nere maistra uraxe
izan zan, arik-eta lanera asi nintzan arte.
Arexek erakutsitakoarekin moldatu izan
naiz. Zer nai dezu?

Dotriña txikia ikasi ondoren, dotriña
aundia ere lardaskatu genuen. Eta gero,
astean bein, Azpeitiko Mixerikordi etxean
kapillau zegoen don Fernando apaiza
etortzen zitzaigun azkenik gabeko itzaldi
aspergarriak eman, galdera tonto mor-
doska bat egin eta abar. Berealdiko espli-
kazio legorrak ematen zizkigun ark, ezta-
kit gu zer giñala pentsatuta. Baiña, ori
bai, dana pekatu zan arek esaten zuenez:
neska-mutillak elkarrekin arrapaketan
ibiltzea, tortoloxetan jostatzea, jolastea...
Dana pekatu, alazankoa! Maistrari begi-
ratzea ere pekatu zan, ba, ta! Dana peka-
tu, gizona! Amar-amaika urte izango ge-

nituen, baiña bazan an pekatua! Dozenaren bat neska-mutil giñan eskolan, danera. Eta alkarrekin jolas egitea pekatu! Zer jolas egin bear genuen guk, neskak eta mutillak aparte jarrita? Don Fernandok uste zuen aldean, sanoak eta tontoak giñan gu pekatu-kontu oietan; artean, beintzat.

Bein batean, aurrean jarri eta beti bezela sekulako esplikazioak eman zizkigun. Asper-asper eginda geunden gu; beno, ni ala nengoen beintzat. Eta gure Jainkoak etzuela orrenbeste pekatu jarri izango munduan esan nion. Ez ote zan gero aundi samarrak esaten ariko. Baiña esan banion esan, etzan giro antxe! Ura zan errieta-saioa egin zidana! Eta gero okerrago, nere etxekoekin itz egin bear zuela, or erreformatorioak-eta izaten omen zirala neska-mutiko gaiztoentzako eta alako batera eraman bearke nindutela...! Ikaragarriak esan zizkidan, antxe danen aurrean. Eta zuk bai al dakizu zer zan guretzat orduan apaiz jaun bat orrela asarretuta ikustea?!

Eta etxera joan nintzanean zer pasatu zan esan nien, defendituko ninduten esperantzan. Baiña, kaka zarra! Gurean ere garbitu bear nindutela! Ia nola ausartu nintzan apaiz jaunari alakorik esaten, zer uste nuen nik, ez al nekien apaizak aginte aundia izaten zutela... Gaiñera, apaizari *berorika* itz egin bear zitzaiola esan zidan gure amonak. Nereak eta asto beltzarenak entzun bear izan nituen, bada. Eta, kontuak kontu, bederatzi edo

amar urte izango nituen nik orduan, esan bezela.

Ortik atera kontuak gure umetako garaia nolakoa zan. Ezertarako aukera gutxi genuen, eta ala ere dana pekatu zan, gizona. Orain aiña jakin izan bage-nu...

Apaizak eta fraileak, sakristaua eta monagiloa, Pazkoakoa egiteko garaia, eskeko frailea eta motxaileak, tratante eta ijitoak, senar eta emazteak, mutilzahar eta neskazaharrak... Bertso-jaialdietarako gai-iturri onak izaten ziren horiek, besterik ezin zen garai haietan. Eta Lizasoren bertsoetan ere eredu politik aurkitu dugu, han eta hemen, bat-batean egindako saiuetan. Ikusi batzuk, laburki bada ere.

1963ko ekainaren 22an, Manuel Lasarteren omenez oso jaialdi ederra egin zen Azpeitiko Soreasu antzokian, hil ala biziko operazioa eginda zegoen-eta. Basarri, Uztapide, Lazkao Txiki, Agirre, Lazkano eta Lizaso ziren bertsoetan. Eta Felix Aranzabal *Angiozarko Itsua*, soinua jotzen. Egun hartako gaiak Prudentzio Egiuren *Artanolak* prestatu zituen eta aurkezpena nik egin nuen. Lizaso eta Lazkao Txikiri gai hauxe eman genien: *Lizaso, zu eskean zabiltzan frailea zera; eta Lazkao Txiki, motxailea. Topo egin duzue baserriko atarian.*

Liz: Egun on, jauna, emen zer zabiltz era ontako gizona?
Eske-lanian bizi bearra
ez dadukagu gauz ona.
Lagun zar maite, jakingo dezu
asarre samar nagona,
baserri ontan zuk jaso dezu
neretzat zegon limosna.

Ltx: Ene frailea, ematen dizut
gaur zelebreairen traza;
arrazoirikan ez dauka eta
beretzako nai zun baza.
Ni enaiz gero eskatzaillea,
alperra eta eskasa...
Lana egin ta kobratutzea
ez al da bidezko gauza?

Liz: Zer esan duan lagun zar onek
ez al zerate arritzen?
Neronek beintzat aspalditxoan
onela det ezagutzen.
Lana eginda arraio auxe
beñere ez da izarditzen.
Lanikan asko esketik badu
bizio oiek mantentzen.

Ltx: Ni motxaillea nazu, laguna,
naiz ofizio orren jabe;
biok zer alde dabilkigun guk
zeu konturatzea obe.
Nik ogi ori irabazten det
gizalegez eta noble,
eta zuk berriz txanponak bildu
bate lanik egin gabe.

Liz: Zeruaz goitik genun izena
botatzen digu oinpera.
Nere sasoirik onentsunian
eskeñi nintzan onera.
Norbait bear-ta jarri ninduten
aterik ate eskera.
Gure promesak ez dira alperrik
biok berdiñak bagera.



Lazkao Txiki eta Lizaso Hondarribian, 1988.07.25an

(Arg. Sendoa)

Ltx: Arrazoi dezu, zuek nolabait
bear dezute mantendu,
baiña langilleai ezer kentzen
oso gaizki ematen du.
Nik daukadala orain arrazoi,
frailea, etzaitetz atzendu.
Obe zenduke gutxigo eskatu
ta errezauko bazendu.

Liz: Arrazoi motza betikoa da
motxaillean ibillera.
Alako batek asi ezker
sortutzen digu illera.
Ondo dakigu onen eskeintza
ez dala jungo lanera.
Errezatze'utenak komentun daude
ta ni bialdu eskera.

Ltx: O, nere anai fraile maitea,
zu eldu zera eskera;
ikusten zaitut or zabiltzala
etxe batetik bestera.
Konpon gaitezen al dan ongien,
biok anaiak baigera;
gorroto gabe azal gaitezen
Jaungoikoaren aurrera.

1971ko maiatzaren 2an, premia larrian zegoen herriko ikastolari laguntzeko bertso-jaialdia antolatu zuen Eibarko *Euskerazaleak* elkarteak, Amaia antzokian. Gaiak Juan San Martinek prestatu zituen, eta aurkezpena eta gai-jartzea nik egin. Lizaso eta Lasarteri hauxe jarri nien txanda heldu zenean: *Lizaso, lanera hasi zeran apaiza zera zu; eta zu, Lasarte, apaizaren egitekoa besterik dela uste duzun horietako apaiza.*

Las: Apaiz langille onek asmoak
gogor artu omen ditu;
obe zenduke lengo erara
zuk ere emen errenditu.
Orain artean gu elizan an
beti bait giñan gelditu,
ta ango martxa ondo egiten
naikoa lanak baditu.

Liz: Ara, apaiz zarra, gauz zelebreek
etorri zaizkit gogora.
Zure moduko gizonarekin
eleike joan iñora.
Sakristi ortan zertan pasatu
zuk orrenbeste denbora?
Lana badago nai badezu egin
eleizatikan kanpora.

Las: Apaiz berriak sakristi ori
billatzen dute illuna,
ta lengo zarrak bertan pasatu
izaten zuten eguna.
Apaiz langille onek artu du
eginkizun bat astuna:
beste batzuei sinistarazten
berak sinisten eztuna.

Liz: Zuk eitten dezu pulpilotikan
lau ebanjelio tira,
ta entzuleak ao-zabalka
aspertu egiten dira.
Kendu ezazu sotana ori,
jun zaite irabazira...
Etzaitezela beti egondu
bestek emanai begira.

Las: Zaude isilik, beñere ez tet
nik jaten bestek emanda;
eztezu ezer aurreratuko
txorakeriak esanda.
Lengo apaizen bizimodua
ezin dezu eramanda,
karrera au zertan artu zenuen
ain langillea izanda?

Liz: Orduerdi bat naikoa det nik
goizez meza emateko
eta amar ordu libre daduzkat
nunai lana egiteko.
Ez zu bezela eleiz-zokuan
erdi-lotan egoteko.
Oinbeste ipui ezpaita bear
zerua irabazteko.



Basarri, Lazkao Txiki eta Lizaso Ordizian 1964an

(Josetxo Marin-Sendoa)

Ez dakit zenbatgarrena izango zen, baina 1979ko San Jose bezperan Manuel Lasarteri omenaldi ederra egin zion Aiako herriak. Gaiak ematea neri egokitu zitzaidan egun hartan, eta hauxe eman nion Lizasori, bakarka bertsoak kanta zitzaiz: *Joxe, zu apaiza zera; eta herrian esaten dutenez, laster guraso izateko omen zaude.*

Iritsi bazan ere
apaiz joatia,
txorakeri batek nauka
lurrera botia.
Gizona nola naiz ni
onen arlotia?
Ikasiko det zer dan
bizi izatia.
Orain alperrikan det
negar egitia.

Iñork ez du esango
jatorra naizenik,
eztet asko altxatu
apaizen izenik.
Egindako okerra
konpondu neike nik,
baiña eleizak eztu
ortako baimenik,
nola ez duen uzten
apaiz andredunik.

Tentazioa eztu
gizonak urruti;
au buruan sartzerik
eztago zenbaiti.
Naita're ezin nitake
orain ein bi zati,
ta ola ezta dukat
segitzerik beti...
Utzi bearra daukat
bitatikan bati.

Lengo istori zar bat
eldu da nigana,
Alejandro Aita Santuak
asmatu zuana:
Iritsi nai duenak
Jaungoikoagana
etzazutela egin
nik eiten detana...
Al badezute kunpli
beti nere esana.

Ondorengo bertso hauek, 1985eko apirilaren 12an, Zumaian egin zen jaialdi batean jasotakoak dira. Egunekeo gai-jartzaile Peña izan zen; eta Lizaso eta Lopategiri hauxe eman zien: *Garizuman gaude. Eta bijilia egunean, kilo angula jan du Lopategik. Lizasok, berriz, kiloko txuleta.*

Liz: Kezkatan gelditu naiz
gauz ori entzunik:
indarrean sartu nai
txuleta bat janik.
Aspaldin ez dut pasa
olako egunik,
nik nola enekian
bijilia zanik.

Lop: Legeak neurtu nai du
gizonaren gula,
ala ere jan dezu
txuleta mardula.
Etzera konturatu
bijili gendula?
Ez al dezu ikusi
jan dedan angula?

Liz: Angulak jan dituzu
osasun onian,
eta nik txuleta nun
bijili egunian.
Jesukristo're laister
or degu lurpian.
Akordauko al zaio
piztutzen danian?

Lop: Akordatuko zaizko
zenbait espiritu;
nik badakit gaur nola
gorputza ornitu:
angulaz ase eta
legea kunplitu.
Erljioak ere
bere tranpak ditu.

Liz: Onetxek ipintzen dit
bide nabarmena,
erlijio gaitatik
al nabil irtena?
Animak izan ez dezan
betirako pena,
aitortzera nijua
obispoangana.

Lop: An entzungo dituzu
itz oso edarrak,
baiña legeak daude
kunplitu bearrak.
Jan itzazu angula
ta langosta edarrak,
Aita Santuarentzat
utzi sardin zarrak.

Liz: Ainbeste gauza dira
gizonan bizitzan;
langosta ezagutzen du
naiz beartsu izan.
Fraile bukatu balu
asi zuen gisan,
ni gaur beronexekin
konfesauko nintzan.

1985eko urriaren 4an, Nikolas Segurola fraile eta gai-jartzailea omendu zuten Oñatin. Egun hartako gaiak Iñaki Muruak eman zizkien bertsolariei. Eta Lizaso eta Agirreri hauxe jarri zien: *Agirre baserriko lanetan ari dela, Arantzazuko fraile Lizaso eskera etorri zaio.*

Liz: Guk ere bizi bear
or nunbaitetikan;
ta etzaitez asarretu,
lagun, nigatikan.
Eskera etorri naiz
Arantzazutikan,
bai ote daukazuten
zerri-ankarikan.

Agi: Asi bearra daukat
ortzak erakusten;
frailea, etzaitut nik
zu ondo ikusten.
Oiek mokau gozoak
nolatan dituzten,
ni asita nago orain
eman gabe uzten.

Liz: Gizona, etzaitez jarri
orren seriuia,
limosna orrek badu
bere baliua.
Zuk kunplitzen badezu
obligaziua,
errezatuko dizut
errosariua.

Agi: Frailearen eskeintza
ori da jakiña.
Ni nola engaiñatu
egin du esamiña.
Ijara ederra ta
lepua bikaiña...
Len ere janda zaude
zuk merezi aiña.

Liz: Lendikan egon arren
ijaraz betia,
baserritarra, nai det
garbi esatia:
zuk ere obe dezu
zerbait ematia,
gero nai bazenduke
zerura joatia.

Agi: Zeruko bideakin
zaude amestuta,
baiña askotan zabiltz
gauz onak aztuta.
Zerua irabazten
erreza ez du-ta,
lanean asi zaitte
eskuak laztuta.

Liz: Len ere lana ein det
nola-alakua;
baserritarra, entzun
nik esandakua.
Onen itxura dago
bataz bestekua,
gizon jatorra baiña
fedegutxikua.

Agi: Beraz, fedegutxiko
ni juzgatzen nazu,
ta goitik esperantza
aundiak dituzu.
Zedorrek orrenbeste
mirari badezu,
eskatu Amari ta
ark emango dizu.

Liz: Nik Ama artua det
biotz-sakonian,
sinismen ori daukat
gaurko egunian.
Zu're utziko zaitut
orain jakinian,
nora joango zeran
iltzen zeranian.

Agi: Kondenauko naizela
gaur zure burura...
Biok joan gindezke gu,
noski, ingurura.
Predikatzen dezute
Kriston abentura,
ta bapo bizi zerate
errian kontura.

1987ko ekainaren 13an, Ereñozun egindako saio batean, Lizaso eta Mañukortari gai hauxe eman zieten: *Mañukorta mutilzaharra da, eta andregai eske datorkio San Antoniori, Lizasori.*

Mañ: Kaixo, laguna, lendabiziko,
San Antonio alaia;
mutilzar onek azalduko du
eskaritan bere naia.
Berrogei eta iru urte ditut
baiña badaukat sasoia,
ta nai nukena da neretzako,
iñun bada, andregaia.

Liz: Ai, Mañukorta, gaur eguerdian
errezotan ari zera,
berandu baiña bizimoduai
eman nairikan asera.
San Antoniok berealaxe
emango du aditzera:
andregai faltik eztezu izango
mutil jatorra bazera.

Mañ: Mañu zar onek beti izan du
mundu ontan zoramena.
Santuai ere gaur otoitzean
eingo diot aitormena.
Gorputz ederra, naiko indarra,
altuan daukat kirtena...
Jolaserako nik nai nukena:
neska gazte ederrena.

Liz: Neska gazteak egongo dira
or aurretikan begira.
Mañukortari itz egitea
orain etzaie kupira.
Alper-alperrik joango zera
San Antonion ferira.
Zure moduko astakirtenak
mutilzar gelditzen dira.

Mañ: Santuak ere azaldu ditu
itzez bere atsegiñak.
Mutilzarrantzat lagunik gabe
ematen dituen miñak!
Baiña nik ere erantzun onak
baditut zintzo egiñak...
Mañukorta ta santu zar auxe
biok dirade berdiñak.

Liz: San Antoniok utzi bear au
emen ondo jakiñian:
amaika olako arrimatzen da
onuntz gaurko egunian.
Animalia ote genuen
nengoen duda bizian.
Zer nai lukean antzeman diot
arrantzaz asi danian.

Mañ: Gaur Mañukortak ikasia du
orrelako aztarrana,
ta axola zala mutilzarrantzat
gauzarikan ederrena.
Naizta santuak ori eittian
albotik artzen du pena...
Mutilzar onek jokera dauka
zintzo eta nabarmena.

Liz: Alper-alperrik da egitea
mutil oni errieta,
neska gaztiak ongi dakite
mutiko onen berri-ta.
Asto samarra ote dan ere
ondo nago igarrita.
Zerbiziorik onena dauka
kartola batzuk jantzita.

1990eko otsailaren 23an, herriko bertsolariak omendu zituen Azpeitiko Udalak jaialdi batean. Lehenengo, Laja-Landakanda eta Epelde-Iturbide trikitilarien saioa izan zen; eta gero, herriko bertsolari guztiek kantatu. Gai hauxe jarri zien Laxaro Azkunek Lizaso eta Agirreri: *Zu, Lizaso, Aita Jainkoa zera; eta zu Agirre, erretore zaharra. Lehorte haundia dagola-eta, Jainkoari ur eske hasi zera.*

Agi: Emen jendea iristen ai da
negargarrizko trantzera;
ez dakit nik zer ikusi bear dan,
Jauna, emendik atzera.
Ain ona eta fiña zerala
beti izan det aditzera...
Euririk ere eztezu egiten,
oso legortu al zera?

Liz: Erretorea, ez dadukazu
zertan asarreturikan,
ia lotsa're ematen baitu
bera begiraturikan.
Errezatzen'e aztu zaizue,
ez dezute federikan!
Sinismenean sartu artean
geio ezta euririkan.

Agi: Aita Jainkoa, etzazu eman
orren notizi tristerik.
Ezta komeni ontaz aurrera
mixeriarik pizterik.
Martxa onetan ez gero pentsa
otoitz egiten asterik!
Mixerik beltzak eztu ekartzen
jenio txarra besterik.

Liz: Erantzuera emango dizut,
egon zaitea piskaten:
bai al dakizu zergatik ez dun
orain euririk egiten?
Apaizak ere or zabiltzate
txorakeriak esaten;
beira zazute erlijioa
nora eraman dezuten!

Agi: Zuk diozunez erlijioa
pikuetara jua da,
baiña apaiz zarrak ez du egiten
orrelako propaganda.
Aita Jainkua, arritzen nauzu
egia garbi esanda.
Bear deguna nola ez eman
zeure eskuan izanda?

Liz: Ez al dakizu pekatariak
beti dula kastigua?
Nork eman dizu nai dan guztia
eitteko zuri eskua?
Damakizuten bizimodua
nola ez dan egizkua,
merezi eta artu zazute
Jainkuaren kastigua.

Agi: Aita Jainkoa, gogorra dago
zuk dadukazun ustea;
apaiz zarrari jarri diozu
naikoa buruaustea.
Emen baleike komeri txarrak
Jaun onekin ikustea...
Mundu onetan da infernu bat,
ondorenean bestea.

Liz: Erretorea, aitortzen dizut,
etzera biotz-samurra.
Negarrez zaude legor dalako
orain Euskadiko lurra.
Berriz artutzen baldin badezute
zeruarentzat bildurra,
seguru egon, botako ditut
euria eta elurra.

Txillarramendiko bertso-giroa

Lehenengo bertso-saioak Txillarramendin egin zituen Joxek, mutikotan hasita. Igande ilunabarretan Aizarna, Iturriotz, Urdaneta, Errezil, Aia edo beste edozein auzotara neska-laguntzea egin eta Etumeta edo Orkazarreko (Orkazagirre) baserri-tabernatan biltzen zen auzoko gazte-kuadrilla. Eta bertsotan gogotik egiten zuten, batere beldur eta nagikeriarik gabe.

Zuenak zuena emanaz probatzen giñan gu garai artan. Eta jai-illuntze batean motz samar edo ezin antzean ibilli giñala irizten bagenion, urrengoan enpaztu bear izaten ziran aurreko saioko flakeziak. Aste barruan ondo eta serio pentsatzen genuen urrengo bertso-saioan nundik eta nola eraso kontrarioari, sakea nola eta nora atera bear genion kontrarioari, urkatutako idia bezela zerura begira utziarazi arte; al bazan, beintzat. An etzan gai bearrik izaten, ezta tongorik egiten ere.

Txillarramendin bertsolari asko zangure gazte-denboran. Amar-amabi juntatuko giñan, gutxienez. Beno, bertsolariak edo sasi-bertsolariak, esan nai nizuke. Etumetako Joxe *Zaku*, Antxiturbiko Benito; Bentatxoko Emeterio; Munoaundi goiko Joxe eta Santos, neu eta abar. Oiek gure edadetsukoak. Eta gu baiño zarxeagoak, berriz, Koostiteko Joxe eta Joxema-

ri Agirre, eta Frantzisko Mari Iturzaeta *Patxi Zarra*. Zepai eta Txapel ere ingurumari orretakoak ziran, dakizunez. Zepai Azpeitiko kalean jaio zan, baiña Zepai (Zepadi) baserrira eraman eta antxe azi zuten. Txapel, berriz, Antxiturbi base-rrian jaio zan eta Azpeitiko kalera jaitsi.

Nik ez nuen ezagutu, baiña bertsoan ondo egiten zuen beste anai bat bai omen zuen Zepaik, gerran illa. Gerra ondorengo saio batean Akilinok Igeldon botatako bertsoan aipatzen zuen uraxe izango zan, seguruenik:

Nik banuan anai bat
gerra ortan illa,
ta berarekin badira
makiña bat milla.
Ez anaia zalako,
ura zan mutilla!
Desio det zeruan
gertatu dedilla.

Juanito Goikoetxea *Orkazarre* ere auzo onetakoa zan, noski; baiña Oñatzko Akotei-berri baserrira joana zan gure garairako. Nik ez nuen an ezagutu, beintzat.

Patxi Iturzaeta *Patxi Zarrak* oso maitea ninduen ni; eta nik bera ere ikaragarri estimatzen nuen. Gure aldean asko zan ura bertsoan, beste mailla batekoa irizten genion guk beintzat, eta itzal aundia nion nik. Uda-partean Gazumen egoten zan bere artaldearekin eta askotan joaten nintzaion bisitatzera, arixe bertsoak entzuteko ametsetan. Beti bertsoan edo errezatzen

ari zan gizon ura. Santu utsa zan, gizara-
joa! Uraxe bai zeruan egongo dala, baldin
eta zerurik bada beintzat.

Bertso zarrak ere oso ondo kantatzen
zituen ark ardiak zaintzen zebillen arte.
Idatzi ere bertso asko idatzi zuen, meza
eta santuak gai artuta. Aren liburuxka
bat bazan gurean. Oso bertso ederrak zi-
ran, eta amaika aldiz kantatzen jarduna
naiz, neure kasa. Baiña, betikoa: liburua
norbaiti utziko nion bein, eta akabo.
Auskalo nork izango duen orain! Sekula
iñoiz ez omen zaio iñori eman bear nor-
bere emazterik eta libururik. Esaera za-
rrak eztira nolana botatako parabolak
izaten.

Goseteari jarritako bertsoak ere bazi-
tuen Patxik, eta Auspoan argitaratuta
daudela uste det auek:

Len bakallaua jaten zan,
nunai merke ematen zan,
uraxen ere zaliarentzat
gauza txarra ez zan.
Geroztikako murantzan
ez dakit nora joan zan,
orain jan gabe egon bearra
geroko esperantzan.

Litro ardua duruan,
oso edo inguruan;
toki danetan alare ona
apenas daguan.
Balitz itxura moduan,
zerbait orren anparuan,
lan merkietan ai danak pentsa
nola edango duan.

Amabi-amairu bertsoke sorta da guttira, oso oker ezpanaiz. Eta doiñu eta neurri libre samarrean kantatzen zituen, Zepai Txikia, Loidisaletxe eta garai artako beste bertsolari askok egiten zuen bezela, doiñua bere neurrira egokituz. Antonio Zavalak jaso eta argitara eman zituen, esan bezela (Auspoa, 86-87). Baiña aipatu dizudan liburuxka ura falta nik.

Beste bein, Muatzen apusturen bat ikustera joanda-edo, saio txiki bat egin genduen biok. Ondartza bertsolaria ere antxe zan, eta gogor ari zitzaion tentaketan. Zearo aspertu zanean, bederatzi puntuko bertsoa kantatu zion Iturzaetak. Eztaukat gogoan bertso osoa, baiña amaiera onelatsu zan:

.....
gizon erronkosuak
probetxutik gutxi.

Beste batean, berriz, Iturriotzera erromerira gindoazela, belarra astintzen ari zan Komisiolatza aldean, eta puntu bat jartzera ausartu nintzaion, onela:

Nik: Patxi belar astintzen
makil aundiakin...

Berak: Len anka bi elbarri
ta irugarrenakin.
Zuek festara zuazte
sasoi onarekin.
Ni're ibiltzen nintzan
zuen aitonakin.

Puntua orrela zala esan dizut; baiña, dakizun bezala, bertso au era askotan jasota dabil an eta emen. Izan ere, aldaketak errez egiten dira urteak joanda gero buruz gogoratzen diranean. Neu ere ez nago oso seguru orrelaxe zanik, eta au ere aldaketa oietako bat izan liteke, noski. Ez geiegi fiatu.

Azpeitiko kalean girorik ez

1977ko *Bertsolari Eguna* urtarrilaren 16an egin zen Donostian, Joxe Lizasoren omenez. Huraxe aitzaki hartu eta elkarriketa luzea egin nion irratirako, hiruzpau-lau egun lehenago. Eta beste askoren artean, zera esan zidan: “Jaio nintzan lekuan azi eta ezi izan banintz, ni ez nintzan bertsolari izango, seguruenik ere...” Eta, egia esan, harri eta zur utzi ninduen, ez bainuen uste horrelako erantzunik. Nik ez ezagutzen Azpeitiko giro-rik artean, izan ere. Nere duda-mudak zirela-ta, berri-ro ere hori egia ote den galdetu diot; eta batere zalan-tzarik gabe erantzun Joxek.

Bai, egia esan nizun. Azpeitiko kale-gi-roan azi eta ezi izan banintz, gaur ez nin-tzan bertsolari izango ni. Ori orrelaxe da. Nere bertsolari izatea Txillarramendiko gi-roari zor diot, batez ere. Eta berealaxe en-tendituko didazu.

Bertsolariak, berezkoa bear du lelen-go. Baiña urrengo baldintza bertsotarako giroa izatea da, gazte batentzat. Girorik ezpadu, alperrik ibilliko da. Edozein ofizio ere arian-arian ikasten du batere zaleta-sunik duenak. Baiña aritzeko aukera ere bearrezko da. Eta bertsolaritza ere ofizio bat da, jardunaren jardunez orrelaxe ikasten dana.

Nere gazte-garaian Azpeitian etzegoen giroa aurkitu nuen nik Txillarramendin, eta ura izan zan neretzat benetako bertso-

eskola. Emen, kalean, bertso eta euskera-giro kaskarra zegoen ni bertsoan asi nintzanean. Baserritar, arlote, alper, tripontzi eta zurrutero utsa zan bertsolaria, askoren iritiz; eta etzuen iñungo meriturik. Ba, etzan kasualidade utsa izango iñoiz gure erritar Karmelo Etxegaraik bertsolari-ri buruz idatzi zuen ura ere, garai artako giroaren lekukotasuna baizik. Garai artan bertsolariaren kontra itz egingo zizun bi letra irakurri edo zerbait ikasi zuela uste zuen edonork. Etzuten maite bertsolaria.

Eta errian zegoen giro ori etxean ere nabaitzen zenuen gero. Neri etzidaten sekula esan, baiña gurean ere orrelaxe pentsatuko zuten, seguruenik. Etzuten nai bertsolari-rik etxean, lana serio egin eta soldata irabaziko zuen semea baizik. Eta etxeko kontsejuaren zai egon izan banitz, akabo!

Alde batera, arrazoi pittin bat ere ba-zeukaten, noski. Ejenplo txarra ematen zuen bertsolari asko zebillen garai artan, izan ere.

Nik eztaukat saltzeko nere jaioterria. Ez orixe! Baiña orduko bertso-giroari buruz gauza gogor-ak esango nizkizuke. Pentsa zazu: Azpeitiko bertso-jaialdia urtean bein izaten zan erriko plaza nagusian, Santo Tomasetan. Eta soldadutza-tik etorri nintzanean, ni ere gonbidatzen asi ziran erriko festa-arduradun ziran zinegotziak. Ala, Uztapide eta Basarriekin itz egin eta etortzeko esan zidaten urte batean. Poz eman zidaten, egia aitortzea nai badezu.

Ala bada, otsegin nien biei, eta etorri ziran. Eta geure saioa egin genuen, beti bezela libre-librean. Jende asko bildu zan bertsoak entzutera. Eta esatekoak esan genituenean, kontuak egiteko garaia ere etorri zan, ba; eta gurea zenbat zan galdezka etorri zitzaizkidan festatako kontzejal jaunak. Ez dizkitzut esango izenak, oraindik ere jende askok gogoan izango dituta. Baiña, dana dala, itz egin genuen geure artean, eta:

—Asko iruditzen ezpazaizue, biña milla pezeta egin zazue—eskatu nien, ondo bearrez.

—Dozenerdi bana bertso kaskar bota eta biña milla pezeta?—erantzun zidaten.

—Orrela kobratzen degu orain...

—Auek dituk zineko artistak, auek!!—eraso zidaten, irribarrez eta burlaz—. Gure kontura aberastu nai al dezute, ala?

Ori entzutean, berotu nintzan eta nere onetik atera. Guri eman bearreko dirua udaletxeko kajatik artuta edukiko zuten aiek ordurako, baiña gure modukoaren kontra arro eta lotsagabe ibiltzen zan garai artako sasi-agintari asko. Azkenik, lasaitu eta zera esan nien:

—Begira, naiago badezute, beste tratu bat egingo diagu. Eztek bertso-saioa debalde egiten degun lelengo aldia izango, ez, eta guri eman bear zeniguten diru ori sartu zazute... nai dezuten



Joxe Lizaso kantari

(K. Loubet - Sendoa)

lekuan, eta neri ez geiago otsegin emengo festetara.

—Oso ondo pentsatu dek, Joxe. Orrelaxe egingo diagu, modu obean nork kantatua izango dek-eta—erantzun zidaten, arrosko.

Diskusio ura orrela amaitu genuen, beintzat. Gero Basarri eta Uztapideri bazkari-legea eman eta eguneko soldataren zati bat poltsikutik ordaindu nien, eta kaixo, mutillak! Orrelako asko egin bear izan degu bizitzan, eta nik eztaukat bate-re damurik.

Gure erriko euskera eta bertso-giroa ondotxo aldatu dira azkenengo urte auetan, zorionez. Eta iñork eztizu sinisten gaur orduko konturik. Dana dala, amai-ka saio egin degu, nola debalde ala ko-bratuta, azkenengo urte auetan. Eta itz egiñez konpondu izan gera beti; baiña alako despreziorik iñori egin gabe eta nori berea emanez, gizalegeak agintzen duen bezela.

Baiña begietako bista ona eta ikusi ezin asko zan Azpeitia alde onetan, garai batean...

Lehengo giro kaskar hura, edota gure arteko elkar hartu eta konpotezina, herriko nahiz auzoko hainbat eta hainbat tirabira gaizto askotan salatu izan ditu Joxek bere bertso-saioetan. Baina horrelakoak geroko esperantzaz gainditzen saiatu da beti. Paseak pasa, baikor hutsa da eta aurrera begiratzen ahalegintzen da.

Honako bertso hauek 1968ko martxoaren 10ean Eibarren egindako saio batean kantatu zituen, Inozentzio Oleak eman zion gai honi erantzunez: *Joxe, ez ote gera geiegi estutzen askotan? Egun obeak etorriko dira, bainoski.*

Larri samarrik bizi gerala
guztiok gaude jakiñak,
egiñakarren etxe ta kanpo
gu guztiok alegiñak.
Izardi latza kopetan eta
kejak kontatzen ezpaiñak.
Estuasuna ematen digu
gaur gure bizi eziñak.

Agintariak galdetzen dute
au nola konpon leikian.
Urte askuan emen gabiltza
gau eta egun nekian.
Utsa litzake geure etxian
utzi ezkerro pakian.
Itz erditxo bat esateko're
gaude bildurrez aidian.

Biotz-barrenak pentsa bezela
egin nai nuke enkargu.
Lur zikindu au orraztutzeko
ez dira aski bi ordu.
Jakin nai nuke gizon on batek
noiz artuko duen kargu?
Erri au konpon genezake guk,
askatasunik bagendu.

1969-1970ean, ilargi-kontuak modan jarri ziren gure artean. Izan ere, amerikar eta errusiarrak lehia bizi zebiltzan zein lehenago ilargira helduko. Eta haraino laster joango ginela uste zuenik bazen gure artean. Beste askok ez zuen sinisten horrelako ipuinik. Eta norbaitzuk, "Eta ilbehera danean zer?" galdetzen zuten, ironia haundiz. Dena dela, ilargi-kontu horrek hamaika bertso-jaialditarako gaia eman zuen, zerbait behar-eta. 1971. urtean, Azpeitiko Soreasun egin zen saiorako gaiak nik prestatu nituen eta Basarrik aurkeztu, honelaxe: *Hurrengo bueltan ilargira omen zoazela jakin det, Joxe...*

Illargiaren ametsa nuen
nik orain baiño lenago.
Egarri ortan bizi nintzala
ukatutzerik eztago.
Munduko gerra ta ezin ikusiz
oso aspertua nago.
Ni aruntz pozak urbilduko naiz
pakia baldin badago.

Leno esan det goiko illargia
nai nukiala ikusi.
Biraje ori nai ordurako
ezta neretzat iritsi.
Lurralde ontan gizonik ezin
leike soseguz bizi.
Ango berririk eztakit baiña
laster banua igesi.

1971ko Santa Isabeletan, bertsolariak izan zituzten Usurbilen, urtero bezala. Azpillaga, Lopategi, Xalbador, Mattin, Uztapide eta Joxe Lizasok kantatu zuten. Eta Joxeri gai hauxe eman zion Antton Haranburuk, barkarka kantatzeko: *Legea*.

Nagusi onek ipiñitzen nau
emen bildurrez aidian,
papel batetik kontatu baitit
gauzak nola bear dian.
Badakizute nola gabiltzan
geu sortu giñan lurrian.
Legeak ezer balio al du
emen egurran aurrian?

Legea eta gizona emen
oso aparterik daude,
eta ez dago alkartzetikan
iñolako moduz ere.
Ez baidakigu zeñi lagundu
ta zeñi egin mesede,
ez baitiote gizonai uzten
gizona izaten ere.

Gure barrengo poz danak daude
urrutira aldeginde.
Arrisku txarren mendean gaude
iñoiz garbi itz eginda.
Ai, usurbildar biotzekuak,
jarri zaitezte jakinda,
nola gabiltzan denborapasa
giza itxura eginda.

Beste hauek Añorgan jasoak dira, 1973an. Gorrotxategi, Lizaso eta Xalbadorri gai hau eman zien Joxe Mari Aranaldek: *Esaera zahar batek dio: begitako bista ona eta elkar ezin ikusi...*

Gor: Zein dago emen esan digun au
lendik ere eztakiñik?
Iñon eztago lore txarren bat
sortutzen eztan jardiñik.
Anai artian bertan ere ezta
egitako atsegiñik.
Lau egun pasa bear munduan
ta alkar ikusi eziñik.

Liz: Arrazoi dezu, mundu kaskar au
jarria dago itsusi;
garai bateko gizatasunak
aldegin zigun igasi.
Geure anaiak ezin degula
oraintxe elkar ikusi...
Gertatzen dana: gure artian
gorrotoa da nagusi.

Xal: Eztakit ondoren au nork daukun
leenagotik utzia,
baina gur'artean au daukagu
gauza arras itsusia.
Denak ama baten ume eta
elgar ezin ikusia.
Oker ori azkar zuzen zazu,
zeruko gure nausia.

Gor: Mundutarrontzat amar agindu
gure Jaunak jarri zituan
ta guk bat ere ez degu betetzen
tokatutzen dan moduan.
Bizi geraden baiño obeto
bizi liteke munduan,
maitetasuna baldin balego
ikusi eziñan lekuan.

Liz: Komeni dana, anaia-arrebak,
danak izatia lagun,
baiña borrokan asiak gaude
euskaldun eta erdaldun.
Aspalditxoko urte auetan
pakerik ez dago iñun.
Ikusi zagun inbiri txarrak
zertara beartu gaitun.

Xal: Ona besten etxean baino guk
kusi naiago gurean,
ez laike ori bizi bagina
Jainkoaren beldurrean.
Gure laguna zutikan baino
kusi naiago lurrean.
Kontu oiek eman bearko dira
Jaungoikoaren aurrean.

Gor: Kanpuan berdin gertatzen da ta
berdintsu gure artean.
Anai tartean zenbat dabilten
ain bizimodu latzean!
Danok nai degu jarri aurrena,
besteak utzi atzean.
Itz eder asko mingaiñetan ta
gorrotoa biotzean.

Liz: Aspalditxoan eleizari're
etzaio eitten kasorik,
ta borondatez ez da ematen
leku oitara pausorik.
Baiña berriz'e jartze ezpagera
sinismenakin loturik,
ez derizkiot gure artean
geiago danik pakerik.

Xal: Infernutikan etorri edo
geurok asmatu sistima:
geure burua bertzeik ez maite
ori da, ori lastima!
Zentzua noizbait etortzen zaukun
elgar dezagun istima,
gero Jaunari entregatzeko
ark nai bezala arima.

Lanera

Joxeren gazte-denboran, behin hamaika edo hamabi urte bete ezkeru, eskola utzi eta lanera joaten ziren gazte gehienak. Lehenago ere bai, askotan. Eta Azpeitian lan asko zen, gainera, egin nahi zuenarentzat. Baserriko mutil gazteak baserrian, basoan edo tailerrean sartzen ziren agudo. Kalekoak, herri edo inguruko fabriketara; eta neskatxak, berriz, etxeko lanetan, ostaturen batean zerbitzen, familia haundizkiren batean neskame, edota fabrikan ere bai, asko. Ikasteko aukera oso jende gutxi izaten zuen garai hartan.

Joxe ere baserriko lanak utzi eta herriko altzari-fabrika batean hasi zen hamabi-hamahiru urte bete zituen orduko, Saberri baserrian ez zegoela etorkizun hoberik-eta, berak aitortu digunez.

Lelengo, Azpeitiko *Azkue y Cía* muelle-fabrikan asi nintzan, arotz-lanerako afizio aundia nuen-eta. Eta urte mordoska batean antxe ibilli nintzan, egunero-egunero Txillaramenditik joan-etorria oinez egin. Garai artan etzan kamiorik auzo artara, gurdi-bide trakets bat bainik; eta egon izan balitz ere, alperrik guretzat. Ez geneukan bizikleta eta orrelakoak erosteko dirurik eta mediorik. Orain bide ederra daukate, eta medio onak ere bai.

Goizean oso goiz jeikitzen gihan eta Azpeitira, tapa-tapa, zortziretan fabrikara sartzeko. Zortzi ordu izaten zan egu-

neko lanaldia; baiña, ordu extrak egiteko aukera ere bazegoen eta, illeko soldatarantzat eranskin ori ederra izaten zanez, amar-amabi ordutaraiño egiten genituen egunero. Eta gero, gure lanaldia amaitzean, berriz ere Txillarramendira. Eta guzti ori amalau erreal irabazteko. Etziran txarrak, baiña bai ondo kostata irabaziak.

Goizean Txillarramenditik Azpeitira iru bat ordu-laurden edo ordubete bear izaten zan bizkor-bizkor ibillita, gutxienez ere. Eta illunabarrean gorakoan, ordubete eta geiago, aldaparan gora. Orain ezurretariño ko ikara sartzen zait pentsatu utsarekin ere. Orduko sasoi falta nunbait.

Alare, joan-etorria or nunbait izaten zan udaberri eta udan, eguna luzatzen zuen garaian. Baiña gero, negu beltza etortzen zanean?! Goiz illundu eta berandu argitzen zuenean izaten ziran kontuak an. Orduan otsoaren aboa baiño illunagoko bidetan ibilli bear izaten genduen, nola goizean ala arratsean. Eta orrez gainera, otza eta bustia. Oraingo estalgarri eta oiñetakoak izan bagenitu, sikira. Baiña ala moduzkoak izaten genituen, eta zer egingo zan?

Gogoan daukat, bein batean, ortxe Enparango errota zan inguru orretan, gure aita zanarekin topo nola egin nuen, Txillarramendira abiatzera nindoala. Oso eguraldi txarra zan, euria eta kaskabarra, aizea eta bisutsa.

—Nora oa eguraldi onekin, Joxe? —galde-tu zidan.

—Nora? Ba, etxera, Saberrira —erantzun nion.

—Baiña ire etxea nun zegok? —esan zidan urrena.

Ala, besondotik eldu zidan eta, betondoan bera bi malko aundi zituela, etxera eramán ninduen. Andik aurrera, neguan eta eguna pittin bat luzatzen zuen arte, geurean gelditzen nintzan, Enparan kalean. Baiña urteak egin nituen nik alaxe, egunero-egunero Txillarramendi-Azpeitia-Txillarramendi atzera-aurre ura egiñez. Gogorra zan ura, oso gogorra. Esaiezu ori oraingo gazteei!

Urte batzuk ala pasatu nituen. Eta gero, altzari-fabrika ura utzi eta geure aitarekin asi nintzan. Gure aita elektrizista zan. Beno, elektrizista, iturgiña, arotza, edozer. Eskatzen zioten edozein txapuz egiteko beti pronto egoten zan ura. Txistularia zan, gaiñera: Basilio txistularia. Eta erriko musika-bandan flauta, klarineta eta beste instrumenturen bat ere jotzen zuen. Gure aita fenomeno aundia zala pentsatuta, zoratzen egoten nintzaion begira, arro asko. Petral samarra zan batzuetan, bai, baiña biotz aundiko gizona. Ez nekien gure aitaren izena Joxe Inazio Kruz Basilio zanik zeuk esan didazun arte. Izena jartzen asita bai jarri ere, arrania!

Bai gure aitag eta bai aitonak ere nik musika ikasi nezan alegiñak egin zituzten. Zaletasun ori Zestoatik zekarten, iñola ere. Baiña gerra ondorengo urte aietan taillerrean nai aiña ordu sartu

eta diru ederra irabazteko aukera zegoen, eta nola utzi mauka ari iges egiten? Ez genuen praka berri askorik egin, baiña bein koskortu giñanean etzegoen beste modurik illunabarretan lagunartean litro-erdi bat ardo edanez berriketaldi ederrak egin al izateko ere. Lagunarte aiek oso gozoak izaten ziran, bai orixe. Kontu zarrak esan, erdiak egiak eta beste erdiak gezurrak, planak egin eta abar. Eta gero bertso batzuk bota ere bai, inguruan kontrariorik bazan. Orixen zane gure deporte eta dibertsiorik ederrena.

Geroztik inoiz pentsatu izan det musika-kontuak errezegi utzi izango nituela. Aitak eta aitonak arrazoi izango zutela, alegia. Baiña orrelaxe joan zane ura, eta orrela bearko du onezkero. Orain berandu da damutzen asteko.

Ala, gure aita zana bizi izan zane arte berarekin elektrizista ibilli nintzan, an eta emen. Eta gero, ura il eta soldadutza egin ondoren, geure enpresa antolatu genuen. Gure tallerrean ogeita amabi langille izateraino iritsi giñan, eta amaikatxo argindar-linea, transformadore eta fabrikatoko instalazio egin degu bizitzan zear. Gure seme seme Bixente eta beste talde bat ortxe ari dira, oraindik ere...

1963ko ekainaren 30ean, Uztapide, Basarri, Lizaso eta Lazkano ziren bertsoan Orioko Leunda antzokian. Gai-jartzaile Patxi Larrañaga *Barbero* izan zuten. Eta Basarri eta Lizasori hauxe eman zien: *Basarri, arrantzuntzi bateko patroia zera zu; eta zu, Lizaso, eskabetxe-fabrikako nagusia.*

Bas: Merezi ere baditu eta
entzungo dizkit bertsuak.
Gure etxian, arrazoiakin,
ez gaude oso gozuak.
Gizentzen ari bait dira gogor
auzotako gizontxuak.
Oraindik onek zorretan dauzka
udaberriko antxuak.

Liz: Iduritzen zait bildu gerala
biok alkarren antzeko;
neronek ere banun gogua
gizon onekin biltzeko.
Eta esan du lengo antxuak
dittudala ordaintzeko.
Leno ogei mila duro kenduak
baporria pintatzeko.

Bas: Erantzuteko ez det artuko
estuasu eta presa;
merezi ere badu, noski, ta
erantzuna entzun beza.
Xentimorikan egundo eztu
eta aitatu interesa;
ogei mila duro oni kentzen
ezta lantegi erreza.

Liz: Biotzak dar-dar egiten zidan
zure bertsoa entzunda,
ikusten danez gezurra oso
errezki esaten du-ta.
Len aitortu det nola zeguan
aurrez dirua kenduta.
Antxuak ere ordaindu nizkan
mutillez errukituta.

Bas: Amaika olako komeri lendik
ondo ikusiak gaude.
Bein bear eta nere gaiñera
etorri desgrazi au're.
Lenago sarri eskatu dizut
ta eskatze'izut berriz ere:
nik baporria pagatu ber det,
portatzia ein mesede.

Liz: Sarri askotan naiago nuke
begin bistatik aldegin.
Azkenerako arrazoirikan
beiñere ez dago zurekin.
Ordaiña nago artzeko eta
odolak neri irakin.
Arrantzaliak, kontuz ibilli
olako patroiarekin.

1967ko otsailaren 2an, Urruñan jaso nituen ondo-
rengo bertso hauek. Lizaso eta Mattini gai hau eman
zien Daniel Landart aurkezleak: *Lantegi bereko langile
zerate zuek, eta oso hasarre zabilzate. Lizasok greba
egin nahi du; Mattinek, ostera, ez.*

Mat:Lizaso, ni eldu nauk
orain iregana,
esanez arregura
goguan dudana.
Eztuk ez gauza ona
goguan dukana.
Zerbait irabazteko
egin biaiik lana.

Liz: Lizaso lanean da
ondo aspertua,
irabazi gutxikin
asko beartua.
Nola garesti dagon
emen jatekua,
ni enaiz kontentu ta
uelgara nua.

Mat:Lizaso, ik badaukak
gaur asko malezi
ta beti or abila
lanetik igesi.
Konpon bear genikek
mutil ta nagusi...
Ik lanik in gabe nai
asko irabazi.

Liz: Mattin etzaigu ari
izketan serio.
Gezurti mintzatziak
ez dizu balio.
Dirua artu nai du
bestek baiño geio.
Oni ere jornala
gustatutzen zaio.

Mat:Gutxi irabazten dula
unek daukan pena;
diru gutxi izatia
oi du aundiena.
Nagusiak ematen dit
nik bear detena.
Ark ere pagatzen dik
lan eiten duena.

Liz: Etzaitezela asi
zu gauzak itsusten;
zer bidetan zabiltzan
zaitugu ikusten.
Nagusiai ari da
enbustei egiten,
nola eztun kasturik
mantendu ta janzten.

1974ko azaroaren 17an, bertsolari zahar talde haundia omendu genuen Donostiako Anoeta pilotalekuan. Ez dut gogoan zenbat ziren, baina hemezortzi edo hemeretzi bertsolari zahar bildu zirela uste nik jaialdi hartan. Eta, besteak beste, Lazkano, Arozamena eta Lizasori gai hauxe eman nien lanerako: *Inork nahi ez genuen lana urri da oraintxe baztarretan, baina dirua urriago, zoritxarrez.*

Liz: Lurralde eder au beiñere eztegu
ain eroria ikusi.
Garai batean pentsatzen gendun
danok dirudunak bizi.
Piskat arrotu giñan garaian
dira kredituak itsi...
Emen dagona kontu asko ta
balorea oso gutxi.

Laz: Ankaperaiño erori gera
ta ote gera jeikiko?
Burudun batek olako kezka
nola eztu edukiko?
Lau dirudunen tranpa degu au,
entzuleok, nereko.
Kezka bat daukat: mundu guztia
usteldu ote dan betiko.

Aro: Nik ere egia esango'izutet
guztizko borondatian:
itxura txarrak ikusten ditut
eta guretzat kaltian;
diru eskasia etorri dala
bizi geraden urtian...
Lenagotik'e gaitz oker ori
bazegon gure etxian.

Liz: Zer pentsatua badabilkite
naziotako buruak,
eta aspaldiko jokabideak
ez dirade seguruak.
Nai ainbat sorta eitten zituzten
muskerran kolorekuak.
Papera baiño urre-koskorak
obe lituzke bankuak.

Laz: Olako gauzak gertatzen dira
lege txar baten peskisan,
ta askorentzat era ontako
zalaparta komeni zan.
Lau aunditsunak dituzten denak
sartu dituzte Suizan.
Zakua ustua da eta aurrera
pakerikan ezin izan.

Aro: Ondatu dute nazio dena,
erriak eta auzuak.
Nik aspalditik ikusten nittun
zakur aundien pausuak.
Atzerritako bankura eraman
ta an dauzkate jasuak.
Azkenerako pagatutzen du
kulparik eztun gaixuak.

Liz: Nola dabiltzan erri guztia
jarri gera antzemanda.
Emen egirik eztabilkigu,
bear bezela esanda.
Leno gendukan balore piska
estranjerira jua da.
Orain eztago konpontzerikan
lau txorakeri esanda.

Laz: Munduko lege okerrentsuna
degu gure errikua.
Aspalditikan gabiltz orrela,
ezta moda berrikua.
Oraindik ere esan digute
estutzeko gerrikua.
Lepoan degun kate latz ori
ez ote degu naikua?

Aro: Gure erria garai batian
izaten gendun apala;
gaur batzuntzako eguzkia da,
beste batzuntzat itzala.
Pentsatu berrogei urte ontan
ostutzen ari dirala.
Orretatikan kontu atera
gu aberatsak giñala.

1976an, kultur astea haundia egin zuten Elgoibarren, Pedro Migel Urruzuno zenaren oroitzarrez. Eta bertso-saio bat ere antolatu zuten, egitarau hura osatzeko. Bertsolariak binaka jartzen hasi-eta, Lizaso eta Larrañagari gai hauxe eman nien: *Lizaso, zu tailerreko enkargatua zera. Zu, Larrañaga, lanera berandu heltzen zeran langilea...*

Liz: Enkargatu naiz aspalditikan
ta langillea det maite.
Zu zeralako ille banakak
sarritan daduzkat tente.
Zu bezalaxe zuzentzen ditut
tailerreko ainbat jende.
Gizalegian ibiltzekotan,
goizago etorri zait.

Lar: Ez det kezkarik pasatu dana
garbiro aitortuta're,
enkargatua amorrasi ta
ikusitzen det alare.
Zer arraiotan jarri zera zu
ernegatuta asarre?
Zure doblia egingo det nik
berandu etorrira're.

Liz: Orain artian enun esan nik
zu alperra ziñanikan,
baiña eztezu bere garaian
or betetzen ordurikan.
Derrigor nago nagusiari
parte eman bearrikan.
Gero ez esan enkargatua
pertsona txarra danikan.

Lar: Al baldin bada nere okerra
itzez nai nuke zuzendu.
Ainbat izpide badaukat eta
isilik ezin atzendu.
Enkargatuak guk egiñetik
aste guztian jaten du.
Naiago nuke tailerretikan
laster aldeingo bazendu.

Liz: Orain artean barkatu dizut,
nola bait zauden gaztia.
Gauza zailla da onen kontuak
ordu ontan sinistia.
Zuretzat danak berdiñak dira
igandea ta astia.
Gauzik txarrena auxe da: zuri
lana egiñaraztia.

Lar: Izpide ontan ezta samurra
emen isillik gelditzen.
Saiatu nai det arrazoiakin
enkargatua berdintzen.
Zure lana da langilleari
nai eztezuna agintzen.
Zure inguruan gaur egunian
ez da atsegin bizitzen.

Liz: Gazte maitea, esango dizut
gogoz lanean asteko.
Batzui ordua iritxi zaie
berealaxe uzteko.
Garaia dezu, gizarajoa,
ezaueratik jazteko.
Bakar-bakarrik balio dezu
sasitzar batzuk pizteko.

Lar: Berealaxe aitortuko'izut
pentsatzen dedan moduan:
pena daukazu ez iristea
ni taillerrera orduan.
Zenbait olako golfo mantentzen
ari geran gu munduan!
Enkargatuak jornal altua
ta langillea bajuan.

Liz: Orain artean kontu orrekin
nigan etzera kejatu.
Arrazoi dezu, al dan geiena
zuk'e dirua eskatu.
Eztit ardura naiz milla duro
zuk egunian kobratu.
Nik nai nukena auxe baitezuz:
ordua errespetatu.

Lar: Gaur neretzako ezta arkitzen
ain bizimodu txukuna.
Etsai maltzurra daukat albuan,
len uste nuen laguna.
Jornal piska bat geiago da nik
gaur eskatzen dizudana.
Bestela ez tet lanik egingo,
egin zazu nai dezuna.

1980ko apirilaren 20an, Basarriri omenaldia egin zion Zarauzko herriak. Joxe Lizaso, Amuriza, Mattin, Etxeberria, Lazkao Txiki eta Lasarte izan ziren bertsoetan. Eta gai-jartzaile, Pedro Artetxe *Urdaneta*. Iparraldeko kostazain eta hegoaldeko arrantzaleen artean arazo asko sortu zen bolada hartan. Eta gai horixe eman zien Lizaso eta Etxeberriari, ofiziotan egiteko: *Barkua erosi dezue bion artean, baiña patroi nor izan erabaki beharko da orain...*

Liz: Gure gogoa nola ez gendun
legorrean egoteko,
kezka badaukat eginkizunik
ez ote degun beteko.
Etxeberria juzgatzen det nik
ango patroi izateko,
koraje geio nola daukazun
Frantzi aldera juteko.

Etx: Eskerrikasko, eskeintz ederra
nola didazun egiña;
oraintxe ere eman didazu
bizibide bat bikaiña.
Ara, Lizaso, burua ere
zedorrek dezu aundiña.
Bietatikan naiago nuke
gaur zeu joango baziña.

Liz: Nik aruntz joan baiño naio det
legorrean egotia.
Oriotarrak badaki zer dan
arrantzale izatia.
Baporea're izango dezu
mariñel onez betia,
baiña Frantziko guardarekin
kontuz ibilli zaitia.

Etx: Onek Frantziko guarda oiek
artuak dauzka txartzako;
oik diran arte euskal jendea
ez gera asko altxako.
Lizaso, joaten baldin bazera
barku ontan arrantzako,
baliz txikiñak botako zaitu,
zu etzerade pasako.

Liz: Nolabait ere arrantza orri
eman zaiogun itxura.
Patroi kontua ezta izaten
altura eta pixura.
Ta frantses oiek segitzen baute
orain arteko oitura,
zu ere laster sartuko zera
ni egon nintzan lekura.

Etx: Arrigarriak izaten dira
botatzen ditun aliak.
Eztakit nora bidali leizken
olako arrantzaliak!
Onek barkua baiño maitego
ditu emengo frailiak.
Itsasora iñoiz joaten bada
laster jango du baliak.

1980ko apirilaren 20an Zarautzen egindako jaialdi
hartakoak dira Joxeren beste bi bertso hauek ere.
Gaia: *Eguneroko ogia*.

Ezagutzen dan lendiko gai bat
emen didazu jarria;
pobre izateko zeruko Aitak
nendukan erabakia.
Ondo badakit nolakoa dan
kopetako izardia...
Izardi bidez irabazten det
eguneroko ogia.

Ogibideak ematen dizku
guri naigabe ta penak,
gauz orren berri ondo dakigu
gu lanian gabiltzanak...
Baiña ez pentsatu izarditikan
mantentzen diranik danak.
Asko dirade gutxio egin da
obeto bizi diranak.

Lan-kontuen sail hau amaitzeko, beste bertso hauek, azkenik. Usurbilen, 1984ko Santa Isabel jaie-tan, zera galdetu zien Lizaso eta Azpillagari Antton Ha-ranburuk: *Zer da krisia?*

Liz: Utzi idazu izketan
gaurkoan benetan.
Aspaldi ontan denok
gabiltza penetan.
Len kontu oiek ziran
ain urrutietan,
orain krisia dago
bazter guztietan.

Azp: Krisialdi batean
daukagu euskera;
au gora altxatzeko
bear da aukera.
Jun zaite mendira ta
berdin plai aldera,
krisisa dago baiña
ondo bizi gera.

Liz: Egia ote degu
gaur entzun deguna?
Ni baiño lasaiago
gaur nere laguna.
Bizimodua dago
pikutara juna...
Nor da agintaria
konpoduko duna?

Azp: Lizaso, jarri zera
alako iztuna...
Euskalerrriak dauka
ain bide illuna!
Langabezia dago,
ain krisis astuna!
Ta jende bat badago
lanik nai eztuna.

Liz: Azpillaga, esate'izut
kontuz ibiltzeko,
jarri nai ezpadezu
gaur oien antzeko.
Nagusi danak pronto
daude bialtzeko...
Ez degu asko falta
gosiak iltzeko.

Azp: Lizaso, etzaite izan
olako kaikua!
Gosetik guk pasatu
genuen naikua.
Zer zan pasatu zana
eta gerokua!!!
Goseak iltzeko gu
bikote bapua.

Liz: Azpillaga, ez al zaik
burua arindu?
Au naita're ezin da
isillik egondu.
Norbaitek ezpaleki,
au azkar konpondu...
Garbi esan liteke:
guriak egin du.

Azp: Ainbeste milloi dira
kanpora emanak,
Ministro Boyer orrek
alaxe esanak.
Alare ez gaitu galtzen
jan eta edanak.
Nunai beteta zeudek
erretegi danak.

Liz: Onen txuleta eta
onen iskanbilla!
Onentzat mundu au da
antzematen zailla.
Nazio dana dago
emen erdi illa.
Felipito bidali
milloi oien billa.

Azp: Felipitogatkan
ez ai jarri triste.
Krisis kontuan ainbat
gauz esan dituzte!
Ainbat boto galtzerik
ark etzuen uste...
Berak eramango dik
besteak ainbeste.

Liz: Nik ez diat sinisten
oien esanikan:
etzegok dirurikan,
etzegok lanikan.
Jartzen ezpaldin bada
nausi oberikan,
estaduak etzeukak
au konpontzerikan.

Azp: Goguan artu al dira
gaur gure esanak?
Momentu txarragoak
badira izanak...
Ontan buka ditzagun
gai ontako lanak,
ta elkar maite dezagun
abertzale danak.

Uztapide eta Basarri

Bere bizitzan zehar bertsolari estimatuak asko izan ditu Joxek, bai horixe! Txillarramendiko auzoan jaio zen Txapel zena sarri aipatzen du, adibidez. Baita bere auzokide Zepai Txikia ere. Basarri eta Uztapideren izenak eta garaia aipatzen duen bakoitzean, ahoa betetzen zaio, berriz. Haien entzutea bertsoan hasi aurrez ere bai omen zuen, eta bere haurtzaroko idolo haiexek omen zituen, askotan esan duenez.

Bertsotan asi baiño lenago ezagutu nituen, bai bata eta bai bestea. Eta biak batera ezagutu ere. Aien izena askotan entzuna neukan; eta bein batean, Aizarnan bertsoan izateko omen zirala jakinda, an joan nintzan zer ikusi eta aiei zer entzungo. Gaur egun, bide luze samarra dirudi Txillarramenditik Aizarnarakoak, baiña ankatako min aundirik gabe joan nintzan goiz artan, eta bai gero Txillarramendira bueltatu ere bazkalordurako, oiñez tapa-tapa.

Orduko bertso-saiorik geienetan egiten zan bezela, meza nagusiaren ondoren erriko plazan kantatu zuten. Ala, meza nagusia amaitu eta jendea plazara inguratzen asi zanean, Iñaki Eizmendi *Basarri* aundia an zegoen plazan, zuzen asko, bertsoan asteko gertu. Baiña Uztapide oraindik etzala eldu esan zuten, eta zai egon bearko zala, laster etorriko zala-ta. Norbaitek Iraetako tabernan gosaltzen

garaiz ikusi zuela esan omen zuen. Berri on ori zabaldu zan bertsoen zai zegoen jendearen artean. Etzan urruti izango, ori egia bazan. Eta, ala, motoa artu eta bere billa joan zan erriko gazteren bat.

Alako batean, or azaldu zan gure Manuel aundia, serio asko. Eta berealaxe asi ziran lanean, jendea zai zegoela ikusita. Geroztik askotan egon izan naiz aien lengo bertsoak nola ziran pentsatu eta gogoratu nairik, oso onak iruditu zitzaizkidan-eta. Eztakit, baiña oker aundirik gabe onelaxe kantatu zuten, Basarri asita:

Basarri: Emen nengoan estu ta larri
atzera eta aurrera,
nere laguna noiz etorriko
bertso lanian aстера.
Bein bear eta, Manuel maite,
berandu zatoz lanera.
Orain artean ganau-jatenak
egiten egon al zera?

Sekulako barreak eta algarak egin zituen jendeak alako ateraldia entzunda. Baiña Manuel etzegoen lo; eta asko pentsatzen egon gabe erantzun zion, oi zuen bezela.

Uztapide: Ez det pentsatzen danen aurrian
diskusioan asterik,
edota zure ziri orreri
arinki erantzuterik.
Lanian ezta kontserbatutzen
olako mutil gazterik.
Gaur ere onek etzun egingo
jaiki ta etorri besterik.

Ura zan jendearen bertso-egarría eta gozamena! Bertsoaren amaieran gogotik laguntzen zieten nola batari ala besteari ere. Oitura ori asko galdu da azkenengo urte auetan, baiña oso polita izaten zan ura; eta bertsolaría bera asko animatzen zuen jendearen parteartze orrek. Gaiñera, bertsolaría eta entzulearen arteko arremen eta lotura ortxe ikusten zala esango nuke.

Bertsoa eta bertso-giroa asko aldatu da azkenengo urte auetan. Nere gazte-denboran, bertsoaren azkenengo erremate edo kolpeari asko begiratzen zitzaion, eta alaxoke zartada bat eman bear zitzaion, ondo amaitzeko. Asieran bete-lan geixeago eginda ere, azken ona eman ezker bertsozalea gustora izaten zan. Saioak ere oraingo aldean luzeak izaten ziran, gairik gabe eta dana segidan. Eta txalo azkenean bakarrik jo oi zan ni asi nintzanean.

Ekiñaldi bat edo bi egin bear izaten ziran egun eta plaza berean, geienetan. Eta gero, ostatuan beti izango zan bertso eske asiko zan norbait. Tabernan bertso-saio obeak egiten omen dirala esaten da. Eztakit, ba. Baiña amaika ekiñaldi egin bear izan genuen guk, beintzat.

Basarri ala Uztapide, zein zan bertsolari obea? Galde orri milla bider erantzun diot onezkero, zailla bada ere. Oso ezberdiñak ziran, noski. Biak ala biak jatorrak, eta lagunartekoak, giza maillan. Eta bertsoetan, biak ere etorri ederrekoak, eztarri ona, iraupen aundia jendaurrean, bertso-etorri ederra... Zer etzuten aiek? Zoragariak ziran.



Uztapide eta Basarri

(Arg. - Sendoa)

Alare, neretzako Basarri bera geiago ote zan egoten naiz. Neri geiago gustatzen zitzaidan. Orduko bertsolaritzaren arauak ere berak ezarri zituen: bertso-tokira garaiz eldu eta plazatik sasoiari aldegitoko oitura ezarri, gai bakoitzean orrenbesteko bertso-saio bat egin, eta gai batetik besterako saltoak noiz eta nola egin, saioaren egitura eta abar. 1935eko Bertsolari Egunean txapela irabazi zuenean asita, zerbait baiño geiago narrastuta zegoen bertsolaritza altxatzen lan aundia egin zuen Basarrik. Eta aitorten ori zor diogula uste det, nori berea emanez.

Ez nago oso seguru, baiña bertsolaritzak aurrera egin du, eta bertsolari obeak ere izango dira gaur, bearbada. Baiña gure egunetako bertsolaritzak Basarrirekin egin zuen baiño aurrerako aundiagorik

eztu egin geroztik, nere iritzian. Eta aurrerako ari esker gauzak beste modu batera egiten dira orain: goizeko saiora bazoaz, goizekoa egingo dezu; eta arratsalde edo arratsekora joaten bazera, arratsaldekoa edo arratsekoa, eta, kitto! Joan-etorrirako ere orduan baiño erraztasun geiago dago orain, bai. Eta bertsozalea bera ere ezi egin da, denon zorionerako. Bertsoa ere txukunago egiten da orain... Baiña ori orrela egiten norbait asi zan. Eta norbait ori Basarri izan zan, nerekiko.

Bestalde, Uztapide eta Basarrik alkar jantzi eta edertzen zuten, bertsoan eta lagunartean. Alkarrentzako ezinbesteko osagarri zirala esango nuke, uztarri baterako egindako bikotea zala, alegia. Gogoa edukiko dezu, noski, bat-bateko bertsoan ezezik, *Nork egin du gure galde* edo *Lesakako San Ferminetan* eta orrela jarritako bertsoak kantatzen asten ziranean alkar nola artzen zuten aiek. Nekez izango da uztarri baterako uraxe baiño bikote egoki eta bikaiñagorik. Pare-pareko laguna aurkitu zuen batek naiz besteak ere.

Neri dagokidanez, Zepai Txikia eta Txapelen garaitik asi eta oraiñarteko bertsolari guztiekin kantatzeko egokiera izan det, zorionez. Baiña Basarri ta Uztapidek aparteko erreztasun eta segurutasuna ematen zutela esango nizuke, iñori ezer kendu gabe. Bertso-lagunari arrazoiak arrapatu edo bideak moztu eta aurrea artzeko joera izaten du zenbait bertsolarik plazan ari danean. Aiek, ordea, lagunari bidea leundu eta errezten saiatzen ziran beti. Badakit denak

eztirala iritzi berdiñekoak izango, ori zail-
da-ta. Nik neurea esan dizut.

Bestalde, gure gazte-denboran etzan iza-
ten mikrofono eta aldabozik. Eta Txapelek
bezala eztarri edo abots gutxi samar zuten
bertsolariak, naiko larri ibiltzen ziran plaza
libreko saiotan. Basarri eta Uztapidek, or-
dea, eztarri indartsuak zituzten eta aiek
kantatzen asten ziranean entzuleak isillik
eta erne egoten ziran. Izan ere, ezta mun-
duan ezer txarragorik bertsolariarentzat,
lanean asi eta jendea isildu gabe marmar-
ean ari dala konturatzea baiño. Orrelako-
tan Lasarte izan da nik ezagutu dedan ber-
tsolaririk zorrotzena. Jendea etzala isiltzen
nabaitzen bazuen, “bertsoak bear dan to-
kian eta garaian izango dira” esan eta las-
ter isilduko zan. Orrelaxe egin bear ere.

Uztapidek aparteko beste adur eta
doai eder asko ere bazuen: edozein erri-
tara bertso-tara joan eta iñork ez bezela-
ko begia eta sena zuen jendea ezagutze-
ko. Noranai eldu eta amaiketakoa
egiterako gure ingurura urbiltzen zan
jendeari antzemango zion ark nolakoa
zan, eta bete-betean asmatuko zuen,
gaiñera. Bekozko aundiarekin, serio-se-
rio jarri eta, laster esango zizun:

—Jum! Gaur kontuz ibilli bearko diagu,
emen ala moduzko jendea zegok-eta.

Edota inguruan jende jator samarra
zala iruditzen bazitzaion, honela esango
zizun:

—Gaur jende jatorra diagu inguruan. Ez-
tek suerte makala bertso-tan eguna pa-
satzeko!

Eta, zapla!, goitik bera asmatuko zuen, batere okerrik gabe. Bai al dakizu zer abantailla zan ori garai artan?

Parrandarako ere sekulako sasoia eta indarra zuen. Ezordutan ibilli eta urrengo egunean txoria baiño argiago azalduko zan ura. Eta ateraldi zorrotz eta azkarra zuen. Askotan aipatu izan det, baiña Korputz egun batean Tolosa ondoko Anoetan giñan biok, bertotara joanda. Bezperan gaupasa eginda geunden, kaskarreko min ederrarekin. Lanean asteko garaia bazetorren, eta —Orain zer esan bear diagu, Jaungoikoa ona dala? —esan zidan.

Alare, udaletxeko balkoira igo giñanean, bere ondozari buelta laster eman zion, eta onela kantatu zuen:

Anoetarrei ein bear diet
nere ongi etorria,
gaztetan ere nola naizen ni
sarri emen ibillia.
Leku ontatik ikusten det gaur
ia elduan garia.
Aurrerantzean erri onetan
seguru dute ogia.

Antxe, erriko plazatik gertu, gari-so-roa ori-ori egiten asita zegoen, izan ere. Eta Uztapidek azkar ikusi zuen. Azkarra eta listoa zan ura, diplomazi aundikoa eta bertotan egokia. Juergan ere nekez autsiko zenuen. Jan, ondo jaten zuen, edan eta erre, berriz, asko; baiña urrengo egunean letxua bezain fresko egoten zan lanerako. Ikusten dezun bezela, orduko bertsolari batek bear zituen abantailla guztiak berekin zituen...



Lizaso eta Basarri mendian.



Lizaso, Uztapide, Basarri, Lazkao Txiki Aretxabaletan 1963an.
Atzean, Inazio Mari Atxukarro, gai-jartzailea. (Arg. Sendoa)

Gai-jartzailerik gabe

Gai-jartzaile eta aurkezlerik batere gabe, dena berek egiten zuten plazan garai bateko bertsolariak, beti edo gehienetan. Bertsoarako behar zituzten gaiak, kantatu ahala, arian-arian aukeratzen zituzten. Etzen lan zaila urtero joaten ziren herrietan, baina toki ezezagunetan galtzak bete lan izaten zen, noski.

Doinuak aldatu eta saioaren luze-laburrak erabakitzea ere, jardun ahala egiten zuten. Horrela, aldian-aldian gaia, doinua, zortziko haundia edo txikia, eta puntutan egiten zituzten jardunaldiak, batere aurkezle eta gai-jartzaile beharrik gabe egiten zuten. Herriko jaietako edo lagunarteko jaialdiak egin, aurrean adi ta erne zeukaten entzulegoaren jarreraren arabera egituratu eta egiten zituzten. Orduko ohitura horrelaxe izaten zen. Gero, txapelketa eta sariketak etorri zirenean, gai-jartzaile eta aurkezlearen moda etorri zen, gazteen pozgarri eta zaharren ernegarri. Gai-jartzailerik inguruan ikusi nahi ez zuen bertsolari bat baino gehiago ezagutu nuen, benetan.

Bestalde, etzen mikrofono eta altabozik ere izaten bertsolarien saioetan. Ezta tranpaldorik ere. Askotan, mahai soil bat eta eserlekuak; edota herriko etxeke leihoa, eta kitted! Indarra eta ezdarri ona behar-beharreko gauza zen bertsolariantzat, bistan danez. Al, eta gutxitan falta ohi zen bertsozale asko aurrean, bertsoegarri bizian.

1963ko uztailaren 25ean, Aiako Santio auzoan, Uztapide eta Lizasok goiz eta arratsalde kantatu zuten. Halare, bazkalondoan biok libre-librean egin zuten bertso-saioa oso sonatu eta aipatua izan zen ga-

rai hartan. Izan ere, Manuel Lasarte operatu berria zen, eta oso makalik zebilen. Eta, arian-arian, Uzta-pide eta Lizaso gai hortaraxe bildu ziren, azkenerako. Eta, halako batean, Uzta-pidek negarrari eman zion. Hasierako zortzi-hamar bertso Andoni Lekuonari bota zizkioten, saioa grabatzen ari zela-ta. Eta gero, honela:

Uzt: Ez pentsa gero lanerako gu
penarekin gaudenikan
eta nik isilik egotia
pentsatuzten nuenikan.
Ez uste jaiak artuta onuntz
etorri geradenikan,
alperra deituko balidate
alperra deituko balidate
enuke beste penikan.

Liz: Ez dezazula gaizkitzat artu
Manuel, nere eztenik;
zer burutapen etorri zaidan
garbi esango dizut nik.
Guregatikan eztute esango
langille onak geranik...
Bertsolaririk al gera iñor
bertsolaririk al gera iñor
alper samarra ez danik?

Uzt: Era ontantxe sortutzen dira
mundu onetako gerrak;
berriro ere gu Lizasori
gaude erantzun bearrak.
Iñoiz egiñak gera saioak
lanian ere ederrak;
txit langilleak ez gera baiña
txit langilleak ez gera baiña
ezta're oso alperrak.

Liz: Barkatu idazu lengo bertsoa,
erori naiz pekatuan;
ez dezazula penarik artu
zeure biotzan onduan.
Umore piskat gustatzen zaigu
beti gabiltzan lekuan.
Lana eitia ain erreza da
lana eitia ain erreza da
ondo bazkaldutakuan.

Uzt: Barkatu zazu, Joxe maitia,
auxe da nere esana:
orain artian oso alperra
beñere ez naiz izana.
Erdizka zertan ibilliko naiz?
Nik aitortuko det dana:
alper izena artu baiño len
alper izena artu baiño len
gogoz egingo det lana.

Liz: Berealaxe emango dizut
bertso orren parezera.
Jaunari eskerrak zer kontatua
orain badator aurrera.
Beraz, orduan zeure burua
eskeintzen dezu lanera?
Berriro ere deituko'izute
berriro ere deituko'izute
ondo portatzen bazera.

Uzt: Santiagotar maitiak, neri
zertarako jarri traba?
Etzazutela bertsolaria
onuntz deitzeari laga.
Beti gelditu gabe ibilli
goiz, arratsalde ta gaba.
Ta guri deitu bildurrik gabe
ta guri deitu bildurrik gabe
bertsorikan bear bada.

Liz: Gauza politak oroitzen dira
askotan bazkalonduan;
badakizute Uztapidek'e
gaur zer agindu diguan.
Dakin dana erakusten badit
agindu duen moduan,
ni ere pozik etorriko naiz
ni ere pozik etorriko naiz
Uztapideren onduan.

Uzt: Lizaso maite, zu etzera ba
bertsolari itsusia;
gizon jator bat zerala ere
ongi daukat ikusia.
Emezortzi bat urte badira
zurekin nintzala asia,
erakutsiko dizut pozikan
erakutsiko dizut pozikan
nik al nezaken guzia.

Liz: Olako bertso maitekorrikan
enuen entzun sekula,
ta badakizu eskola-umiak
estimatuko dizula.
Baiña sinistu kargu gogor bat
zuk gaurtik artzen dezula:
ikast'ezpadet esango dute
ikast'ezpadet esango dute
maisutontua gendula.

Uzt: Lenago ere botia zera
konparazio ederrik;
neronek dakit zure berri ta
eztet galdetu bearrik.
Aspaldin biok lagunak gera,
gurekin ezta okerrik;
nik baiño geio dakizu eta
nik baiño geio dakizu eta
saiatu zaitez bakarrik.

Liz: Ori entzun ta erantzun gabe
ez neike egon iñola.
Buru gogor bat jaio nintzan ta
nik alperrik det eskola.
Ta badakizu beste lagun bat
orain gaisorik dagola,
baiña Lasarte juzgatutzen det
baiña Lasarte juzgatutzen det
zure ordezko arbola.

Uzt: Zu adarreko txoria zera,
Lasarte berriz usua;
zu ere mutil jatorra eta
ura zu bezin gozua.
Nik berarekin pasa nai nuke
nere bizitza osua;
berez sortu zan jakintsua ta
berez sortu zan jakintsua ta
ark zertako du maisua?

Liz: Nik gizon ura ezagutzen det
joan daneko aspalditik,
egun guztiak amets batian
jaiki ezker oietik.
Kontu berdiñak juzgatzen dira
entzule danen aotik;
bertsotan ere juzgatutzen det
bertsotan ere juzgatutzen det
beste guztien gainetik.

Uzt: Lizaso maite, etziazu esan
zuk neri orrelakorik,
nola ez nion nik Lasarteri
gaur idekiko kolkorik.
Nere begi bi auetatikan
ezin det kendu malkorik.
Gizonez eta bertsoan ez da
gizonez eta bertsoan ez da
Lasarte bezelakorik!¹

1 Uztapidek negarrari eman zion bertso hau amaitu zuenean

Liz: Emen Lasarte goraldtu nai guk
geroago eta geio,
ainbesteraño maite degu ta
ori ez da misterio.
Makiñatxo bat bertso mundura
oraindik jaulkiko zaio,
Jaun zerukoak osasun ori
Jaun zerukoak osasun ori
baldin indartzen badio.

Uzt: Geio kantatu nai nuke baiña
ezin nezake iñola.
Badakizute nai izan arren
ni eziñian nagola.
Ikusitzen da osasun gabe
aspalditxoan dagola.
Gure Jainkuak, komeni bada
gure Jainkuak, komeni bada,
arren eman dakiola.


Liz: Azkenerako sartuko nintzan
uste gabeko bidetan,
baiña, Lizaso, nola asi aiz
era ontako lanetan?!
Kontsueloan zegon gizona
orain arkitzen zat penetan.
Arren barkatu zazu, Manuel,
arren barkatu zazu, Manuel,
utsegin badet ezertan.

Uzt: Ez pentsa gero zure itzakin
nik artu detela miñik;
ni orain askoz obeto nago
negar piska bat egiñik.
Itz batian'e nei ez didazu
zuk ezertan utsegiñik.
Pozaren pozez negarrez asi
pozaren pozez negarrez asi
eta isildu eziniñik.

Liz: Nik gizon ura, gizarajua!,
ia ikusi nun illotza.
Pentsatu nuen: laster diagu
kanpai illunaren otsa!
Kasikan ori oin esatea
ere bear nuke lotsa...
Osasunetik indartzen ai da
osasunetik indartzen ai da,
trankildu zazu biotza.

Uzt: Ai, zuk eta nik biok'e ura
maitea baigendun lendik;
bai al dakizu zer penak ziran
joan zanian emendik?!
Askok etzuten sinistatzen'e
sendatutzia iñundik,
baiña uste det kantatutzia
baiña uste det kantatutzia
nik berarekin oraindik.

Liz: Ondo dakigu mundu guztiai
egin giñola ezagun;
mundu au ain da laburra eta
bizi gerade lau lagun.
Aurrera ere oin bezelaxe
izan gaitezen euskaldun...
Baiña oraingo aski degu ta
baiña oraingo aski degu ta
lanak bukatu ditzagun.



Lazkano, Uztapide, Basarri, Lizaso eta Agirre. Azpeitian 1966.06.05an.
(Arg. Pepe Gil - Sendoa)

1965eko maiatzaren 16an, *Baserritarren eguna* antolatu zuen Donostiako Udalak Trinidadeko plazan. Egitaraua: Erramun Latasa sunbillarra beste biren kontra aizkoran; harri jasotzen, Luis Lopetegi *Agerre I.* Eta bertsoan, Jose Joakin Mitxelena, Jose Luis Lekuona *Lexoti*, Joxe Lizaso eta Koxme Lizaso. Saio luze samarra egin zuten, eta haren zati bat jaso dut hemen zuretzat, ezinbestean.

Mtx: Aizkolaririk ez da egoten
golperik gabe kupiran;
zerbait dirala nabari dute
bere besoko mugiran.
Gaur ere jende asko pozikan
emen utzi dute jiran...
Nik pentsatu det kartera oiek
indartzen ai ote diran.

Kox: Beste bat ere indar-kontuan
azaldu zaigu dotore;
esan gabere jakingo'zute
ori dala Luis Agerre.
Arri aundiai eldutzen dio
gogotsu eta asarre.
Itz bakar baten esatekotan:
gu ez gera emen ezerre.

Lex: Gaurko jokua Mitxelenantzat
izandua da aldrebes,
trabesa franko egin du baiña
probetxurikan ezer ez.
Korredoriai txartela artzen
leno aittua da errez.
Gaurko jornala galdua dauka
neri esan didatenez.

Liz: Bein bear eta disparate bat
Lexotigandik juan da.
Ia garbiro jakiten degun
emen egiak esanda.
Beraz, orduan gaurko trabesa
orren galeran izan da?
Nolaz ez dio onek konfesau
biak lagunak izanda?

Mtx: Jokatu ezkerro galdu-irabazi,
bietatik bat derrigor;
baiña, Lexoti, lana orretan
jokatzerik ez dek ik or.
Nik etzekiat lenagotikan
zerbait ez ote'ioken zor.
Itzat etziok emen txartelik,
diruakin ez bai ator!

Kox: Badakizute zer-nola diran
apustuaren jokerak:
aldi batzutan irabaztia,
ta beste asko galerak.
Nork bere diruz egiten ditu
gizonaren buruzberak.
Mitxelena onek galdu baiña
Lexotik irabazi berak.

Lex: Jakiñan gañin jarritzen ditut
goikoak eta bekoak:
gaur bertan ere nik banitian
emen txartelak naikuak.
Korredoreak aitzen zittuzten
nik egindako ojuak.
Motell, neronek irabazi'izkit
leno ik galdutakuak.

Liz: Auen artean formal ibiltzen,
jaunak, ez dago atsegin;
oraindik ezin antzeman diot
zeiñek dezuten utsegin.
Biak lagunak dirade eta
alkarri gaizki itz egin!
Auen artera ez det sartu nai
nik makilla autsiakin.

Mtx: Nik esandako bertso onetan
euki dezakek fedia,
ta ni bezela oroituko dek
begira dagon jendia.
Lexoti onek dittun txartelak
jakiñak izaten dia:
Pazkuatako emandakoa
du entregatu gabia.

Kox: Beira, Lizaso, Lexotik egin
neri amaika azio,
ez pentsa jartzen dizutanikan
nik milla konparazio.
Lenago onek egin duena
aurpegira esango zaio:
galdutakuan igesi eta
irabaztian sozio.

Lex: Bikote oni gaur sartu diot
zirikote bat epela.
Esan diotet: Latasa beintzat
oso baju datorrela.
Jende guztian aurrian orain
konfesatuko det bela:
gezurra esan ta biok saldu'ittut
Judasek Jesus bezela.

Liz: Azkenerako Lexoti onek
ematen digu enkargu;
makiña batek galdetuko du:
orrela asteko zer du?
Disimuluan isillik ezin
pasatu onek bi ordu.
Jokotik bizi nai duen arek
sekreto geio bear du.

1966ko martxoaren 1ean, Donostiako Urrezti-
gain-eko Aingeru Guardako jaietan *Agerre II* harri-
jasotzailea eta Uztapide eta Lizaso bertsolariak era-
man zituzten, eguna ospatzeko. Lehenengo karga
jasotze-saioaren ondoren botatako bertso batzuk da-
kartzut ondoren.

Uzt: Bertsolaria pozikan asko
egonarren egoniam,
nagusi jaunak esan digute
asi ber dala laniam.
Orretarako jarria naiz ni
Lizason aldameniam.
Bertso batzuek eztira gaizki
arriam ondoreniam.

Liz: Oraintxe baiño kontentuago
enaiz egokitu iñun.
Iruditzen zait gaillur eder au
denak daukatela lagun.
Euskal arpegi guztiak ere
egiten zaizkit ezagun.
Saia gaitezen bertsozaleak
pozikan uzten ditugun.

Uzt: Sasoi oneko gizona zaude,
Lizaso, alajaiñiam!
Bertso faltarik ez da izango
iñoiz zure mingaiñiam.
Len'e banekin zuk luzituko
zendula gaur nik aiñiam.
Esango dute Lizaso ona
dala Urreztigaiñiam.

Liz: Diferentziak beti izaten
dira guretzat munduan.
Entzun dezute Manuel zarrak
nola zirikatu nauan.
Auxe dan baiño abillagorik
zein da bertsozko munduan?
Eskola-umiak nola luzitu
maisuz zar baten onduan?!

Uzt: Mendigain auetan iñoiz pasa
izan dirade usuak.
Onak tiratzen ditun tiruak
ez dira oso gozuak.
Obeagorik eztan lekuan
gu ere gera maisuak.
Sasoikoaren onduan zer egin
aittona gizarajuak?

Liz: Ori entzunda ez dadukat nik
erantzun gabe uzterik:
onen onduan oraindik ez da
iñor indartsu gazterik.
Ta eluke nai albokoari
ezertxo erakusterik.
Maisuz zar onek gaur ez daduka
illeta puskat besterik.

Uzt: Gazte maitia negarrez ai da,
ni onduan arrituta;
geienez ere ogeita amasei
urte izango ditu-ta.
Gauza onikan ez dadukat nik
onen kontra abittuta,
baiña pakia egingo degu
berari obedittuta.

Liz: Gogorki samar itz egitea
ez da iñoren kalteko;
nik badaduzkat beste gauz batzuk
emen zuei esateko.
Eta, Manuel, esaten dizut
bildurrik ez izateko.
Nai dan guztia kantatu zazu,
ez gera asarretuko.

Uzt: Beldurrez zeuden biok giñala
minberatutzen asiak,
baiña burua makurtu dezu
eta orreri graziak.
Oiek jendea aurrean dira
oso gauza itsusiak.
Badakite ta gu nola gauden
ijitano ikasiak.

Liz: Jendea igual gaur zegon emen
aurrean pozak txoratzen,
asi danian bertsolariak
alkar ondo toriatzen.
Baiña gauza bat egon beaute
bere artian pentsatzen:
esanak esan, ijitorikan
ez dala burrukatutzen.

Uzt: Zurekin asarretze ezker
egon ninteken etxian.
Batere ez det gorrotorikan
zuregana biotzian.
Etorri gera, baiña jun bear
gero aruntz arratsian.
Asarretzen banaiz ez nau onek
eraman naiko kotxian.

Liz: Alkate jauna aldamenetik
emen etorri zait billa,
berriro ere preparatua
nola dagoen mutilla.
Orren indarrak agertu gabe
gordetzea gauza zailla.
Orren sasoiko baldin badago
Agerre etorri dedilla!

Joxe Antonio Lopetegi *Agerre* bigarrenak bere saioa egin zuen, harri jasotzen. Eta ondoren, berriz ere, bertsolariak izan zituzten. Alabaina, Donostiatik Getaria-ra joko dugu orain, saio batetik bestera salto eginez. Uztapide, Lizaso eta Lasartek libre-librean egin zuten han, 1966ko urtarrilaren 17an, San Anton jaiak zirala-ta. Eta orduko bertso batzuk emango dizkizut orain.

Las: Ainbat maitasun genizutenik
gaur etzenduten usteko.
Txoraturikan bizi giñan gu,
Getari, zu ikusteko.
Pentsatzen gendun garaia zala
zerbait esaten asteko,
lan piskat egin bearko zala
jornala irabazteko.

Liz: Beñere baiño alaitsuago
iritsi gerade aurten.
Zuen aurrian ezta atsegin
orain isillik egoten.
Derrigorra da asi bearra
lan piskaren bat egiten,
gizon alperrak geradenikan
emen esan eztezaten.

Uzt: Lanera etorri gerade ta
emen eztago bromikan;
emen arkitzen gera irurok
isil ezin egonikan.
Iñun eztegu arkitutzen guk
au bezin erri onikan.
Getariara etorri ezik
eztago San Antonikan.

Las: Getari maite, arkitzen zera
iñor baiño apalago;
zure biotza ikusten degu
luze baiño zabalago.
Itxura danez zuen artean
alkartasuna badago.
Ni berriz ere etorriko naiz
Jainkoak sano banago.

Liz: Zuenganako maitetasunez
gaude biotza betian.
Zer kontatua badaramakit
aurki etxera joatian.
Aitortzen det nik: kontentu nago
emen aurtengo urtian,
eguna ondo eraman degu
arrantzalien artian.

Uzt: Pentsa zazute eztala iñun
au bezin leku ederrik,
eta nola ez Getariari
bertsotan eman eskerrik?
Ainbeste urtean etortzen gera
ta iñoiz ezta okerrik.
Berriz eztegu etorritzeko
bat ere deitu bearrik.

Las: Jaun zerukoa, indartu zazu
nere memori argala;
iruditzen zait erantzun ezta
bialdu bear detala.
Igartzen dizut, Uztapide, zu
famatzen ari zerala.
Gero jendiak pentsatuko du
inbusteruak gerala.

Liz: Bein bear eta gaur Uztapide
oso indartsu daukagu;
onek bertsoa bezela ditu
bere biotza ta buru.
Iñork galdera egiten badu,
neroni nago testigu,
berak bakarrik iru bixigu
eguerdian jan dizkigu.

Uzt: Badakizute zertako diran
bertsua eta kantua;
eta, Lasarte, zer esan dezun
atera zazu kontua.
Lendik pentsatu bear zenduen
ni enintzala tontua.
Zuretzat ere ezta txarrena
ematen duen santua.

Las: Azkenerako Lasartek beti
estutu oi ditu gauzak.
Emen elkarri esan bearrak
izango ditugu latzak.
Lizasok bixigu burua jan
ta Uztapidek isatsak,
eta Lasartek oien onduan
txupatu ditu beatzak.

Liz: Bikote auxe emen ari da
alkarren kontra, jo ta ke!
Or ikusten da itz egitea
gaur etzaiotela neke.
Arrazoi txarrak emaitte'ittuzte
beti bertsuaren truke.
Emen erdian ezpanengo ni
burrukatuko lirake.

Uzt: Bi gazte auek itz egiteko
ni artzen naute tarteko,
eta ez dute eskusarikan
zernai gauza esateko.
Toki ederrian gaude bi oiei
sobrautakuak jateko.
Berriro ere etzaie oiei
apetitorik faltako.

Lehenengo plazak

Lizasoren bizialdiko pelikula pittin bat atzera bota eta, berriro ere, Txillaramendi aldeko tabernatarara itzuli behar dugu. Izan ere, mutikotan han egindako bertso-saio eta entrenamenduek behin-betiko garrantzia izan baitzuten Joxerentzat, plazara irteten hasteko garaia etorri zitzaionean. Berak ere asko uste ez zuela eta, batez ere, etxean hortara inork animatu gabe, bertsoetan hasteko aukera esku-eskura etorri zitzaion, halabeharrez. Eta hasi bazen hasi, gelditu gabe hortxe dabil geroztik, jo batera eta jo bestera. Hasierakoaren berri honela kontatu digu:

Lelengo plaza amazapi urterekin egin nuen, Azpeitiko Arane kaleko San Migel jaietan. Eusebio Eizmendi *Txapel*, Juan Joxe Uranga *Mandiolatza* eta irurok kantatu genuen. Uranga au, emen Azpeitiko Loiola auzoko *Mandiolatza* baserrikoa zan, eta gero Hernanira ezkondu zan, eta ango larru-fabrikan lana egin zuen. Ez naiz kapaz neuk botatako bertso asko gogoratzeko, baiña arixe bein entzun niona ondo gogoan gelditu zitzaidan:

Uranga det apellidua,
Juan Joxe izena,
Azpeitiko Mandiolatzen
jaio ta azi nintzena.
Amar senide bagiñan eta
neu naiz danetan gaztena,
Hernaniko larru-fabrikan
lanean ari naizena.

Andik laster, Azkoitiko *Balentxirekin* Aizarnako jaietan kantatu nuen. Eta, beste bein, *Bixko* azkoitiarrarekin Bizkaira joan nintzan, bertsotara. Gero, badakizu: zientoka jaialdi eman det an eta emen. Alare, nundik nora ibili naizen esatea gauza zailla da, eztet sekula izan kontuak zuzen apuntatzeko oiturarik-eta.

Baiña beste batean aundia gertatu zitzaidan. Eztakit Andre Mari eguna larunbatean ala astelenean zan urte artan, baiña bi jai segidan ziran beintzat, gutxitan izaten zan bezela. Eta Uztapide eta *Zepai Txikia* (orrelaxe esaten genion guk) or etorri ziran Etumetan berriketan geunden tabernara, abuztuko illunabar artan. Beti bezala ari giñan gu, jo ta fuego!, berriketan eta bertsotan. Eta, alare, denok mutu gelditu giñan aiek tabernan sartu ziranean, lotsatan-edo.

Ala, izketan asi zitzaizkigun, eta Goiatzen bertsotan izanda zetoze la esan zuten. Uztapide eztarria zearo itsita zetorren, itz egin ere egin ezin zuela. Kantatu ezinda gelditu omen zan, alazankoa! Bazuen, ba, eztarria arexek. Baiña ala gelditu zan, beintzat.

Urrengo egunean Gaintxurizketara bertsotara joateko itz emanda zeudela esan zuen Zepaik, eta bertsotarako laguna bear zuela, Uztapidek ezingo zuela-ta. Badakizu, orain bezelako bertsolari-aukerarik etzan izaten garai artan, eta zertxobait ziran danak okupatuta izango ziran, noski. Ala, berriketan ari giñala,

zapla!, nere billa etorri zirala esan zidaten. Etzegoela libre beste inor, eta prepartzeko urrengo egunerako. Bromatan ari zirala iruditu zitzaidan lelengo, baiña bai zera! Urrerango egunean garaiz prepartzeko, Zepaik. Billa etorriko zitzaidala, berak esnatuko ninduela...

—Zure maillako bertsolari batekin bertso-tara ni?! Beno, beno, ez adarrik jo! Ni ez naiz oraindik zure parean jarduteko gauza —esan nion.

Izan ere, Zepai gu baiña zarragoa zan, eta gure aldean bertsolari egiña eta aundia, ordurako. Nere lelengo idoloa bera zan, gaiñera.

—Bai, bai, Joxe. Biar ik joan bearko dek Zepairi laguntzera —esan zidan Uztapidek, serio asko.

—Baiña zer esaten ari zerate?! Emen lagunartean lotsagabekeri batzuk esanez jarduteko bai, baiña ni ez naiz gauza oraindik plazan bertso-tan egiteko —esan nion berriz ere.

Egia esango dizut: ez nintzan gai sentitzen artean plazan bertso-tan egiteko. Baiña, ala, afari-merienda edo zana zalakoa egin genuen elkarrekin, antxe bertan. Eta gero dozenerdi bana bertso kantatu ere bai. Uztapidek etzuen kantatu nai izan, baiña Zepai Txikia lanerako zegoen, arraioak ezezik! Urrerango egunean kantatzeko gai nintzan ala ez neurtu nai ninduen, nunbait.

Bertso-tan ari giñan serio eta gogotik. Baiña urrengo egunerako kontuak atera-

tzen ari nintzan ni, aiek ekarri zuten enbajada artatik nola iges egin asmatu eziñik. Inun ziran pentsamentuak eta kontuak atera nituen. Eztarri kaskar samarra zuen, baiña Etumetako *Xaku* bera egokiago iruditzen zitzaidan urrengo eguneko saiorako; edota, bestela, Antxiturbiko Benito. Arek eztarri ederra zuen eta etorri oneko bertsolaria zan, gaiñera. Ura eta ni lengusu egiten giñan, eta zebillen tokian “ni ere emen natxiok!” erakustea gustatzen zitzaion oietakoa zan. Baiña ark ere ezetz, etzala joango, ezta..! Neuk joan bearko nuela, eta ori erabakita zegoela, Zepaik berriz ere.

—Beno, Joxe, biar goizean garaiz esnaraziko aut, jeupada bat eginda. Bitartean lo egin zak lasai, al duan azkarrena etxera joanda —esan zidan.

Ala, alkar agurtu eta isil-isillik, bakoi-tza bere etxera. Baiña ez nuen lo aundirik egin gau artan. Ezin sosegatu nere bururik, iñola ere. Milla buelta eman nizkion urrengo egunari, oean jira eta buelta, eta beti gauza bera zetorkidan burura: nik zer egin bear nuen Zepai bezelako bertsolari baten parean? An etzan izango Etumetako konturik! Dana beltz eta illun ikusten nuen.

Baiña etzegoen atzera egiterik, eta etsietsian, nola asi, zer gaitara jo, neurri eta puntuak nola erabilli, nik beti aundizat nedukan bertsolari ari nundik eta nola eraso... Gau ura amets gaizto bat bezela izan zan neretzat. Eztakit sekula iñoiz gau luzeagorik pasatu dedan nere bizitza guttian. Lo egin nai eta ezin. Pittin bat lasaitu

eta urrengo eguneko lanak ordenatu nai buruan, eta ezin asmatu orretan ere. Ura zan gau tristea!

Ala, beintzat, gau ikaragarri ura ere pasatu zan, ba; eta goizaldea etorri zanean, ez neukan nik Zepaik jeupada egin bear aundirik esnatzeko. Preparatu eta atarian zai nengoen ura etorri zanerako.

Nere aldean lasai zetorren Akilino, egunpasa egiteko prest. Dana dala, alkarrri berriketa aundirik esan gabe, tapa-tapa, Azpeitiko estaziora jaitsi giñan, beti bezela oiñez. An Urolako treña artu genuen, eta Donostira; gero, Topoa artu eta Irunera. Eta andik gora Gaintxurizketa-ra, berriro ere oiñez. Etzegoen oraingo konturik joan-etorriak egiteko. Oraingo erosotasun au izan bagendu, ezta zartu ere gu...

Bertsotan asteko ordua etorri eta, bera asi zedilla eskatu nion Akilinori, jendearen aurrean oituta zegoen, eta ark asitako bideari segituko niola nik. Jende asko zan bertso-saioan, eta bereala oartu nintzan gazteari txalo geiago jotzen ziotela, ez bertsolari ohea nintzalako, aulenari laguntzeko oitura ori oso zarra dalako baik. Saio artan ori gertatzen ari ote zan nengoen ni, beintzat.

Zepaik jarritako bideari jarraituz, erantzunak uste baiño errezago moldatzen nituen nere lelengo saio artan, eta ori pentsatuz neure burua poztu nuen. Ezintasun artan zerbait nai nuelako izango zan, noski. Bestalde, Zepaik errima eta esaldi berdintsuak bein eta berriz errepi-

katzen zituela ere oartu nintzan, goizean esandakoak arratsaldean berriro esanez.

Egun ura orrelaxe pasatu zan. Eta gero, atzera buelta: Irungo estaziora jaitsi, Topoan Donostira, eta Urolako trenean, berriz ere Azpeitira. Nekatuta etorri nintzan, baiña bueltakoan berriketarako gogo eta gaita geiago ekarri nuen goizean aruntza joan giñanean baiño. Badakizu, eguneko soldatatxoa ere jasota nentorren-eta. Egun ura esperientzia aundia izan zan neretzat.

Lo egitera Txapelen etxera joan zan Zepai; koiñadoak ziran, eta bertsotatik bueltakoan askotan orrela egiten zuen. Ni, berriz, Txillarramendira, tapa-tapa, eguneko bertsoak gogoratu. Aurreko egunean baiño lasaiago lo egin nuen gau artan, iñork belarrira kantatu bearrik gabe.

Nere asiera orrelaxe izan zan. Eta ortik aurrera, bertsolari askorekin ibilli nintzan soldaduzkara joan nintzan arte. Sai-buru, Txapel eta Zepairekin Donostiko Trinidadeko plazan ere kantatu nuen beste bein.

Nik ezagutu nuen bertsolari zarrena Sai-buru izango zan, oso oker ezpanago. Bidaniko Muñorekin ere askotan kantatu nuen. Eta Errezilgo Antonio Mari Eizmendi *Loidisaletxerekin* ere bai. Alare, ez nuen izan Txirrita ezagutzeko zoririk, aren izena eta fama asko entzun nuen arren. Pena da, baiña gauzak orrelaxe izaten dira. Etorritakoa artu bear...

Santa eskean

Santa eskea eta Gabon eskea, biak ere ondo ezagutu ditu Joxek, bietan parte askotan hartuz. Lehenengoaren ohitura oraindik ere bizi-bizirik dago gure herrietan. Eta otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera izaki, kale eta baserri, gazte-talde haundiak ibiltzen dira ohitura zaharrak berrituz. Bigarrena, berriz, Gabon egunean egiten zen garai batean, baina galdu samarra izango da. San Juan edo San Pelaio eskea egiten duten herriak ere bada. Baina lehenengo bion berri eman digu Joxek.

Gabon eskea, orain Olentzero bezela egin oi zan lenago. Arratsaldean asi eta illunabarrean jarraitu, etxez etxe ibiltzen giñan. Afaltzen ari ziran etxeetan sartu eta orduerdia edo egingo genuen askotan kantari, txanpaina edanez. Lau edo bost urtean izan nintzan Bidanian, esate baterako.

Lelengo, baserriz baserri ibiltzen giñan, urte artan soldaduzkara joateko zegoen kuadrillarekin. Eta gero, Eguberri egunean, lagunarteko bazkaria egiten zan. Bidaniko Muño bertsolari zana antxe ezagutu nuen, Gabon eskean.

Aizarnan ere iru edo lau urtean izan nintzan, eta beste nunbaiten ere izango nintzan, baiña kontuak aztuta dauzkat, noski.

Gabon eskea eta Santa eskea berdintsuak dira, bertsotarako: bi errimako koplak kantatzen dira bietan ere. Gaboneta-

ko koplak zortziko txikian, gutxi gorabera onelaxe:

Gabon eguna da-ta
gu eskera gatoz
zuei limosnatxo bat
eskatzeko asmoz.

Santa eskeko koplak, berriz, zortziko nagusian kantatzen dira:

Santa Ageda bezpera degu
Euskalerriko eguna,
etxe guztiak kantuz pozteko
aukeratua deguna...

Santa maitea gaur artu degu
gure bideko laguna.
Aren laguntzaz bete gentzake
egun ontako jarduna.

Kopla oietako batzuk, ba, buruz ikasitakoak izaten ziran, eta dira orain ere. Eta besteak, ate-ondoan arian-arian bertsolariak sortuak. Buruz ikasitako gutxi kantatu izan det nik. Naiago izaten nuen momentuan sortu eta kantatu.

Santa eskean ere erri eta auzo askotan ibilli nintzan, urteetan: Azpeitian, Zestonan, Errezillen eta abar. Baiña geien-geiena, Matxinbentako taldearekin ibilliko nintzan, seguru asko.

Eta begirazu nolako ibillerak egiten genituen. Urte batean, goizeko 6:30etan Azkoi-ti-Tolosa bidea egiten zuen autobusa artu eta eguna zabaldu baiño len Errezillen gi-

ñan, erriko alkate Manueltxoren ate ondolan baimena eskatzeko koplatur, oitura zan bezela. Eta gero, andik bera Ezama bailladako laiotz aldeko baserrietan koplatur, eta Trintxera azpitik Ibarbia bailladan zear berriz ere errira etorri giñan, meza nagusia amaitu zanerako. An kaleko eskea egin, eta kamiñazpi eta gaiñekoaldetik dauden Mendiola baserriak eta pasatur, arratsaldeko bostetarako Benta-Berrira eldu giñan, bazkaltzera. Ordurako otz-otz eginda zeuden babarrunak jan, eta andik Zurruntzola, Artañola eta ortik gora Akamendira. Urrena, berriz, Elosiaga auzoko baserrietan koplatur ondoren, zuen etxealdean aurrera Urrestillara, gauerdia pasata. Zuen etxean oilloa arrapatu omen zuen gure kuadrillako norbaitek. Baiña zuen aita ondo konturatur zan, andik egun batzutara berak esan zidanez. Eta gero, Torrea, Antxieta eta abar pasatu, eta Urrestillan don Luis Jauregi *Jautarkol* apaizaren etxepean koplatur genuen urrena. Oso bertsozalea zan don Luis. Baiña jendea esnatu gabe ibiltzeko eskatur zigun, oraindik oso goiz zala-ta. Andik, Altuna, Ibarzabal, Makibar, Ugarte, Atsaran (an beste oilloa arrapatu), Errekalde, Iraeta, Orbegozo, Ezama eta Aldagoititik aurrera, Nuarbeko kalea ere pasatur eta Errazti, Azukalte eta oietan koplatur eta eskatur, Matxinbentara eldu giñan. Pentsa zazu nun dagoen, e? An jendea meza nagusitik irte ten ari zan ordurako, eta Juanito *Takolo* eta *Ezkio Txiki* bertsolaria an zeuden gure zai, meza-osteko saioa asteko ordua zala-ta. Berandu gendozelako asarre samartuta zeuden, noski. Ango erromerian jo bear

zuen soiñujolea ere gurekin zetorren. Ala, presaka balkoira igo eta ango bertso-saioa egin genuen, ba, deskantsu aundirik gabe. Eta gero, bazkaltzera, apetito ederrarekin.


Bazkalondoan, ordu bi t'erdiak edo irurak aldera, artean ere etxe mordoska falta zala eta Largarate eta Kosturtze (Korostarzu) aldera jo genuen. Erritik oso aparte daude baserri oiek, mendian gora ordubete pasako bidea. Baiña joan egin bear zala, ba, eta joan giñan. Beno, Santa eskearen aitzakian ango neskekin ego-tarren joan giñan, egia esateko.

Baiña an etzan dana amaitu. Andik berriz ere Matxinbentara jaitsi eta, fuego!, bertsoan eta dantzan. Eta gero Azpeitiraiño, oiñez. Uraxe zan ibillera! Urrengo egunean kontu zarrak bai kontatzeko, baiña etzan jolasgururik izango. Alare, gustora. Zer nai dezu?

Largarateko bazkaria

Beste urte batean, ogeitalau bat ordu baserriz baserri ibilli ondoren, Nikolas Segurola fraile aundi orren jaiotetxe Largarate baserrira joan giñan, bazkalordurako. Garai artan, erriko zandari-jaietan gonbidatuak egiteko oitura izaten zan, eta an ari ziran bazkaltzen berrogei bat lagun inguru, ganbaran. Kaskabarra gogotik ari zuen, eta konfitte zuri-zuriak sartzen ziran teilla-zirriztuetatik, baiña berdin zan guretzat. Sartzeko esan ziguten, eta taldean sartu eta ederki asko bazkaldu genuen beintzat, beste danekin batera.

Largarate baserri ori erre egin zan gero, dakizun bezela; eta zerbait laguntzeko asmoarekin-edo, bertso-jaialdia antolatu zuten emen Azpeitian, 1992ko maiatzaren 29an. Neu ere antxe nintzan jaialdi orretan, eta, ala, “Joan daneko berrogeitaka urtean Matxinbenta eta Largarate alde oiek ondo ezagutzen omen dituzuek, Joxe...” gaia eman zidan Jose Luis Gorrotxategik, ni zirikatatu nairik-edo. Eta bertso auexek kantatu nituen:



Oiek al dirade denak
jakin nai ziñuzkienak?
Ikusiko det zenbat laguntzen
didan oroimenak.
Azken urtetako lanak
aizeak'izkit eramanak,
gaztetakuak bakarrik dauzkat
gogoratutzen zaiztanak,
gaztetakuak bakarrik dauzkat
gogoratutzen zaiztanak.

Ogeita lau bat orduan
etxerik etxe kantuan,
baiña banekien nora urbildu
bukatutakuan.
Ordubata inguruan,
an nintzan ate onduan,
frailean gisa bazkalorduak
nik ere zaintzen nituan,
frailean gisa bazkalorduak
nik ere zaintzen nituan.

Jo ordurako atia,
“barrena pasa zaitia”.
Sutondo ura nolakoa zan
nai det esatia:
laratzean tupikia
barbantuzuz bete-betia...
Garai aietan merezi zuen
Largaratera juatia,
garai aietan merezi zuen
Largaratera juatia.

Ura gonbidau mordua,
betetzen zan manduia!
Iruditzen zait lenbizi antxe
jan nula naikua.
Nikolas lagun urkua
an nuan ezagutua,
mutil koskor bat guri-guria
gilbor ederrakikua,
mutil koskor bat guri-guria
gilbor ederrakikua.

Baiña ez dizut asitako kontakizuna
dana ondo esan. Jan eta edan bapo egin,
eta gero bertso-saio bat egiñaz bazkalon-
do ederra pasatu genuen Largaraten, eta,
ala, berriz ere Matxinbentara jaitsi giñan,
arratsaldeko erromerira.

Baiña gorputza sosegatu ezin, ba, eta
gau artan zer egingo eta Pagola baserri-
raiño joan nintzan, neska laguntzera.
Tokitako puntan dago, ba, Pagola base-
rria! Largarate baiño ere urrutiago. Eta
andik Matxinbentara jo nuen berriz ere,
gure kuadrillako lagunak zai izango ni-
tuela-ta. An beste bertso-saio bat egin
genuen, eta gero Azpeitira, oiñez, tapa-
tapa. Goizaldea zan etxera eldu giñane-
rako.

Baiña dana eztizut ondo esan. Neska
laguntzera joan eta Pagola Etxeberriko
Astalaberrek zakurra xaxatu eta kozka
egin zidan, iztarretik. Orixe izan zan
illuntze artako propiña.

Andik egun batzutara, Inazio Artetxe
sendagillearen kontsulta berriko instala-
zioa egiten ari giñan emen errian; eta ala

errenka ikusi niduenean, zer pasatzen zitzaidan galdetu zidan. Esplikatu nion, ba. Eta begiratu ondoren, negu-garaiko otzak salbatu ninduela esan zidan; udan izan balitz, gorriak ikusi bearko nituela. Tetanoaren kontrako indizioa eman zidan, eta lanera!

Antxieta Arbiondoneko Inaxio Aizpurruk bizikleta-alkilerra zuen inguru artan, eta ari ere esan nion zer pasatu zitzaidan. Laster erabaki zuen ark zer egin: urrengo igandean, Santa Ageda domekan, bazkaria genuen eskean ibillitako kuadrillarekin Matxinbentan, eta berak lagunduko zidala, kañoi bakarreko eskopeta zar bat bazuela eta arekin konponduko genuela Pagola Etxeberriko zakur madarikatua. Esan eta egin. Urrestillatik gora, Otalaztegi aldean aurrera, Loretoko gaiñean zear Pagola baserriaren ondotik pasatu giñan. Eta neri kozka egin zidan zakurra an asi zan berriz ere zaunka eta zaunka, arro asko.

Asi zan, bai. Baiña eskarmentu ederra eman genion, gizarajoari! Bere arma zorrotz erabili zuen Inaxio Arbiondok. Eta Pagola-Etxeberriko zakurrak etzion berriz inori orzkarik egingo, seguru asko...

Gero iskanbilla batzuk izan genituen, zakurra orrela akabatu genuelako. Baiña nik ere desafio zorrotza egin nion *Ashtalaber* atsoari, eta dana ortan gelditu zan.

Nikolas Segurola fraileak honako puntu hauexek jarri zizkion Joxeri, 1989ko otsailaren 4an, Matxinbentako elizan egin zuten jaialdian:

Nik.: Noiz etorri ziñaden
aurreneko aldiz?

Liz: Berroita iru urte,
esango'izut egiz.
Naiz neketan ibilli
kale eta mendiz,
alare deseaten
etortzeko berriz.

Nik.: Len etortzen ziñaden
Santaera eskera...

Liz: Oitalau bat orduko
etxetik etxera.
Zuen baserrira're
iñoiz bazkaltzera;
barbantzu-jan aiekin
oroitzen al zera?

Nik.: Gaur ainbeste kezka
etzendun orduan...

Liz: Amets bakarra denok
izaten genduan:
ardi zarrik ikusten
banuan kakuan,
lau bat egun ementxe
pasatzen nituan.

Nik.: Zer egiten zenuen
ilunabarrian?

Liz.: Neska launtzera igual
epoka zanian.
Errenka ibilli nintzan
bolada batian,
Astalaberren zakurrak
eldu zidanian.

Nik.: Beraz, pasatu ziñan
aren atarian?

Liz: Atso sorgin zar ura
an zegon guardian.
Lau ozka egin zizkan
gero ipurdian...
Akabo eldu balit
nai zuen tokian.



Urteak joan eta, berriz ere, Santa eskera irten giñan 1996an, lengo
usadio zarrean, baina kotxean”.

(Arg. Pepe Gil - Lizaso)

Berriz ere...

Urteak pasatu ziren, eta Santa eskeko kontuak alde batera utzirik zituen Joxek. Baina 1996an, Mandubi gainean kinto-bazkaria zuten batean, hango jatokian dagoen orain berrogeita hamar urte inguruko Santa Ageda eskeko taldearen argazkia ikusi zuten, eta berriz ere eskera irten behar zutela erabaki.

Bai, Joxe Aundiak (Joxe Aranburu arakiñak) orrelaxe erabaki zuen, ba. Eta, esan eta egin. Talde ederra osatu genuen: Joxe aundia bera, Yurrebaso, orain Zumarragan bizi dan *Altzorbe* bertsolaria, guregana bildu zitzaizkigun Agirre eta Lazkano eta neu berriz ere elkartu eta or irten giñan Santa eskera, usuario zarrean. Koplari asko, eta *Xafre* zaldibiarra genuen soiñuarekin. Baiña orain berrogeita hamar urteko kuadrilla aietatik jende asko falta zan, arrania!

Goizeko 10:30 inguruan Landetan asi giñan; eta gero, Urrestillan Antonio Arana *Auntxarenean* kantatu genuen. Soiñua artu eta kuadrillan sartu zitzaigun Antton bera ere, angoa egiteko, gutxienez. Gero, Urrestillatik gora Nuarbeko kaletan kantatu, eta Matxinbentatik Mandubiko gaiñeraiño joan giñan, eguerdirako. Mandubizarren kantatu genuen azkenengo.

An zintzurra ondo busti, eta Matxinbentara jaitsi gintuzten, bazkalordurako. Gure emazteak ere eramane zituzten aruntz, eta egunpasa ederra egin genuen, benetan: bapo bazkaldu, eta poltsazai

izan ziran Yurrebaso eta Zabaleta *Karpok* angoak ordaindu eta beste ogei milla duro pasa sobratu zirala esan zuten. Eta, ala, illuntzean Landetan afaldu genuen berriro. Alare, dirua sobratu omen zan. Zer nai dezu?

Usario zarrean ibilli giñala esan dizut, baiña ibillaldia autoan egin genuen, ez etxez etxe kantatuz eta oiñez, e? Oiek lengo kontuak ziran, sasoia genuen garaikokak...

Ondarretako kartzelan

Berriz ere hamaika berriketaldi egiteko aukera eman digu liburuxka honek, Joxe eta bioi. Bere gaztetako kontuak eta zahartzarokoak, zuriak, beltzak eta gorriak, herrikoak eta auzokoak, denak astindu ditugu, gertakarien kronologiari gehiegi lotu gabe. Eta tartean, garai bateko kartzelako kontuak ere astindu ditugu ederki, erdizka bakarrik nekizkien nik-eta. Banekien hilabete batzuk Donostiako Ondarretan egin zituela, eta hura nolako ostatua zan galdetu nahi, ba. Eta azkar erantzun dit, bertso batean:

Jakin nai dezu nolakoa zan
Ondarretako kartzela.
Erantzuera emango dizut:
gustagarria etzela.
Euria bazan, aterpea ta
eguzki bazan, itzela...
Baiña barrengo bizimodua
ikuillu baten bezela.

Ara, ez dauka beste munduko misteriorik kartzela-kontu orrek, batzuk ala uste izan badute ere. Solidarioak edo erresistentziko jendea zan, itxura danez, eta erriko kale-bazter askotan paskiñak jarri zituzten, ormatan. Etzan orain aiña zirriborro eta propaganda-paper izaten, izan ere. Eta Azpeitiko jauntxoak liztor gorriak baiño petralago eginda or zebiltzan bateren bat arrapatu nai eta eziñean.

Otz ikaragarria eta elurra zan batean, *resistencia vasca* izeneko paper batzuk ikusi nituen orman, kalean bera nentorrela. “Zer kristo ote da, ba, au?”, esan nion neure buruari. Beti bezela Tomase-neko tabernan sartualdi bat egin, beste bat Pikuanean, eta orrela ibilli nintzan, baso-erdiren bat edo beste artuz; eta gero, etxera. Berandu samar izango zan, askotan bezela. Isil-isillik logelara joan, eta gure aita petral-petral eginda or etorri zitzaidan, esanez:

—Auxe dek ordua etxera etortzeko! Nun ibilli aiz orain arte?

—Ortxe, tabernan egon gera, kontu kontari. Beti bezela, noski.

—Ba, guardia zibillak ire billa etorri eta or zeudek. Euk jakingo dek zer ibilli aizean.

“Aiba la puñeta!”, pentsatu nuen nere-kiko, erdi ikaratuta. “Nik zer egin det, ba, oiek nere billa etortzeko?”

Ala, etsi-etsian joan nintzan. Eta artu eta eskuak lotu, eta lelengo kuartelera eta gero erriko inspekziara eraman ninduten. Eta an kalean irakurri nituen paskin aiek nork eman zizkidan galdezka asi zitzaizkidan erriko serenoa eta izendatuko ez dedan beste alkahuete zikin bat. Ez nekiela zer paskiñi buruz ari ziran erantzun nien. Zerbait irakurrita nengoen, esan bezela, baiña nik ez nekien nundik norakoak ziran paskin oiek eta ez nork jarri zituen ere. Baiña aiek bein eta berriz galdera berdiña egin eta nik ukatu, an

jardun genuen. Dalako paskin oiek, Azoka plazatik gora Miserikordiko estratatik Jakaneko aldera doan bide orretan omen zeuden. Baiña ni ez nintzan andik pasatu. Eta artean ez nuen sekula parterik artu orrelako ekintzatan, gaiñera. Gero bai, askotan. Eztakit nun ikurriña jarri bear zala edo badakit nun pankarta zabaldu bear zala, an ibiltzen giñan. Baiña beste orrelakorik ez nuen egin sekula, artean.

Aiek sinisten ez, ordea, nik esandakorik; edo ez-sinistu planta egiten zuten, beintzat. Serenoa bera Zelailuze aldera joan zanean etzegoela an paskiñik, eta gero ni andik pasatu nintzanean azaldu zirala esaten zidan; gaiñera, txamarra marroi bat neramala soiñean, ederki asko ikusi nindute-la... Ura zan erretolika atera zidatena! Baita, blist-blast!, iru-lau belarrondoko eman ere. Baiña nik ez nekiela ezer, eta ez neukala txamarra marroirik, soiñean neramana bakarrik neukala, beste norbait izango zala... Egiñalak egin nituen aiek konbentzitu nairik. Baiña alperrik, alare. Norbait arrapatu nai zuten, eta kulparik batere etzuen erori aien zepoan, tonto-tonto.

Gero, guardia zibillen kuartelera eram ninduten, berriz ere. Eta bizkarra berotu eta erriko kartzelara. Izutu nintzan gogotik. Zakurraren salarako balio etzuen interrogatorio antzeko bat egin zidaten. Eta gero, Donostira, Ondarretako kartzelara, andik bi-iru egunera. Gaitzerdi, ala ere. Zuzenean Gobierno Zibillera eramatea okerrago izaten omen zan, an jendea gogor jipoitzen zuten-eta.

Ni Ondarretara eraman ninduten, beintzat, epaille militarra Madrilen omen zala-ta. Galdeketak eta interrogatorioak egunero egiten zizkidaten an ere. Baiña beste suerte bat ere izan nuen: nik kastellano askorik ez nekien eta Mariaezkurrena izeneko ofizial bat jarri zidaten interpretelanak egiteko. Apaiz izan eta gero gerra-denboran militarrekin ibillitako nafarra omen zan jaun ura. Eta dexente ondo konpontzen nintzan berarekin. Etzuten danak famatzen, baiña tira. Arrituta zegoela nerekin esaten zidan:

—Zuri ez dizue ezeren kulparik aurkitzen, eta eztakit zer egiten dezun emen. Zu norbait popular samarra izango zera bearbada, ez? —esaten zidan zerbait jakin nairik-edo.

Amazazpi-emezortzi urte izango nituen nik garai artan, eta ez nuen ark uste bezela popularra izateko motibo aundirik. Baiña zerbaiten susmoa bazuen ofizial nafar arek.

—Nik zerbait arraroa ikusten det emen — esaten zidan, berriz ere.

—Eztakit, ba, zer ikusiko dezun. Nik eztet Azpeititik iñora irten oraindik. Baiña gure erriko alkatearen denuntzi orretan zerbait oker dagoela esango nizuke. Or diskuidoren bat dago. Eta orrek azaldu bear du lenxeago edo geroxeago. Ikusiko dezu.

Benetan ari nintzaion. Nik banekien an tranparen bat zegoela. Ni ez ninduen ezagutzen Azpeitiko alkateak; eta gerra asi zan egunean armatuta erriko plazan

lelengo ikusi ninduen gaztea ni nintzala esaten zuen denuntzian. Baiña ori esaten zuenak ondo zekien gezurretan ari zala.

Ala, lelengo juizio artatik libre gelditu nintzan, beintzat. Eta poztu nintzan kale-rako moduan izango nintzala pentsatuta. Baiña nere usteak erdia baiño geiago ustela izan. Lendabiziko epaiketa ura, epaiketa militarra omen zan. Eta gero berriro epaitu bear nindutela esan zidaten. Epai zibilla egin bear zidatela, alegia.

Bitartean, egunak eta asteak luze egi-ten zitzaizkidan Ondarretan. Errira infor-me berriak eskatzen ari zirala esaten zidan Mariaezkurrena jaunak, baiña ni an nengoen ez atzera eta ez aurrera. Ark esan zidanez, gure erriko alkatearen in-formean garbi zetorren gerra asi zan egu-nean erriko plazan ikusi nindutela, ar-maturik.

—¿Es verdad eso? —galdetu zidan bekoz-ko beltz eta zorrotzez epaille zibillak.

—¡Eso no es verdad! —erantzun nion, ne-kien erdera kastizoan.

—¿Cómo que no es verdad?! —berriz ere berak.

Al nuen bezela esplikatu nion, ba, ni 1927an jaio nintzala, eta gerra asi zane-an bederatzi urte bakarrik nituela artean, nola nai zuen, ba, urte oiekin armaturik erriko plazan iñork ikustea... A zer guda-mutilla ikusi ninduen Azpeitiko alkate jaunak, armatuta!

—¿Cuántos años tienes ahora? —galdetu zidan urrena, zorrotz.

—Tengo diecisiete años —erantzun nion.

Ondo oartu zan eskuartean zerabilen informe ura gezurretakoa zala. Eta juez jauna berotu zan, derrepente! Errenteriar bat zeukan sekretario eta Mariaezkurrenari deitzeko agindu zion, aren laguntasuna bear zuela-eta nere izkuntza ondo konprenditzeko. Bere iritziz, Azpeitiko erria etzan, ba, New York, jendearen berri zuzen jakin eta informeak zeatz egiteko! Mariaezkurrenak berak ere orixe esaten zion juezari: an zerbaiten okerra zegoela, eta informazio oker baten oiñarrituta ari zirala ni epaitzen.

Nik badakit an zer pasatu zan, gutxi gorabera. Beobiderekin nebillen lanean aldi artan, eta eguneko lanak amaitzean Etxezurikoan sartu oi nintzan baso-erdi bat ardo edan eta denborapasa. Txapatarrak, Mitxelenatarrak eta orrela erriko abertzale eta ezkertiar jendea antxe biltzen zanez, aiekin nastuta nengoela uste zuten, iñundik ere. Etzegoen beste esplikaziorik.

Baiña, kontuak kontu, illabeteak pasatu nituen espetxe nazkagarri artan. Eta epaiketa zibilla egin ondoren ere antxe nengoen Pazkoakoa egiteko garaia etorri zan arte. Gogoan daukat aita Manzisidor jesuita nola etorri zan misioak ematera, eta konfesatu nai al genuen galdezka. Kartzelako kapillau zegoena ere azpeitiarra zan, Etxezurikoa.

Itzaldia patioko eskail-burutik egiten zituen Manzisidorrek. Eta Patxi Az-

kargorta, Jokin Intza, Martin Arangu-ren, Bittor Mujika eta Felipe Agirregabi-ria bergararrak eta Donamariko Pernan-do elkarrekin euskeraz ari giñala oartu zan, eta an etorri zitzaigun, berriketara-ko gogo ederrarekin, euskaldunak al gi-ñan galdezka. Eta Pazkoakoa egiteko konfesatu nai al genduen galdetu zigun, bereala. Nik nere erantzuna zorrotz eman nion:

—Ez, ez. Pazkoako pasara ori Loiolan egin izan det nik orain arte, eta emen-dik irtetzean, antxe egingo det berriz ere. Eztaukat emen konfesatzeko gogo-rik eta asmorik. Bestalde, zuk esan di-tuzun oiek denak alperrikakoak dira emen barruan egoteko. Bai al dakizu emen nola gauzkaten?

Zein abogadurekin nebillen galdetu zi-dan urrena. Eta ez nekiela erantzun bear izan nion, ez nekien-eta. Gero jakin nuen geure erritar Perez Arregiren semeak aur-kitutako norbait omen zala. Semea ez zuela ezaguten esan zidan Manzisidorrek, baiña aita asko ezagutzen zuela. Itz egin-go zuela berarekin.

Egun artako gure berriketaldia artan amaitu zan. Baiña urrengo egunean go-saltzera jaitsi giñanean, asko uste ez nuen poza eman zidaten:

—Lizaso Mendizabal, José: ¡queda en li- bertad! —esan zuten altabozetik.

La puñeta! Ez nintzan aserre!! Ala, al nuenik azkarrena artu bearreko danak artu, lagunei agur esan eta perrak jaso nituen andik, badazpadare atzera begira-

tzeko astirik gabe. Aita Manzisidorrek libratu izango ninduela pentsatu izan det geroztik beti. Orrela bada, etzidan mese-de makala egin, kulparik gabeko errua ordaintzen nengoen-eta.

Baiña etzan dana orretan amaitu. Libre nintzala, baiña “libertad provisional” omen zala esan zidan kartzelazain señorito batek, eta kontuz ibiltzeko.

Gero, amabostero-amabostero erriko kuartelera presentatu bear izaten nuen. Eta egun seiñalatueta, Jose Antonio Agirrereren illeta eta orrelakotan, zuzen asko otsegiten zidaten sardinzarrak. Oso aitzakia txikia bear izaten zuten aiek. Onak ziran, ba, Mangas jauna eta konpaiña!

Aipatu dizudan illeta-egun artan, nere pasaporteaz zerbaite oker zegoela eta kuartelera entregatzeko abisatu zidaten. Eta, tonto-tonto, an joan nintzan, atzera laster eskuratuko nuela pentsatuta. Bein bear-eta, ederki asko engaiñatu ninduten.

Orixe izan zan kartzelako istoria guztia, eta nik egindako pekatua. Ez geiago eta ez gutxiago. Ortik atera kontuak.

Urteak joan dira, eta oraindik ere urtero bildu eta lagunarteko bazkaria egiten degu Ondarretako otelean egon giñanok. Alakoak ospatu bearra dago, noski. Alare, bost bergarar aietatik bi bakarrik gelditzen dira: Patxi Azkargorta eta Jokin Intza. Beste irurak il ziran. Bakantzen ari gera, beraz.

Espetxetik irten eta handik urte batzuetara hango bizimoduari buruz bertso batzuk jarri zituen Joxek; dozenerdi bat-edo, izeba batek eskatuta. Eta berari eman zizkion, eskatu bezala. Baina orain bildumarako bertso haien bila hasi eta arrastorik ez inun... Ondorengo hauek geroxeago jarritakoak dira. Halare, orain arteko kontakizunaren laburpen egokia direla nago. Hementxe dituzu, gustora irakurriko dituzulakoan.

Otsailleko gau luze baten
gaueko ordubatian,
aita etorri zaidan gelara
apuro estu batian.
Asarre zegon, galdetu zidan:
“zer ibilli aiz kalia?”
Txapel okerrak armaturikan
ire zai zeudek atian!”

Joan nintzan ta galdetu nien:
“Zer nai dezute nerekin?”
Erantzuera eman zidaten
bekozko illunarekin.
Eskuak grilluz lotu zizkaten,
ez nezaioten aldegin:
“Maltzurkeriak irtengo ditek,
etorri adi gurekin.”

Inspekziara eraman ninduten
an zeuden agintariak.
Mai-anka bati lotu zizkaten
grilluz neuzkan esku biak.
“Orain galderak eingo dizkiaiu,
baiña erantzun egiak.
Egirik esan nai ezpadiguk,
artuko dituk euriak!!!”

Paskin mordoaz azaldu baitzan
ia-ia erri guztian,
kabo bibote luzedun batek
aik erakusten zizkian.
Bazekilla nik jarri nittula,
ta ni berriz ezetzian...
Txamarran autsik baldin baneukan
ederki kendu zizkian!

Goizean pasa ninduten andik
errian zan kartzelara.
Goiz ta arratsalde, iru egunez,
beti tratamentu bera.
Nere tontuan antzeman nion
“gauza zeak okerrera!”
Berrero grilluz lotu ninduten,
ta andikan Ondarretara.

Ondarretara sartu orduko
kendu zizkaten grilluak.
Zelda xar baten sartu ninduten,
baziran apopilluak:
bi mixerable, ta biak ziran
alkargan maiteminduak...
Ikusten ziran narraskeriak
ez dira esatekuak.

Andik noizbaten libratu nintzan
ai nintzala, ai nintzala.
Iruditzen zait apaiz jaun aien
laguntza izango zala.
Beste bi lagun azaltzen ziran
lagun baziran bezala...
Usaian ere antzematen zan
txibato utsak zirala.

Uraxe poza kastigutako
zeldatik ateratzian!
Eguzkia're ikusitzen zan
patiora irtetzian...
Ustegabeko ezagunak'e
nunaitik azaltzen zian.
Latratsa franko bazegon baiña
jatorrak ere bazian.

Bost bergaratar urbildu ziran
eta bostak euskaldunak,
aiek'e nunbait orma zarretan
paperak jartzen jardunak.
Ordurartean neretzat aiek
etziraden ezagunak,
baiña orduan egin giñan gu
bizi guztiko lagunak.

Beste lagun bat ere banuen:
Donamariko Fernando,
kaskar zar artan erabillia
makiña bat kontrabando.
Arek dirua parra-parra zun,
ta kartzelan ere ondo...
Oso jatorra zan, baiña egirik
etzuen iñoiz esango.

Azpeitiko kartzela zaharra ere probatu zuen Joxek, gaztetan. Eta gai horrekin lotuz, 1983ko otsailaren 12an, Txapel zenaren omenez egindako jaialdi batean, Lizaso, Altuna eta Larrañagari kartzela zaharraren gai horixe eman nien, honela: *Gure herrian bada huntzak eta sasiak hartu eta erdi erorian dagoen etxe zahar bat. Herritar askori egokitu zaio inoiz edo behin hantxe lo egin beharra. Zer egin orain Azpeitiko kartzela zaharrek?*

Liz: Ai, Joxemari, erantzungo'izut
sentitzen dedan bezela:
zuk esan dezun lo-toki ori
ez da lo-toki epela!
Nola arraio oroitu zaizu
kartzela or dagoela?
Ori izan zan nik lendabizi
probatu nuen otela.

Alt: Gaitzesten asi bearako det nik
probatu zendun otela;
eta gaur ere nik ez nuke nai
ikusi leno bezela.
Euskalerrian badakizute
kartzela ugari dela.
Orri bonba bat ipiñitzera
laster nijoa bestela.

Lar: Beraz, Lizaso, aspaldi sartu
erriko otel berrira.
Pentsatutzen det orain dagola
merezi zuen neurrira.
Neu ere inoiz pasatutzean
egon izan naiz begira...
Naiago nuke ori bezela
denak utsikan balira.

Liz: Garai batean errespetoa
izango zan Azpeitian.
Denak beldurrez ibiltzen ziran
kalean eta mendian.
Azkenerako zelebren samar
jarri gera justizian...
Orregatikan kartzela ere
dago ia erorian.

Alt: Arrazoi dezu ta ni ez noa
zuri itzikan kentzea.
Al dala oin'e biziko gera,
Lizaso, orduko antzea.
Nabaitutzen det emen gaudela
guztiok tonto antzea...
Ona litzake kartzela orrekin
eitea kultur etxea.

Lar: Kultur etxea ein bear dala
askozaz bide obian.
Nik ere lagun egin nezake
ain apaltasun noblian.
Oi ein zanean biziko ziran
ain errespeto pobrian...
Bota dezagun, len'e kartzelak
munduan daude sobrian.

Liz: Txapel aitonak an egon zala
aspaldi esana neri.
Leno arentzat izandu zana
iritsirikan neroni.
Bolada ontan sasia beste
gauzik etzaio agiri.
Aspaldi ontan nabaitzen zaio
auntzentzat ainbat janari.

Alt: Misikordiaz nago pentsatzen,
gera da txikiegia.
Kartzela ori dagon tokian
apain antzeko tokia.
Beste bat ortxe eratutzea
litzateke egokia.
Kartzelak baiño egingo luke
askoz funtzio obia.

Lar: Zenbat maitale duen kartzelak
ez al dago nabarmena?
Egia dala pentsatutzen det
orain esaten detena.
Urte askoan dago bistan ta
orrek ematen dit pena.
Ain monumentu txarrakin dago
erriko leku onena!

Liz: Ai, Larrañaga, nere bertsoa
eraman zazu goguan:
ez al dakizu kartzela orrek
zenbat nagusi dituan?
Amasei erri justu-justuan
biltzen zaizka partiduan.
Erriak berea izandu balu,
aspaldi salduko zuan.

Alt: Arrazoi ona billatua det,
Lizaso, zure mintzuan.
Gazte eta zar gaur Azpeitian
gabilitza era zintzuan.
Urrutitikan nabaitutzen da
ez gaudelako itsuan,
ta leku oiek bear dirade
erriaren zerbitzuan.

Lar: Kartzela ortan garai batean
askotxo ziran alkartu.
Ordua zan ta azkenerako
bere etxea baztatu.
Lenago ere gauza onikan
ez bait zun gureganatu.
Mesederikan iñorentzat ez
ta gorrotoa indartu.

Txapelketa eta sariketak

Joxe ez da izan txapelketa edo sariketazale handia, azkenengo urte hauetan. Baina lehenago, norgehiagoka bat baino gehiagotan parte hartu zuen, noski. Soldaduzkara joan aurretik, lehenengo; edota soldaduzkatik etorri ondoren ere bai. Txapelketa kontuak direla-ta, ondo gogoan dut bere seme Sebastianek 1983an Azpeitian egindako jaialdi batean jarri zion gaia, eta aitaren erantzun bizkorra. Honelaxe zioen gaiak: *“Zuen aita zergatik ez duk joaten txapelketara?”*, galdetu didate hor, aita.

Beraz, entzuten dezu
askoren autikan?
Orregatik etzaio
ardurarikan.
Iñorentzat eztaukat
nik gorrotorikan.
Ez naiz joaten eta
orra zergatikan:
gazteari lekua
uzteगतिकान.

Galdera oiengatik
etzaio ajola.
Oraindik zutik dago
etxeko arbola.
Zuk esango dizkatzu
milla parabola.
Eta eduki arren
dobleko eskola,
ez gero pentsa aita
bildurrez dagola.

Semia, aita ezta
gizon kobardia.
Ni baiño obeagoak
beste bi badia:
Agirre kaskar au ta
Lasarte berdia.
Eta bikote ori
azaltzen badia,
zuen arrokeriak
zertarako dia?

Munduan izan arren
ainbeste iritzi,
iñor beartzen beintzat
etzaitez asi.
Nik iñori ez diot
iñoiz galerazi.
Jun ta al dan meritu
geien irabazi,
juan nai ez dutenai
pakean utzi.

Baina, halaxe, bertsoak bota eta esertzera zihoala,
“...aita zeralako errespetoz barkatzen dizut, baina ez
gehiago zeralako...”, desafiatu zuen semeak. Arnasa
hartzeko astirik gabe silatik jaiki, mikroa hartu eta ho-
nela erantzun zion, dudarik izan ez zezan:

Semea utziko det
orain jakiñian:
sasoi ederra dezu
gaurko egunian.
Erreztasun pittin bat
dezu mingaiñian.
Nik'e urtiak baitut
biotz sakonian...
Probatuko gerade
zuk nai dezunian.

Nolanahi ere, semeak egun hartan egin zion galde beretsua egin diot Joxeri behin baino gehiagotan. Eta txapelketa eta sariketari buruzko zehaztasunak argi eta zorrotz eman dizkigu, nahi duenak uler ditzan.

Soldaduzkara joan aurretik txapelketa izeneko batean izan nintzala esan dizut lenago. 1949 urte asieran izango zan, oso oker ezpanago. *Gazteentzako txapelketa* izenean antolatu zuten, baiña oso gazteak etziran bertsolariak ere baziran an: Patxi Larrañaga *Barbero*, Lasarteko Etxaide, Berasategi *Elio*, etab.

Lelengo kanporaketak Eibar eta Donostian egin genituen. Eta finala, Zarautzen. Manuel Lasarte Eibarko saio artantxe eza-gutu nuen. Eibarren lelengo saria eman zidaten, gaiñera. Ondoren, Patxi *Barbero* eta Uranga *Azkonar* gelditu ziran. Zarautzen egin zan finalean, Astigarragako Inazio Berasategi *Elio* izan zan txapeldun. Manuel



Eibarko Bertsolari Afizionatuen Txapelketa-1949

Lizaso (Azpeitia), Etxaide (Lasarte), Patxi Larrañaga (Azkoitia), Oiarbide (Lasarte) eta Manuel Uranga *Azkonar*. (arg. J. Lizasok utzia)

Uranga Azkonar gelditu zan bigarren; neri, irugarren saria eman zidaten; eta Manuel Lasarteri, laugarrena.

Soldadutza eginda gero, beste txapelketa batean ere izan nintzan. 1952. urtean-edo izango zala nago. Eta emen Urolalde onetatik Eusebio Eizmendi *Txapel* eta ni giñan. Zepai Tolosaldeetik joan zan, ez-takit zergatik.

Gipuzkoako eliminatoriak Azkoitian eta Tolosan egin ziran, lelengo. Eta azkenengo jaialdia, finala, Donostiako Urumean egin zan. Jende asko bildu zan bertsoak entzuta,

pelotalekua bete-bete egiteraiño. Orrelako txapelketak jende asko biltzen dute orain, baiña orduantxe ere giro bikaiña izaten zan, norgeiagoka eta apustu-giroan. Etzan joan-etorri-rako orain dagoen erreztasunik, baiña jendea gogotik mugitzen zan.



Lizaso Eibarko txapelketan. 1959
(Sendoa)

Gipuzkoako Albaiteroen elkarteko buru zan don Benantzio Rekalde, Astigarra-ko sakristau Txomin San Sebastian eta Hernaniko Antonino Pagola ziran juraduko, orduko kontuak zearo aztu ezpaditut. Basarri eta Uztapide ere an ziran, baiña ez txapelketan, gaiak eta puntuak ematen baizik.

Etzan askotan izango baiña gure aitona Juan Joxe ere antxe izan zan, bere besotako billoba animatu nairik edo. Jaialdi on samarra izan omen zan. Eta amaitu zanean, aitona eta etxekeongana urbildu nintzanean, an etorri zitzaigun don Benantzio ori. Nik ez nekien, baiña Zestoan beterinario egona zan nunbait eta gure aitona eta ark alkar ezagutzen zuten, noski. Ala, berriketan asi ziran, eta:

—Aizak, Juan Joxe: Lizaso gazte onek zer ikustekorik dik irekin? —galdetu zion.

—Neure billoba dek. Gure Basilioren semea —erantzun zion.

—Ba, ederra egin izango diagu. Ori aurrez jakin izan bagenu... Gaur orrentzako beste leku bat genian, baiña Mitxelenari eman zioagu, oiartzuarra dala-ta... Zergatik ez didak ezer esan aurrez?

Elkarrizketa artan beste testigu bat ere bazan, noski. Uztapide antxe zegoen, begira-begira, belarriak tente asko zituela, aiek zer esaten zuten erreparatzen. Eta disimuloz, begi zearka, zera esan zidan:

—Joxe, aditu al dek ori?

—Bai, belarri onak dauzkat, eta ondo entzun det.

—Etzidak grazi aundirik egin emengo erabakiak. Nere iritzian, txapeletik gertu intzan, eta orain ori entzun bear?

Orduko ura orrela amaitu zan beintzat. Gipukoako txapeldun, Joxe Joakin Mitxelena izendatu zuten; bigarren, Paulo Zubiarrain *Hernani Txikia*; eta neri irugarrena eman zidaten. Baiña, la puñeta!, nik ez dakit merezi ez nuen saria eman zidaten, ala merezitakorik ez zidaten eman. Duda orrekin gelditu nintzan sekula betiko.

Urte artan bertan, Euskalerra osoko txapelketa Sarako trinketea egin zan. Eta bertsolari pilla aundi samarra bildu giñan: Basarri, Uztapide, Mitxelena, Lexoti, Lasarte eta neu, mugaz emendik. Bestaldetik, Etchahun, Errexil, Mattin eta Xanpun. Orduko txapela Mattini eman zioten, kontuak oker ezpadauzkat.

Beste desafio bat ere egin zan Baigorriin urte artan, mugaz alde batekoak bestekeen kontra. Alde onetako irukoa Uztapide, Lasarte eta nik osatu genuen. Eta bestaldetik, Xalbador, Mattin eta Zubikoa izan ziran. Sari ura emengoak irabazi genuen. Gero bueltakoa Billabonan jokatu zan, igande arratsalde batean, eta ura ere guri eman ziguten.

Txapelketa eta sariketaren eskarmen-tua izateko adiña aldiz ibilli naiz, ikusten dezunez. Baiña beti gelditu zait alakoxe zerako zera txar bat...

1967ko txapelketa

Ahaleginak eta bi egin zizkioten 1967ko Bertsolari Txapelketa Nagusira joan zedin, baina ez joateko erabakia hartuta zeukan, urtean hainbat jaialdi eta lan ematen zion herriak joatea ondo merezi zuela aitortzen badu ere. Itsuskeria asko ikusita baitzegoen norgehiagoka horietan.

1967ko txapelketa ura baiño egun batzuk lenago, karga-jasotzaileak ziran Gernikan, eta ikustera joan giñan Biko-lako Manolo, Akoteiko Laxaro eta irurok. Eta Balendin Enbeitarekin topo egin eta, iñori ez esateko baiña urrengo txapelketan gauzak zuzen samar egiten baziran, txapelduna alako bertsolari izango omen zala kontatu zigun. Erabakia artuta omen zegoela. Sinistek lanak zituen, baiña ez genion inportantzia aundirik eman. Ni eninduten tartean arrapatuko ez, eta or konpon!

Andik gutxira, Iberduerorentzat lan batzuk egiten Iraeta aldean ari giñala, an etorri zitzaidan zentraleko neska, gizon batzuk nere billa etorri omen zirala eta mesedez tabernaraiño joateko esanez. Besteak lanean utzi, Laxaro Akoteiri nerekin etortzeko eskatu eta joan nintzan, ba. Zein izango eta Zarauzko beterinarioa, Erzilla jauna eta beste gizon bat, kazetaria. Periodista ez nuen ezagutzen. Baiña gu izketan asi giñanerako, paper batean notak artzen asi zan, azkar. Oñatibia jaunak itza artu eta galdera batzuk egin bear zizkidala esan zidan. Asi zan, ba:

—Joxe, egia al da lengo batean Gernikan aurtengo txapelketan nobedade gogorak izango dirala esan zizula norbaitek?

Nik ez nuen saltsarik nai, txapelketa-kontuak makiña bat buru-auste eman izan zidaten lenago ere-eta. Baiña Laxarok itza artu eta erantzuna laster eman zion:

—Bai, neu naiz testigu, Joxerekin batera antxe nintzan-eta.

—Bejondaiala, Laxaro, portatu aiz! — esan nion. Eta aurrean notak artzen ari zan kazetariari papera kendu eta, rist-rast!, puskatu nion.

Konpromiso txarreko billera zan ura neretzat. Pentsatzen jarri, eta Gernikan guri esan zigutena guk iñori esan gabe, aien ezaguerara eldu zan, itxura danez. Eta zepoan arrapatu nai nindutela iruditu zitzaidan. Aiek ez ziran parte onez etorri guregana.

Juraduko jendeak badaki zer egin bear duen, eta ezta tranpa egitera joaten, seguru nago. Baiña tartean naikoa da puntuak puztu edo ustuko dituen norbait, eta beste guztien kontuak desorekatzen ditu orrek. Naiko zer pentsatu eman zidan neri don Benantzio Rekalde jauna-rekin Donostian gertatu zitzaidanak.

Sari-kontuan ere konponketa xelebrea egin izan dira, noski. Joanak joan, ez-tizut izenik esango, baiña nik ezagutu det txapelketara joan eta iru milla duroko bigarren saria irabazi baiña zortzi milla duroekin etxera joan dan bertso-lariren bat. Eta txapeldun izan zana bost milla duro-

ko lelengo saria irabazi eta diru orrekin bakarrik gelditu. Pentsatuko dezue zer tratu eginda zeuden antolatzaileak. Ni ez naiz esate aldera ari, ez, ez. Lekukoak badaude eta bego orretan!

Beste kiroletan ere orrelakoak gertatzen dirala? Bai. Baiña inork ez dezaidala esan bertso-txapelketa askotan aldez aurreko konponketarik izan ez danik.

1968ko sariketa

Eta gero, erdi behartuta eraman zuten 1968an Anotako pelotalekuan egin zen 100.000 pezetako sariketa famatu hartara. Ondo zekien irabazteko gutxi eta galtzeko asko zeukala. Eta halare joan egin zen, horrelaxe eskatu zioten-eta.

Ara, egia esango dizut: Sariketa ark oso ao-gozo txarra utzi zidan neri, eta beste askori ere bai, seguruenik. Dana dala, orduko antolatzaileak berriz ere bilduarazi gintuzten Lasarte, Agirre, Lazkano eta neu. Gogoan daukat igande eguerdia zala, eta oso eguraldi txarra egiten zuela, gainera.

Alaxe, bildu eta izketan asi giñan, edo asi ziran. Eta asto zarrari bota zioten zamarik astunena, Oñatibia eta konpaiñiak. Izketan asi eta, zapla!

—Dana zure goraberan dago, Joxe. Zu joaten bazera, beste auek ere joango dira. Zure goraberan dago, ikusten dezun bezela —esan zidan.

—Nere goraberan?! Nik ez diot sekula inori esan txapelketara joateko edo ez

joatekorik, Manu. Eta orain ni al naiz errudun? Bakoitzak nai duena egin dezala, erabakiak artzeko ainbat bagera-eta —erantzun nion, asarre.

Bagenekien aurreko txapelketako emaitzak gogoan zituela jendeak, eta zenbait bertsolariri satisfazio pittin bat eman nai ziotela, nola edo ala. Ori bidezkoa izango zan, bearbada. Nik ez tet ezetzik esango. Azkenengo urtetan txapelketara joaten etzan beste norbaiti ere aukera eman nai zioten, eta ori ere oso ondo zegoen. Baiña orrela ateratzen diran kontuak sekula ez dira nai bezela izaten azkenean. Nik pentsatzen nuen, esate baterako, Xalbador etzala atzean gelditzera etorriko, ark berea emango zuela, beti bezela. Eta orixe etzuten ondo kalkulatu izango. Gero, jakiña: Urepelekoa aurreko mutur-muturrean sartu zitzaien, gogoan edukiko dezunez. Eta arrapazak ura ankatik!

Apustuak, demak, txapelketak ondorio onak ekartzen ditu, baiña on ainbat txar ere bai, e? Eta bertsoa ez da beste munduko gauza, baiña bat-batean egiten dezun bertso-saioa nekez neurtuko dezu ondo, bat-batean. Matematikan bi eta bi lau dira, baiña bertsoan eztago bi eta birik, eztago matematikarik. Len esan dizudan bezela, naikoa da epaimaiko norbaiten puntuazioa puztu edo ustea beste guztien lanak ankaraz gora botatzeko. Eta onenean ere, “zenbat buru ainbat aburu” izaten dira epaimaietan ere. Bitartean, zu monigote baten tankeran erabiliko zaituzte, danen aotan..

Esanak esan, txapelketak egingo dira berriz ere. Eta egin ditezela, gaiñera, nai dutenak joan ditezen. Ni ikustera joango naiz, al dedan arte, len ere orixe egiten nuen-eta...

Txapelketara joan nahi zutenak joan zitezela, baina “joan nai ez dutenei pakean utzi” eskatu zion semeari, Azpeitiko jaialdian. Eta, kontuak kontu, 1986ko Euskal Herriko Bertsolarien txapeldun bere seme Sebastian izan zenean, gustura zen Joxe. Eta behin batean “neurtuko gera zeuk nai dezunian” desafio egin zion bezelaxe, zorionak eman zizkion seme txapeldunari bihotzez, 1986ko apirilaren 19an Azpeitian egin zioten omenaldikoan:

Etzazu uste ez dedanikan
ezeren ilusiorik.
Egun auetan biotza daukat
poz atsegiñez beterik.
Guraso batek arritzeko al da
gauzak ola ikusirik?
Nik zartutzera lortu ez nuna
zuk egin dezu gazterik,
ta orain aitak eztauka emen
zoriontzea besterik.

Uste ez gendun berri ederra
emen izandu det aurten.
Au ikusita ezta erreza
orain isillik egoten.
Kezkaturten nau olako gauzak
zer ondorena dakarten.
Karga geiegi askotan ezta
lagungarria izaten.
Ia asmatzen dezun, semea,
zama ori eramaten.

Ez gero pentsa bertso-mundua
zaizuanikan erreztu,
eta betiko artu dezunik
ere etzazu sinestu.
Euskalerrak izango ditu
nork daki zenbat apustu.
Zeure lagunik aundiñen batek
artu bear zaitu estu...
Txapela kentzen badizute're,
kopetik etzazu beztu.

Eztakit noiztik etorriko dan
txapelketaren asera.
Basarri jauna ezagutu nun
Txirrita zarrak kentzera,
Uztapide're aillegatu zan
txapel aundia jaztera,
gero Amurizak eraman zuen
emendik Bizkai aldera...
Txapela olaxe erabiltzen da
buru batetik bestera.

Beste behin, Joxe Mari Aranaldek zera esan zion
Sebastiani, 1986ko abuztuaren 25ean Ibarren egin-
dako jaialdi batean: *Sebastian, norbaiti entzun diot
hor, txapela semeak ez baina aitak behar zuela
gaur...*

Arrazoi orrek egin nau
ni eztendu eta zula.
Parera datorkidala
zertarako disimula?
Aita, norbaitek esan omen du
txapela bear dezula...
Disimuluan esan naiko zun
ilerik ez daukazula.

Aita, maisua zu zaitut
ezin nezake ukatu;
orregatik, gizalegez
egin bear det jokatu.
Azken boladan naiz ta txapela
nere buruan kokatu,
zu baiño ohea naizenikan
sekula ez det pentsatu.

Berrogei urte paseak
Euskalerriai kantari.
Jendeak errespetoa
bertsoz dun zalapartari.
Gozatu ditu ainbat antzoki,
plaza ta eleiz-atari.
Merezi du ta neure txapela
emango diot aitari.

Soldaduzka

Soldaduzka garaia etorri, eta hori Euskal Herrian egiteko zoria izan zuen behintzat. Eta etzen gutxi zentzurik gabeko zeregin hura etxetik hurbil samar betetzea. Hemengo mutilak kanpora eramaten zituzten gehienetan. Baina, behin behar-eta, suerte horixe tokatu zitzaion.

Orretan beintzat suerte on samarra izan nuela uste det. Lelengo iru illabete Ansoain-en ibilli giñan, instruzioa eta orrelako txorakeriak ikasi edo egiten, gure karrera osatuz. Manuel Lasarte ere antxe zan. 48. kintakoak gera gu eta elkarrekin egon giñan; instruzio garaian, beintzat. Bertso-saio ederrak egiten genituen, illunabarretan pittin bat nafar ardoz berdozten giñanean. Bizimodu erreza izan genuen an, ura denbora alperrik galtzea izan ezpalitz. Eguna joan eta eguna etorri, utsaren peskisan antxe egon bear.

Gero, andik Amaiurrera eramán gintuzten, Baztan aldera. Eta an ere primeran moldatu giñan, nai genduena egiñez. Eguneko lan txamarrak egin eta Elizondo aldera azkar, zintzurra busti eta, al zanean, bertso tara. Manuel Lasarte perratzaillea zan, perratzaille finfin oietakoa. Bertso tan bezelaxe lanean ere oso txukuna zan ura. Baiña etzion mesederik egin orrek: gurekin batera

Baztanaldean primeran egon zitekeena Quinto Realera eramán zuten, ango mando zarrak perratzera. *Maestro Herrero* edo zalako txuskero batek esaminatu zuen nunbait, eta mando zar bat perratzeko agindu zion. Manuel or asi da mado zarrari azkazkalak txukuntxukun garbitu eta perrak josten. Bai lana kurioso egin ere. Eta orrelako maisua ikusi zutenean, “onek eztu beste maisu bearrik” esan eta Eugitik gora dagoen erri orretara bidali zuten.

An etzan Baztanaldeko konturik izango. Oso goian dago ura, eta Sanmielak orduko asiko ziran ango gaillurak zuritzen eta Sanjuanak bai, elurra kentzerako. Baiña agindutakoa egin bear, etzegoen beste erremediorik.

Eta nik laguna falta izan nuen bertotan egiteko; aldi batean, beintzat. Baiña gauzak nola izaten diran. Xalbador zana ezagutzen nuen ordurako, eta askotan biltzen giñan Amaiurren egon nintzan garaian. Urtean zear askotan etortzen zan gure aldera, eta bertso-saio asko egiteko aukera izan genuen biok. Berak eta nik nai aiña aldiz etzan etortzen, baiña etortzen zanean gustatzen zitzaion bertsoz eta ardoz pittin bat asetzea. Ni pozez zorutzen, berriz, jakiña...



Joxe Lizaso. 1965.05.12

1967ko martxoaren 19an Donostiako Igara auzoko Gazte Artea elkarteko bazkaloste batean, hemeretzi urtean ikusi ez zuen soldadu-lagun zahar bat ikusi zuen Joxek, bazkaldarren artean: Manuel Mujika zen, hain zuzen. Eta honako bertso hauek kantatu zizkion, umore ederrez.

Oraintxe dala emeretzi bat
urte nik ezagutua,
gaur bezelaxe orduan ere
ain zan pikaro bapua.
Gaur ikusten det lodi dittula
zilborra eta lepua.
Gukin soldadu egon zanian
etzuen orrelakua.

Zer ibilliak egiten giñun
oindik gogoratzen al zak?
Danak autsita ibiltzen giñan,
geure bota eta galtzak.
Españitarrak artu zituzten,
bai, gurekin esperantzak...
Onek bildurtu zituen ango
mendi aitako makisak!

Baiña jenio guztiak orrek
etzitun izaten onak:
edandakuan dantzatzen zitun
patrikatako txanponak!
Nunbait zurrutak mugitzen ditu
zertako dauden gizonak.
Karabinero xar bati onek
eman zizkion kristonak!!!

Taberna baten gelditu ziran
an biak asarratuta,
ta azkenerako borrokan asi
elkar lepotik elduta.
Karabinero xar ura nola
ibiltzen zan armatuta,
bi muturreko eman zizkion
lelen pistola kenduta.

Artian sasoi gogorra zeukan
eta zegon afanian,
nork errenditu Manuel zar au
alatan asten zanian?!
Ni arritzen naiz orain nolatan
zauden or atsedenan.
Poztu zindezke leku artatik
bizik irten ziñanian!

Berak nai zuen itz egitea
al baldin bazan fabore.
Istori aiek ezin agortu
emen asko esanda're.
Zenbat pikardi egin zenuen
gogoratzen al zerade?
Emen apaizik izan ezpalitz
esango nuen geio're.

Bildur nintzan ni dixondratuko
ote zigun Gipuzkua.
Baztandar danak artu zioten
mutil gaiztuan juzkua.
Derrigortzian agudo asko
dantzatzen zuen eskua!
Afari baten truke saldu zun
neskatxa eder askua.

Xalbador eta Mattin

Bertsolari oiek biok soldaduzkara joan baiño zerbait lenago txapelketa-itxurako batean ezagutu nituen, Zarauzko frontoira Teodoro Hernandorenak ekarrita. Gerroztik dozenerdi bat aldiz kantatu genuen alkarrekin. Soldadu nengoela, berriz, askotan biltzen giñan. Iparraldeko erriren batzutan izan giñan Fernando eta biok bertsoan. Eta Baztanaldeko errietan ere bai, esan bezela. Errazuko plazan kantatu genuen batean kurioso samar ibilli giñan, neure iritziaz.

Xalbadorren euskera zailla zala esan oi da. Nik, beste munduko jakituririk izan gabe, aisa artzen nuen aren euskera eta bertsoa. Sekula ez nuen izan arazo larririk orretan. Baztan eta Urepeleko euskera paretsukoak dira gauza askotan, eta bietara moldatu izan naiz ondo. Alde orretako euskera ederra eta aberatsa da bertsoan egiteko ere.

Gaur egunean nere bigarren baillada bezala da Baztanaldea, eta sarritan joaten naiz. Iñoiz edo bein, denborapasa, garai bateko lagunak bisitatu eta orduko egunak gogoratuz. Alare, geienetan bertsoetara joaten naiz.

Xalbador aipatu dizut, eta zerbait geiago ere esango nizuke. Fernando bertsoa-

ri aundia eta arritzekoa zan. Eta aunditasun ori edonork aitortzen du orain, baiña bestelakorik ere izan zan plazaz plaza zebillen garaian. Eztet uste bertsozale askok aren euskera, aren esateko modua eta abar ondo konprenditu zituenik. Txistu jo zioten artakoa aipatzen da beti, baiña beste txapelketako juradutan ibilli zan askok ere etzion justizirik egin. Bestela, eman zioten baiño sari oberik emango zioten, seguruenik.

Alare, Xalbador bertsoan baiño geiago zan bertsoak idazten, nere iritziz. Gauza asko esaten du bere bertsoan. Eztakit ura bezelako bertsojartzaillerik besterik izan danik emen. Oraintxe ere *Odolaren mintzoa* irakurtzen asi eta arrituta egoten naiz. Eta irakurtzen dedan bakoitzean beti zerbait berria arkitzen det, gaiñera. Ori da euskera eta ori aberastasuna, ori!

Euskera

Bertsolariaren lanabes nagusienetakoa euskera da, noski. Hizkuntza, hitz-jokoa, hitz-apustua, hitz-iturria, aditzak eta atzizkiak, esaldiak eta esaerak...

Eta hizkuntzari laguntzeko, oso ondo hezitako memoria, bestalde. Horrexegatik, besteak beste, hizkuntzaren maitasuna eta kezka buru-bihotzetan daramatza beti. Eta euskerari kanpotik nahiz barrutik egiten zaion hainbat eraso setatsu eta anker barru-barruan sufritzen ditu. Bere ofiziorako lanabesa delako eta, batez ere, bere-berea delako maite du.

Askotan aipatu izan duen euskerarekiko beste kezka asko ere badu Joxek. Egiten den euskera omen da onena, bai. Baina ez zaio batere gustatzen zenbait eus-

kera artifizial. Oraindik ere herri askotan bizi-bizirik dagoen betiko euskera hori maite du, beste guztien gainetik. Katramilarik eta korapilorik gabeko hizkuntza, familia euskaldunetatik eta ikastolatik eroso sortzen dena.

Halare, bion artean bakoitzak geure iritzi eta joerak defenditu ditugunean, lasai asko hitz egin dugu eta erraz konpondu gera, liburu honetako gure esatekoak bakoitzak bere modura eginez. Izan ere, ez-paitago elkarriketa bezalakorik konponbideak egin nahi direnean.

Joxek euskerari dion maitasun horren berri ondo genekien gai-jartzaileok; eta askotan zirikatu genuen eta zirikatzen dute, euskera gai hartuta.

Ondorengo bertso hauek 1963ko otsailaren 10ean, Urretxuko jaialdi batean kantatu zituen. Ez zen oraingo girorik, baina gai hauxe eman genion batere disimulurik gabe: *Kanpotik etorri eta euskera ikasi duenari bi bertso bota behar dizkiozu, Joxe.*

Atzerritikan etorri ziñan
gure alderdi ontara.
Bizimodua nai zenuen zuk
lana egiñez atera.
Baiña alegiñez saiatu zera
euskeraz ikasitzera.
Era ortara saia zaite ta
maitea izango zera.

Ikusi zagun atzerritarrak
lur au zenbat maite duten.
Onelakorik iñun eztala
ari zaizkigu esaten.
Ta bertakoak entzun zazute
isil-isillik piskaten:
nola eztio'u geure lurrari
oinbeste esker ematen?!

1967ko martxoaren 5ean, Donostiako Igara auzoko Santakutz jaietan jasotako bertsoak dira hauek. Euskerarik ez zekien Donostiako zinegotzi bat zeukan aurrean eserita, bazkalorduan. Frankismoa liztor haserrea baino petralago zegoen, eta halare ausardia haundiz kantatu zion don Felix zinegotziari:

Ez nago lasai, egia esan,
itzerdi bat esan arte;
zuri lau bertso kantatu arte
biotzik ezin det ase.
Esan digute laster zerala
Donostiako alkate,
ta gradu ori merezi al du
ta gradu ori merezi al du
euskeraz ikasi arte?!

Ara, don Felix, berriro ere
zugana nator lanian.
Gu Azpeitian egoten gera
Donostian inbidian.
Egunen baten zure aurrera
etorri bear danian,
izkuntzik gabe nola aurkitu
izkuntzik gabe nola aurkitu
alkate baten aurrian?

Nere bertsoai beintzat gaizkitzat
ez al dio iritziko,
au esan gabe zure lagunak
gaur nola ez dun etsiko.
Gaur edo biar gradu obian
ez al ziñake jantziko?
Aginpidea ona da baiña
aginpidea ona da baiña
izkuntza lendabiziko.

Barka zaidazu naigabe txarrik
gaur badizut nik ematen.
Zail izaten da ordu auetan
isilik beti egoten.
Ta jarri zaite zure barruai
piska bat erreparatzen...
Garai bateko alkate zarrak
garai bateko alkate zarrak
euskeraz egiten zuten.

Beste bertso hauek *euskera* gai zuela Azpeitiko jaialdi batean kantatuak dira, 1972an.

Beti gogoan edukiko det
nik gaurko illunabarra.
Au da famili goxoa eta
auxe da giro ederra!
Baiña gauz onek begietara
dakarkit kezka bakarra:
izkuntza bizi gordeko bada
eskean jardun bearra.

Bildots politik dabilta baiña
larre onikan gabiak.
Izanez ere zelebre daude
Españiako legiak.
Guri laguntza egingo zigun
agintzen dagon jendiak,
izan bagiña Burgos aldeko
militarraren semiak.

Beti zigorran mendean gaude,
biotzak dauzkagu illun.
Era ontako lege gaiztorik
ezta ezagutzen inun.
Anai-arrebak, saia bearra
daukagu gau eta egun,
iltzen dagoen gure izkuntza
ia indartutzen degun.

1974ko abenduaren 15ean, Lizaso, Lazkano, Agirre, Lazkao Txiki, Mitxelena eta Gorrotxategi izan ziren bertsoan Azpeitian, Txapelen omenezko jaialdi batean. Lizaso eta Gorrotxategiri eman nien gaia: *Hemen gabiltza denok euskera behar dugula salbatu, herria behar dela maitatu. Eta hala ere, ezin gera konpondu. Zergatik ote?*

Liz: Irudipen bat eskatzen zuen
gaur onek gure aldetik.
Sentitzen dana esango dizut
biotzan barren-barrendik.
Iskanbilla ta konpondu eziña
ortxe dago aspalditik,
danok jarraitu nai degulako
bakoitzak geure bidetik.

Gor: Eskatu diguten ezkerio
orra nere iritzia:
bide batzuek baztertutzeko
ordua da iritsia.
Batzuk pausoak emate'ituzte,
bestek ezin ikusia.
Zein taldek lana egiten duen,
or dago diferentzia.

Liz: Barka zazute, neu izango naiz
utzia eta zabarra,
baiña besteak ere ez dute
ondo ematen indarra.
Norberak duen ura ona da,
bestek eiten duna txarra...
Gauza orretzek ekartzen digu
euskaldunaren negarra.

Gor: Erria askatu bear dala
esaten beti gabiltza,
baiña eldu zan amets guztiak
igartu zituen intza.
Izan'e gauza gogorra degu
gu euskaldunon bizitza:
danok alkar artu bearrean
danok borrokan gabiltza.

Liz: Sinista zazu gure barrenak
arkitzen dirala triste.
Zer burutapen etorri zaidan
ere esango det laiste:
fin dabiltzanak izango dute
makiña bat buruauste,
baiña guztiak ez dute maite
itxura dagon ainbeste.

Gor: Gauzak orrela dijoaz eta
artu zagun pazientzi.
Beste eguzki bat izango al da
emen biar edo etzi.
Gaitz batek gaitu gu betirako,
o euskaldunok, gaitzetsi:
mingaiñez euskaldun asko gera
ta biotzez oso gutxi.

1974ko abenduaren 15ean, Lizaso eta Agirrek Azpeitian egin zuten beste saio bat, gai honi buruz: *Orain arte euskeraren gordeleku baserriak izan omen dira. Gero ere horrelaxe izango ote dira?*

Agi: Itxura danez ezin lasaitu
Iriondoren biotzik,
baiña baserritik ezta sortuko
euskeraren eriotzik.
Gaur ere gordeleku dirade,
eztet esango ezetzik.
Gure umeak ez dute egiten
etxean erderaz itzik.

Liz: Etzaitezela aurregi sartu
Jainkoaren izenian.
Eztet ikusten nola dabilzan
aitaren aldamenian.
Seme-alabak ikusten ditut
or egunik geienian.
Danak erderaz mintzatzen dira
kalera datozenian.

Agi: Aitortuko det bi alabatxo
monjatan izate'itut nik,
ta ez uste izan monjatxo oiek
euskaltzaleak diranik.
Baiña Jainkoak kentzen ez badit
urte batzutan zentzunik,
ez da sortuko nere alabei
euskerak kenduko'ienik.

Liz: Komentu oitan galtzen ari da
gure lurralde zabala.
Izkuntza beintzat ondatu naian
dabiltz nola edo ala.
Ta baliteke oi izatea
monja oien martingala.
Pentsatzen dute erderaz einda
aundiagoak dirala.

Agi: Jokera oiek ez dira, noski,
guretzako gogokuak.
Eta kezka bat badet nik ere,
entzule biotzekuak.
Baserri asko daude utsikan
kristaurikan gabekuak.
Zoritxarrean bakandu dira
euskeran gordelekuak.

Liz: Beraz, orduan, oain leku gutxi
gelditzen da baserrian?
ta komentuan nola zebiltzan
nik ere oi banekian
nun pasa bear gauza ori ta,
Gipuzkoaren erdian!
Laguntza ederra egiten digu
erlijio aitzakian!

1978ko abenduaren 16an, Joxe umezale purrukata da-eta, honako gai hauxe eman nion: *Kanta egiozu negarrez ikusi duzun haur horri, Joxe.*

Aurtxo bat ola ikusi eta
nor ezta errukituko?
Pertsona fiñak sufritu bear
mundura sortu orduko.
Etzaitzela bildurrez egon
neri garbi esateko:
aingerutxoa, nun dezu miña
ola negar egiteko?

“ Ikusi dezu jolas-lagunak
jun zaizkidala igesi.
Aien izkuntzik eztedalako
bakarrikan naute utzi.
Aita eta amak maite nautenik
ere ezin det sinetsi.
Nei gurasoak nola etziten
euskerarik erakutsi?”

Aingerutxoa, ez negar egin,
isildu zaitez piskaten,
guraso danak ber ainbat zentzun
nola ez duten izaten.
Zuen etxera urbilduko naiz
illunabartxoren baten.
Jakingo degu aita eta amak
zer kontzientzi daukaten.

Ez negar egin, maite kuttuna,
pakean zoaz etxera...
Saiatuko naiz eramateko
zu ikastola batera.
Gaur edo biar gure izkuntzan
jabe egiten bazera,
aita eta ama dituzun baiño
fiñago izango zera.

1981eko uztailaren 4an, bertso-jaialdia antolatu zuten Usurbilen Santa Isabeletan, urtero bezela. Antton Haranburu gai-jartzaileak hauxe eman zien Lizaso eta Lasarteri: *Azkenenengo urte hauetan geroz euskera gutxiago egiten omen da Usurbilgo kaleetan. Zuek zer uste duzue?*

Liz: Negar-malkoak sortutzen zaizkit
ola izketan asita.
Garai batean Usurbil zegon
izkuntza onez jantzita.
Gaur ikastolan egiten dute
eztakit zenbat bisita,
baiña euskera indartu bear
geure etxetik asita.

Las: Ni ere oso konforme nago
Lizasoren esanean.
Euskera galtzen duen erria
ez dago zorionean.
Al dezutenak bera indartzeko
saia zaitezte lanean.
Euskalerrria galduta dago
euskera galtzen danean.

Liz: Usurbil maite, berriro ere
zureganuntza nijua;
garai batean ederra bait zan
usurbildarren txokua.
Ikusten det gaur aurren artean
asko ote dan galdua...
Aurrak pagatzen ari al dira
gurasoaren errua?

Las: Lenago euskera ain egokia
zan Usurbil zabalean.
Esan dutenez izkuntza ori
orain dabil axalean.
Aurtxo txikiak ibilli arren
maitetasun itzalean,
euskera ondo ikasten baita
amatxoren magalean.

Liz: Entzunak arren gaur ori nago
orain ezin sinetsian.
Olako gauzik pasa ber al zun
eguzkiaren azpian?
Sinistu gero: apuntatuta
utziko da istorian,
baldin euskera galdutzen bada
Udarregiren errian.

Las: Beraz, alperrik izango dira
Udarregiren jardunak.
Aukeran bear genituzke gaur
era artako euskaldunak.
Euskera onen indarrak daude
beraz urrutira junak...
Euskalerririk ez du maiteko
euskera maite ez dunak.

1981eko azaroaren 15ean, Zegaman egindako jaialdi batean gai hauxe eman zion Julian Belokik: *Batzuk euskera maite degu, eta hori arrazakeria dela esaten dute. Zuk zer uste dezu, Joxe?*

Biotzak negar egiten dit gaur
zure galdera entzunik.
Al dan samurren, aizu laguna,
erantzun bear dizut nik.
Nere iritziz euskerak ez du
olako astuntasunik.
Euskalerrian eztegu bear
euskera maite ez dunik.

Al baldin bada, izan nai nuke
emen denon iritziko.
Nork ote dio euskera ez dula
sentitzen bere graziko?
Danen aurrean neroni gaurtik
orri agintzen asiko...
Kolore danak libre dirala,
euskera da lenbiziko.

Etxean bertsorik ez

Ez dakit harrigarria den ala ez, baina etxean ez omen du bertsorik kantatzen behin ere, bakarka ezpada. Ez omen zaio gustatzen. Horrelaxe aitortu digu, eta nik sinistu.

Bere aita zenak askotan ikusi zuen bertsoan, baina beti etxetik kanpo: Zepaneko tabernan edo herriko beste ostaturen batean, hain zuzen. Baita herriko mendizale-elkarteak maiatzaren azkenetan urtero Oñatzen medaila-emate festa egiten zuenean ere, hango herri-mezan eta ondoren plazan egiten zen bertso-saioan kantatzen zuen-eta. Aitarekin batera askotan joaten omen zen halako tokietara. Behin batean, Donostiako Urumea pilotalekuan egin zen txapelketako azken jaialdian ere hantxe izan ziren bai aita eta bai aitona Juan Joxe.

Bertso zaharrak kantatzea asko gustatzen zitzaion aita Basiliori. Mendaro Txirristakarenak eta horrelako bertso xebreak maite omen zituen, batez ere. Eta kantatu ere ederki asko kantatzen zituzten Felipe karnizeroa, Bittor, Xaberi eta kuadrilak. Kantari onak ziren haiek, Joxeren iritziz. Joxemiel Iztueta *Lazkao Txiki* zenaren txiste eta xeblekeriak entzun izan balitu, gozatuko zukeen ark, seguruenik. Baina ez zuen horrelako aukerarik izan.

Bere ama Manuelak, ostera, biloba baten lehenengo jaunartze-egunean ikusi zuen semea bertsoan, lehenengo aldiz, Azpeitiko Izarra jatetxean. Pentsa, Euskal Herrian zegoen bertsolaririk ezagunenetakoa izango zen ordurako, eta amak sekula ikusi ez bertso kantari. Lotsa, beldurra, auskalo zer!

Joxek bere aita edo amari kantatu izan dion zenbait bertso biltzen hasi eta batzuk aurkitu ditut, noski. Gehiago ere izango dira bazterretan, seguru. Baina paperetan ditudanez baliatuko naiz, oraingoz. Lehenik, 1968an Donostiako Anoetan egin zen 100.000 pezeta-ko sariketa famatu hartan, *aita* gai eman eta *Ameriketako esne salitzailearen* doinuan bota zituen bi bertso hauxek:

Nik'e danak bezala
aita bat banuan,
aita bat banuan...
Jaio eta azia
ark nindun munduan.
Orain ogei bat urte
emendikan juan.
Geroztik ala nago
beti erreguan:
uste det egongo dala
Jaunaren onduan,
uste det egongo dala
Jaunaren onduan.

Berriz aita maitia
nua aitatzera,
nua aitatzera...
Malkoak sortzen zaizkit
begi-biotzera.
Neretzat zu gaiztoa
izandu etzera,
ta gu ere urbiltzen
oin eriotzera.
Berriz Josafatean
ikusiko gera,
berriz Josafatean
ikusiko gera.

Beste batean, 1976ko abenduan, Azpeitian eginda-ko jaialdi batean, bi edo hiru bertso amari kantatzeko eskatu nion, bat-batean.

Iru-lau bertso kantatutzeko
esan didate amari;
ainbesteraiño maite det eta
errez egingo det ori.
Kontzientziko karga billatzen
diot neure buruari,
ordaindu ezin litaken zor bat
nola diodan nik ari.

Beste guztiak bezela ni're
oiñazez niñun sortua,
orregatikan oinbesteraiño
izandu nau maitatua.
Gizona irten ez baldin badet
zuk uste bezelakua,
nere akatsa izan da, ama,
au ezta zure errua.

Maitatzen ditut zure bularrak,
maite det zure magala;
baiña akatsak izango ditut,
seme guztiak bezala.
Nere burua ezagutzen det
ni berritsu bat naizela.
Iruditzen zait neregatikan
bildurrez bizi zerala.

Nere naigabe astunarekin
piska bat zerade zartu;
baiña ekaitzak arindu dira,
udaberria da gertu.
Burrukan segi bearra zegon,
naiz ta jipoi batzuk artu...
Aurki erria libre degu-ta,
ama, etzaitez bildurtu.

Bere haurtzaroaz hitz egiten duenean, egun onak eta txarrak ere gogoratzen ditu Joxek. Izan ere, mixeria gogorra ekarri zuen haien etxera ere gerra gaiztoak, familia gehienetara bezalaxe. Besteak beste, hartu eta ama zenaren jaiotetxera eraman zuten, guraso eta anaia-arrebak Azpeitiko kalean utzita, "zila legortu orduko" lanean hasteko, berak dioen bezala. Zerbait egin behar haiek ere kale gorrian hainbeste haundiko familia aurrera aterako bazuten.

Jarraian doazkizun bertso hauek berri samarrak dira. Oraindik orain kantatu zizkidan Joxek, ausardia haundiz bere haurtzaroaz bertso batzuk eskatuta.

Aita Basilio ta
ama Manuela,
ondo dakit aiexek
sortu nindutela.
Askotan aitortu det
maite nituela.
Sinistu oraindikan
kezka daukatela
portatu ote nintzan
bear zan bezela.

Ama, nai nuken dana
zail da esatia:
gure aurtzaroa zan
gutziz arlotia,
ordu an egokitu
baitzan gerratia
eta zuk etxe dana
aur txikiz betia...
Misterio izan zan
onez irtetia.

Aita espetxetikan
noizbaiten libratu
eta famili dana
berriro elkartu...
Alare lanak ziran,
nola esplikatu?
Edozein atetara
etziteken deitu...
Nai ordurako etzan
lan piskat billatu.

Etzan gustagarria
gure biziera,
baiña alde gutxi zan
batetik bestera.
Zilla legortzerako
umeak lanera,
mukiak kendu gabe
ardiak zaintzera...
Ni eraman ninduten
amaren etxera.

Kalera jeisten nintzan
igande goizian,
ama bisitatzera
meza bukatzian.
Etxea ikusten nun
tristerik antzian,
ta ama negarrez asi
aitaz oroitzian...
Zer pena ote zegon
zure biotzian!


Ez genduan ogirik,
ezta artorikan.
Etxe utsian ezta
misteriorikan.
Oroitzean negarra
dator oraindikan...
Beste bat bai ote zan
ama oberikan?
Baiña ez giñon eman
pena besterikan!

Irabazirako aita
bakarrik zenduan
eta etsai gaiztoak
espexera eruan...
Gu sei anai-arreba
suaren onduan,
iriña errotan ta
dirua bankuan...
Ai, zer martiriua
pasatu zenduan!

Ama gaisua antxe
gau t'egun lan ta lan,
igandez eleizara
eta an ere tranpan.
Begira Jaungoikoak
zer egin zun Kanan:
beartsu guztieri
naiko ogia eman...
Ori're eztakit, ama,
egia ote dan!

Bertsolari zaharrei itzala

Begirune eta itzal haundia die Joxek gaztetan ezagutu zituen bertsolari zaharrei. Eta errespeto horren lekuko da egin digun hainbat aitorpen, edota han-hor-hemen sakabaturik dagoen bat-bateko hainbat bertso eder.



Basilio Pujanarekin. Deusto 1999.11.17

(arg. Sendoa)



Bertsolari zaharrei omenaldia. 1974.

Bere lehenengo plaza-laguna, Eusebio Eizmendi *Txapel*, Antxiturbi baserrian jaio zen 1893an. Eta 1969ko maiatzaren 2an hil zen, Azpeitian. Urte hartako azaroaren 9an bere omenez herriko Soreasu antzokian egindako jaialdian aitortu zuenez, aitatzat eduki zuen beti:

Oso gazterik gelditu nintzan
Jainkoak aita emanik,
ta Eusebio urbildu zaidan
gizon jatorra izanik.
Agindu aiek bete gabe ni
ezin, ba, bizi iñundik...
Sekula enun pentsatu izan
neronen aita etzanik.

Handik urte batzuetara, 1975eko abenduaren 20an, Lizaso aita-semeak, Agirre, Lazkano, Azpillaga, Gorrotxategi, Igarzabal eta Murua ziran bertsoan Azpeitian egin zen jaialdi batean. Gai ematea neuk egin nuen, urtero bezala. Eta hauxe eskatu nion: *Joxe, esaiguzu Txapel zenarengandik zer ikasi zenuen.*

Mutil koskorra nintzanerako
Txapel ezagutu nuan.
Erri askotan ibiltzen nintzan
aitona aren onduan.
Zer kontsejuak ematen zizkan
oraindik daukat goguan.
Esaten zidan: gazte maitia,
ibilli errespetuan.

Erririk erri or ibiltzen zan
beti arrazoian truke.
Gizarajuak bere denboran
artu zun amaika neke.
Ai, Txapel maite, Euskalerria
ikusiko bazenduke,
dudarik ez da: biotza lertu
ta negar eingo zenduke!

Txapel zan ura, gizarajua,
sortu baitzan lanerako,
guk bezelaxe egun onenak
ikusten zitun geroko.
Oraindik ola egoterikan
igual etzun esperoko...
Zuk maite zendun Euskalerria
oraindik lotuta dago.

Beste bertso hau, 1983ko abenduaren 17an, Azpeitian kantatu zuen, Txapelen omenez:

Ai, Eusebio, arren barkatu,
egiten dizut erregu.
Seguru nago zero goitikan
onuntz begira zaude zu.
Zuk maite zendun bertso-erria
gure aurrean daukagu...
Aitortzen dizut: gizatasunez
ez degu zuk ainbat gradu,
baiña berritsu jaio giñan ta
erria betetzen degu.

Uztapide

Bertsolari denak maite ditu Joxek. Baina, bat izatekotan, Uztapide zuen bere idolo haundienetakoa. 1968ko urtarrilaren 21ean, Donostiako Astorian Manuel Uztapideri egindako omenaldiaren ondoren, jendetza haundia bilduzen Urbia jatetxean, lagunarteko bazkaritan. Eta hango giro ederrean honako bertso hauek jaso genizkien Joxeri eta hamar urte besterik ez zuen bere seme Sebastiani:

Sebastian: O, entzuleok, arratsaldeon,
astera noa kantari,
biotza zerbait alaitu nairik
bertsua nai duenari.
Gaur Manueli jo dizkiote
txalo beruak ugari,
eta nik ere biotz barrendik
milla zorion berari.

Ainbat lagun zar bildu gerade,
nola erri ta erbeste.
Zure omena zala entzunda
berotu giñan gu laste.
Zure gorantzan izugarrizko
jaiak moldatu dituzte,
baiña oraindik ez dizute egin
merezi dezun ainbeste.

Ezjakin naiz ta barka zaidazu
nere itzaldi txepela,
zer jardunikan ezpaitaukat nik
gizon aundi bat bezela.
Azkenik auxe esan nai dizut,
ez nago lasai bestela:
urte askuan gorde zazula
osasuna ta txapela.



Sebastian Lizaso. Azpeitia 1966.12.19
(Arg. Pepe Gil - J. Lizasok utzia)

Sekulako txalo-zaparrada eskeini zion jendeak mutiko ausartari, merezi zuen-eta. Aita, berriz, emozioz gainezka zegoen, disimulatzen saiatu bazen ere. Eta honela kantatu zion Uztapideri:

Gaur zure berri erakustera
ekarria det apropos.
Kontentu nago jardun danian
umil eta errespetoz.
Pozaren pozez neroni ere
begiak bustirik malkoz...
Gu ez gerade betiko eta
gaztiak ere badatoz.

Uztapide haundiari begiak malkoz bete-bete egin zitzaizkion, eta mikroa hartu eta honela erantzun zien Lizasotarrei:

Gaur arteraiño enuen entzun
zure semian abotsik.
Orrek bezela iñork ez dit gaur
neri mugitu biotzik.
Errez da ikusten nere negarra
begietatikan, pozik.
A zer gizona irtengo duen
berorren aita ezezik!

Bestalde, 1980ko maiatzaren 24an, Uztapide herriko seme kuttun izendatu zuten Zestoan. Honako bi bertso hauek kantatu zizkion Joxek, 25eko jaialdian:

Nik ere agur egin nai dizut,
nere lagun zar laztana.
Bein bear eta erri guztia
itzuli zaizu zugana.
Gaurtik aurrera eman dizute
or kale baten izena,
mundua mundu degun artean
inoiz aztuko eztana.

Onek altxa du Zestua eta
berdin Urola baillera.
Orain izen bat or bota dute
kamiñoaren ertzera.
Gu're sarritan ibiltzen gera
ortxe gora eta bera.
Agur ein gabe ez neike pasa
geio emendik aurrera.

Beste behin, 1981eko azaroaren 15ean, Uztapideri omenaldia egin zion Zegamako herriak. Tarte batean *Uztapideren umoreaz* bertsoak kantatzeko eskatu nion Joxeri, eta honek erantzun:

Suerteá nun gazte nintzala
Manuel ezagutzeko.
Egun danetan ikusten nuen
txori argien antzeko.
Etzun beldurrik barruan zitun
gauzak ondo azaltzeko.
Orren bertsoak naikoa ziran
irriparrea sortzeko.

Nik bezelaxe Euskalerrriak
daduka ezaguturik.
Esan zeikena gizarajoak
etzuen uzten gorderik.
Ta beste batek norik ote dauka
orrelako umorerik?
Guk ez daukagu umore ori
gaur ordaintzeko dirurik.

Azkenik, Uztapideren hileta 1983ko ekainaren 9an egin zen, Oiartzunen. Eta bera baino lehen hiltzen bazen, egun hartan agur egingo ziola hitz emanda zegoen Joxe, itxura denez. Eta honela kantatu zion:

Mundu au uzten bazun
nik baiño lenago,
bertsoz agurtutzeko
aginduta nago.
Naiz negarrez gelditu
ifar eta ego,
Jainkua poztuko zan,
zalantzik eztago,
zeruan duelako
santu bat geiago.

Iñaki Eizmendi Basarri

Iñaki Eizmendi Basarri mirespina, errespetoa eta maitasuna izan zion beti. Harreman onak zituen Txillarramenditik hurbil samar jaio zen Granadarekakako maisu haundiarekin. Eta askotan bisitatzen zuen Zarautzen ere, azken-azkenerarte. Bestalde, omenaldi bat baino gehiago egin zioten Iñakiri Zarautzen. Eta horietako bat, 1980ko apirillaren 20an, hain zuzen. Jaialdiaren hasieran honela kantatu zuen Joxek:

Aspalditxoan zai geunden eta
orra ordua iritsi.
Erri bat ez det apaiñagorik
bolada ontan ikusi.
Dakigun dana nai genioke
erri oni erakutsi.
Ekarri ditut milla enkargu,
eztakit zenbat goraintzi...
Milla zorion Basarriri ta
milla zorion Zarautzi.

Handik bost urtera, 1985eko apirilean, beste omenaldi osoago bat egin zioten berriro Zarautzen: Basarriri buruzko hitzaldiak izan ziren, Torre Luzea ondoan bere irudi eder bat jarri zuten, kale nagusira begira, eta abar. Azkenengo egunean, apirilaren 27an, bertso-jaialdi ederra egin zen Aritzbataldeko pilotalekuan. Gai jartzea neuk egin nuen, eta hauxe eman nien Lizaso eta Lasarteri: *Joxe, egin dezagun zu Txirrita zerala gaur. Lasarte, zu, berriz, Basarri. 1935eko Bertsolari Egunean topo egin duzue biok.*

Liz: Ditxo bat daukat aspaldi samar
entzuna edo letua:
naiz eta izan urte batzuek
bertsoetan pasatua,
oraintxe utzi bearra daukat
Txirritaren titulua...
Gazte berri bat ikusten baitet
ni baiño obeagua.

Las: Egun batean txapelketa bat
guri ziguten jarrita,
bildur antzean ibillia naiz
ni onuntza etorrita.
Izanez ere zuri aunditzat
negon aurrez igarrita.
Azio txarra egin badizut
barka zaidazu, Txirrita.

Liz: Ikusten nuen landare berri
jatorra zala sortuta,
Euskalerrria nabaitutzen det
zukan enamoratuta.
Gure aldean asko ikasi
ta asko zaude letuta.
Egin ber dana ein zazu baiña
zarrak errespetatuta.

Las: Lengoak errespetatutzea
neuk ere obe det askoz,
baiña onuntza etorri naiz gaur
txapela irabazi asmoz.
Txirrita zarra, alde ortatik
artu bear zenduke poz.
Zuek zartu zeratenerako
jarraitzailleak bagatoz.

Liz: Pentsatzen nuen bide onikan
enuela aterako.
Oroitzen dana esango dizut,
zertako utzi geroko?
Gazte, ez dizut nik obeditzen
obegoa zeralako,
baiña eskua eskeintzen dizut
eta urte askotako.

Las: Aurreko zarrak izan ziñaten
dotriña ontara eziak.
Gazteak ere ortantxe gabiltz
Jaungoikoari graziak.
Zu txapeldun len izan ziñala
badaki erri guztiak.
Nik bertsorikan onenak ditut
Txirritari ikasiak.

Liz: Gaur gazte onek emen baditu
bertso politak kolpian.
Txirrita zarra ez dago gero
emen bildurrez aidian.
Zuk lan bikaiñak egin zindezke
antzokitara joatian,
baiña oraindik arrapauko det
sagardoteiren batian.

Las: Txirrita zarra sagardotegiz
oraindik ezta aztua.
Ori esanik, aita aundia,
ez nazu gutxi poztua.
Euskalerrria bertsoen bidez
zuk dezu aberastua.
Lagun onakin arkitzen zera
eta ekatzu eskua.

Liz: Eskua ere luzatzen dizut
oraintxe onez onian.
Pozik ari naiz Azken Portuko
gaztean aldamenian.
Pake-pakean ni egongo naiz
Txirritako teillapean,
nik baiño obeto botatze'zula
akordatzen naizenian.

Las: Basarrik ere oraintxe dauka
emen bertsozko afana.
Txirrita zarrak orain artean
orretan izan du fama.
Azken orduan au da, Txirrita,
emen esango dedana:
laguntzarikan bear danean
etorri zaitte nigana.



Lizaso, Basarri eta Lazkao Txiki lagunartean. Ordizian, 1964
(Arg. Josetxo Marin - Sendoa)

Akilino Izagirre *Zepai Txikia* auzokide eta lehenengo bertso-lagun izan zuenaren hileta 1971ko uztailaren 24an egin zen, Idiazabalgo elizan. Joxek ezin zezakeen hutsik egin egun hartan, eta aldarera igo eta honela kantatu zuen:

Euskalerrria etzan
gaur goizean alai.
Ez geiago illundu,
arriba ta anai.
Piztuko ote gera?
Sinisten duna bai.
Laster gera gu ere,
egon zaitia zai...
Egun aundira arte
agur, lagun Zepai.

Fernando Aire *Xalbador* ere lagun istimatu-istimatua zuen Joxek, garbi asko aitortzen duenez. Haren *Odolaren Mintzoa* liburua mirespen haundiz eta begiak ondo idekita irakurtzen du oraintxe ere. 1979ko azaroaren 4an Urepelen egindako bertso-jaialdian Gipuzkoaren izenean egindako agurra hau xe duzu:

Mendiko artzai on bat genduan
gure Xalbador maitia.
Bizi zan arte serbitu zuen
arek Euskadi guztia.
Zor bat degula guk arekiko
daukagu erabakia,
ta Gipuzkoak agurtu nai du
gure Xalbador aundia.

Pierre Bordazaharre *Etchahun Iruri* bertsolari-abeslaria, 1979ko urriaren 1ean hil zen. Haren omenez bertso haxe bota zuen:

Oin egun batzuk naigabe txar bat
iritsi zan biotzera:
ain maite gendun Etxaun aundia
sartu zutela lurpera.
Geroztik emen Euskalerrian
au esaten ari gera:
zeruan santu bat geio dala,
noski, emendik aurrera.

Mattin bertsolaria, txiki haundia zela esan ohi du Joxek. Hura hil zeneko lehenengo urteurrena zela-ta, bertso-jaialdia antolatu zuten Ahetzen, 1982ko uztailearen 8an. Mitxel Itzainak zuzendu zuen saioaren hasieran, bertso hauxe bota zuen:

Biotz-biotzez agurtzen ditut
bildutako euskaldunak,
olakotxetan jakiten baita
zein ziran aren lagunak.
Etorri gera oroiturikan
Mattinen irri txukunak,
mundu onetan geraden arte
mundu onetan geraden arte
aztuko ez ditugunak.

Joxe Joakin Mitxelena 1988ko abenduaren 3an ehortzi zuten Oiartzunen. Haren hileta-elizkizunean al-dare aurrera igo eta honela kantatu zion Joxek:

Jauna, badakit nigaz
asarre zaudena,
kendu didazu beintzat
lagunik onena.
Nora eraman dezu
gure Mitxelena?
Seguru banengoke
zeruetan dena,
iltzeko enuke izango
len ainbeste pena.

Bartolo Aierbe bertso-jartzailea hil zenean:

Euskeran alde saiatu ziñan
Bartolo, bizi osuan.
Kantuz eztago esaterikan
zuk zer lan egin zenduan.
Baiña eriotzai ezin aldegin
deia etorritakuan.
Jainkoak ere utsunetxo bat
nabaitzen zuen zeruan...
Zerua santuz jantziko bazan
zure bearra zeguan
zure bearra zeguan.

Bizitzan ezagutu ez dituen beste bertsolari zaharrei ere itzal haundia die, noski: Txirrita, Otaño, Udarregi, eta abar. 1965eko uztailean, Pello Errotaren omenezko kultur astea egin zuten Asteasun. Eta bertso-eguna hilaren 11n egin zen. Eguerdian herriko plazan egindako saiotik haxe jaso dut:

Euskaldunaren maitetasuna
zer maitetasun zabala!
Gure lagunak gogoratutzen
egin zagun egiñala...
Urteak dira, Pello maitea,
mundutik joan ziñala.
Euskalerrriak gaur agertu du
zurekin zordun giñala.

Migel Arozamena zenaren omenez egin zen bertso-
jaialdi batean, *Bilintx* eman zioten gai Lesakan; eta ha-
ren goralmenez bertso bat kantatu zuen:

Aren liburuxka bat
badaukat etxian.
Negarra lertutzen zait
ai begiratzian.
Iñork ez du jakingo,
nere iritzian,
zenbat maitasun zegon
aren biotzian.

Gaztetako kontuak

Lizasoren bertso-dantza eta anabasa honetan aurrera eta atzera, han eta hemen egindako bat-bateko beste bertso asko ere badut eskuartean, zorionez. Adibidez, behin batean *Gaztetako kontuak* gaiari buruz bota omen zituen bertso batzuen entzuerara barenen, aspalditxotik. Eta 1977ko omenaldia aitzaki hartu eta kanta ziezazkidala eskatu nion. Joxek ezetz esaten jakin ez-eta, han jaso nizkion, kantatu ahala. Bat-bateko saio batean botatakoak dira, esan bezela.

Garai onian atera
dezute disputa!
Gustoko lagunik bazan
norabait izkuta.
Bereala jartzen nintzan
kandela piztuta...
Aspaldiko kontu aiek
eztauzkat aztuta.

Orretan ezin nintake
aurreragi mintza,
sarraillarentzat egiña
nola bai dan giltza.
Garbi eraman nai nuke
munduko bizitza,
al dan ondona beteaz
ematen dan itza.

“Ez beintzat iñori esan”
 eitten zuten erregu,
 erantzun'e: “bai, isillik
 edukiko degu”.
 Ibillia ere etzait
 oraindikan damu.
 Pekatu egingo nuen
 konfesatu banu.

Beste bertso hauek ere bere gaztetako kontuekin lotuta daude, noski. 1990eko otsailaren 10ean, Zestoan egindako jaialdi batean, gai hauxe eman zion Laxaro Azkunek: *Gaztetan neskatarra joan eta lagundu zenion neska eder hura leihotik begira ikusi dezu gaur. Baina erabat amona egina dago orain, Joxe...*



Arrazoi dezu, leio batean
bakarrik zegon gaixua.
Orduan neska gaztea zana
gaur dago amonaxua.
Garai aietan ezagutu nun
ain leguna ta goxua...
Gogoan daukat nun eman nion
lendabiziko muxua,
gogoan daukat nun eman nion
lendabiziko muxua.

Meta ondoan antxe geunden gu
biok lepotik elduta.
Atean zegon zakur zar ura
jarri zan asarretuta.
Zaunka ta zaunka etzan isiltzen
txima danak arrotuta.
Ta ama zarra an etorri zan
farol aundi bat artuta,
ta ama zarra an etorri zan
farol aundi bat artuta.

Garai aietan ibiltzen nintzan
mutil formalen moduan.
Kongregazioko iru-lau zinta
banebilzkin poltsikuan.
Orain bezela pekatu etzala
jakin izan bagenduan,
seguru egon: guk ere ordun
zerbait egingo genduan,
seguru egon: guk ere ordun
zerbait egingo genduan.

Ezkontza

Txillarramenditik Aizarna, Aia, Urdaneta, Errezil eta inguruko beste auzoetara hamaika neska laguntze egin omen zuen gaztetan. Kontuak kontu, estimazio oneko mutila izan, nonbait. Baina azkenean Bidaniko neska-txa batekin ezkondu zen, 1957ko apirilaren 27an: Juli Iraola Bidaurretarekin, hain zuzen.

Ohitura zenez, neskaren jaioterriko elizan ezkondu nahi izan omen zuten, Bidanian alegia. Eta, hala, motoa hartu eta euritan blai eginda, Bidaniko apaizarekin hitz egitera joan zen bazkalondo hotz batean. Ez zuen horrelakorik uste, baina nekatuta siestara joanda zela apaiza eta ezingo zuela, ba, hitz egin esan omen zion neskameak. Hurrengo batean etorri beharko zuela berriro. Ez zitzaion asko gustatu tratu hura Joxeri. Eta ez zen gehiago joan. Azpeitiko parroko jaunarekin hitz egin zuen, eta don Luzio Martinez Jauregi berak ezkondu zituen, herriko eliza nagusian.

Bere emazte Juliri eskainitako bertsoak ere aurkitu ditut, noski. Eta bakarren bat edo beste aipatuko dizut jarraian. Hasteko, Xalbador zenaren oroimenez Urepelen egiten diren jaialdi hoietako batean *emaztearen mihiari* kantatzeko eskatu zion Alkat bertsolariak, eta Joxek hauxe kantatu:

Mingain orri ez nion
kantatu sekula,
baiña, andrea, ez dizut
nik egin nai burla.
Jakizu migain ori
goguan dudala,
esan zenidalako
maite ninduzula.

Beste bertso hauek Asteasuko plazan egindako jaialdi batean bota zituen, gai-jartzaileak *gaztetan batiere estimaziorik izan al zuen* galdetuta. Ez da gogoratzen gaia jarri ziona nor zen; apaiz gazte bat zela bakarrik. 1977ko urtarrilaren 13an grabatu nizkion nik.

Orduan ez nun egin
milagro aundirik.
Barrena goibeltzen zait
artaz oroiturik.
Gaztetan ez nun egin
nik lana besterik.
Mutil zatarra nintzan,
ez nuen dirurik.
Orregatik ez nuen
estimaziorik.

Iritsi giñanian
sasoi onenian,
mogitu ber sekula
mogituenian.
Lore bat billatu nun
Bidani gaiñian...
Muxu bat eman zidan
goiko ezpaiñian,
biotz ona neukala
oroitu zanian.

Beti ibilli gabe
morroi ta mirabe,
esan nion: "ezkondu,
ez al degu obe?"
Orduan egin nintzan
lagunaren jabe.
Orain badet andrea,
baditut bi seme...
Dirurik ez det baiña
bizi naiz konforme.



Joxe eta Juliren
ezkontza. Azpeitian
1957ko apirilean

1990eko otsailaren 23an, herriko bertsolariak omendu zituzten Azpeitian. Laxaro Azkunek gai hauxe eman zion, bakarka kantatzeko: *Lotsa ere ematen dit, baina hor kanpoan galdetzen zuten, nola ote dabilen Lizasoren bihotz zahar hori?*

Biotzan berri galdetutzen du
mediku baten moduan.
Neronek ez tet ikusi baiña
nunbait ortxe det barruan.
Ori bereak pasea dago
beste askoren moduan.
Esango dizut nork gaixotu zun
ta nork sendatu ziguan.

Aundinaikoa nuen laguna
lenbizi izan nuena.
Berealaxe antzeman zidan
aberatsa ez nintzana.
Bere moduko arrosko batek
eraman zun beregana.
Ura izan zan biotz guztia
alperrik galdu zidana,
ura izan zan biotz guztia
alperrik galdu zidana.

Kosta zitzaidan eramatea
isil ta pazientzian,
baiña jakin nun gaitz orrentzako
erremeiuak nun zian.
Lore mardul bat billatu nuen
Ernio zarran ertzian.
Gaixorik neukan biotz makala
aretxek sendatu zian,
gaixorik neukan biotz makala
aretxek sendatu zian.

Zorionian libratu nintzan
orduan nedukan gaitzez.
Laguna ere ona dadukat,
zertan esango det ezetz?
Egun guztia pasatutzen det
illunabarreko pozez.
Maite nauela badakit eta
oain ongi nabil biotzez,
maite nauela badakit eta
oain ongi nabil biotzez.

1984ko apirilaren 14an, Bergarako Pentekostetako
bertso-jaialdian Manu Begak eman zion gaia: *Zure
emaztearekin zergatik hasarratzen zera, Joxe?*

Galdetu eta erantzuna nik
pronto dadukat zuretzat.
Emakumien errietarik
nik ez det artutzen aintzat.
Aje txiki bat badaukat baiña
ez du kalterik beretzat:
trankil samarra naizelako ni
andrea asarretutzen zat.

Beti bezela deman ari da
orain suaren eskiñan.
Beti etzaite orrela jardun,
itz egin zazu tamaiñan.
Aspalditxotik oroitu nintzan,
andre gaixoa, nor ziñan.
Zu bezain petral izandu banintz,
maizo asarrauko giñan.

Bergaratik Oñatira joan eta, 1993ko maiatzaren 22an, Larraingainen egindako jaialdi batean Nikolas Seguiolak eman zion gai bat gogoratuko dugu. Bihotza ikutu nahi nonbait Joxeri, eta honelaxe esan zion: *Joxe, garai batean sukaldea bete-bete lagun bizi zinaten zuenean; baina semeak ezkondu ziran, eta andrea eta biok bakarrik zaudete orain. Ez al dezu hutsunerik sentitzen?*

Lagun, nolabait oi galdetzera
zu're ausartu al zera?
Ez ikaratu, senti bezela
emango'izut aditzera.
Berdintsua da gizakia ta
piztiaren izaera:
lumaz janztean aldatzen dira
kabi batetik bestera.

Emazteak'e orixe dio
orain sukaldera junda:
"garai bateko gure emengo
umore ederra nun da?"
Zenbat mejora aterako deu
triste-kontutan jardunda,
geuk'e garaia eldu zanian
orixe egin gendun-da?


Beti ez dago egoterikan
aita ta amaren mendian.
Emen mogitu bearra dago
beñe mogituenian.
Ori dan baiño makurragoa
badatorkigu bidian:
txarro izango da bitatikan bat
bakartutzen geranian.



Juli eta Joxe bi seme eta errainarekin

(Arg. Lizaso familiak utzia)

1994ko martxoaren 26an, Bergaran egindako jaialdi batean Joxerra Garziak jarri zion gaia: *Zuk matxistatzat al daukazu zeure burua, Joxe?*



Bide ortatik joanik,
egingo ote det gauz onik?
Oinperatzerik etzait gustatzen
iñoren izenik.
Neska, andre ta amonik
ez det maite ez dedanik.
Barkatu baiña nik eztet uste
matxista naizenik.

Jardun dit iritzi eske,
erantzungo diot laste.
Oroitu gabe nenguanikan
eztezala uste.
Makiña bat andre gazte
nabaitutzen ditut triste,
senarrak maite ez ditulako
merezi duten ainbeste,
senarrak maite ez ditulako
merezi duten ainbeste.

Kanpuan uso tankeran,
zakar etxeko sarreran,
alare beti berak arrazoi,
naiz sobera edan.
Jartzen dirade koleran
gauza utsan goraberan.
Ortik pentsatu bear degu guk
matxista oiek zer diran,
ortik pentsatu bear degu guk
matxista oiek zer diran.

Joxerra ari zait kiñuka
“luze zeak eta buka”.
Berritsu samar ari nintzaden,
arrazoi daduka.
Andre gaixoak marruka
senarrak berriz birauka...
Gauz geiago're esango nitun
denbora baldin baneuka,
gauz geiago're esango nitun
denbora baldin baneuka.

Landetako Unibertsitatea

Ez nituzke inola ere baztertu nahi Landetako taberna eta jatetxeko urte gogoangarri haiek. Ez horixe! Eta horretarako, aspaldi ikasi nuen lanbide zaharra gogotan, neure baitako *moviola* makina erosora jo eta ostatu hartara bilduko gera, garai bateko berrien bila. Joxe Lizasoren bizitzarekin ondo lotuta baitago Landeta, izan ere.

Orain, taberna eta jatetxe gehiago ere badira han. Baina gure haurtzaroan bakarra ezagutu genuen: Bereziartuatarren taberna, alegia. Gero, Joxe eta Julik hartu zuten errentan, eta *Bertsolarien Unibertsitatea* deitura eman zion norbaitek taberna hari, garai batean han ezagutu zuen bertso-giroa zela-ta. Eta aldi batean hango nagusi izan zen Joxeri unibertsitate hartako *zuzendari* maila eman zioten. Alabaina, Joxe ez da titulu haundizkien zalea, berak dioenez.

1957ko apirillean ezkondu giñan gu, esan bezela. Eta aipatutako Landetako sagardotegi edo taberna ura artu genion Bereziartua familiari. Badakizu: gure Julik sukaldari ona zan, eta da orain ere. Eta guk lanbide bat nai genduen bizitzan aurrera egiteko. Dakizunez, lendik ere sagardotegi ura oso ezaguna zan inguru onetako jendearentzat; baiña guk artu genuenean, lenaz gaiñera, alakoxe giro berezia ematen saiatu giñan, jende geiago erakartzeko.

Eta egia da, bai, bertsolari askoren bil-toki izaten zala Landetako gure jatetxea.

Asi or Urrestillatik eta Matxinbenta, Aratz-erreka, Oñatz, Errezil, Bidania-Goiatz...

Alde oietako bertsolari, erdi bertsolari eta bertsozale geienak gurean biltzen ziran illunabar eta asteburuetan, trago bat egin edo mokadu bat jateko aitzakiarekin. Eta, orrela, bertsoa etengabe izaten zan gurean, batez ere larunbat eta igande arratsetan. Askotan, geuk nai baiño geiago ere bai. Ateak ixteko garaia etortzen zanean, naiko lanak izaten ziran an jendea etxera bidaltzen.

Landetako jatetxean, nik gazte-denboran Txillarramendin izan nuen bezelaxe, bertsolariak entzuteko aukera eta bidea izaten zuen jendeak. Eta *Unibertsitate* izen ori ortik badatorkio, ba, ondo dago. Baiña Landetako bertso-eskola noiz eta nola sortu eta asi zan, bertsolaritza nola erakusten genuen eta abar galdezka etorri izan zait neri bat baiño geiago, *Landetako Unibertsitatea* titulu ori dala-ta. Don Juan Bautista Ezeizaberrena apaiz zana seko asarretu zitzaidan bein, euskal metrikari buruzko liburu bat eskatu eta nik ez nuela orrelakorik ezagutu ere egiten erantzun niolako. “Landetako eskolan nola erakusten nuen, ba” esan zidan. Baiña emen ezta sekula bertso-eskolarik izan, bertso-giroa baizik. Orregatik etzait gustatzen titulu ori batere.

Bertsozale asko biltzen zan gurean. Bertso zar eta berriak, kontu eta pasadizoak maite zituen jende asko. Esate baterako, Azpeitiko Telefonikan lanean

ari zan Joxe Blanco urnietarra beti emen izaten zan. Jira eta buelta, eta mostradore aurrean or ikusiko zenuen beti, kontu eta bertso zarrak eta aldian bein bat-batekoak kantatuz. Oso bertsozalea zan Joxe, eta bezero ona, guretzat. Bizikletan ibilli oi zan, eta eguna emen inguruan pasatzen zuen ark, askotan.

Blankoren amaika pasadizo eta ateraldi eder bada, baiña bat kontatuko dizut. Bein batean, gure atariko postera igo eta or ari zan: “A ver, mesa; aquí alto de Mandubia” egiñez, Telefonikako bere nagusiei oska. Tokitan dago Mandubiko gaina, Landetatik. Baiña etzeukaten orain bezelako kontrolik, itxura danez.

Iberdueroko baillada onetarako arduradun zan *Jorge zarra* andoaindarra ere gurean egoten zan askotan, bertso zarrak egoki asko kantatuz. Entzutekoa zan uraxe ere! Asko eta ondo kantatzen zuen ark, eta aparteko graziarekin kantatu ere.

Eta Etxeberriko Ambrosio, berriz, maisua zan jendea zirikatzen. Eta Manuel *Xumeta*, Martzel *Keixeta* eta oiek ere emen ibiltzen ziran, irten gabe. Bertsolari ezezik bertso zarrak kantatu eta pasadizoak kontatzen maisu onak ziran. Oiez gainera, ba, Antonio Mari Loidisaletxe, Lazkano, Agirre... Ainbat eta ainbat bertsolari eta bertsozale. Eusebio Eizmendi *Txapel* etzan taberna-gizona, baiña amaika aldiz etorriko zan gurera. Uztapide eta Basarri ere beti sartuko ziran Azpeiti al-

dera etortzen ziranean. Lazkao Txiki, Azpillaga, Mitxelena, Lopategi, eta abar. Esan bezela, bertsolari askoren biltoki izan zan garai batean Landetako gure jatetxea. Eta tertulia ederrak egiten giñuzen, bai orixe!

Loiolako Herri Irratian antolatzen zenuen *Bertsolari Gazteen Sariketako* saioak ere antxe grabatzen zenituzten, larunbat arratsetan. Iru-lau urtean bai, oso oker ezpanago. Saio aiek ere bertsozale asko biltzen zuten gurera, eta guk nai genuen giroari lagundu egiten zioten.

Esan dizudan bezela, bertso-giro orixe zegoen Landetako gure jatetxearen ingurumarian. Giro bertsozalea eta euskalduna zan, batez ere. Eta jaten eta edaten, berriz, lujorik gabe baiña ondo ematen genuela uste det. Juli eta ango beste laguntzaileen meritua zan ori. Baiña guk ez genuen ematen periodikurako oso dotoreak diran beste orrelako titulurik...

Imanol Lazkano eta Sebastian Lizasoren ondorengo bertso hauek, 1990eko urtarrilaren 26an, Illunbe sagardotegian jasoak dira, Xabier Perez *Euzkitzeren* omenegindako jaialdi batean. Landetako garai bateko taberna eta jatetxe huraxe zuten gai. Saioaren zati bat bakarrik duzu hemen.



Laz: Gogoratzeak ekarritzen dit
ia malkoan zoria.
Esan orduko garai artako
kontuan naiz eroria.
Landeta aldeko taberna arek
badu bere istoria.
Lujo aundirik etzuen baiña
bazuen kategoria.

Seb: Bertsolaritzan iri aundi bat
naiz ta bestela auzua.
Aitortu bear, an pasa nuen
nere aurtzaro gozua.
Noiznai kantari Joxe Agirre,
Gaztelu eta Rusua...
Auei entzunez piztu zitzaidan
bertsolaritzaren sua.

Laz: Mai santu ura nere amarentzat
etzan gozua izandu.
Amaika aldiz esan oi zidan:
“nolaz zatoz ain berandu?”
Baiña bera zan gure eskola
eta bertsoen zimendu.
Dударik gabe gerora ere
bere frutua eman du.

Seb: Nere atsegin aundiena zan
an bertsoak entzutea,
ta pena, berriz, auek utzita
goiz oera joatea.
Pena batekin dadukat orain
nere barrena betea:
an entzundako bertso onenak
aizeak eramatea.

Laz: Mai santu artan igaro arren
amaika une atsegin,
nik oraindikan gerora ura zer
izango zanik ez nekin.
Lau bertsolari izan dirade
mai santu orren etekin.
Altareak'e aurki ditezke
meritu gutxigorekin.

Seb: Mutiko batek zail da izaten
nik ainbeste ilusio.
Bertsotarako bestetarako
ez nuen ainbat bizio.
Nolatan aztu Jorje Zarra ta
Etxeberri Anbrosio?
Aien bertsoak gaur ikastea,
besterik ez tet desio.

Laz: Giro ederra izan gendun ta
egiten zan alegiña.
Iñoiz ez giñan andik aldentzen,
beti jokera berdiña.
Ta, Euzkitze, zu an izan eza,
ori sentitzen det miña.
Txapelarekin zeunden gaur ziur
andikan pasa baziña.

Seb: Zer arraiotan asiko gera
denbora joanan galdetan...
Ez dadukagu zer egonikan
falta dan aren penetan.
Geroztik beintzat denok kantari
munduaren lau aldetan.
Ango eskola bizirik baita
Azpeiti eta Landetan.

Laz: Informatzeko izaten giñan
eskola zar orren premiz.
Aitor nezake ain pozik ez nun
besterik ikusten begiz.
Erre zanean, barkatu baiña
esan nuen amar aldiz:
nere partetik naiago nula
Loiola erre izan balitz.

Seb: Ez da gezurra, arrazoi ori
lendikan nuen ezagun.
Ura joan zan ta gerokoak
ere oroitu ditzagun.
Ura joan arren elkartzen gera
oraindik ainbeste lagun.
An izandako giro goxoa
betiko gorde dezagun.

1992ko maiatzaren 29an, berriz ere Joxe Lizasoren omenez jaialdia antolatu zuten Azpeitian. Eta *Landetako tabernako mahai luze hura* eman zion Lazkanori gaitzat Laxarok.



Laxaro, zaude mai aren berri
enteratzeko asmuan.
Jakin ezazu ez nagoela
an pasatako damuan.
Ibili giñan landarak zuaitz
egiteko terrenuan.
Dena laguna, dena umore
euskaldun giro sanuan.
Bertsotan eta purua erretzen
mai artan ikasi nuan,
mai artan ikasi nuan.

Joxe eldua, ni mutil gazte,
Sebastian mutikoa.
Bertsoa edo adar-jotzea
zan gure gai betikoa.
Ez pentsa gero eskola ura
zanikan nolanaikoa...
San Balaguerren eskolak bezain
kategori aundikoa.
Ain zuzen, emen omentzen da gaur
ango katedratikoa,
ango katedratikoa.

Enborretik ezpala

Ez dut ezagutzen Joxeren aurreko beste Lizaso bertsolaririk Urolako erdialde honetan. Baina ondoren, bai, beste bi belaunaldik jarraitu diote Txillarramendiko maisuari, gutxienez. Seme Bixentek ere oso ondo egiten zuen bertsotan, baina utzi egin zion. Txilar artean hazi zen enbor zaharrak aldi baterako kimu berriak eman ditu, bada.

Landeta eta Azpeitiko bertso-eskola edo estilo zahar eta bereziko ikasbideak ondo ikasi zituen Sebastianek; eta gaur egungo bertsolaritzaren abantailak ere ondo jaso eta eho ditu bere bertso-errota bizkorrean. Halare, Joxe oso urduri ibiltzen omen zen semea bertsotan hasi berritan. Horrelaxe aitortu zidan aspaldi egin nion el-karrizketa batean.

Egia esatea nai badezu, etxean ez tet bertsorik kantatu inoiz. Etzait gustatzen, oso zailla egiten zait-eta. Ala ere, bi seme izan ditugu, eta biak bertsolariak. Sebastian bakarrik ezagutzen du jendeak, baiña Bixente bera ere oso egokia zan garai batean. Bertso ona bakarrik gustatzen zitzaion, ordea, eta utzi egin zuen. Erriko musika-bandan ere ibilli zan garai batean, bere aitona zana bezelaxe.

Semearekin bertsotan asi nintzanean, estutu eta larritu egiten nintzan, eta oso gaizki pasatzen nuen. Zergatik estutzen nintzan galdetuko didazu. Ba, neure buruarekin naiko lan ez nuela, semeak

bertsoa nola osatuko ote zuen, amaitu ezinda geldituko ote zan, zer irteera eta arrazoi-lege emango ote zituen pentsatzen asten nintzan. Eta orrek larritzen ninduen.

Baiña bertsoa errez egiten zuela ikusi nuenean, “alla kuidaos!”, esan nion neure buruari, eta eztiot geiago kasorik egin. Ark baiño arrisku geiago neuk ote neukan oartu nintzan, izan ere. Zer nai dezu? Gurasoaren kontuak orrelaxe izaten dira.

Lasia ematen du, baiña gure Sebastian bera ere larri asko ibilli zan Azpeitian semearekin batera kantatu zuen batean. Jaialdiaren azkenean onela kantatu zuen, beintzat:



Sebastian Lizaso, erramugunean. 1961.03.26

(Arg. Pepe Gil -
Lizaso familia)

Agur, entzule, agur, Azpeiti,
au diot azken bertsuari:
biotza daukat alteratua,
antzeman diot pultsuan.
Ia itoan ibilli bait naiz
nerbioaren putzuan.
Semean kezka lotzen ninduen
egon eziñan lazuan.
Orain badakit aitak nerekin
zenbat sufrituko zuan.

Alare, zarra baiño balienteagoa izaten da
gaztea, lotsagabe eta ausartagoa. Egun onak
eta txarrak edozeini tokatzen zaizkio bertso-
tan, eta orrelakotan zarra ernegatu egiten
da; eta gazteak, berriz, jo eta pasa egin eta
aurrera jarraitzen du, okerrak zuzentzeko
denbora izango duela-ta. Ez du izaten guk
bezela parregarri gelditzeko beldurrik.

Askotan ez baiña elkarrekin kantatu
izan degu inoiz aita, semea eta billobak.
Bertso erreza daukate batek naiz besteak
ere. Jarraipena badegu, beraz...

1976ko abenduan, Eusebio Eizmendi *Txapel* zenaren
omenez Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan egindako jaialdi
batean elkarrekin jarri nituen Lizaso aita-semeak, ho-
nako gai hauxe emanda: *Joxe, zure garaian dana peka-
tu zen; orain, Sebastianen garaian, dana libre omen da.*

Aita: Ondo gogoan artua daukat
Iriondoren esana.
Orain alperrik da nik artzea
emen naigabe ta pena.
Lenago ere goxoak ziran
zirria eta laztana,
ta orain libre jarri digute
lenago pekatu zana.

Semea: Ez derizkiot azkar antzean
zendutenikan jokatu.
Asi orduko pekatu bildurrez
azio denak bukatu.
Apaizen mende bizi ziñaten,
ori etzazu ukatu.
Berentzat dena libre zeukaten
eta zuentzat pekatu.

Aita: Eleizara jun ta entzuten gendun
itzaldi izugarria,
ta ispillutzat jartzen ziguten
beti infernu gorria.
Era ortantxe joan zitzaigun
gazte-denbora guztia.
Oraindik ere pena dadukat
lenago errez utzia.

Semea: Ondo zekiten zuei nondikan
nora artuko tamaiña.
Sermoiarekin bildurturikan
egon ziñan, alajaiña!
Gaurko gaztea bide berritik
ibiltzen dago ekiña.
Gu're akabo aien esanei
begira egon bagiña.

Aita: Orretan kontu berdiña gendun
etxean eta kanpuan.
Zeru beldurrez egondu giñan
gazte-denbora osuan.
Etzaitezela zu ola egon
aita zarraren moduan,
presa eitea alperrik baita
udak aldegindakuan.

Semea: Zure kontsejuk izan ditezke,
aita, oso prezisuak.
Neskatxarekin pasatzen ditut
sarritan une goxuak,
lepo-lepotik eldu ta eman ez
laztanak eta musuak.
Au komeria! Ikasleak baiño
gutxigo daki maisuak!

1989ko abuztuaren 24an, Lizaso aita-semeak hone-
la aurkeztu zituen Joxe Mari Aranaldek, Ibarrako San
Bartolome jaietan: *Hemen dituzue Lizaso aita-semeak.
Jon eta Beñat billoba txikiak gehiegixko mimatzen omen
ditu aitonak. Horrela entzun det, Joxe.*

Aita: Ondorengoak baitu
gure familiak,
nik kontatzen dizkotet
nere ipuiak.
Aiek bakarrik esaten
dizkate egiak.
Argatik maite ditut
illoba txikiak.

Semea: Aitortzen det zerala
zu aitona fiña,
baiña aurrak ezitzen
nik det alegiña.
Eziketa okertzen
zu zaude ekiña;
maitatu ta mimatu
ezpaita berdiña.

Aita: Semea, nola zaude
eman eziñian?
Orain utziko zaitut,
seme, jakiñian.
Dana aztu al zaizu
zartu zeranian:
zenbat maite zintudan
aurra ziñanian?!

Semea: Errespetatzen zaitut
nola zeran aita;
ulertu nere txanda
etorria baita.
Naiz eta zuk billobak
nik ainbeste maita,
nik ezi bear ditut
nereak dira-ta.

Aita: Beingoagatik artu
zazu pazientzi,
dakidan piska nai dut
emen erakutsi.
Umeak nai baittuzu
bide onez ezi,
lendabiziko gauza
maitatzen ikasi.

Semea: Aiek gogoko dute
aitonan magala,
zeu portatzen zera-ta
ain gauza normala.
Ezi bear ditugu
guk geuk nai bezala,
biar esan dezaten
portatu giñala.

Aita: Emen azaldu degu
istori polita.
Gauzak jakiten dira
ola ibillita.
Ai, baldin baleude
aik biak azita!
Berdin maiteko gaitu
aitona ta aita.

Semea: Zuen maitasun-soka
 zertarako autsi,
 tartean ezpaitago
 maitetasun gutxi.
 Nai dezuna egiten
 ezin dizut utzi.
 Jolastu zaite baiña
 ondo erakutsi.

Eta 1991ko maiatzaren 25ean, Oñatiko Larraingain soziedadean aita-semeak lanean jarri zituen Nikolas Segurolak, gai hauxe emanda: *Jakin dedanez, larunbat arratserako aitaren plana, garaiz ohera joatea izaten omen da; semearena, berriz, berandu kalera joatea. Gero, igande goizetan, aita mezetara eta semea ohera. Zer diozute? Hasi eta laster doinua aldatu zuten, ohartuko zeranez.*



Aita: Ezkondu giñan eta seme au
an azaldu zan kaban.
Naikoa kezka ematen ai da
joan daneko aspaldian.
Ez al dakizu zer naigabeak
uzte'ittuzun familian?
Kalera nola arraio zoaz
etxeratzeko garaian?!

Semea: Sentimentuak, aita, nai ditzut
nik zuri adierazi,
ikamikaka asterik emen
nola eztuen merezi.
Gaur gaztediak berekin ditu
ainbeste moda berezi.
Zedorri gauza etzeranean
etzaidazu galerazi.

Aita: Semetxo batek aitarentzako
auek al dira tratuak?
Esan liteke bizi gerala
gu biok asarretuak.
Ikus itzatzu ama gaixoak
botatzen ditun malkuak...
Leno alprojak eitten zituzten
leno alprojak eitten zituzten
olako erretiruak.

Semea: Zer arraiotan egiten dezu
emen santuan papela?
Jakinda nago gazte-denboran
zu're golfoa ziñela.
Eta ni orain ibilli bear
garai baten zu bezela...
Etzazu aztu sekula ere
etzazu aztu sekula ere
zure semea naizela.

Aita: Ez ikaratu, seme bezela
nik zaittut ezagutua.
Ia piska bat moldatzen degun
bion arteko tratua.
Granujaren bat izan naizela
nunbaiten dezu aitua...
Granuja pixkat banintzan baiña
granuja pixkat banintzan baiña
erretiro onekua.

Semea: Zuk egindako parranda denak
orain ez litezke konta,
baiña gaztea juergazalea,
eta zeñi zer inporta?
Amak eztauka berriz nigatik
negar-malkorik zer bota.
Semearena ulertuko du
semearena ulertuko du
lendik oittuta dago-ta.

Aita: Seme maitea, beingogatik
ez gera asarretuko.
Nik jakiñian utzi nai dittut
gaur urruti ta gertuko.
Gizon gaiztoa izan banintza
amak ez niñun artuko.
Eta sinistu artu ezpaniñu
eta sinistu artu ezpaniñu
zu etziñala sortuko.

Semea: Arrazoi ori, aita, zugandik
entzuna nedukan aurrez.
Eskerrik asko, orain artean
eman didazu-ta babes.
Aitarik gabe seme izaten
nik ez neukan orren errez.
Baiña semerik izan ezpalitz
baiña semerik izan ezpalitz
zedorri aita ere ez.

Aita: Nere semea nolakoa dan
nago ezin sinetsian.
Bide okerrez zabilta, maite,
ori nere iritzian.
Ni bezelaxe egon berko'ezu
isil-isillik etxian.
Azariak'e errenditze'ira
azariak'e errenditze'ira
lazuan arrapatzian.

Semea: Alper-alperrik egiten dezu,
aita, oinbeste erregu.
Gazte gera ta juergarako're
sasoi aparta daukagu.
Ari gera ta alper-alperrik
ez al gerade ari gu?
Agur, aitatxo, oera noa
agur, aitatxo, oera noa
gero itz egingo degu.

1992ko urriaren 17an, Lizaso aita-semeak, Agirre eta Euzkitze bertsotan jarri zituen Manolo Arozenak, Lesakan. Pittin bat zirikatuz, gai hauxe eman zien: *Zein ote da Azpeitiko bertsolaririk onena?*



Seb: Zarrak baziran baiña ez dira
urte geiegi berekin.
Txorikumeak gaitz jakiña du
egatu nai eta ezin.
Ori jakinda onena nor dan
nolatan dezu galdegin?
Benetan diot: pena artzen det
dudan jartze utsarekin,
benetan diot: pena artzen det
dudan jartze utsarekin.

Agi: Zu, bizarduna, iruditzen zait
utstzat jotzen gaituzula,
baiña pentsatu utsegiteak
zuk ere badituzula.
Ongi dakigu orain bertsotan
aisa egiten dezula,
baiña pentsatu daukazun ori
aitari zor diozula,
baiña pentsatu daukazun ori
aitari zor diozula.

Liz: Neuk eztakit zer pasatutzen dan
aspaldian Azpeitian,
bertsolai modukoak ugari daude
auzoan eta etxian...
Garai batean asitakuan
mai eder baten ertzian,
bertsolariak zer izaten ziran
orduan ikusten zian,
bertsolariak zer izaten ziran
orduan ikusten zian.

Euz: Joxe, olako astakeririk
aspaldian ez nun entzun.
Zeu oso arro zabilta eta
nik umil ezin erantzun.
Zuzen ustean ematen dezu
amaika arrazoi lizun...
Jakin nai nuke txapel beltz ori
zein juraduk eman zizun,
jakin nai nuke txapel beltz ori
zein juraduk eman zizun.

Liz: Berealaxe emango dizut,
Xabiertxo, erantzuna.
Mutiko bati kantatutzea
au da nere poztasuna.
Ikusten dezu txapel zar onek
dadukan karga astuna...
Au degu gauz bat mutiko batek
beñ'e kenduko eztuna,
au degu gauz bat mutiko batek
beñ'e kenduko eztuna.

Seb: Burua ere galtzen asiak,
egin baitute zartzera;
Xabier, berriz, urbildua zan
tximista baten antzera.
Baiña erriko sailkapenean
gelditzen baitzan atzera,
orregatikan aldegin zuen
Azkoitira bizitzera,
orregatikan aldegin zuen
Azkoitira bizitzera.

Liz: Gaur Azpeitira joaterako
utziko det jakiñian.
Lengo bertsoa azaldu dezu
Xabierren izenian.
Orren famak'e zabaldu ziran
noizbait Euskadi danian.
Bizar-aundiak luzitutzen du
aita falta zaionian,
bizar-aundiak luzitutzen du
aita falta zaionian.

Agi: Euzkitze ere santu-itxuran
mutil biurritakua,
aitona zarrak tentatutzera
propio etorritakua.
Lizasok daukan txapela ez da
aldrebes jarritakua.
Zein txapelketan eman zizuten
zuri belarritakua,
zein txapelketan eman zizuten
zuri belarritakua?

Liz: Ara, Agirre, zure bertsoa
etzan eder ta txukuna.
Poz bat dadukat bere aluan
oixe bakarrik laguna.
Zenbat errita ote gera gu
ortxe alkarrekin juna...
Au da azari bat gaur zakur batek
bein'e bildurtu eztuna,
au da azari bat gaur zakur batek
bein'e bildurtu eztuna.

Euz: Aittona zar au arro ari da
zertxobait badalakuan.
Txapel beltz bat du buruan eta
alaxe dabil munduan.
Bestetik *falta de riego* dauka,
aitton askoren moduan.
Askotan aztu egiten zaio
mikrofona nun duan,
askotan aztu egiten zaio
mikrofona nun duan.

Liz: Motiborikan aski badaukat
mikrofonoa azteko;
erantzunikan neukanik ere
igual etzendun usteko.
Jakin nai luke nik zer daukaten
txapel aundi au jazteko.
Bat'e lotsarik nik ez dadukat
kalboa erakusteko,
bat'e lotsarik nik ez dadukat
kalboa erakusteko.

Seb: Errespetoan kantatutzeko
ez al daukazu oiturik?
Zeure bertsoa kantatzen dezu
aurrekoari loturik.
Ta okerrena: lagunentzako
eztezu uzten lekurik.
Zure lotsarik, aita, eztaukat
emen zertan sufriturik,
zure lotsarik, aita, eztaukat
emen zertan sufriturik.

Liz: Seme maitea, alper-alperrik
ai zera ziri ta ziri;
lenago ere erantzun diet
bati baiño geiagori.
Pena bat daukat gizatasunik
etzaizutela agiri...
Ta beti txanda nik uzten diet
merezitxo dutenari,
ta beti txanda nik uzten diet
merezitxo dutenari.

Seb: Isildu gabe ari zerade
berritsu baten antzera;
beingoagatik nik agintzen det
eta zoaz esertzera.
Bukatutzean eskutik eldu,
emango zaitut etxera.
Ume jaio ta gizon bizi, ta
ume biurtu bait zera,
ume jaio ta gizon bizi, ta
ume biurtu bait zera.

Liz: Jaunak, auxe da lotsagarria
semean aldamenian.
Gur'aitamenak zabalduko'ira
biar Nafarru danian.
Ni umil-umil geldituko naiz
amaren aldamenian,
gaur edo biar Sebastian au
gizon egiten danian,
gaur edo biar Sebastian au
gizon egiten danian.



Hiru belaunaldi: Joxe, seme Sebastian eta biloba Beñat.
(Arg. Lizaso familiak utzia)



Joxe bere semea eta bilobekin.

Lizaso aita, semea eta biloba hiru belaunaldik elkarrekin sarritan kantatzen dute, nor baino nor. 2001eko sagardo-garaia hasi zen egunean, hirurok eta Andoni Egaña ziren bertsoan Elosiagako Añotan. Saio haren berri Joxek berak eman zidan, eta bertsoak Azpeitiko KAITO telebistari esker eskuratu nituen. Hasieran, Lizaso aita-semeek eta Egaña kantatu zuten.

Liz: Kupelarte bertsorik gabe
zer kupelarte tristia!
Gaur orren berri ezagutzeko
au da bikote gaztia.
Orrez aparte errezena da
oitura zarrai uztia.
Udaberriak mereziko du
umoreakin astia,
udaberriak mereziko du
umoreakin astia.

Seb: Gabon denori, bertsoarako
gonbita degu jaso.
Ordua ezta aldrebesa ta
egoera eroso.
Orrelakotan giroak berak
urrundu oi du lauso,
elkarren lagun baitira beti
sagardoa ta bertsoa,
elkarren lagun baitira beti
sagardoa ta bertsoa.

Ega: Onela degu bertsolarien
kupel ondoko jarduna,
gure eztarria orrelakotan
izaten baitegu leuna.
Añota degu etxe goxoa
maiz bisitatzen deguna.
Aprobetxatu ein bearako da
urteko lelen eguna,
aprobetxatu ein bearako da
urteko lelen eguna.

Liz: Bertso bikaiña kantatu digu
gure Andoni maitiak.
Arrazoi dezu: eztu balio
isillikan egotiak.
Pena ematen du leku ontatik
kantatu gabe joatiak...
Amaika bertso entzun berko dik
orain asten dan urtiak,
amaika bertso entzun berko dik
orain asten dan urtiak.

Seb: Urtea asita amaika egun
paseak gaurkoaren zai,
eta sagardo denboraldiak
sagardozeale asi nai.
Sagardoa ta bertsoa beti
izan baitira uztargai.
Neurrian dira osagarriak,
neurritz pasatzean etsai,
neurrian dira osagarriak
neurritz pasatzean etsai.

Ega: Neurrian artuz erakusten da
emen abilidadea.
Azken tragoa sarri ordea
lengoa baiño ohea.
Neurritz pasatze ori omen da
sagardoakin grabea...
Sebastian ere ezta izango
ori probatu gabea,
Sebastian ere ezta izango
ori probatu gabea.

Liz: Gizon isil ta umillak gera
etxean gauden lekuan,
baiña arrotzen asten gerade
gu're upelan onduan.
Entzun al dezu bizar-aundiak
nola itz egin diguan?
Guk'e neurria artzen diogu
naikoa edandakuan,
guk'e neurria artzen diogu
naikoa edandakuan.

Horrelaxe hirurok bertsoan ari zirela, hirugarren Lizasotarra sartu zitzaien txandan: Sebastianen seme Beñat, alegia. Eta lauron artean egindako saiotik, honako hauek hautatu ditut:

Beñ: Arrazoi dezu, sagardotegi-
giroa ain da aparta;
upelartean egiten degu
makiña bat zalaparta.
Zer eingo zaio, emen giroa
oso dotorea da-ta?
Gu're sarritan geratzen gera
neurritik ondo pasata,
gu're sarritan geratzen gera
neurritik ondo pasata.

Seb: Bejondaizula, zugandik ez nun
arrazoi ori espero.
Zu noizean bein erortzen zera
ta gu ia egunero.
Burua eztegu otz izaten ta
sarritan mingaiña bero.
Neurrian pilla azi oi gera
neurritik pasa ta gero,
neurrian pilla azi oi gera
neurritik pasa ta gero.

Ega: Gure Beñatek zer arrazoia
azaldu digun luzaro;
naiko konforme egonagatik
enago ados zearo.
Gu neurritz gaizki pasatzen gera
bai orain eta bai gero.
Neurritik ondo pasa ezker
prolemarikan eztago,
neurritik ondo pasa ezker
prolemarikan eztago.

Liz: Beñat gaztea, bide berri bat
nai nizuke erakutsi;
beingoagatik naiago nuke
artutzea pazientzi.
Gizarajo orrek nai baldin bazu
zuk'e osasuntsu bizi,
sagardo pixkat edan zazu ta
Koka-Kola oiek utzi,
sagardo pixkat edan zazu ta
Koka-Kola oiek utzi.

Beñ: Nik Koka-Kolak utziko ditut
ola eskatu ezkerro.
Bein Añotara etorri eta
besterik ezta espero.
Baiña neurritik pasa ta gero
ibiltzen zerate bero...
Ni're neurritik pasatu oi naiz
zuekin etorritz gero,
ni're neurritik pasatu oi naiz
zuekin etorritz gero.

Seb: Obe zenduke, Beñat gaztea,
neurrizko gizalegean;
oztopo asko izaten dira
parranderoan bidean.
Eta neurria zeuk artu zazu
janean ta edanean,
globoa ere lertu oi baita
geiegi puzten danean,
globoa ere lertu oi baita
geiegi puzten danean.

Ega: Egia da, bai, gaur dabiltzala
oso modu narratsean,
Koka-Kola ta ardoa nastuz
goizez eta arratsean.
Guk Koka-Kola edaten genun
nobedadean antzean,
eta mozkortu egiten giñan
iru burbuja sartzean,
eta mozkortu egiten giñan
iru burbuja sartzean.

Liz: Zu egon lasai, entzuna dezu
oin zure aitak zer dion.
Itxura danez kontseju on bat
semeai eman nai zion.
Lengo batean ain parregarri
ibillia da Orion...
Galdetu'iozu mingain zar ori
zerek potolotu zion,
galdetu'iozu mingain zar ori
zerek potolotu zion.

Sagardotegi eta horrelako lagunarteko saiotan asko-
tan ohi denez, jardunaldi luzea egin zuten. Txapelketa
eta juraduak astindu zituzten, eta elkar ondo zirikatu
ere bai. Baina, halako batean, saioaren erritmoa alda-
tu zuen zaharrak, buruan zeraman txapela bilobari
jantzi eta beste biei honela kantatuz:

Liz: Eskerrik asko, ongi ai zera
zeure uju ta irrintzi.
Barka zazute, kontsejutxo bat
nai dizuet erakutsi.
Txapeldun gisan bertsoan dabil,
entzuten dizut lenbizi.
Aitonarena zuretzat dago,
geio etzazu erantzi,
aitonarena zuretzat dago,
geio etzazu erantzi.

Beñ: Emen txapeldun neroni nago,
denok zerate lekuko.
Bere denbora pasa dik onek
zertarako egin uko?
Enuen uste ori egiten
ziñadenik ausartuko.
Eskerrik asko biotz-biotzez,
sekula etzait aztuko,
eskerrik asko biotz-biotzez,
sekula etzait aztuko.

Seb: Beti gogoan izango dezu,
ori ezta nobedade;
opariakin bat baiño geio
kezkatzen asita gaude.
Aita Rusua, eztezu egin
uste ainbeste mesede.
Aitonak bilobari eskaiñi
semean baimenik gabe,
aitonak bilobari eskaini
semean baimenik gabe.

Ega: Aitona baimen eske astea
ez al litzake tristea?
Ta txapelakin bestean jabe
auxe da, au, kontrastea!
Beñat txapeldun ikuste ori
izan arren ezustea,
sorpresa askoz aundiagoa
Joxe gabe ikustea,
sorpresa askoz aundiagoa
Joxe gabe ikustea.

Liz: Ezaguerak jarrai dezala
mundua dan bitartian.
Zu ez beldurtu ta egon lasai
aitonan aldamenian.
Zuri txapela jarriko dizut
alako saio batian,
gaur edo biar Beñatek baiño
obeto eitten dezunian,
gaur edo biar Beñatek baiño
obeto eitten dezunian.

Beñ: Lasai, aittona, aldean daukat
nik sekulako patxara;
txapela jarri didazun arren
argatik ez naiz ikara.
Orain, Andoni, zuri begira
sarri bear det atera.
Au aitonari kendu diot ta
urrena zure txanda da,
au aitonari kendu diot ta
urrena zure txanda da.

Seb: Au bezelako txapel-festarik
ez gendun izango iñun,
baiña zergatik batzuk irrika
ta besteak kopetillun?
Isil-isillik ortxe dago ta
Laja tentatu dezagun,
soiñu txikian bera izan baita
txapeldunetan txapeldun,
soiñu txikian bera izan baita
txapeldunetan txapeldun.

Bertsolari ausarta

Ausarta izatea erraza da gaur egun, burura etortzen den dana esateko. Ez da zentsurarik, ez salatarien beldurrik. Askatasun osoz kanta dezake bertsolariak, jeneralean. Baina ez zen horrelakorik izaten garai batean. 1955-1976 aldian, alkahueteak edo hutsaren truke ama salduko zukeen jendea, asko eta erraz mugitzen zen bertso-jaialdien ingurumarian. Eta okerreana, zera: gutxien uste zena izaten zela salatari eta saltzaile, orain inor aipatzeak balio ez badu ere.

Joanak joan, Joxe oso bertsolari ausarta izan zen garairik zailenetan ere, mingain zorrozdun bertsolaria, benetan. Orduko saio eta bertsopaper asko banan-banan begiratu eta bistan da ez zuela ezerk beldurtzen. Edota beldurrik sentitzen bazuen, inork ez ziola antzematen. Bakarka nahiz binaka edo hirunaka egindako zenbait eredu aipa nezake hemen, lekukorik behar baltz. Baina, hasteko, 1977an Donostian egin zioten omenaldian Lopategik bota zion bertsoa gogoratuko dizut, hemen esan dizudana ondo laburbiltzen du-eta.

Gorputzez sendo, arpegiz alai,
txapel aundi bat aterbe;
Basarri jaunak zion bezela
gizatasunez errege.
Odol bizidun bertsolaria,
itz-jarioz ere trebe.
Abertzalea zeran aldetik
arrazoi zintzoen jabe...
Esan bearrak zart! esan beti
kopletan ibili gabe
kopletan ibili gabe.

Lizasoren kuadro bat behar eta hauxe baino ederrago eta adierazgarriagorik egitea zaila da, noski. Esan beharrekoak zirt-zart! esateko ohitura izan baitu, beti. Eta nahigabe eta isun bat baino gehiago ekarri zion ausardia horrek. Baina joanak joan ziren, eta galtzak bete lan eman zion bertso asko bitxi ederrak dira orain.

Bertsoak sailkatu modu askotara sailka daitezke, noski: heriotza eta hilketak aipatu zituenekoak, politikarekin lotura zuzena zuten bertsoak, maitasun eta sinismen bertsoak, eta abar. Ez dakit banaketa hau oso zuzena den, baina nolarebait sailkatu behar nituela uste, eta horrelaxe banatuta emango dizkizut.

Honatx han-hemen jaso nituen batzuk.

Orainaldian askotan aipatzen duten Meliton Manzanas polizia inspektore eta torturazalea 1968ko abuztuan hil zuen ETAk. Eta hilaren 5ean "salbuespen egoera" ezarri zuen Gipuzkoako Gobernadoreak, hiru hilabeterako. Giro gogor hartako bertso jaialdi batean, "zuen aita oso hasarre aurkitu duzu gaur gizon bat hil dutela-ta" gaia jarri zioten Joxeri. Hiru-lau bertso gogor kantatu zituen, baina ez daduzka gogoan. Bere semeak honako hauxe bakarrik gogoratzen du:

Aita, etzaitez jarri
nerekin asarre.
Gugatik egiña zan
makiña bat parre.
Lenbizi zigortu ta
gero puruz erre...
Olako bat iltzea
eztegu ezerre.

1970ean, Azpeitiko Soreasun kantatu zituen ondorengo hiru bertso hauek. Gaia: *“Aita zergatik hil zuten?”*, *galdetu dizu zuen mutikoak, Joxe.*

Antzemana neguan
zer kezka dituzun.
Maitasunak'e badu
milla eginkizun.
Eduki izan banu
bear ainbat zentzun,
galdetu baiño leno
esan bear nizun.

Gizon danak ez dira
berdiñak izaten.
Zure aitak etzekin
geldirik egoten.
Etzaitela lotsatu
itz auek entzuten:
borrokaria zan ta
etsaiak il zuten.

Gizarajoak etzun
beste ametsikan:
erria libratu nai
etsaiengandikan.
Ibiltzen bazan ere
armak arturikan,
ez pentsa zure aita
gaiztoa zanikan.

1975eko azaroaren 20an hil zen Franco jenerala, gaixoaldi luzearen ondoren. Baina Anjel Otaegi eta Paredes Manot Txikiren kontrako heriotz zigor agindua emana zuen ordurako. Behin behar-eta, egun gogorak izan ziren haiek Euskal Herriarentzat: manifestaldiak han eta hemen, guardia zibilaren kontrolak nonahi, eta abar. Handik gutxira, *karraisia* gaia eman zioten Joxeri, eta honako bertso hauek kantatu zituen:

Gazte asko dirade
borroka irtenak.
Bizia jokutzen du
ola dabillenak.
Au sinistu zazute
emen zaudetenak:
karraisika iltzen dira
euskaldun fiñenak.

Maite zigutelako
gure aberria,
bi laguneri kendu
zioten bizia!
Il zuten Otaegi,
il zuten Txikia...
Oraindik entzuten nago
aien karraisia.

Beste hauek 1974ko abenduaren 15ean Azpeitian kantatu zituen. Gaia: *Zein da benetako laguna, Joxe?*

Nai al zenduke nik esatea
dadukadan iritzia?
Galdera orri nola erantzun
nik daukat erabakia.
Neretzat lagun jatorra degu
eta benetan garbia
gizarte ontan esaten duna
sentitzen duen guztia.

Biurri samar egonak arren
mundu ontako jarduna,
oraindik ere garbientsuna
juzkatzen det euskalduna.
Begien bistan daukagun gauza
batzuk egiten dutena...
Lagun ona da gaur egunian
iñor saldutzen eztuna.

Beste hauek, berriz, 1974ko abenduaren 15ean, Azpeitiko Soreasun jasotakoak dira. Gai hauxe eman nion, bakarka kanta zezan: *Joxe, oso itxura oneko giza-semea ikusi zaitu nonbait, eta osasuna erostera etorri zaizu indiano zahar bat.*

Etorri zera, indianua,
zu Amerikan egonik.
Interes oiek nundik dituzun
orixe ezpaitakit nik.
Inbiriz zaude ni osasuntsu
lur onetan ikusirik.
Gizarajoa, zuk ez daukazu
au erosteko dirurik.

Diruzalea sortu ziñaden
mundura, gizarajua;
urre-egarriz ziñadelako
zendun Amerika jua.
Egarri orrek or utzi zaitu
osasun dana galdua.
Zeure bururik altxa ezin ta
zertako dezu dirua?

1977ko otsailaren 5ean, bertso-jaialdia antolatu zuten Zestoan, urtero bezala. Eta Joxe Lizaso omendu zuten, hain zuzen. Behin baino gehiagotan erabilitako gaia eman nion, noski: *Ez horixe nahi degulako, baina nolako hileta nahiko zenduke zeuretzat, Joxe?*

Eriotzaren beldurrak nago,
jaunak, joan dan aspaldian;
ta baliteke emen iltzea,
ta baleike Azpeitian.
Anai-arrebak, goguan izan
ni iltzen naizen garaian,
eramatia nik naiko nuke
eramatia nik naiko nuke
ikurriñaren azpian.

Ni ildakuan, anai-arrebak,
luto beltzikan ez jantzi.
Ni illagatik gure erriai
norbaitek ber dio eutsi.
Ta, bertsolari lagunak, berriz
aldareraifño iritsi...
Ni zer izan naizen beldurrik gabe
ni zer izan naizen beldurrik gabe
erriari erakutsi.

1984ko urriaren 6an, Lizaso eta Lazkanori gai hau-
xe eman zien Oñatin Nikolas Seguiolak: *Lizaso hilobian
loreak jartzen ikusi omen du gaur Lazkanok.*

Laz: Alde batera au ikusi ta
parregurea ematen du.
Difunturikan ezin diteke
lore oiekin mantendu.
Obe zenduke burutapena
zuk bein betirako kendu,
eta obe zan bizi zan arte
ondo maite izan bazendu.

Liz: Etzaidazula era ortako
konturik gaur esan neri!
Nik erantzuna eman nai diot
zerbait galdetzen dunari.
Lurpe orretan sartu zituzten
nere lau lagun gudari...
Oraindik ere maite ditudan
seiñale ona da ori.

Laz: Aspaldi nengon gauz oien berri
jakiteko egarriak,
aurtzaro baten jakinduriak
nola diraden urriak.
Bertso orretan konta dituzu
biotz barrengo egiak.
Nik ere ekarri nezazke orain
loretxo zuri-gorriak.

Liz: Ori orrela gertatu zan ta
etzaite jarri serio.
Lurpe orretan sartu zituzten,
eztira azaldu geio.
Orain gaiñean ikusitzean
larrosa eta lirio,
seguru nago: il zuen ari
ondo akordauko zaio.

Laz: Esan dezunez, gudari aiek
ziraden benetakoak,
ta mundu ontan aurren-aurrena
iltzen dira olakoak.
Nei galdera bat sortutzen dit gaur
aitak kontatutakoak:
noiz arte ixuri bear ditugu
gure errian malkoak?

Liz: Nik enkargu bat emango dizut:
ni mundutikan joatian,
gaur bezelaxe loretxo batzuk
jarri illobian ertzian.
Eta norbaitek galdetzen badu
“barrungo oiek nor zian?”
Bildurrik gabe, lasai erantzun:
“Lizason lagunak zian”.

Laz: Mundu onetan beti olaxe
oi degu erri lotua.
Era orretan iraulitzen da
aunditzar oien kontua.
Baiña ez uste alperrik danik
gaur negartzen dan lutua.
Isuri diran odol guztiak
emango dute frutua.



Joxe Lizaso eta Lazkao Txiki

(Arg. Lizasok utzia)

1989ko azaroaren 20an, H.Bko Josu Muguruza hil eta Iñaki Esnaola larriki zauritu zuten tiroka, Madrileko Hotel Alcalán bilduta zeudela. Yolanda González, Antonio López González *El joyero*, José Bartolomé arma-saltzailea, Angel Duce eta Ricardo Ynestrillas ultras-kuindarrak atxilotu zituen poliziak ondorengo egunetan. Baina eraso eta hilketaren egiazko errudun nor zen argitu gabe gelditu zen. Gertakari gogor eta ilun hura gai hartuta bertso hauek kantatu zituzten Joxe Lizaso eta Lopategik 1989ko azaroaren 24an. Gero, Hemen egunkariak argitara eman zituen.

Liz: Naiz nabarmendu nolakoa dan
etsaiaren justizia,
alperrik dabiltz, galdua dute
gure Euskadiko auzia.
Erriगतik Josuk eman du
eman ziteken guzia:
lelen bizitza eskeiñi zuen,
eta azkenean bizia.

Lop: Orrelakoen kaltetan datoz
Estatu orren krimenak.
An sortzen dira terrorismoa
eta lapur aundienak.
Parlamentura deika ari ziran,
tirokatu joan direnak...
Testigu fiñik ez du onartzen
lapurretan dabillanak.

Liz: Lenago ere egun illunak
igaro ditugu sarri,
baiña Euskadik ez du etsiko
naiz ta lutua ezarri.
Josuk zedukan asmo fin ura
artu dezagun oiñarri,
ta eriotza gerta dedilla
erriaren bizigarri.

Lop: Madrilek ez du onartzen inoiz
belaunikatzen ez danik!
Josu, zurekin zutik gaude gu
burua altu eramanik.
Zure eriotza gure erri onen
bizigarri da, jadanik.
Zure ametsak bete artean
ez du etsiko Euskadik.

Eta 1990eko abenduaren 22an, Laxaro Azkunek Azpeitian jarritako beste gaia: *Aste honetan gudari zahar eta abertzale haundi bat hil zaigu herrian. Eta zuk ondo ezagutzen zenuen.*



Bertso utsean nola azaldu
 Altunatar Paulo nor zan?
 Erri-maitale burrukari bat
 genuen bere bizitzan.
 Entzule maite, nai dan lekuan
 bildurrikan gabe esan:
 abertzalea uraxe zala
 abertzalerikan bazan.

Armak artuta or ibilli zan
sasoirik ederrenian,
elbarrituta gero kartzelan
etsai maltzurren mendian.
Alare etzan kokildurikan
egotekoa guardian.
Bere burua azaltzen zuen
azaldu bear zanian.

Euskadigatik gizarajoak
beti egin zuen lana.
Isilka edo danaren bistan
bizia zun eramana.
Etsaiak etzun loxintxarekin
ura eramango beregana.
Gizon bat gendun egian alde
inoiz aspertzen etzana.

Nik Paulo pixkat ezagutzen nun
taldekide izanikan.
Ein gabe ezin utzi ziteken
agintzen zuen lanikan.
Enuke esan nai alaxe ere
zorrikan ez nionikan.
Ez derizkiot lau bertsoarekin
ordaintzen diodanikan.

Era orretan izandu baitzan
Pauloren bizi astuna:
biotz gainean zemakin beti
Euskadiren nortasuna.
Itxaropena lortu baiño len
zaigu mundutikan juna.
Ia zeruan lortutzen digun
munduan lortu etzuna.

Politikarekin lotura zuzenagoa duten bertsoen sailari begira jarri eta aukera haundia aurkitu dut, egia esateko. Baina ezin bil ditzaket denak hemen. Honatx bakar batzuk.

1976ko abenduan, Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan jaso nituen hauexek lehenengo. Aurreko egunean, sekulako manifestazioa egin zen Arrasaten, eta iskanbila haundiak izan ziren. Eta poliziak egurra eman zuen, gupira gabe. Hurrengo egunerako manifestazioak antolatu zituzten herriz herri, egoera hura salatu behar zela-ta. Horregatik, gai hauxe eman nion Joxeri barka kantatzeko: *Demokraziak zer kolore ote du, Joxe?*

Gaur Joxe Marik galdetzen dizkit
arrazoi garbi-garbiak.
Bolada ontan entzun ditugu
orrelako ipuiak.
Aldakuntza asko berialaxe
izango'ittula erriak.
Ta zer kolore ekarriko dun
ta zer kolore ekarriko dun
oin erreforma berriak?

Beti bezela kezkatu dago
euskaldunaren burua.
Agintze'utena egi izatia
ere ez da segurua.
Bart arratsian Arrasaten'e
egurra eta tirua.
Oraindaiñoiko demokrazia
oraindaiñoiko demokrazia
odolan kolorekua.

Nun dute oiek errespetoa,
nun dute oiek lotsia?
Ta ori baiño leno ber dana:
gizonan kontzientzia?
Nai baldin bada gure errian
demokrazia jartzia,
lendabiziko komeni zaigu
lendabiziko komeni zaigu
etsaiei armak kentzia.

Anai-arrebak, ordua degu
begiak zabalduzkeko.
Nun jaio giñan lendabiziko
erreparatu ber zako.
Biar eguardin degu ordua
berriz onuntza biltzeko.
Bide berri bat billatu zagun
bide berri bat billatu zagun
erria askatutzeko.

1977ko otsailaren 2an, Zestoako bertso-jaialdian ikurriña jartzen hasi ziren. Lizaso, Lopategi eta Lazkanori gai horixe eman nien, hain zuzen: *Poztu gintezke gaur. Begira: aurrean ikurriña eta atzean ikurriña jarri digute...*

Lop: Alako baten asetu degu
geure begiaren griña.
Orra or gure begi aurrean
lore oso atsegiña.
Korajez ziran alkate jaunak
jarri dute ikurriña...
Lore obeak ezin ziteken
jantzi euskaldun jardiña.

Laz: Baiña oraindik ere badaude
ain erri-gizon merkiak.
Mutil koskorak betetzen ditu
sari gizonen tokiak.
Ta ikurriña jartzerakuan
botoaren aitzakiak.
Lenago boto askorik gabe
artu dira erabakiak.

Liz: Nik, ikurriña, zuretzat badet
errespeto ta itzala.
Sabino Aranak bere garaian
azaldu ziñun onela.
Ondo dakigu berrogei urte
preso egondu ziñala...
Esan diteke bigarren aldiz
oraintxe jaio zerala.

Lop: Jaio berria zaitugu, beraz,
garbia eta leguna;
amets goxotan sartzen baituzu
gure gogo euskalduna.
Erdaldunakin pare jarrita
zergaitik referenduma?
Euskaldun bakar bat dan tokian
ura da agintzen duna.

Laz: Oraindik ere errietxe askok
lengo burua daukate,
ta erriari ezarri nairik
len zedukan ainbat kate.
Faltsuena da gobernadore,
txotxoluena alkate...
Ola ibilli bearko degu
erriak aukera arte.

Liz: Urte askoan gorde t'eraman
ziñuzen zu urrutira,
baiña Euskadi berria zegon
ikurriñari begira.
Gauzak agertu diran garaian
illunpetatik argira,
zure satorrak zein diran emen
ederki ikusi dira.

Lop: Ainbat euskaldun jator artean
norbait beti da erua,
ta oraingoan lotsagarria
Arratia ingurua.
Alkate batek ikurriñari
bota baitio tirua.
Nere umientzat eztet desio
aren etxeko girua.

Laz: Erriarentzat arpegi bat ta
Madrildarrentzat bestia;
ta oien mende egon bear guk,
au da komeri tristia!
Zapi batekin darabilkite
komeri ori guztia.
Oien eskutik urrian zegok
presuaren amnistia!

Liz: Or agintari batzuk dituzte
kontzientzia astunak,
jakin berri naiz tiroka ere
nola zaizkigun jardunak.
Orain artean esaten zuten:
gu gerade euskaldunak.
Bere ama're eztute maite
ori egiten dutenak.

Huraxe ere bazen, ba! 1978an, nola edo hala *La Constitución Española* onartu behar zela eta sekulako boto-eskeia egin zuten Madridetik, irrati, telebista eta prentsa-indar guztiak erabiliz. Lizasoren bi bertso hauek ordukoak dira, eta Goiz-Argi astekarian argitara eman zituzten.

Konstituziua dala, ez dala,
emen dabillen naspilla!
Jende maltzurak zer nai lukean
ez dago ikusten zailla.
Gauz bat bakarrik ez digute eman
eskatuagatik milla.
Garai onean etorri dira
gure laguntzaren billa.

Utsa litzake zertan dabiltzan
ez bagiño antzemango.
Bistan daukagu gure mesedez
ez dala beintzat izango.
Eusko anaiak, zertara goazen
pentsa dezagun lelengo.
Nere iritziak balio badu,
nik ez nioke emango!

1979ko otsailaren 17an, Lizaso, Lopategi, Azpillaga, Mattin, Xanpun eta Agirre ziren bertsoan Zestoan. Hurrengo martxoan hauteskundeak ziren gure lurralde honetan; eta horrexegatik, esaera zahar hau gogoratu nien Lizaso eta Lopategiri: *Orain ere, hitzak ederrak eta putzak minak hemen, guretzat.*

Liz: Nagusi onek gaur eman ziguk
guri kontseju ederrik
ta, Lopategi, gure nekeak
ez ditzela izan alperrik.
Erri guztia ikusten degu
askatasunan egarrrik,
ta eztedilla gaurkoa izan
kontuarekin bakarrik.

Lop: Esango dizut nondik datozen
gaur Lopategiren penak:
bear bezala kunplitu naian
Iriondoren ordenak.
Ze arazo ta ze iskanbilla
orain diran mitiñenak!
Izlari onak dabilta baiña
erdera utsez geienak.

Liz: Disparate bat lertutzen bazait
etzaite asi zakarrez.
Ta kontseju bat eman nai dizut
zedorrentzako on berrez.
Alde danetan probatu gera
onian eta indarrez.
Kontu politak dabilta baiña
erri guztia negarrez.

Lop: Nonbaiten badu bere samiña
negarra egiten dunak,
Euskalerriko egoera auek
ez baititugu legunak.
Kontsekuentzi au atera degu
nik eta nere lagunak:
Euskadi ezin leikela jaso
mitinlari erdeldunak.

Liz: Euskaldunak'e ikusten ditut
erdaldunaren antzeko.
Gaur gauza gutxi falta zaizkigu
lagun urkoa saltzeko.
Garaia ere etorri zaigu
gizonak aukeratzeko,
ta ez ote da, ba, norbait izango
erri au konpondutzeko?

Lop: Erria ondo konpondutzea
bere era gogokuan.
Amets orixe eta boto bat
denok daukagu kolkuan.
Baiña batzuek jarri nai dute
agintarien lekuan.
Ze frakasuak sortu oi diren
puestoa artutakoan!

Liz: Egun astunak badatozela
jarri erreparatuta.
Ez gaitezela beintzat egondu
erriarekin aztuta.
Pena litzake Euskadi dana
juatia apartatuta.
Eman ber dana eman dezagun
kontzientziai beituta.

Lop: Orain arteko ibillera au
izan da oso tristia.
Sakabanatuz ikusi degu
emengo jende gaztia.
Alako baten bukatuko al da
sortu diguten nastia?
Gora Euskadi eta euskera!
Kontua degu bestia.

Liz: Nik galdetzen det: ez ote dago
lotura zar au kentzerik?
Edo Euskadin ez ote dago
kontzientzi ta lotsarik?
Zail izango da erri guztia
alkarturikan joaterik,
baiña joaten danak ez dezala izan
espaiñitarren mantxarik.

Lop: Geure Euskadi goratutzea
jarria dago usuan.
Agintaririk ez bedi jarri
len genduen abusuan.
Begiak jarri geure errian,
ez begiratu auzuan.
Ia Euskadik lore berriak
sortzen dizkigun martxuan.

Liz: Ametsak eta pentsamentuak
joaten dira urrutira.
Gipuzkoatik jarriak gaude
Bizkai aldera begira.
Amaika gauza atera leike
illunpetatik argira,
Bizkaian diran larru-beltz auek
bate portatzen badira.

1980ko martxoak 29. Pentekostetako bertso-jaialdia Bergaran, urtero bezela. Hauteskundeak egin berri ziren Espainian. Eta Lizaso, Gorrotxategi eta Etxeberriari hauteskunde-gaia eman nien, honela: *Andaluzian, bekainekoa; Euskal Herrian, hortzetakoa; eta Katalunian... ipurtzulokoa hartu du Suarez-en UCD alderdiak oraintsu egin diran hauteskudentan.*

Etx: Konbate danak irabaztea
ezpaita izaten errez,
orretarako gizon gogorra
izan bear baitu berez.
Irutan K.O. bota dute ta
orain or dago negarrez.
Len lasai bazan ederki asko
estutu dute Suarez.

Gor: Monkloa aldean jauntxo jendea
triste ta estu dabilla.
Garai batean egin zituzten
bere jauregi ta villa.
Baiña gogora zaite, Suarez,
eta berdin, Martin Villa:
gure mutillak bidean dituk,
laster dituk zuen billa.

Liz: Propaganda ta anuntzioak
ikusi ditugu nunai.
Fraga zarrak'e eskeintzen zuen
botuak zitula salgai.
Baiña ordua eldu danian
jendiak eman dio jai.
Or ikusi da gaurko erriak
eztula ezer jakin nai.

Etx: Badaukazute dirua eta
badaukazute loria.
Gaurko egunez gertatzen zaigun
oker aundia ori da.
Lenago indartsu zegon zutikan
baiña orain eroria.
Badakizute erriak garbi
azaldu dula beria.

Gor: Gu danok morroi eta Madrilen
dauzkagu maiorazkuak.
Telebisioz agertzen dira
mutiko eder askuak.
Baztertu ditu Andaluziak
eta berdin Gipuzkuak...
Arrautzetako ederra artu
Patxikoren ordezkua.

Liz: Garai batian Euskaditarra
bakarrik zan biurria.
Kataluñan'e noizbait bukatu
bearra pazientzia.
Nekez badare andaluza're
dago esnatzen asia...
Leku onian gelditu dira
Suarez ta konpaiñaia.

Etx: Lendabiziko zartatekua
eman gendun euskaldunak.
Esan zenduten gu ote geunden
erabat burutik junak.
Andaluzak'e asarretuta
eztira jartzen bigunak.
Ta gogorrenak azkenerako
irten dira katalanak.

Gor: Botoarekin erabaki da
ainbat urteko auzia.
Tontoenak'e aldiz aurretik
zuen garbi ikusia.
Eskua dadukate motza ta
mingaiña berriz luzia.
Leno Euskadi zeukaten kontra,
orain España guzia.

Liz: Uste etzuten txingura baten
otsa jo die mailluak.
Ez dezatela pentsatu beintzat
danok geranik oilluak.
Bizimoduak iritxi zaizte
gero eta zaillaguak.
Onez aurrera nun jango dute
Francoren apopilluak?

1981eko abenduaren 19an, Amuriza, Azpillaga eta Lizasok Azpeitian egindako saioa. Gaia: *Egun hauetan irakurri dugunez, Nafarroako Udaletxe askotatik ikurriña kendu egin nahi omen dute...*

Amu: Duela urte batzuk egin zan ipintzeko alegina.
Orain kentzera abitu dira eta jo dute txilina.
Uste al dute abanikua dala gure ikurriña?
Oien buruak izan bear du aizea bezin arina.

Azp: Lege berriak jarri dituzte ikurriñak kentzekoak.
Nafar koskorrak ortan ez dira arkitutzen itzekoak.
Kanpokoari indarra eman ta zapaldu etxekoak.
Nunbait geiago ere badira Del Burgoren antzekoak.

Liz: Kontu batzuek ditut entzunak baita're irakurriak.
Zer pentsatua ipintzen digu Nafarraren istoriak.
Len ere ziran armak artuta gure aurka etorriak.
Lengo bidetik dabiltz oraindik ango Rekete txikiak.

Amu: Rekete txikiz bakarrik ezta beterik ango batela.
Sozialistek ere ederki erantzi dute txapela.
Uste badute ikurrin ori Nafarroan sobra dala, espaiñola ere Azpeitin beintzat bistatik ken dezatela.

Azp: Nunbait berri au egia degu
Iriondok esan du-ta.
Nafarrak daude bere gisara
oitu edo ekanduta.
Nafarrak izan nai izan ezkeru
euskaldunaren konduta,
gure ikurriña jar dezatela
Espaiñikoa kenduta.

Liz: Batzuk diote bear degula
Nafarren anai egiñik,
baiña orain'e zer egin duten
gelditu gera jakiñik.
Baiña balkoian nai ezpadute
Euskadiko ikurriñik,
ez dute aiek asko merezi
abertzalian izenik.

Amu: Abertzalea nola ikurrin
orri ostiko emanda?
Zuri, alkate Balduz, izketan
ari naiz nere demanda.
Toledon edo bearko dezu
egin zeure propaganda,
baiña Euskadi lur ontan beintzat
bukatu da zuen txanda.

Azp: Nafarrentzako egin bearra
oroitzapen-irrintziak.
Ikurrin ori kendutzeakoak
dira askon iritziak.
Euskalerrian edertasunez
nai baditugu jantziak.
Ikurrin batek lotu ditzala
gure zazpi probintziak.

Liz: Egin dutenak ipiñi digu
makiña bat buruauste.
Itxaropena andik gendunak
gelditu gerade triste.
Baiña Nafarren laguntzarikan
iñork etzazute uste,
Franco zarraren apopilluak
bialtzen ez badituzte.



Bertsolariak Petritegi Sagardotegian 1.987



Bertsolariak Petritegi Sagardotegian 1.987

1984ko urtarrilaren 28an, gai hauxe eman zien Lizaso eta Garmendiari aurkezleak Legorretan: *Hauteskundeak laster direla-ta, Garmendia mitina egiten ari da herriko plazan; Lizaso, hari entzuten dago, arreta haundiz. Hasi zeu, Joxe.*

Liz: Legorretara etorri gera
bertsozaleak deituta
ta esan digute auteskundeak
nola dauden urbilduta.
Nik kolorerik ez tet utzi nai
geroko apartatuta...
Esatekoa esazu baiña
kontzientziz jokatuta.

Gar: Bearbada zu naiko aspertuta
emen dabillen itzaldin.
Egia da, bai, gezurra ere
ugari dabil aspaldin.
Gu jaungoikoak ez gera baiña
saiatzen gera alegin,
Euskadi ontan pakea eta
zoriona izan dedin.

Liz: Arrazoi dezu: komeniko da
pake-giroa lortzia.
Orretarako azaldu bear
nork bere kontzientzia.
Politikoa, entzun zaidazu
gaurkoz nere iritzia.
Gauza bakarra eskatzen dizut:
Españiz apartatzia.

Gar: Gure artean ainbat partidu
itz-jario dabil, noski.
Asko agindu ta gutxi eman,
oi egiten dute gaizki.
Euskalerriko semeak gera,
pentsa dezagun biozki.
Ondo ez gaituzte gobernatuko
Madritik eta Paristi.

Liz: Bejondaizula, jaun Garmendia,
ori itzaldi txukuna!
Euskadi danak gaur entzuten du
zuk egin dezun jarduna.
Gaur edo biar ez bedi izan
au pikoetara juna;
zuk ere, beintzat, etzazu egin
Felipek egin ziguna.

Gar: Kanpotarrak gu gobernatzea
ezpaita gure graziko,
pentsatu gero Euskadi aske
ez dala irabaziko.
Gure jardiñak txukundutzea
ez ote du mereziko?
Gure erri au presta dezagun
biarko edo etziko.

Liz: Biotzeraiño sartua daukat
egin dezun itzaldia,
baiña ez bedi ortan gelditu
betiko erabakia.
Zeuron aldetik egin zazute
zuen alegin guzia,
Euskadin bertan gelditu dedin
Euskadiko izardia.

Gar: Mundu guztian lotsarik gabe
or daukagu ikurriña,
aurrerantz ere izandu dedin
egin bear alegiña.
Gure Euskadi gerta liteke
Suizan pareko jardiña,
ementxe gauden anai-arrebak
abertzaliak bagiña.

Liz: Zure abotsa irten dedilla
orain mundu zabalera!
Lau txorakeri dirala eta
guztiok gerran ai gera.
Oraindik ere iritsi geinke
Ernioren gaillurrera,
diferentziak albora utzita
alkartzen baldin bagera.

Gar: Ogeitamaseiko urte artan
bazan ainbeste gudari.
Erri zar onek geroztik ere
eman du, noski, ugari.
Euskaldun onak maitetasuna
diogu gure lurrari...
Auteskundeak badatoz eta
ekin deiogun lanari!!

1985eko apirilaren 12an, Zumaian egin zen jaialdi
batean Lizasori gai hauxe eman zion Peñak: *Momentu
honetako zure kezka nagusiak kontatu itzazu, Joxe.*

Zer pentsatua jarri didazu
gauza ori azaldurik.
Arriak negar egin litake
erriai begiraturik.
Erri guztiak ikusten ditut
dana gorrotoz beterik.
Kezka bat daukat: gure artean
kezka bat daukat: gure artean
ez daukagula pakerik.

Europar ere sartu gerala
gaur ala daukat aittuta.
Baserritarrak ikusten ditut
danak buru makurtuta.
Kalean ere zer egin ber deu
saltsa oitan urbilduta?
Berriz mendira jun ber al degu
berriz mendira jun ber al degu
auntzak katetik artuta?

1985eko maiatzaren 3an, Legazpiko Santakutz jaie-
tan jarri zioten gaia: *Joxe, horrenbeste urte munduan,
eta zertaz damutzen zera?*

Barka zaidazu, emango dizut
orain nere iritzia,
aitortzarako izandu baita
emen gaur arrats guztia.
Alde batera lotsa bear da
gauza auek azaltzia...
Damu dadukat oinbeste urte
orla alperrik galtzia.

Pentsatzen nuen garai batean
ezin nintzan errenditu;
bi milla bide ikusi eta
enekin nundik abitu.
Ta orain sillan eseri eta
ia ezin naiz mugitu.
Naiago nuke aukera denak
obeto bete banitu.

Euskal Herriko egoera larriak eta herritarren arteko
sakabanaketak min eman izan dio Joxeri, lehen ere
esan dizudanez. 1989ko martxoaren 18an, Bergarako
Pentekoste jaietan honako gai hau eman zion Laxaro
Azkunek: *Aberri Eguna badator, berriz ere.*

Esan nai nuke garai bateko
Aberri Egunak zer zian.
Ainbeste urte pasa giñuzen
diktaduraren mendian.
Baiña euskaldunak nork bere arra
bagendukan barrenian.
Onenak ziran galerazita
egondu giñadenian,
egondu giñadenian.

Orduan ere negarrez gendun
 gure Euskadi mardula.
 Zeiñek sinistu askatasunik
 izango zanik sekula?
 Ta badakigu Aberri Eguna
 aurten'e laster degula.
 Pena da baiña emen gabiltza
 zer egin eztakigula
 zer egin eztakigula.

Negargarri da bolada ontan
 dadukagun ibillera.
 Emen gabiltza batzuk batera
 eta besteak bestera.
 Aberri Egunak indartuko'ira
 garai bateko antzera,
 abertzaleak bide batera
 denok bildutzen bagera
 denok bildutzen bagera.

1989ko abenduaren 23an, Txapel zenaren omenaldia egin zen Azpeitian, hil zen ezkerro urtero egiten den moduan. *Aberri zaharrari* bertsoak botatzeko eskatu zion Jesus Lopetegui *Agerrek*. Honatx orduko hiru bertso:



Aberri zar au ezagutu du
makiñatxo bat gizaldik.
Odola franko legortu digu
ainbat erri eta mendik.
Maite giñuzen gudari askok
aldegin zuten emendik.
Negarrez utzitako aberria
negarrez dago oraindik.

Ez det esan nai gaurko gazteak:
eztu balio ezertako.
Seguru nago: gazte bizkorrak
pronto daude lanerako.
Arinkerian gabilitza asko
eta nekea geroko.
Aberririkan ezin sendatu
egoskorrak geralako.

Izanez ere zelebrea da
euskaldunon izaera,
nolaz ez degun begiratutzen
itxaropenez aurrera.
Lau seta gaizto ditugulako
bakoitza geure aldera.
Diferentziak utzi ditzagun,
bildu gaitezen batera.

Cayetana Fritz-James *Duquesa de Alba* andrea Jesus Agirre musikalaria eta apaiz ohiarekin ezkondu zela-ta, bere iritzia eskatu zion Joxeri, Aramaion eginda-ko bertso- jaialdi batean, Abel Muniategik. Honatx bat-batean kantatu zituenak:

Bizioaren mende bizi da
emen makiña bat alu.
Disimuluan pasako zuen
ark'e iñundik al balu.
Ondo dakigu badaduzkala
urterik ainbat titulu.
Falta bat dauka: ez dadukala
nai zuen ainbat akulu,
falta bat dauka: ez dadukala
nai zuen ainbat akulu.

Sasoi beroa dagon garaiari
nunai izaten da festa.
Estimazio pixkat daniari
dibertitzea errez da.
Azal zimurtzen asitakuan
etxean nai zun orkesta.
Apaiz izana lagun egin du
beste zezenikan ezta,
apaiz izana lagun egin du
beste zezenikan ezta.

Agirre orren mugimentuak
Albak bazekin zer zian,
orregatikan beretzat lagun
artua dauka etxian.
Orain artian ibillia da
musikaren konpasiari,
oin fandangoa jotzen asi da
pandero aberatsian,
oin fandangoa jotzen asi da
pandero aberatsian.

Beste sail honetan, aita eta aitonaren maitasuna, edota bertsolariaren fedea aipatzen diren bertsoen sorta egin dizut. Eztakit bakoitza non hasi eta non amaitzen den, eta muga non jarri... Baina, dena dela, maitasun eta fede horren lekuko diren bat-bateko bertso batzuk hementxe dituzu.

1968ko martxoaren 3an, Irungo Amaia antzokian eman nion gaia: *Joxe, zure semeak karrera egin omen du, eta aholkuak eskatu dizkizu lanean hasteko. Zer esan behar diozu?*

Seme maitea, orain artean
maitatzen zaitut biotzez.
Eskola pixkat ikasi nai ta
nik nolatan esan ezetz?
Karrera ere bukatu dezu
zeure alegin ta lanez.
Orain lanian probatu zaitte
orain lanian probatu zaitte
balio dezun ala ez.

Letradun eta jakintsu orain
beste batzuen moduan.
Ikusten nago jakinduria
asko dezula buruan.
Begira zazu Euskalerrria
nola dan katez lotuan...
Seme maitea, saiatu zaitte
seme maitea, saiatu zaitte
libratzen degun beinguan.

Iñoren kaltez ez da izango
zuk karrera ikasia,
ta ortaraxe egin zaidazu
zeure alegin guzia.
Arrisku ontan guk jarri giñun
biotza eta bizia...
Ia zuentzat libre izaten dan
ia zuentzat libre izaten dan
aitari galerazia!

Joxe Lizaso eta Julik seme bi izan dituzte, baina alabarik ez. Halare, 1975eko abenduaren 20an, Azpeitian egin zen jaialdi batean, gai bat behar-eta, alabaren gaia jarri nion, honela: *Joxe, nork esan behar zizun zuri horrelakorik? Zuen alaba txikiena haurdun omen dago...*

Zerek bildurtutzen au,
alaba maitia?
Lotsa ematen al din
ori esatia?
Ditxa den nerekiko
ama izatia...
Ez din pena balio
negar egitia!

Oiek leno ittunan
gauza itsusiak...
Zabaldu egin biar din
pertsonan aziak.
Neroni pozik nion,
norbaiti graziak.
Zorion ori ez din
nai duen guziak.

Aspaldian etxian
tristura diñagu;
sukaldian pozikan
biltzen eztiñagu.
Biar etxerako're
poz bat badiñagu...
Sano etortzen baden
aziko diñagu.

1985eko uztailaren 25ean, Joxe Mari Aranaldek Zubietan jarri zion gaia: *Bilobatxoari zer nolako gauzak kontatzen dizkiozu, Joxe?*

Badakizute zer izaten dan
gizonaren izatia.
Neretzat ere egokitua
zan aitona egitia.
Gaur kontseju bat emango dizut,
nere illoba maitia:
Euskadi danan premian da ta
Euskadi danan premian da ta
jatorra izan zaitia.

Orain bi urte sortu ziñan ta
azi zerade dexente.
Mutil bikaiña ote zatozen
auzotarrak'e diote.
Izan zaitea abertzalea
eta zuk erria maite.
Ez zaiozula burrukai utzi
ez zaiozula burrukai utzi
Euskadi askatu arte.

1972ko abenduaren 7tik 15era Urola Ibarreko *Bil-tzarrak* izenez kultura-jardunaldi bereziak egin ziren Azpeitian. Landetako taldeak antolatuta, abenduaren 15ean, Soreasu antzokian egin zen bertso-jaialdian gai hauxe eman nion: *Joxe, zer da sinismena?*

Nik'e dotriña ikasi nuen
beste guztiak bezala.
Ondo dakigu eliztar asko
ortan saiatzen zirala.
Sinismen orrek poztuko zuen
gure lurralde zabala.
Emen il arren beste munduan
emen il arren beste munduan
denok piztuko giñala.

Oraindik ere ontzat artzen da
kontu oiek aittatuta...
Jakin nai luke erlijioa
ote dagon aldatuta.
Mandamentuak ote dauzkagu
eleizatikan kenduta?
Zer sinistu're batek eztaki
zer sinistu're batek eztaki
mundu oni beiratuta.

Beste bertso hauek, 1991ko maiatzaren 25ean, Oñatin kantatu zituen Lizasok. Apirilaren 30ean bertso-jaialdi bikaina egin zen Azpeitiko Zelaixo zineman, Loiola'91 batzordeak antolatuta. Pello Esnalek jarritako "Ai, ene Jainko" izeneko bertso-sorta eman zuten jaialdi hartan, argiz eta musikaz lagunduta. Jaialdi eder hura gogoratuz, gai hauxe jarri zion Nikolas Seguroiak: *Joxe, Azpeitia alde horretan bertso-saio bikaina izan dezueta jakin diat, aurten Loiolako San Inazioaren bostehun urteurrena dala-ta. Saio hori zer iruditu zitzaian, ba, hiri?*



Bertsoak onak ziran
baldin bazan onik.
Aiek ezin azaldu
egin gabe lanik.
Ainbeste Iñigo ots
adittu nittun nik.
Baiña ez derizkiot
iñork esan zunik
gonbertitu aurretik
nolakua zanik.

Lan tristeak baziran
azaldu ziranak,
gonbertituta gero
egin zittuanak.
Zer esan asko zuan
Iñigon izanak.
Esaten asitzean
santuan afanak,
danak esan ber dira:
txarrak eta onak.

Elbarritu zanian
zanko batetikan,
laguntza nai zukian
baiña zerutikan.
Gaiztotan ibillia
bai zegon lendikan...
Ibizara joatian
Paris aldetikan,
Carafak etzun sinistu
damutu zanikan.

Isillik gorde ziran
esan zeizkienak,
batez ere emakumeakin
egin zittuenak.
Nolatan gorde ziran
orrelako lanak?
Gauza aundiak dira
nik dakizkidanak.
Ta zenbat ote dira
ez dakizkidanak?

Lasaon neskaxa bat
zuten bortxatua.
Lagun bat'e bazuan
bere modukua.
Kastillako erregeak
zion barkatua.
Ola barkatzen al da
errez pekatua?
Laguna urkatu ta
ari indultua!

Nikolas, aitortzen dit
fededun naizela.
Iruitzen al zak iri
santu egin zala?
Nai badek bialdu nauk
zakurraren sala.
Azkena botako dit
aitortza bezala:
Jainkuakin bakarrik
sinisten dedala.

Bertsolariaren bizimodu gogorra

Bertsolariaren bizimodua oso gogorra da, bai horixe! Eguna lanean pasatu eta ilunabarrean nahiz jaiegunetan bertotara joan behar, familiarekin lasai egon zitekeen garaietan... Etxeko lasaitasuna, emaztea, haurrak, denak utzi eta auskalo noraino joan behar izaten duen. Eta gero, askotan etxera berandu itzuli eta hurrengo goizean, berriz ere, lanari heldu behar. Zenbat ibilera txar, ezordutan!

Halare, Joxek ez omen du galdu hurrengo eguneko lanik sekula inoiz, berandu etxeratu delako. Baina bai, ordea, buruari tente eutsi ezinda hamaika egun txar pasatu, ondorenari hortzak erakutsiz!

Bertsolariaren bizimodua gogorra da, iñork uste duen baiño gogorragoa. Gogorra, lelengo bertsolari berarentzako; eta gero, familiarentzako. Lanean ari zeranean, etxetik kanpo zabilta. Eta etxekoekin gozatzeko garaia etortzen danean, bertotara joan bear dezu. Erriak maite gaitu, eta ori askotan ikusteko aukera izan det nik azkenengo urte auetan. Baiña sufritzea ere tokatu zaigu, orratio!

Bestalde, bertsolariak esana libre bear du zerbait luzitzeko, eta bere iritziak esateko. Eta ori debekatuta egon da guretzat urte askoan. Nai zanik esan ezin, eta zerbait berotu eta esaten ausartzen baziñan, gero kontuak! Urte txarrak pasatu genituen, noski. Eta oraintxe ere bertsolariaren lana gogorra da, gauzak ondo aldatu

badira ere. Kontuz itz egin bear da jendearen aurrean, eztago edozer esaterik.

Bertsolariaren joan-etorriak ere asko aldatu eta erreztu dira garai batetik, egia da. Atarian kotxea artu eta bertso-saioa asi baiño bost-amar minutu lenago iritsiko zera bertsotan egin bear dezun tokira. Eta gero, bertso-zeregiñak amaitzen diranean, berriz ere autoa artu eta buelta, etxera edo beste norabaitera. Eguerdi edo illunabarreko saioak ere len baiño laburragoak izaten dira orain. Ordu t'erdi edo bi ordu, geienera. Gaiak norbaitek emango dizkizu, mikroaren aurrean jarri eta suabe-suabe dozenerdi bat bertso kantatu eta etxera. Jaialdiak antolatu ere len baiño obeto antolatzen dira gaur egun. Joaten zeran tokira zoazela, beti izaten da arduradunen bat, eta arekin itz egin eta lanean eroso asten zera.

Lenago, bertsotan egin bear zan tokira iristen ziñan eta askotan antolatzaileen arrastorik etzan izaten, nola eta noiz asi, edo zer egin bear zan esateko. Zenbat ibillera triste! Pentsatze utsak ere ikara ematen dit.

Nik eztet ezagutzen bertsotatik aberastu danik, baiña orain beintzat zerbait kobratu ere egiten dezu, geienetan. Saio asko egin bear izaten da musutruk, baiña len askoz geiago egiten zan. Eta utsaren truke egitea naikoa etzala, askotan esker txarra izaten zenuen. Bestalde, erriko aldrebeseanak bertsolariarengana urbiltzen ziran gure gaztedenboran, eta plazakoa egin ondoren tabernaren batera sartu orduko an asiko zan bertso eske. Etzuten minutu batean pake-

an uzten eta bearco asi, neka-neka eginda
bazeunden ere. Zaletasuna omen zan ura.
Zakurraren putza! Eta okerrena, guk ez ge-
nekiela ezetz esaten...

1978. urteko abenduaren 16an, Azpeitian egindako
jaialdi batean aldizkariren batean irakurritako gai hau-
xe eman nien Lizaso eta Lopategiri: *Egun hauetan ira-
kurri det bertsolaritza krisian omen dagoela, eta berriz
ere sagardotegira itzuli beharko ote duen.*

Liz: Anai-arrebak, beingoagatik
ar zazute pazientzi.
Nai dan bezala, dakigun dana
erriari erakutsi.
Zientzi piskat duten kristauak
ortxe dijoaz igesi.
Zer esan asko dadukat baiña
eztakit nondikan asi.

Lop: Etorkizunaz bertso arloan
ez artu ainbat ikara.
Badago oindik entzulea ta
ateratzen du algara.
Ala sortuak erriarentzat
morroitzat jarriak gara.
Bertsolaritzak iraun bear du
euskera mantentzen bada.

Liz: Ezker-eskubi milla bat saltsa
bada gaurko egunian.
Askok diote bertsolaritza
ote dagon agonian.
Ez ikaratu, bear bezela
asiko gera lanian,
gaur edo biar gure Euskadi
beingoaz askatzen danian.

Lop: Askatasuna nola datorren
euskaldun denon gogora,
gu ere ortan jardunak gera
bide-erakuste asmora.
Bertsolariak irtetzen badu
politikatik kanpora,
berealaxe berrituko da
Txapel zanaren denbora.

Liz: Txapel aitona egongo zaigu
goitik gaizki iritzia:
"nere semeak nola arraio
artze'ute pazientzia?"
Ikusiko al du gure bideak
nonai badula esia.
Egunen baten esango degu
sentitzen degun guztia.

Lop: Lenago ere etsai gaiztoa
ez gendun gutxi tentatu.
Aberriaren irrintzieran
ez ote gendun kantatu?
Naizta gaur Txapel aren garaira
bertsolaiak apuntatu,
borrokan egin bear danean
gurekin beti kontatu.

1984ko abenduaren 23an, Zarautzen Zaldubi zena-
ren omenez egindako jaialdian, *bertsolariaren bizimo-
dua* gaia eman zieten Azpillaga eta Lizasori.

Azp: Ogeita amabost urte pasatu
ditut nik bertso-lanian,
Bizkai, Gipuzku eta Nafarru
eta Lapurdi danian.
Egunez kantuz eta gauean
berdin bertso-iturrian.
Bertsolaritza gauz polita da
bat sasoiko dagonian.

Liz: Egia da, bai, erri askota
gera elkarrekin juna,
erria baita orain artean
bertsolarien laguna.
Iñoiz polita billatutzen det,
beste batzutan astuna.
Auxe da gauza beti jardun ta
iñoiz asmatzen eztana.

Azp: Gure denboran izan ditugu
nunai jan eta edanak,
astean igual dozenerdi bat
aldiz bertsotako planak.
Andre ta umeak etxean utzi,
guretzako bertso-lanak.
Gauza oik denak egiten ditu
erria maite duanak.

Liz: Arrazoi dezu: Euskalerria
guk ez daukagu saltzeko.
Bazterrik bazter ortxe gabiltza
morroi batzuen antzeko.
Ortik ez dago irabazirik
jateko eta jazteko,
baiña olaxe ibiltzen gera
txaloak irabazteko.

Azp: Nik zenbat plaza eztakit baiña
izango dira morduak.
Erriak ere gordeko ditu
bertsolaien akorduak.
Parranda gisan eman ditugu
egunak eta orduak.
Mozkorran fama daukagu baiña
gera gizon ondraduak.

Liz: Bertsolariok fama koskorrak
baiña egiak ez dira.
Bestela beira gaur ere nola
or dauden guri begira.
Barruko dana agertutzea
guri etzaigu kupira,
eta ain pozik joaten gera
deitzen diguten tokira.

Azp: Botatze'itugu gauz serioak,
berdin zelebrequiak.
Iñoiz negarrik dagon tokian
sortzen ditugu irriak.
Gu buru soiltzen asiak baiña
badatoz gazte berriak.
Berdin gabeko suertea du
gauz ontan Euskalerriak.

Liz: Ez da gezurra, gazte berriak
badira aldamenian.
Beiñere baiño ugariago
datoz gaurko egunian.
Eta ain gera gizon tristiak
gu etxean gaudenian.
Barrengo penak urruntzen dira
kanpuan gabiltzanian.

Bertsoak irratian

Irratian eta telebistan oso sartuta dago bertsolaria gaur egun, bistan denez. Lehenago, jaialditara joaten ez zen jendearentzat bertso jasotze-lana irratia egiten zuen: Loiolak, Bilboko Herri Irratiak, Arratek eta abar. Hamaika ibili egin genuen herriz herri, bertsoak jasotzen. Eta gustora egin ere. Lanordu denak kontatu izan bagenu...

Alabaina, bertsolari askoren gogoz kontra ibiltzen ginela ere esan beharra dago, inoiz behintzat. Bertsolari askori ez zitzaien batere gustatzen aurrean alkahuetik (magnetofonik). Orain mikrofonoak edota iru-lau kamara aurrean ikusi eta inor ez da ikaritzen, baina lehen bere onetatik ateratzen omen genituen. Eta horren berri badaki Joxek.

Norbera bertso-saio batetik gustora edo disgustora etxera etorri, eta urrengo egunean bertso aiek Loiolan, Arraten edo Euskadi Irratian entzutea oso gogorra zan eta da, neretzat beintzat. Oraindik eta gogorrago egiten zait neure burua telebistan ikustea.

Bertso-saioak grabatzeko moda ori 1959ko txapelketaren ondoren asi zan, oso oker ezpanago. Baiña bertsotara joan eta magnetofonia edo, gure Julik esaten zuen bezela, alkahuetia aurrean ikusteak sekulako amorrazioa eman izan dit neri. Baita beste bertsolari askori ere, e? Nik ezagutu nuen grabatzailleen kontrariorik gogorrena Manuel Uz-

tapide zarra zan. Ni kaskaillua, baiña ura gogorragoa. Gogoan daukat bein Donostiko San Telmon Gipuzkoako alkateen billera-edo zala eta bertso tara joan gina. Eta mikrofonora gindoazela, an ikusi du Patxi Mujikaren katxarro zarra txirritxarra, jira eta bira. Eta inor inguruan ez. Uztapidek, disimuloz alde guztietara begiratu, eta bere bota aundi arekin, da!, zapaldu zuen goitik bera. Eta aparato ura geldi ikusi zuenean, irribarrez, ala komentatu zidan:

—Onen jabe ori perittoa omen dek, baiña au konpontzen gaur arratsaldeko lana izango dik. Or konpon!

1963an Aiako Santio auzoan egindako bertso-saio famatu artan Andoni Lekuo-na zala uste det an aurrean grabatzen ari zana, eta onela kantatu zuen Manuelek:

Makina oni gorroto diot,
artu bear det makilla.
Nere bertsuak orren barrenan
gutxienez daude milla.
Oraindik ere bai al zatozte
bertso geiagoren billa?
Gaurkua kunpli nezake baiña
ontan bukatu dedilla.

Beste batean, Ereñozun ere eskandalo aundi samarra izan genuen. Eta ez gunion utzi grabatzera etorri zanari. Izan ere, dozenerdi bat mikrofono eta alkahuete etsai txarrak ziran eta dira orain ere bertsolariarentzat. Garai batean, zuk etzenekien an aurrean grabatzen ari zan ura zein zan, eta zertarako ari zan ere ez:

irratirako zan ala urrengo egunean denuntzia egiteko zan. Ori konpromiso txarra zan guretzat. Eta multa bat baiño geiago izan genuen grabazioak testigu artuta. Gogoratuko zera 1972an Anoetan zer pasatu zitzaigun...

Alare, badakit gaurregun jasota dagoen ainbat bertso orduko grabazioei esker dagoela, eta beste asko aizeak eraman zituela, sekula betiko. Ori ere aitortu bear da, baiña...

Irratian kantatuko zenbait

Garai batean, herriz herri eta jaialdiz jaialdi hamai-ka bertso jaso genuen eta gero irratiz eman. Alabaina, Joxek irratirako bereziki kantatuko bertso batzuk gogoratu nahi dizkizut hemen. Batzuk, bai. Baina ez ditugu denak bilduko hemen, tokiaren mugak horretara behartzen gaitu-eta.

1962an hasita, larunbat arratsero egin ohi genuen *Beti Jai* irratsaiaora astero bertsolari bat ekartzen saiatu ohi ginen; edota, bestela, joan eta bertsoak bere etxean edo inguruko tabernaren batean grabatzen genizkien. Urtezahar gauean ere saiatzen ginen halamoduzko urteko gaien zerrenda bat egin eta bazterrak astintzen, bertsolarien laguntasunez. Saio haiek oso gustora entzuten zituen jendeak. Ez genuen erraztasun haundirik, eta ahaleginak egin behar izaten ziren. Baina esker oneko ahalegina izaten zen, benetan.

Honako bertso hauek 1964ko irailaren 19an kantatu zizkigun Joxek, gai honi buruz: *Azpeitian urte askoan apaiz izan dan don Jose Maria Eguren, Arrasateko Eskola Politeknikora destinatu dute, irakasle. Bera agurtuz, bertso batzuk, Joxe.*

Apaiz jator bat gendun errian,
au zan don Jose Maria.
Oso pozikan geunden zurekin,
aitortzen dizut egia.
Baiña nai gabe artu bearra
auzo-errira bidia.
Berriz zailla da guk izatia
zu baiño artzai obia.

Zenbat mesede egin dituzun
ezin gentzake juzkatu.
Artzai jatorra genduenian
ardiak ere kontentu.
Gure erruaz baldin bazoaz,
Joxe Maria, barkatu.
Aldeginda're zu Azpeitiak
gogoan izango zaitu.

Erri guztia zenduen langun,
nola zar eta ala gazte.
Gu aspertuta geundenik emen
arren etzazula uste.
Zure itzaldiz alaitu dezu
makiña bat biotz triste...
Guk etzaitugu beiñere eskertu
merezi dezun ainbeste.

Mondragonera omen zoaz zu,
ez dezu erri gaiztua.
Jende jatorra dezu an ere,
egon zaitez sinistua.
Auzo-erritik dijoanari
luzatze'iote eskua.
Apaiz premian baziran ere
eingo diezu gustua.

Don Jose Mari, saiatu zaite
dakizuna erakusten.
Ikusiko da mondragoitarrak
nola maiteko zaituzten.
Garbi jokatzeko duen gizona
beñere ez da itsusten...
Nik nola esan zenbat mesede
apaizak eiten dituzten.

Jakiñez gaude onez aurrera
Joxe Maria non dagon.
Biotza neukan eskaka eta
isilik ezin naiz egon.
An'e Jainkoak eman deizula
emen ainbeste zorion.
Ia berdiñak izate'ituzun
Azpeiti eta Mondragon.

Begiak malkoz bustitzeraiño
jarri gera azkenian.
Biotza ere zotinka daukat
geldi ezin egoniam.
Gure atiak zabalik daude,
etorri nai dezuniam.
Agur bero bat eskeintzen dizut
Azpeitirene izeniam.

Jarraian datozen beste hauek 1965eko apirilaren 3an kantatu zituen. Gure entzule batek eskatutako gai hauxe eman genion Joxeri: *Aldi batean atzerrian ibili eta orain euskeraz hitz egiten lotsatzen den zure alabari bertsoak, Joxe.*

Alabatxua, atera ziñan
sortu ziñaden erritik,
mundua zerbait ikusi naian
aita ta amaren ondotik.
Zure ametsa betea zegon
joan ezkerro etxetik.
Zuretzat aiña toki ez al du
zuretzat aiña toki ez al du
zu sortu ziñan Azpeitik?

Esanaz zatoz gure izkuntzak
lotsa ematen dizula.
Nere aurrean orlako gauzik
etzazu esan sekula.
Zure burua noiztik jarri da
orren galdua eta aula?
Sinista zazu gurasoeri
sinista zazu gurasoeri
burla eitten diezula!!!

Baiña, alaba, orren galdua
nola zera etxeratu?
Lore joan ta etsairen batek
arantza biurtu zaitu.
Aita ta amaren aurrean jarri
eta euskera ukatu?!

Arritzen nago Jainkoak nola
arritzen nago Jainkoak nola
etzaituen kastigatu!

Ez giñan gero alperrik jardun
ezi naiean aurtxuak,
erakutsiaz izkuntza samur
eta geure errezuak.
Itz egiteak lotsa diola
nere alaba galduak!
Iseka ori merezi al du
iseka ori merezi al du
gure euskera gaixuak?!

Nolabaiteko alaba onek
ipiñi dizkidan lanak!
Iruditzen zait galdu dirala
nere ametsik onenak.
Bizi guztiko naigabez dira
gurasoaren barrenak!
Fedia ere nola ote du
fedia ere nola ote du
izkuntza galdu duenak?

Guraso geran guztiok ondo
jartzen al gera lanera?
Ikusi zagun umiak nola
etortzen zaizkun etxera.
Arritzen nago gure izkuntza
nola dijoan gainbera.
Gaur ikusten det emakumiak
gaur ikusten det emakumiak
galtzen dutela euskera.

Baiña, alaba, jakin nai nuke
zerk ematen dizun lotsa?
Nun diran zure lengo izkuntza,
nun dago zure biotza?
Ikusi zazu nola galduta
etorri zeran onuntza,
galdu naian Jaunai besterik
galdu naian Jaunai besterik
zorrik ez dion izkuntza.

Nere alaba, etzaitez asi
orain neri negarrian,
damutasunik ez badaukazu
zure biotzan erdian.
Barkazioa eskatu zazu
gurutze onen aurrian
esanaz: beti bizi nai nuke
esanaz: beti bizi nai nuke
neu jaio nintzan lurrian.

Ondorengo hauek, berriz, 1966ko urrian kantatu zitu-
en. Entzule batek bidalitako gaia zen orduan ere:
Banketxe batean kutxazain izan zera orain arte, Joxe.
Eta lapurreta egin duzula eta kartzelara eraman zaitue.

Banku batian jarri ninduten
diruzain edo kajero.
Sartu ta atera zenbatxo milloi
Jaunak daki, onezkero.
Ametsetan'e diru-kontutan
or ari naiz ni gauero,
ta alare deus ez bizitzeko nik
neuretzat izan ezkerro.

Eguna jun ta eguna etorri
diru artian lanian,
lotsagarritzko jornal koskor bat
illa bukatzen denian!
Len illabete pasatu degu
ia denok agonian.
Nik jakiñeko purrusta daukat
etxera nijoanian.

Au ezpaitute ezagututzen
zenbait emazte zakarrek;
bere artian beti amets bat:
gaur zenbat diru dakarrek?
Lenguan ala esaten zidan:
pentsatu gero zedorrek...
Zuk baiño geio irabazten du
edozein peoi kaskarrek.

Zenbat naigabe pasatzen dedan
nik goizetik arratsera!
Jakiñekua, ilunabarrez
erdi negarrez etxera.
Andria beti kopeta beltzez,
aurrak gorroto antzera
esanez: gaur'e dirurik gabe,
aita, etorri al zera?

Bizi bearrak zerbait artzera
beartu ninduen atzo
ta nagusia konturatu da,
asarre dadukat oso.
Bi txapel oker bidali dizkit,
badirudite bi otso.
Dudik eztago: oin espetxera
eramango naute preso.

Illabetian esan didate
kartzelan egon nadilla.
Zoritxarreko diru-bearrak
ekarri didan naspilla!
Bizimoduai begiratuta
dena gaizto eta zailla.
Gero nik nora joan bear det
ogibidearen billa?

Espetxetikan atera eta
bidali naute errira.
Orain andriak etxean sartzen
utziko balit, sikira.
Nork du biotza geldituzkeo
familiar begira?
Utsik gelditu ziraden eta
gaur nola izango dira?

Ogian billa nik nora joan
bear det onez aurrera?
Iñork agurrik egiten ez ta
zertan atera kalera?
Emaztea ta aurrak artuta
banua Fraintzi aldera.
Gure Jainkuak nai duen arte
nonbait biziko al gera!

Karmelo Etxegarai herritarra hil zeneko berrogeita hamargarren urteurrenean gogoeta batzuk egiteko eskatu nion; eta honako hiru bertso hauek kantatu zizkigun, 1975eko Urtezahar gauean:

Azpeitiako semea gendun
Karmelo Etxegarai jauna,
orain berrogeita amar urte
mundu ontatik juana.
Aitortzen degu euskeragatik
lan asko egin zuana,
baiña ez gendun bertsolariak
asko maite zituana.

Ala moduzko papeltxo baten
baditut irakurriak
gauza aundirik etziotela
esaten bertsolariak.
Denbora aietan arlote gisan
zitun albora utziak.
Geuk ez dakigu zergatik baiña
maitatzen gaitu erriak.

Jakingo nuke zer zan orduko
bertsolaian izaera.
Karmelo jaunak zerbaitegatik
botatzen zitun ain bera.
Oain eleizara deitzen digute
aldarearen aurrera.
Gauzak ederki aldatu dira
garai artatik onera.

1975ean Uztapideren *Lengo egunak gogoan* bi liburu mardul argitara eman zituen Sendoak, *Auspoa* sail Nagusian. Hori zela-ta, Urtezahar gau hartan bertso hauek kantatu zituen:

Uztapideri nik zorionak,
ez det beste zer esanik;
jaio orduko nolatan giñan
beti lagunak izanik.
Guregatikan ein dituzunak
danak eskertzen ditzut nik.
Pozikan nago erri guztiai
zure gorantzak entzunik.
Etzuten uste ikazkin batek
lan ori egin zeikenik.

Begira zer lan azaldu ditun
gure aiton isilduak:
euskerarentzat arnas berri bat
egin ditun liburuak.
Lenago goian dagon bati gaur
nola altxatu graduak?
Arritzen daude teologuak
ta berdin filosofuak,
ez bait zekiten zer balio zun,
Manuel, zure buruak.

Ondo dakigu gizon nagia
ez dala izan batere.
Orrek bazekin alperkeritik
etzegoela ezere.
Lenago bertsoz egin zuenak
ez dakit zenbat mesede
ikusi degu zer egin dezun
zuk mututa gero're.
Gizon au ezin gentzake ordain
bear bezela beñere.

Eta beste hauek 1976ko Urtezahar gauean kanta-
tuak dira. Garai hartan *alderdi politiko asko sortzen ari*
zen eta bere iritzia eskatu nion Joxeri.

Arrazoi dezu: oso kezkatu
dago Lizasotar Joxe;
izanez ere azaldu dira
oinbeste partidu klase.
Bide ortatik, anai-arrebak,
eztegu egingo eze:
saltsan jarraitu beste gauzarik
orainarte bezelaxe.

Sakabanatzen zertan ai gera
alde bat eta bestera?
Ez det esan nai nora jo ber dan,
zuzen edo ezkerrera.
Baiña Euskadin denok bilduta
jarrai dezagun aurrera,
itxura eiten degun moduko
abertzaliak bagera.

Oraintxe asten baldin bagera
bata bestien igasi,
modu orretan ezin gentzake
apusturik irabazi.
Gu geu jartzia komeni zaigu
Euskalerriko nagusi.
Geure artian ikusiko da
nolatan jokutzen asi.

Anai-arreba biotzekoak,
izan zazute goguan:
gauzak irtetzen baldin badira
desio degun moduan
auteskundeak eingo ditugu
baiña Euskadi barruan.
Gero erriak ikusiko da
geiena zein maite duan.

Berrogei urte pasa ditugu
ori ezin asmaturik.
Onez aurrera ez dezagula
alperrik galdu denborik.
Euskadi dana jarri biagu
bide berri bat arturik,
ta bide orrek ez dezala izan
Españitarren kutsurik.

Ainbeste urtian badaukagu guk
negarra eta antsia.
Berriro elkar artzen ezpada
arrotuko da etsaia.
Oi, antziñako gudari zarrak,
esna dedin gaztedia,
ia berriro egiten degun
Euskadi berri-berria.

Urte askotako borroka eta ahaleginen ondoren,
Joxek hain maite duen ikurriña jarri zuten Azpeitiko
Udaletxeko balkoian ere, 1977ko San Sebastian
zaindariaren jai-bezperan. Eta bost bertso hauek
eman zizkigun Joxek urtearen azkenengo irratsaio-
an:

Neretzat gaia aukeratuta
al zedukan ikurriña?
Ainbesteraíño maite det eta
badaukat zer itzegiña.
Kolare zuri, gorri ta berde,
ain zera pitxi apaiña!
Sabino Aranak bere garaian
Sabino Aranak bere garaian
Euskadirentzat egiña.

Gure izarrik maitatiena
Españitarrak itzaldu,
guraso eta osaba zarrak
gerra zutelako galdu.
Galdezka geunden: "gure izarrak
oskarbirikan ez al du?"
Guk nai orduko etzera beintzat
guk nai orduko etzera beintzat
berriz bistara azaldu.

Maite dan gauz bat galtzen denean,
beti naigabe ta penak.
Millaka gazte asko dirade
billa saiatu diranak.
Zer nai genduen etsaiak ere
nola zeuden antzemanak,
asko dirade billa joan da
asko dirade billa joan da
bizia galdu dutenak!!!

Bistara azaldu ziñaden arte
Euskadi gerra bizian.
Zu adoratu naiean geunden
bakoitza geren errian.
Azpeitiara azaldu ziñan
ilbeltzan emeretzian,
oraindik ere etzera arkitzen
oraindik ere etzera arkitzen
merezi dezun tokian.

Juan dan eguarri egunean'e
egondu nitzan begira
Erriko etxeko balkoi aundian
egiten zendun dizdira.
Erriko bozak guk nai bezala
irtetzen baldin badira,
ia pasatzen zaitugun laster
ia pasatzen zaitugun laster
saietsetikan erdira.

1978ko urtea urte gogorra izan zen Euskal Herriarentzat. Espainiako prentsa, irratia eta telebista bitarteko hartu eta sekulako erasoak egin zizkiguten Madriletik. Eta gai horixe eman nion Joxeri, Urtezahar gaueko saioan.

Naigabez betetako garaian
isillik egoten lan da.
Itsuak eta gogorrak ere
jarri dira antzemanda.
Urtebete au Euskadirentzat
bildurgarria izan da.
Nola sufritu guregatikan
nola sufritu guregatikan
ein diguten propaganda?

Arriak negar egingo luke
oien jarduna entzunik.
Nik galdetzen det: gizon oriek
ez al daukaten zentzunik?
Ez dute izan gugatik gaizki
jardun gabeko egunik.
Ez derizkiot oinbeste burla
ez derizkiot oinbeste burla
mereziko genduanik.

Bere eskutik egunkariak,
irrati ta telebista.
Kontrariorik eztan garaian
edozein oi da artista.
Gizon argiak nola ez oroitu
ni're akordatu naiz-ta:
alegin egin digute baiña
alegin egin digute baiña
Euskadi ez dute konkista.

Eskerrik asko buruz jokatu
digutela euskaldunak.
Izan ditugu zer sentitzen dan
azaldutzeko egunak.
Beste gauzarik merezi al zun
dana beretzat nai dunak?
Ikasi dezan zer balio dun
ikasi dezan zer balio dun
gezurretako jardunak.

Zezenzale-fama haundia dute azpeitiarrek. Eta ezta-
baidak ere izan dira zezen-kontu hori dela-ta. *Zezenak
bai ala ez?* galdetu zioten Joxeri ere 1988ko uztailean,
zezen-festaren kontra egongo zen itxaropenez. Bost
bertsotan erantzun zien, baina hiru hauexek bakarrik
ditu gogoan:

Batek galdera egiten zidan,
bear al dan zezenikan?
Nik erantzuna emango dizut
azpeitiar izanikan:
emen zezenik ez baldin bada
eztaukagu festarikan...
Zale diranei ez dadukagu
ori ukatutzerikan.

Emen zezenak bear ditugu,
al balitza egunero.
Onelakotan erri guztia
biurtzen baitzaigu ero.
Edozein gera kritikatzaille,
edozein gera torero...
Akabo gure erriko jaiak
zezenak kendu ezkerol!

Batzuk ain gaizki artutzen dute
zezenan festa jartzia,
esanez: “azpeitiar oriek
nun dute kontzientzia,
gerra bizian ari danean
kasikan mundu guztia?”
Orren pekatu astuna ote da
animaliak iltzia?

Euskal Telebistak Lierniko jatetxean bertsoariei
eman zien afari batean, Lizaso eta Larrañagari zezen-
gaia eman zien aurkezleak: *Larrañaga toriatzailea da;*
eta Lizaso, zezena.

Mundura zerbait jaio bear ta
zezena nintzaden irten.
Iru-lau urte or pasa ditut
belar punta batzuk jaten.
Arrapatuta sartu ninduten
burnizko kaja zar baten...
Eta ez dakit plaza ontara
eta ez dakit plaza ontara
zertako ekarri nauten?

Kapa eskuan artuta arro
or dabil torero zarra,
jendeak ere jotzen baitio
txaloa eta abarra.
Neri ezpata baiño lenago
sartzen badizut adarra,
zuen etxian nik utziko det
zuen etxian nik utziko det
bizi guztiko negarra.

Bizkar guztia zauritu eta
ain nabil odol beruan,
onez aurrera kontuz ibilli
zaitez nere inguruan.
Lenago ere zer egin gendun
ez al daukazu goguan?
Zuen lagun zar Paquirri ere
zuen lagun zar Paquirri ere
nere anaiak il zuan.

Beste gai eta ofizioak

Bertsolaritza goitik behera aldatu dela dio Joxek. Edo, areago: lehengo hura bertsolaritza bazen, oraingo hau bertsolaritza ez baina beste zerbait dela, inola ere. Edo oraingoa bertsolaritza bada, hura beste zerbait izango zela. Izugarritzko aldaketa nabaitu du azkenengo urte hauetan.

Bestalde, gaur egungo *triki bertsoak*, *upeletako erronkak*, *pelota bertso* eta horrelakoak, bertso-saio baino bertso-antzerkiago direla uste du. Badaki garaian garaiko seme izan behar dela, baina etzaio bate-re gustatzen jaialdi batera joan eta bi-hiru bertsoekin lanak amaitzea. 2001eko martxoan, Donostiako Kurtsaalean Patxi Etxeberriarekin egin zuen saioa ere ez zizalozon gustatu, argi esan zuenez.

Anai-arreba biotzekoak,
Jainkoak gabon aurrena.
Asiko gera orain azaltzen
memorira datorrena.
Bi aitona zar, bein bear eta,
bildu gera alkarrena.
Doiñua ere ekarri degu
ikasi gendun zarrena,
doiñua ere ekarri degu
ikasi gendun zarrena.

Zuzendarien aginduari
ez diot ondo iritzi.
Borondatea badaukagula
oin nola adierazi?
Esan digu: "or bi bertso bota,
ordun isildu ta utzi..."
Entzule onek ez ote zuen
bertso geiago merezi,
entzule onek ez ote zuen
bertso geiago merezi?

Bertsotara joan eta bi-hiru punturi erantzun, edo hiru-lau bertso bota eta uztea lan motzegia da. Joxeren gaztetako saioak luzeegi eta aspergarri izan zitezkeen, baina oraingoak laburregi direlakoan dago. Eta mutur batetik bestera bat-batean joatea egoki ote da? Erdiko bide bat beharko litzateke, agian.

Garai bateko bertsozale asko baztertu edo uxatu egin degula esango nuke. Aurrepegi ezagun asko falta da, beintzat, gaurko jaialdietan. Jende berria etortzen dala, edota batez ere gaztea erakarri bear dala? Bale, baiña bertsozale zarrak uxatu gabe egin bear zan ori. Eta eztaikit, gaiñera, uxatu aiña jende erakarri degun aspaldiko urte auetan.

Eta gaiei buruz zer esatea nai dezu? Gaiak bearco dira jaialdiak egituratzeko, baiña bertsolariak berak iñoiz sentitu ez-tuen gai asko ematen zaiola bertsolariari esango nuke: Ikastola ixtera etorri dan polizia, bertsoen kontra dagoen agintaria, langilleari bere soldata ukatzen dion agintaria, eta orrelako gai geiegi. Eta orrelakotan ondo erantzutea kosta egiten zaigu, eztegu orrela sentitzen eta. Zer nai dezu?

Orain dala ogeitaka urte, Aulesti-Mu-
relagan San Juan domeka egun batean,
ni eskuindar samarra eta bestea ezkertia-
rra giñala gaia jarri ziguten. Etzan batere
gai egokia garai artarako, nere iritziz. Go-
gor samar asi giñan beintzat, eta lelengo
bertsoa gogoan daukat oraintxe ere.

Etzaidazu egin kontra,
asarre samar nagota.
Zer partidutan jokatzen dedan
etzaizu inporta.
Airian dago pelota,
zeiñek daki nora bota?
Kanpora igual aterako da
ezkerrakin jota.

Gaiak eman bear dira, bai, baiña ber-
tsolariari errespetoa izanez eman, nere
ustez. Iritzi eta pentsakera ezberdiñekoak
gera bertsolariok ere, baiña ezta komeni
plaza-gizona jendearen aurrean edozein
modutan aotan erabiltzerik.

Nolanahi ere, ematen zaion gaia eman, bizkor eran-
tzungo du Joxek. Baina mugak muga dira. Eta horrek
behartuta eskaintzen dizkizudan ale bakar hauek atse-
gin haundiz irakurriko dituzula nago.

Honako hauek, 1964ko abenduaren 5ean Orioko Leunda antzokian egindako saio batekoak dira. Jaialdi hura Pello Kirtenek aurkeztu zuen. Eta herriko Otxotearen ondoren, Lizaso, Uztapide, Basarri eta Lasarte ziren bertsotan. Gai jartzea neuk egin nuen. Eta Lizaso eta Uztapideri ofizio hauxe eman: *Uztapide, Orioko hondartzan eguzkia hartzen zauden neskatxa zera zu. Lizaso, zu arrantzara zoazen herriko gaztea.*

Uzt: Ezta errez esaten
pentsatutzen dana,
baiña abisuka emen
datoz neregana.
Eman didate neskatx
alperraren fama.
Beste mariñel onek
egiten du lana.

Liz: Beti uretan nabil
arrain arrapatzen.
Oraintxe asia naiz
lanian aspertzen.
Zugana asi bearko
degu arrimatzen.
Beti ikusten zaitut
eguzkia artzen.

Uzt: Ni eguzkia artzen
egoten naiz lasai,
eta orrexegatik
daukat ainbat sasoi.
Pretenditu nazazu,
esango dizut "bai",
eta andikan aurrera
egingo dezu jai.

Liz: Biotzera sartu zait
onek itzegiña.
Auxe iruditzen zait
lagun atsegiña.
Tratua egitea
komeni estraiña...
Dirurik bai al dezu
biontzako aiña?

Uzt: Ekarrita zaude zu
milla arrai fresko.
Onez aurrera izan
gure maiorazko.
Gurean lan ein bearrik,
Joxe, batere ezto.
Len ere egin dezu
lan txarrikan asko.

Liz: Arrantzale batentzat
auxe da azaiña.
Lenago nekean ta
orain zori-gaiña.
Dirua bai omen du
bizitzeko aiña.
Ezkontzera nijua
zatarra da baiña.

Uzt: Baietz esan zaidazu,
Josetxo, gaurtikan.
Beti itsasuan zabiltz,
zer dago ortikan?
Edozer eingo dezu
zuk neregatikan...
Zer inporta itsusia
izanagatikan?

1965eko apirilaren 4an, Irunen egindako saio batean, Fernando Artola *Bordarik* gai hauxe eman zien Lizaso eta Mattini: *Autoistripua izan eta zu, Mattin, besa-motz edo mainku gelditu zera; Lizaso, berriz, herren.*

Liz: Entzun dezute agintariak
gaur nola agindu duan.
Kamiñoetan gabiltzan danok
beti gabiltz arriskuan.
Nai dan lekutik ibillitzia
ez dago gure eskuan.
Nik kulpik ezin iñori eman,
kulpak neronek nittuan.

Mat: Biak girade berdin kolpatu,
emen gu ez girade lau.
Geroztik unat ori pentsatzen
egon naiz egun eta gau.
Lizaso, zuri ere berdin gaur
gertatu zaizu gauza au:
bati ieska eitten nuela
besteak, zapla!, jo bainau.

Liz: Arrisku txarra nunai badago
Españian ta Frantzian,
Mattin'e txofer ibiltzen baita
joan daneko aspaldian.
Balantz egiñez arkitu zaigu
kamiñoaren erdian.
Gizarajo au larri egon da
kamioi baten azpian.

Mat: Egun ura zan egun iluna
edo bederen goibela.
Zuretzat ere istripu ori
gertatu zaizu orrela.
Erran bear dut istripu txarra
goizean gertatu dela.
Bertzenaz gutaz esango zuten
biak mozkortuik giñela.

Liz: Zabar samarrak gerala ere
askok esaten digute.
Beti eztago ibiltzerikan
arriskutikan aparte.
Andik nolatan bizirik irten
ere aitortu digute,
mundu ontatik ezpaita joaten
Jainkuak deitzen dun arte.

Mat: Ola bizirik ateratua
biek daukagu loria.
Pena piska bat izanagatik
etorri da omoria.
Zango ta esku, biak makurtu,
au da gure komeria!
Alare oino ondo dauzkagu
burua ta eztarria.

Liz: Berriro ere konpondu dira
ezurrak eta azala...
Mattin ttikia, nik aitortzen det
gogor bildurtu naizela.
Kamiño oitan ez naiz joango
gazte-denboran bezela.
Sinistu zazu Aralarrera
artzai joango naizela.

Mat: Bertze pertsu bat esango dizut,
Lizaso, ez tentatzeko;
makur ori berriz jinen dela
berriro ez pentsatzeko.
Kristok ere ala erran zuen:
erori ta ez lotsatzeko,
baina urrengo aldian gero
erneago ibiltzeko.

1968ko San Jose egunez jaialdi bikaina egin zuten Markinako pilotalekuan. Alde batetik, Felix Aranzabal *Angiozarko Itsua* izan zen soinua jotzen, eta Mutrikuko Oskarbi taldea kantari. Bestaldetik, Lizaso, Lopategi, Jon Enbeita, Azpillaga eta Agirre ziren bertsoan. Aurkezle eta gai-jartzaile, Inozentzio Olea. Lizaso eta Lopategiri hauxe eman zien: *Baserriko bizimodua geroz zailagoa jarri dela eta, zure emazte Lopategik kalera joan nahi du bizitzera, Joxe.*

Liz: Au da andre onekin
daukadan demanda!
Ez da konformatutzen
egia esanda.
Andrea engaiñatzen
makiña bat lan da...
Zer egin bear degu
kalera joanda?

Lop: Olako traturikan
ez nuen merezi.
Argatik joan nai det
kalera igesi.
Eta ango berriak
egoki ikasi.
Basauntz baten modura
ez dot gura bizi.

Liz: Andrea, entzun zazu
senarraren itza.
Ainbat gustatzen al zaizu
kaleko bizitza?
Orrek ekar lezake
betiko ekaitza.
An ere zakur danak
oiñutsik dabilta.

Lop: Onen pentsamentuak
dira gaur azkarrak.
Ortarako baditu
arrazoi edarrak.
Badakizue zer dun
gaur baserritarrak?
Neretzako izten ditu
soloko biarrak.

Liz: Andrea errietan
ari zait mingaiñez.
Gauzak jakiten dira
ondo itz egiñez.
Kalera jua eta
au buruko miñez.
Ezpaiñak pintatuta
lanikan egin ez.

Lop: Olakorik ez al du
gizonak goguan?
Badakit barrenian
gaur zer uste duan:
lanian eukitzia
beronen onduan,
señorita izan ta
esklabu moduan.

1968ko San Jose egunean Markinan egindako bertso-
jaialdi hartan bertan beste gai hau eman zien Inozentzio
Oleak lau bertsoari: *Agirre baserritarra da; Azpillaga,*
artzaia; Lopategi, errementaria; eta Lizaso, bankerua.

Agi: Baserritarrak urte buruan
pasatzen du milla neke.
Gau eta egun lanpian beti
ortxe nabil jo eta ke.
Bankero maite, laguntza eske
biotzikan balitzake:
balore pixkat badaukat eta
diru-laguntza nai nuke.

Azp: Nik iru lagun ementxe dauzkat
eta berdiñak iruak.
Basarritarrak badaki nola
salbatu bere buruak.
Errementaia txit azkarra da,
zer esanik ez bankeruak.
Eta azkenean artzaiak pasa
bear otz eta beruak.

Lop: Emen bakoitzak azaldutzen du
dadukan kontzientzia.
Aizkora batzuk zorrotzurikan
daukat nere ganantzia.
Ainbat etortzen ziran lenago,
baneukan pazientzia.
Gaur egunean gallego oiek
daukie konpetentzia.

Liz: Basarritar ta artzaia biak
daude elkarren antzian.
Errementari au're or dago
banku zar orren atzian.
Irurak elkar artu dute ta
datozkit diru-eskian.
Nai dan ainbeste emango diet
gaur euneko bostian.

Agi: Bankeruak'e korritutikan
aunditxoa eskatzen du.
Basarritarran biotza orrek
emen asko tristetzen du.
Radiotikan propaganda ta
alde danetatik kendu.
Laguntza gabe nere bururik
ezin nezake mantendu.

Azp: Basarritarrak bankeruari
itzegin dio suabe.
Eskatu arren orrek ez dauka
biotz onikan alare.
Millonaioa bera're ezta,
ta ezta diruen jabe.
Orrek ez dio iñoi ematen
aurretik eraman gabe.

Lop: Garai batean ofizioan
ibiltzen nintzan ain ezti.
Gaur egunian txorroztailleak
ipiñi bear nau gaizki.
Baiña aizkora zorrotzenakin
jarria nago amesti.
Zamia ebai bear dautsiek
txilibitu eta guzti.

Liz: Irukote au ezagutzen det
joan daneko aspaldian.
Emen aitortu digute auek
dabiltzala mixerian.
Irabaziak gastatze'ittuzte
azokan eta ferian.
Bankeruana bildutzen dira
jota dabiltzan garaian.

1971ko abenduaren 5ean, Tolosan Zepai zenari egindako omenaldikoan Lizaso eta Mattinek egindako bertso-saioa, gai honi buruz: *Lizaso etxeakoandrea da; Mattin, neskamea. Neskatxa umea zaintzera bidali du etxeakoandreak; eta honek haurra galdu du, mutilarekin berriketan dagoela...*

Liz: Neskame bat badaukat
tailla gutxiduna.
Alderdi bakarra du
dala euskalduna.
Kontuak esateko
nai luke laguna.
Aurra zaintzeko ere
balio eztuna.

Mat: Orain gaizki nabila
etxeakoandriakin.
Unek beti uzten nau
bere aurrarekin.
Bainan nik ere beaut
noizpait ezkontza egin.
Artako itzein bear
mutil gaztiekin.

Liz: Aur zaintzen ipiñi nun
alako afanian.
Mutillakin borroka
portal baztarrian...
Aurrak aldegin zion
izutu zanian.
Ark zer pentsatuko du
sasoia dunian?

Mat: Aurra gaztia da ta
oraindik txikia.
Ezta ez milagrua
istant bat galtzia.
Bainan begietatik
ez nuen utzia.
Arek'e egingo du
bestieri ikasia.

Liz: Nere neskame xar au
beti malezian,
disimulon zebillen
atian atzian.
Baiña aurtxo txikiak
etxeratutzian,
nundik eltzen zizuan
ere esan zian.

Mat: Unekin asi nintzen
neskame lanian,
eta itz egin bear
mutila denian.
Eztu entenitu nai
unek azkenian...
Bera okerrago zen
nere sasoinian.

1972ko abenduaren 7tik 15era *Urola Ibarreko Biltzarra* egin ziren, Azpeitian. Hitzaldiak, Ez Dok Amairu taldearen kantaldia, erakusketak, Liburu eta Disko azoka, eta bi bertso-jaialdi, Izarraitz pilotalekuan eta Soreasu antzokian. Abenduaren 10ean Lizaso eta Lasartek egingdako saio bat aukeratu dut oraingoz. Eman nien gaia: *Autoa plazoka erosi zuen Lasartek, baina oker haundia izan du gaur: erre egin diote bart. Eta okerrago dena zera: azkenengo plazoa kobratzera etorri zaiola Lizaso.*

Las: Plazo-kontu au ain da gogorra
eta tristea da ori,
nere kotxea bear baiño len
esku txarretan erori.
Letra kobratutzeko asmoan
emen al zatozkit neri?
Kobra zaiozu, Lizaso maite,
atzo erre duenari.

Liz: Lasarte onek kotxea erosi
ordaindutzeko plazuan.
Orduan ere au etzebillen
oso fintasun osuan.
Eta gaur letra emen dabilkit
berea ezin jasuan.
Jakingo nuke nik kotxe ura
zergatik erre zenduan?

Las: Azio txar bat egin asmoan
zioten or erasuak.
Bide onezko etziran izan
etsai oien errezuak.
Zuk saldutako kotxea atzo
neri kiskali dit suak.
Orain kobratzen oso zail dezu
kunplitu diran plazuak.

Liz: Kotxea erre dutelako au
gaur dago asarretuta.
Baiña sinistu: ez naiz asiko
errietan bildurtuta.
Nolabait ere gelditu nai det
nere diruak artuta...
Enteratu naiz zenedukala
ondo aseguratuta.

Las: Polita zan ta pena izan det
suak erretzea ura;
eta, Lizaso, arkitzen zaitut
kobratu naizko ardura.
Desgrazi ori pasiagatik
gustora nator kantura.
Berri-berria ekarriko det
seguruaren kontura.

Liz: Lasarte oni gaur eztiot nik
tankera onik ematen.
Berak eztula erru aundirik
gaur onela dit esaten.
Izanez ere gaur dan egunez
zailla da ona izaten.
Zeuk pentsa zazu kotxe zar ori
zergatik erre dizuten.

Beste bertso hauek, 1974ko urtarrilaren 6an, Deban Zubeltzu bertsolariari egindako omenaldian kantatu zituzten Lizaso eta Lazkanok. Gaia: *Herriko aberats baten etxera lapurretara sartu eta biok topo egin duzue gaur.*

Liz: Dirudun zar bat gure errian
aspaldi ezagutua.
Beartsu geran geientsuenok
gendun orren gorrotua.
Orain aurretik aldegin zazu,
lapur madarikatua!
Zu gabe ere badet nik emen
oiek zeñi partitua.

Laz: Uste eztala arkitutzen da
milla olako aingeru.
Gaur egunean ez leike egon
momentu baten seguru.
Errezelo nun etxe onetan
bazala oinbeste diru.
Lenago zegon lapur bakarra
eta alkartu gera iru.

Liz: Bi lapur emen asi gerade
orain disputa bizian.
Denbora asko eleike pasa
nola egin erabakian.
Ikusten dezu zenbat beartsu
bizi dan emen errian.
Partitutzea obeko degu
premia dagon tokian.

Laz: Neroni ere etorria naiz
erriko gauzei begira,
izanez ere bear aundiak
nunai arkitzen baitira.
Zure asmoak ere gaur baldin
antz ortakoak badira,
eskusarikan ez daukat bat'e,
egin diteke erdira.

Liz: Lapur laguna, etzaitez egon
emen bildurrez airian.
Berealaxe esango dizut
gure gauzak nola dian.
Erririk bein'e ez leike egon
atsegiñez ta pakian,
onela bizi geraden arte
lau dirudunen mendian.

Laz: Ez pentsa gero natorrenikan
onuntz nere borondatez.
Etorria naiz ikusten diran
gauza okerren bitartez.
Lapurren moda etorri zaigu
berriz aspaldiko partez.
Orain lapurrak iru gaude ta
Jesukristorikan batez.

1974ko azaroaren 17an, bertsolari zahar talde bati berealdiko omenaldia egin zitzaion Donostiako Anoeta pilotalekuan. Bertsolari asko bildu zen han, hemezortzi-hemeretzi bertsolari zaharrak omendu nahirik. Lizaso eta Xalbadorrek saio hauxe egin zuten, gai honi buruz: *Lizasoren semeak Xalbadorren antza omen daukala dio jendeak.*

Liz: Luan mende pasa det
atzoko arratsa.
Kezkaz igaro dala
daukat esperantza.
Amets bat egin nuen
gogorra ta latza:
nere semeak dula
Xalbadorren antza.

Xal: Nik entzun dudan orren
sinisteak lan du.
Zure emaztea ez tet
ezagun izandu.
Xalbadorrek oraintxe
gogorat eman du
bilakatu ote den
Espiritu Saindu.

Liz: Etzazu gaizki artu
aditutakua:
ametsak arrapatu
zidala atzo lua.
Semea izan arren
gorputz aundikua,
ai, biotza baleuka
zure modukua!

Xal: Zure ispiritua
nagoke begira.
Egi ez den gauza bat
ikusten dirdira.
Nik bakarrik umeak
nituzken argira,
ene antza dutenak
eneak balira.

1976ko abenduan Lazkanorekin deman kantatu zuen Lizasok, Azpeitian. Ofizioa: *Lazkano mozkortuta dator Erdikalean gora. Lizaso, zu serenua zera eta kargu hartu beharko diozu...*

Laz: Burua daukat arindua ta tripak berriz daduzkat su. Nere barruan ez da arkitzen bear dan ainbat deskantsu. Zu, serenoa, eginkizun bat zedorrekin badaukazu. Bakarrik ezin joan naiz eta norabait eaman nazazu.

Liz: Aspalditxoan emen nengoan mozkortzar oni begira. Asko alditan egiten digu onelako erretira. Builla ta kantu ari zaigu ta sarri lurrera erori da. Berealaxe emango zaitut merezi dezun tokira.

Laz: Gaurko onetan ni erori naiz mozkor txar baten katean; baiña berau're ain bero dago, eztabilkit apartean. Bion artean zer festa dagon kartzelara joatean! Guk zer funtzio jarriko degun bi mozkor zoko batean!

Liz: Zutik ibilli eziñean ta etzabiltza indarrian. Ta serenua derrigor dago kargu artu bearrian. Azkenerako asia zera ain izketa zakarrian! Ain lotsagarri nola zabiltza erri guztian aurrian?

1976ko urtearen azkenean herriko Ikastolaren alde jaialdia antolatu zuten Errenteriko Onbide zinetokian. Egun hartan Joxe Lizaso eta Mattini eman nien gaia: *Mattin, laster ezkontzera zoaz eta peluka polit baten bila joan zera gaur Lizasoren dendara...*

Mat: Zuk almazena baduzu eta
neri ori zait gustatu.
Ilerik eztut buruan eta
bear dizut proposatu.
Oraindikan ni mutilzar nago
ta nai nuke esposatu.
Zuk peluka bat bear didazu
gaur saldu edo prestatu.

Liz: Mattin'e buru soildua dago
emen Lizason antzeko.
Giza tratuak izaten dira
emen elkar konpontzeko.
Mendin elurra ikusi du ta
bildurra etorri zako.
Tapagarria emango dizut
buruko otzak kentzeko.

Mat: Eskaera oi egingo dizut,
Lizaso, orain serio.
Burua soilik ibilitzia
neguan eztu balio.
Neska gaztiek ile dunentzat
gaur daukate amodio.
Nik peluka bat eros nezake
ezpalitz zorra kario.

Liz: Gizarajo au larri zebillen
andrerik ezin artuta.
Aiton itxura billatzen die
burura begiratuta.
Ez ikaratu, jarriko zaitut
betirako apainduta.
Kiskur-kiskurra jarriko dizut
moro beltz bati kenduta.

Mat: Ile beltz ori burun jarrita
nik izango det botere.
Alere gaurko neska oiekin
enaiz fiatzen batere.
Oiek burua ta kokotzari
beira egoiten baitire.
Ilia bera naiko zaiote
bururik ez izanda're.

Liz: Ilusio bat bakar-bakarra
dago Mattinen kolkuan.
Nunbait negua pasa nai luke
andre on baten onduan.
Ez ikaratu, ille kiskurra
jarriko dizut buruan,
ta saia zaite neskatxaren bat
ia engaiñatze'zuan.

1977ko otsailaren 5ean, Mattin, Lizaso eta Azpi-
llagak Zestoan egindako saioa. Oso modan zegoen,
eta gai hau eman nien: *Miarritzeko zinema-areto ba-
ten aurrean ikusmiran zebiltzan Lizaso eta Azpillaga
gaur arratsaldean. Mattin, zeren bila ote zebiltzan,
ba?*

Mat: Bi lagun baditut nik
oraitxet auzuan.
Goizian Miarritzen
zagozin gostuan.
Zinea ikusteko
ari apustuan.
Orrelakoik ez al da
zuen Gipuzkuan?

Liz: Moda berriak jarri
dira istorian.
Mattin begira zala
nik'e banekian.
Pelikula ederrak
dabiltza Frantzian,
emakumiak antxe
erdi agirian.

Azp: Lizasok nai baitzuen
gaur nere laguntza;
biajea ein degu,
ezta izan utsa.
Emengo zine berdea,
aizearen putza!
Pornoa zer dan jakiten
jun gaituk aruntza.

Mat: Auek zinema aurrean
ziren parregarri.
Nik eztakit zertako
dien aruntz etorri.
Biak begira zauden
ango afitxari,
neska bat zalakoan
ipurdi agiri.

Liz: Eztira kaltegarri
gure ibilliak.
Nolabaite gozatu
ditugu begiak.
Orgullosa gerade
andik etorriak,
ikasi bait ditugu
lumero berriak.

Azp: Arratsaldean degu
jira bat egiña.
Iñoiz ez det ikusi
nik gauza berdiña.
Urtez aurrera goaz,
au penaik aundiña.
Lenago ez joatia
biotzian miña.

Mat: Badute edadea,
baituzte adinak
ta oraindik artu nai
bere atseginak.
Pelikula ikusteko
ziren itzegiñak.
Ango ta emengoak
ez dituk berdinak?

Liz: Esan nai ote nagon
oso narrastua.
Oraindik'e kandela
askotan piztua.
Neretzako lan ori
ezta erreztua.
Gutxiñez eman diet
begiai gustua.

Azp: Jun ta ikusi degu,
zer erremedio!
Gauza batzuk goguan
dauzkat oraindio.
Aiek ikusita jarri
naiz oso serio,
besteak ikusteak
ezpaitu balio.

1980ko martxoaren 29an, Bergarako Pentekoste jaietan Lasarte eta Lizasori jarri nien gaia: *Aspaldiko partez, konfesatzera joan da Lizaso gaur. Eta konfesionarioan zein aurkituko eta Lasarte, hantxe zai...*

Liz: Uste ez dala len bezalaxe
gure Pazkua etorri.
Pekataria bide txarretik
ibillitzen gera sarri.
Nor izango ta txabola ortan,
Lasarte jauna da jarri...
Onek len ere bazekin ondo
nere pekatuen berri.

Las: Len ere onuntz etorriko zan
amaika ardura gabeko.
Bear bezala aitortutzea
ez ote dezu obeko?
Frailea aspertuta joan da ta,
ni nago aren ordeko;
ementxe baiño obetoago
ez banaiz inon gordeko.

Liz: Iruña aldean ibilli giñan
sasoi genduen orduan.
Au're biurri samarra gendun
naizta gorputzez flakuan.
Nola arraio eseri aiz or
fraile on baten lekuan?
Len egin ittun narraskeriak
konfesatu al ittuan?!

Las: Kontzientziko kargarik ez du
Lizasok biotz sanuan.
Izketan nola asiko zan au
len ere pentsatzen nuan.
Etzendun asko usteko baiña
erori zera amuan...
Beldur ederra sartuko nion
bizarra izan banuan.

Liz: Bere sasoirik ederrenian
au're ibilli lanian.
Oen moduko fraile geiegi
dago gaurko egunian.
Egun askoan baldin ba ago
orain agoen tokian,
zer esan be'ioke titi-aundi ura
orruntz etortzen danian?

Las: Zuri bezala borondatetsu
nion nik ari lagundu.
Arrazoi latzak duazkatzu eta
bearko ditut legundu.
Egia esan dezu: ez nintzan
ni geldirikan egondu.
Zuk ere pozik egingo zendun
aukera izan bazendu.

Liz: Ni bezelaxe bere garaian
pekataria izan da.
Nolabait ere orain egin nai
frailiaren propaganda.
Au zein billa ote dabillen
gelditu naiz antzemanda:
lengo kuttunak bialtzen ditu
iru-lau musu emanda.

Las: Entzun dezute azkenerako
Lizaso onek zer esan dun.
Izanez ere guk alkar ondo
lendik ezagutu gendun.
Ustegabeko frailea irten,
ai, zer disgusto izan dun!
Kaiola ontan monja gazte bat
zegola uste al zendun?



Lizaso eta Lasarte bertsotan. Astigarraga 1974

(Arg. Arturo - Sendoa)

Ondorengo hauek Elgoibarren jaso nituen, 1981eko martxoaren 28an. Ermuan jaio eta aspalditxoan Elgoibarren bizi zen German Urigüen *Etxegiña* bertsolari eta bertsozalea omendu zuen Elgoibarko Izarrak, herriko Udalaren laguntasunez. Han Lizaso eta Lazkao Txikiri jarritako gaia: *Ustez lagun onak zineten zuek; baina Lazkao Txiki hau zure emaztearekin pasiatzen ikusi omen dute, Joxe...*

Liz: Lazkaorekin nengon
ekibokatuta,
laguna nuelako
len sinistatuta.
Nere andre aundiaz
enamoratuta,
atzo ikusi dute
gerritik elduta.

Ltx: Ene lagun Lizaso,
lasaitu zaitea.
Len bezain lagun zaitut,
len bezin maitea.
Nik Jainkoan dotriña
dut bete-betea:
goseak dagonari
jaten ematea.

Liz: Goseak bazenbiltzen
ongi egin dezu,
eta lagun maiteak
gerade ni ta zu.
Kontuz ibilli zaitte
xirri eta musu.
Ark zapaltzen bazaitu
igarriko dezu.

Ltx: Ortan arrazoi dauka
ondoko lagunak.
Aren pixuak dira
aundi ta astunak.
Baiña asko maite du
Lazkao lagunak.
Nunbaitetik bear du
etxian eztunak.

Liz: Aspaldian zebillen
aren inbidian.
Antzemanda nengoan
eta banekian.
Berriz'e utziko du
gaixua premian,
atz egiten ezpadio
nai duen tokian.

Ltx: Lazkaori eman diozu
granujaren traza.
Naiz ta korputzez izan
txiki ta eskasa,
oker aundi-aundirik
eleiteke pasa.
An ezta peligrorik
eta zaude lasa.

Liz: Lagun, etzaite jarri
zu asarretuta.
Andre aundia daukat
gaur errukituta.
Deportian zebillen
ezin asmatuta.
Titia eman dio
lepuan artuta.

Ltx: Andrea etzan konforme
nik nion iritzi.
Orregatik joan nintzan
ta nai nun ikusi.
Esan dit: "Lizaso baiño
naigo zaitut, kasi.
Ark pixu aundia du
baiña beste gutxi".

Beste saio hau ere elkarrekin egin zuten Lizaso eta Lazkao Txikik, 1981eko azaroaren 15ean, Zegaman. Uztapideren omenez egin zen jaialdi hartarako gaiak neuk prestatu nituen eta Julian Belokik eman. Lizaso eta Lazkao Txikiri jarritako gaia: *Urteak daramazkizue elkarrekin bertsoan. Baina, harrigarria, gaur hasarretu egin omen zerate, eta elkarri desafioka eraso...*

Liz: Mutil, zelebrea dek
ire jeniua.
Nerbioak al ago
burura iua?
Burrukarako beintzat
ez ago jaiua.
Isilik egon adi,
txatxu arraiua!

Ltx: Lizaso lagun auxe
dago pulamentuz.
Gizon izugarria
espalda ta buruz.
Neu're natxiok, mutil,
asitzeko asmuz.
Ni berotu baiño len
itzegin zak kontuz.

Liz: Edozein artutzen du
oraindik autan.
Lotsagabetzen dira
nai duten lekutan.
Nerekin ez adi asi
orra disputan,
ikusitakoz eza
Aizkorriko puntan.

Ltx: Egin bear ote du
desafio geio?
Elduko baldin balit
kasik nuke naio.
Eskua bere lekutik
irtentzen bazaio,
txiki au apuntatzen
kosta bear zaio.

Liz: Zertarako jarri naiz
ni asarretuta,
borroka egiteko
balio eztuta?
Ondatu baiño leno
Lizason konduta,
etxera eramango det
patrikan sartuta.

Ltx: Zer bitxo naizen lenen
jar'adi begira.
Neuk ere ekarri diat
ortarako ira.
Kolpe botako diot
beko alderdira.
Arbola aundiak moztean
eroritzen dira.

1982ko martxoaren 3an, Zarauzko Haurtzaka haurzaindegiari laguntzeko bertso-jaialdia antolatu zuten herriko Zinema pilotalekuan. Gai-jartzaile Abel Muniategi izan zen. Eta Joxe Lizaso eta Agirrerri haurxe eman zien: *Inglaterrako bi medikuk esan dute, oraintsu, sexu-harremanak bizia moztu egiten omen diotela gizonari.*

Liz: Zer pentsatua jarri didazu
agindu ori aiturik.
Naiago nuke nik gizon orri
ez egitea kasurik.
Izan liteke ez izatea
urte askoko bizirik.
Ez det pentsatzen al dan artean
saiatu gabe uzterik.

Agi: Mediku jaunak estudioak
latzak egiten dituzte,
ta abisu orrek neri eman dit
orain naiko buruauste.
Zalea zera, zugana nator
ni mesede baten eske:
luzaro bizi nai badezu
kontuz ibilli zindezke.

Liz: Nik aintzakotzat ez det artuko
gizon oien agindua.
Neroni nago zartua baiña
andrea det sasoikua.
Orain kunplitzen ez baldin badet
leno agindutakua,
Agirre lagun, ez al da izango
kontzientziko kargua?

Agi: Kontzientziko karga kontatzen
nai al diguzu eraso?
Beraz, ez dezu ori utziko
datorrenian eroso?
Gazte-gazterik asi ziñan ta
saiatua izan oso.
Ori ortaiño txarra izan balitz
ilda zegoen Lizaso.

Liz: Barka zazute, ni ez nijua
mediku jaunaren kontra.
Baiña gizonai ainbeste gauza
eldutzen zaizka gogota.
Nei emazteak esaten badit:
“bakarrik joan zaite lota”.
Ortaiño iristen naizen garaian
ilda're etzait inporta.

Agi: Ara Lizaso nola dagoen,
ez egon arren gaztia.
Aitortutzen du egingo dula
egin lezaken guztia.
Arrazoi dauka nere ustetan
arrazoiari eustia...
Penagarri da maite deguna
alde batera uztia.

Honatx Urruñan jasotako bertso batzuk orain. 1982ko martxoaren 28an, Manuel Sein Xanpun omen-
du zuten han, eta gai-jartzaile Daniel Landart izan zen. Lizaso eta Lazkanori hauxe eman zien, hitzez-hitz:
*Behin batez, bere andregaiaren bila joan zen Manuel Sein Xanpun, Usategia izeneko baserrira. Bere ama ir-
ten zitzaion atera, eta "Zer nahi duzu?" galdetu zion. Eta Xanpunek erantzun: "usoaren bila nator". Joxe Li-
zaso, zu ama zera; eta Lazkano, Xanpun..."*

Liz: Ez dakit nundik urbildu zeran
gaur, Xanpun gizarajua?
Sasoia zan ta zuk'e bazendun
esnatutzeko ordua.
Nola arraio bisita dezu
gure ate ingurua?
Onek bazekin barruan zala
onen gustoko usua.

Laz: Baldin baneuka bear bezala
biotza ta memoria,
jarri nai nuke aman agiri
biotz bat garbi-garbia.
Aspalditxoan gaixorik edo
arkitutzen zait eria.
Uso gozo bat badaukazu zuk,
nik det orrentzat kabia.

Liz: Arrano zarrak mendirik mendi
eta mundurikan mundu.
Orain eztakit nik tratu ori
nola arraio konpondu.
Uso polit bat gurean dala
lengo bertsoan esan du.
Orrek maiteko zaitu zu baiña,
arren, lumarik ez kendu!

Laz: Arrano enaiz baiña badaukat
usotxo baten antsia,
gorputza baitet maitasun eta
indarrez ongi jantzia.
Eta tranparik ez dut barruan,
garbi dut kontzientzia.
Esku txarreta ez dala juango
eduki segurantzia.

Liz: Onek esan du gure usoa
biotzez duela maite.
Ate onduan bere burua
arrotutzen du dezente.
Arrano denak urbildutzean
berdintsu esaten dute,
baiña ori ez du amak sinisten
kabia ikusi arte.

Laz: Ama, ez daukat nere burua
gaurkoz saltzeko ta merke.
Bide zuzenez natorrela ni
zuk jakin bear zenduke.
Aspalditxotik ditut arrautzak
eta dute ainbat neke.
Bat eman eta lau bat ekarri
nezazke bat orren truke.

Liz: Beti bezala oillar zarra gaur
datorkit arro antzeko.
Enaiz etorri mutil formalai
kondutarikan galtzeko.
Eta lau txito bear dittula
emen dauka azaltzeko.
Iru zeuretzat eraman eta
bestia amak zaintzeko.

- Laz: Berealaxe ezagutu det
nik amaren arpegia,
eta zertara dijoan ere
botea diot begia.
Ikusten danez berau eztago
uso kontuan nagia.
Bestela alaba eman nezake,
ama dago gaztegia.
- Liz: Barka zaidazu bide txarretik
baldin banazu abittu.
Usoan amak oraindik badu,
bai, orrenbeste meritu.
Oillar zarraren zarata danai
nik ezin diet segitu.
Nere aitag' e agindu danak
ez baizizkidan kunplitu.
- Laz: Era ortako deskontentuak
sortzen dira egunero,
baiña nerekin ez dezazula
orrelakorik espero.
Okasioan saia zaita
etorri naizen ezkerero.
Usoa ez dezu gero salduko
putre biurtuta gero.
- Liz: Azkenerako jarri gera gu
ia-ia asarretuan.
Oillar onekin nola arraio
ni asi naizen tratuan?
Gauz eder asko eskeintzen dira
onela ate onduan.
Oillarra nor dan ikusi bear
kaiolan sartutakuan.

Laz: Nere ustetan sentimentuak
garbiro ditut azaldu,
baiña atsoak nere jokerak
ez ditu asko goraldtu.
Itxaropena banuen lendik
baiña kolpez zaizkit galdu.
Zuretzat zeure uso txuria
ta nai dezunari saldu.

1984ko maiatzaren 20an, istripuz hil zen Azkoitiko Goenatxo harrijasotzaile zenari sekulako omenaldia egin zioten kirolzaleek, Azpeitian. Herriko zezen-plaza leporaino bete zen, harrijasotzaileak, sokatiralariak, aizkolariak eta bertsolariak txalotzeko. Egileor, Lizaso aita eta semea, Larrañaga, Altuna, Euzkitze, Agirre eta Lazkano ziren bertsotan. Saio hartako laburpen bat eginez, Joxe Lizaso, Agirre eta Lazkanok kantatutako hauexek aukeratu dizkizut:

Liz: Agur, entzule biotzekoak,
erriaren izenian.
Zeru txiki bat ematen digu
onek gaurko egunian.
Oraindik ere ez gera bizi
gorrotoaren mendian.
Alkartzen ere badakigu guk
alkartu bear danian.

Agi: Arrazoi dezu, leku batzutan
naiz gorrotoa egondu,
gaur bertan ere Euskalerrriak
proba ederra eman du.
Obe genduke egun danetan
auxe egingo bagendu.
Illik ez degu piztuko baiña
bizi danari lagundu.

Laz: Denok dakigu Goenatxori
denok geniola zorra.
Erriak dudan ibilli gabe
eman du bere aitorra.
Gozatzen zailla baldin bada`re
eriotzaren gogorra,
biotz barrendik eskertzeko da
zuen erantzun jatorra.

Liz: Oroi gaitezen Goenatxo ta
geiago`re bazirala:
Agerre eta Garatxabal`e
emengotxiak zirala.
Denbora gutxi Errekartetxo
mundutikan joan zala.
Zerurik bada seguru nago
txaloka ari dirala.

Agi: Goenatxok indar asko zun baiña
aiek ere etzuten gutxi.
Aientzat ere azken ordua
ustekabetan iritsi.
Kontuak kontu, kristautasunai
gaur bezela sendo eutsi!
Geuk ez dakigu ze izango geran
inork biar edo etzi.

Laz: Gizon aundi bat joandakoan
aundia oi da utsuna,
baiña erriak erantzun dio
gaurkoz erantzun ber zuna.
Eskertzeko da, diot berriro,
ementxe egin dezuna.
Gora kirola, gora Euskadi
eta gora batasuna.

1984ko urriaren 6an, Oñatin egindako saio batean jasotako bertsoak dira hauek. Gai-emaile Nikolas Segurola izan zen; eta han bildu ziren zazpi bertsolari, bakarka, binaka eta taldeka jarri zituen bertsoetan. Txanda etorri zenean, Lizaso, Lazkao Txiki eta Azpillagari hauxe eman zien: *Joxe Lizaso, Lazkao Txikiren lehenengo emaztea da; baina Azpillaga neskatxarekin ezkondu nahi omen du orain Joxemielek...*

Liz: Anai-arrebak, ain da tristea
guk daukagun izaera,
beste andre bat arrimatu da
bazterrak endredatzera!
Indar aundiko zezena beintzat
ez du eraman etxera.
Gose ederrak pasatu biar
gizonzalia bazera.

Ltx: Andre onekin ezkondu nintzan
ederra zala poztuta,
baiña askotan gelditutzen da
zertan ari dan aztuta.
Orregatikan len ezkondua
nago orain damututa.
Beste andre bat artu bear det
mugimendurik ez du-ta.

Azp: Buruko ille danak ipiñi
bear dituzte tentiak.
Gizon aundiak eztitu beti
izan indar dezentiak.
Lazkaukua txikia dala
pentsatu arren jendiak,
orain nerekin bota nai ditu
Lizasoren sobrantiak.

Liz: Noizbait senarra artu nuen nik
ttikia eta kuttuna,
baiña gendukan amodioa
orain pikutara juna.
Bentaja bat du: gaiñerako're
ez dauka karga astuna.
Au da gizonan obligazioik
iñoiz kunplitu eztuna.

Ltx: Nere partetik zuk, emaztea,
etzendun utsegiñikan.
Karizi onak egin nizkizun,
enizun eman miñikan.
Mundu osoan ez da egongo
orren andre bikaiñikan,
baiña etzaten ez baldin bazait
eztaukat zer egiñikan.

Azp: Andre aundian onduan ez da
Lazkao au ikusterik.
Lanean asi ta ez du falta
xirririk eta txisterik.
Lizaso andrea, etzaite egon
ain illun eta tristerik.
Nerekin ere eztu egingo
denbora pasa besterik.

Liz: Beste andre bat artzera orain
Azpillagak otseginda.
Gizon txiki au nolakua dan
utziko zaitut jakinda.
Onekin jardun edo lo egin
ori ere ain berdin da,
amaika bider aldeingo dizu
oillarrarena eginda.

Ltx: Gizon txikia pentsa badala
zuek biontzat ainbeste.
Emen daduzkat bi alboetan
onelako bi emazte.
Aunditasuna gauz ona danik
denak etzazute uste.
Eranegungo *Hortensiakin*²
larri ibilli zerate.

Azp: Bi andre aundi, gizon txiki bat,
jaun-andereak, au lana!
Ikusten degu gizon txikiak
zer egin asko daukana.
Mingaiña dauka oso leguna,
azaldutzen dun afana.
Eta nerekin aspertutzean
bidaliko det zugana.

Liz: Berriz nigana etortzen bada
billatuko nau serio.
Porru-jorra ta musu ematen
askotan gustatzen zaio.
Alutzar onek eman dit neri
amaika amorrazio.
Ezerta iritsi baiño lenago
gaba pasatzen bait zaio.

Ltx: Bear bezela serbitzen ditut
bi orrelako emazte.
Gauza danetan txiki naizenik
iñork eztezala uste.
Arpegitikan zimurra baiña
biotzetik nago gazte.
Irugarrena billatuko det
isilik ezpazaudete.

² Aldi hartan Ameriketean izan zen tifoia.

Azp: Oillotegian orrelakorik
bai ote da ikusterik?
Oillar txikia zartzen ari da,
oilloak daude gazterik.
Bi oillo aundi oillarragatik
arkitzen gera tristerik.
Oillar txikiak ez du egiten
lardaskeria besterik.

1984ko uztailaren 23an, Udako Euskal Unibertsitatea zela-ta, bertso-jaialdia antolatu zuten Iruñeko Larraona ikastetxean. Bertsolari klasikoak eraman zituzten saio hartarako: Joxe Lizaso, Lazkano, Agirre eta Gorrotxategi. Lizaso eta Agirreri gai hauxe jarri zien aurkezpena egin zuen neskatxak: *Agirre bere autoan ekarri du Lizasok Azpeititik Iruñera; eta, ordainez, afaritara gonbidatu du txoferra. Baina sekulako kastua egin dio Lizasok.*

Agi: Kotxerik ezak sortutzen ditu
makiña bat estuasun.
Ekarriko al naun galdetu diot
ta onek baietz erantzun.
Itxura danez bentajarako
asmoa edukiko zun,
baiña azkenean zer gertatu dan
bearko dezute entzun.

Liz: Kamin-ertzean antxe zeguan
oitura zuan modura.
Gelditu eta neuk artu diot
gizon jatorran itxura.
“Lasai etorri, nik eramango
zaitut orain Naparrura,
baiña afaria egin nai nuke
gaurkoan zure kontura”.

Agi: Ta ni're ezin atrebitu or
ezetzikan esatera.
Joan gerade Iruñan dagon
taberna eder batera.
Gure Lizaso jan ta jan, ortxe
punta batetik bestera.
Debalde ekarriko naula baiña
etzait merkea atera.

Liz: Bidelaria, gauz orregatik
etzazu egin negarra.
Gogor samarra atera zaizu
or gaurko illunabarra.
Beti badago zerbaitxo eta
gaur'e kezka bat bakarra.
Utsegitea, txoferrak irten
dio garesti samarra.

Agi: Naiago nuen len jakin banu
zer bidetatik zenbiltzan.
Ontara ezkerro dana kenduta
ere neretzat berdin zan.
Gaur bezelako engaiñiorik
ez det izandu bizitzan.
Taxisa artuta etorri banintz
obeto irtengo nintzan.

Liz: Okasioa libre daukazu
noiznai taxisa artzeko,
afizioa dezun ezkerro
bidean ibillitzeko.
Etzaitezela negarrez asi
neska zarraren antzeko.
Dirua ere alperrikan da
gordeta edukitzeko.

Agi: Ez nabil neskazarraren gisan,
au ezpaita aitzakia.
Berriz ez nazu engaiñatuko,
artu det erabakia.
Iru orduan gure Lizasok
or jardun du jo ta kia.
Tripa bete du eta egin du
puska bateko pakia.

Liz: Naparru dana enteratu da
onek jo duen banduan.
Kontu tristeak azaldu dira
neretzat afalonduan.
Bidea luze egin zait neri
aiton onen inguruan.
Neska gazte bat izandu balitz
debalde ekarriko nuan.

Hurrengo bertso hauek, 1984ko urriaren 6an, Urnietako jaialdi batean jasoak dira. Gai-jartzaileak haxe eman zien Lizaso eta Agirreri: *Oso berandu etxeratu da senar Lizaso, eta ezpainak pinturaz eginda etorri, gainera. Emaztea, Agirre, laster ohartu da.*

Agi: Erritan ein bearra
dadukat saiua.
Amaika sufritzeko
mundura jaiua.
Bateren bat izan da
pintore iaiua...
Nun ibili zera zu,
kaiku arraiua?

Liz: Amaika orrelako
mundutzar onetan.
Afizioa du eta
beti berriketan.
Lau txorixo jan ditut
gaur nik Urnietan...
Pipar-autsa dadukat
ezpain baztarretan.

Agi: Ori txorakeria
esan didazuna!
Enazu engaiñatzen,
badaukat zentzuna.
Txorixoz izango zan
zure eginkizuna,
baiña eztago bapoa
zeurekin dezuna.

Liz: Ez da ederra beintzat
onen jeniua,
petral samarra baita
mundura jaiua.
Zurekin ere egingo
det orain saiua...
Isilik egon zaite,
txolin arraiua.

Agi: Beraz, nerekin'e gaur
esperantza dauka.
Ni ez nijoa aстера
onekin burruka.
Lengoan gertatua
ezin leike uka:
seiretarako asi ta
amabitan buka.

Liz: Emen nabarmendu da
gure istorian.
Nondik erasoko zun
ondotxo nekian.
Aspaldin emen nabil
iñoren premian...
Ik ere ezten egingo
nai denan guztian.

Agi: Nai dan guztian ezta,
ez, ibiltzekua;
baiña gaur ez nago ni
zure antzekua.
Griña asko daukazu
zorigaitzekua:
auzokoak maite eta
sobran etxekua.

Liz: Entzun dezute senarra
nola tratau duan,
etxia utzita nola
nabillen kanpuan.
Zazpi ordu pasatu
nittula lenguan?
Portau balu lenago
bukatuko nuan.

1984ko abenduaren 23an Zarautzen egindako saioa. Lizaso eta Agirren gaia: *Santo Tomasetako zerrriaren errifarako txartela erosi zenuten Donostian; eta zerria tokatu zaizue. Baina orain dira kontuak hemen: nola partitu zerria?*

Liz: Arrazoi dezu, Donostian gaur
biok generala elkartu,
ta salgai zeuden txartel batzuek
guk antxe giñuzen artu.
Suerte pixkat badegu eta
geuretzako egokitu.
Orain, Agirre, ein berko degu
bion artean partitu?

Agi: Lagunak gera ta ezin asi
gindezke elkarren kontra.
Zerriak asko balio du-ta
ezin itsasora bota.
Baiña, Lizaso, zuk jakin zazu
zeure lagunaren nota:
nei zerririk etzait komeni
rejimenean nago-ta.

Liz: Denbora asko ez det pasako
au ezin erabakian.
Zerbaitetara joko zuela
asterako banekian.
Beraz, zu ere etzaude ongi
eta osasun garbian.
Zu rejimenen egonagatik
jango dute familian.

Agi: Gauz ori dana zuzendutzeko
ez dira naikoa itz bi.
Arrazoi dezu: familian'e
aprobetxa leike, noski.
Urdai gizenak zuk jaitzazu ta
xolomo eta saieski
gure etxean zaleak dira,
ez dira etorriko gaizki.

Liz: Azkenerako jarri bear det
onekin asarretuta.
Puska gozuak jaten nunbaite
lendikan dago oituta.
Rejimen ori izango dezu
zuk zedorrek asmatuta...
Nik zer arraio egin bear det
puska onenak kenduta?

Agi: Puska onenak kendutze ori
ez det oso asmatua.
Gure Lizasok berekiko eztu
ori ontzako artua.
Lenago ere gizon aundi au
dago gutxi penatua.
Zertatik eztet esango baiña
bai ondo gobernatua.

Liz: Nik onelako lagunak dauzkat
etxian eta auzuan.
Azkenerako bere lagun bat
jartzen du konpromisuan.
Onek gabonak pasa nai ditu
eta kutizi gozuan.
Jakingo nuke rejimen ori
zeiñek ipiñi zizuan?

Agi: Nai bada jakin, rejimena det
mediku batek emana.
Zuk sinistu nai ezpadezu ere
aje koskor bat dedana.
Zerri bat irten biori eta
emen jarri zaigun lana.
Bestela ezin konpondu leike,
egin zagun erdi bana.

Liz: Lagun Agirre, beste gauza bat
neri orain bururatu.
Errian bistan aitortutzea
ezta izango pekatu.
Arrazoi dezu, ta erdi bana
obeko degu partitu.
Burua berriz nere moduko
alperrai erregalatu.

1985eko apirilaren 27an, omenaldi ederra egin zioten Lazkao Txikiri Oñatiko Larraingain elkarteko bertsozaleek. Nikolas Seguroiak gai hauxe jarri zien Lizaso, Lazkano, Agirre eta Lazkao Txikiri: *Munduko emakumerik aberatsena dan Christina Onassis Oñatin izan omen da egun hauetan. Eta, diotenez, Joxe Lizaso maitemindu eta berarekin Grezia aldera joateko animatuta omen dago.*

Liz: Emakume polit bat
bait zan azaldua,
eta ni gelditu naiz
enamoratua.
Egokitu nitzaien
bere gustokua...
Euskadi agurtu ta
Greziara nijua.

Laz: Berriro uztarrarian
nai al uke lotu?
Sarritan esan diguk:
“ezin nauk berotu”.
Orain bigantxa orrek
kolpetik girotu,
edo bestela au're
diruak erotu?

Agi: Neuk ere oixe neukan
nik bururatua:
Lizaso dirutikan
da inguratua.
Bizimodua dauka
aseguratua,
baiña ez da benetan
enamoratua.

Ltx: Euskalerrria utzita
ez zaitezela jun.
Eztakizu or zer e-
torkizun daukazu.
Bakizu Onassisek zer
biaje eman zun?
Amak aizpa bezala
ia iltzen zaitun.

Liz: Alperrik dabillen au
nik ilko kolpian.
Trankil bizi nai nuke
iru-lau urtian.
Bertsolari lagunak,
nei utzi pakian,
oingo krisisaldia
pasatu artian.

Laz: Beraz, dantzatu nai dek
diru-konpasia?
Baiña umoretikan
beti eskasian.
Naiz ta txanpona mardul
ibilli Grezian,
emengo giroik eztek
gaur mundu guztian.

Agi: Lizasok gauza ori
pentsatu bear zun.
Lagunen kontsejuak
obe dezu entzun.
Jaioterri maitea
nola galtzen dezun,
pentsatutzen al dezu
zer ein bear dezun?

Ltx: Zu're diruan billa
zoaza azkenik.
Kariñoik eztezula
seguru dakit nik.
Or eztiguzu egin
oso tratu onik...
Diru utsez eztago
iñun zorionik.

Liz: Nik neronek nekian
nolatan nenguan:
mixerian etxian,
mixeriz kanpuan.
Bizitzen asmauko det
neronen kaikuan,
babarik egosten bada
aren lapikuan.

Laz: Uste nun martxa ori
etzula graziko
eta bide oietan
etzala asiko.
Grezira doa baiña
denbora gutxiko,
bertsorik kanta gabe
ezpaitu etsiko.

Agi: Ola ganbiatzeko
ez aiz mutikua.
Nai dekana egin
ik nerezikua.
Gizonaren sasoia
eztuk betikua.
Laster sobratuko zaik
aren lapikua.

Ltx: Diruduna dala ta
ezkontzeko pozak.
Ark erakutsiko'izkik
bibote zorrotzak.
Iñoiz kopeta beltzez
ipiñitzen bazak,
Euskadiko juerga
akordatuko zak.

Liz: Juerga egiña naiz ni
nola-alakuak,
baiña oiek eztira
ola uztekuak.
Neretzat jartzen baitu
bankuko diruak
ni arreglatuko naiz,
gero gerokuak!

Laz: Lagun, esango dizut
suabe-suabe:
azkarra zera baiña
deskuidau zerade.
Grezian ein zindeke
milloi askon jabe.
Oñatin obe dezu
xentimorik gabe.

Agi: Oraindaiño bezela
zuzenari eldu
eta aberats zar ori
Grezira bialdu.
Naizta milloi askokin
zugana azaldu,
diruagatik beintzat
Euskadi ez saldu.

1985eko uztailaren 6an, Lazkao Txiki, Mañukorta, Egaña, Peñagarikano eta Lizaso izan zituzten bertsoan Usurbilgo Santa Isabeletan. Lizaso eta Lazkao Txikiri gai hau eman zien Antton Haranburuk: *Zuek, Lizaso eta Lazkao Txiki, aitona eta amona zerate. Kalean sekulako zarata dabil, eta ezin dezue lorik egin...*

Liz: Zelebre jarri zaigu
gaztedi berria.
Zer iruditzen zaizu
Lazkao Txikia?
Nere onetatikan
atera naiz ia.
Lorik ezin det egin,
au da komeria!

Ltx: Otsailleko katuak
ibiltzen dun planta,
teillaturik teillatu
karraisi ta kanta!
Eta gu zartu gera,
bearko aguanta...
Ezer ez egiteko
oinbat zalaparta!

Liz: Laguna utzi nai det
orain jakiñian:
gauzak zelebren daude
gaurko egunian!
Karrisika dabilta
gaurik geienian.
Formalago giñan gu
gazte giñanian.

Ltx: Nere agure maitea,
konturatu zaitez.
Ia lotsatutzen naiz
gazteen izatez.
Karrisika or dabilta
joan dan astebetzez...
Geuk egingo al degu
gazte oien partez?

Liz: Gu're garai batean
giñan indarrarian,
emakumeta joanez
oneaz onian.
Formal erretiratu
illunabarrian,
musu batzuk emanda
meta bazterrian.

Ltx: Gazte oiek gaur drogatik
daukate gaiñezka.
Orren mende dagonak
nola egin festa?
Gu biok egitea
oraindik errez da.
Nai deguna eginda're
peligrorik ezta.

Liz: Oroitu bear degu
nor giñan antziñan.
Nere lagun au ere
uzten det jakiñan.
Musuka asitzean
metaren eskiñan,
drogarik gabe ere
arrotutzen giñan.

Ltx: Oraindik'e amona
emen dago premiz.
Eztago aspertua
lengo berdekeriz.
Zartua dago baiña
eingo luke berriz,
gure aitona pixka bat
mugituko balitz.

Liz: Aitona're ez dabil
arnaska ta puzka.
Amona nola dagon,
entzulea, juzka!
Nonbait berekin dauka
lenago zun puska...
Lengo dibertsioak
gogoan daduzka.

Ltx: Amona emen dago
umil ta tristerik.
Orrek eztu pentsatzen
ezertan asterik.
Zalaparta galantak
bazitun gazterik,
baiña orain eztauka
puzkarra besterik.

Liz: Ori're esan digu
lotsarik ez du-ta.
Amona au ez al dago
burua galduta?
Zenbat urte daduzkan
or dago aztuta...
Errosaioa esan
kandela piztuta.

Ltx: Pertsona ezertako
ezpaita zartzera,
gu ere jarri gera
trapuen antzera.
Salto bat egiteko
gauza ezpazera,
ni aspertu naiz eta
zoaz baztarrera.

1993ko maiatzaren 8an, Larrañaga, Gorrotxategi eta Lizasori Legazpiko jaietan eman zieten gaia: *Bart arratsean parranda egin dezue, eta gaur goizean etxerakoan, eskailaratan topo egin dezue hirurok.*

Lar: Eguna pasatu da,
guztia ala da.
Urretxuko Golden-en
pasa degu gaba.
Buruan bada karga,
mingaiñian traba...
Disimulako al degu
iñundik al bada.

Gor: Txanpaina edan det nik
uraren moduan.
Noizbait ezkondu nintzala
badaukat goguan.
Bi ordu pasa ditut
atean onduan,
puruakin zabaltzen
giltza zalakuan.

Liz: Ola arkitzea ez det
nik lendabiziko.
Bazpare gezurretan
enazu asiko.
Mozkor au ez da izan
andreaan graziko.
Gaur gabean eztet nik
galtzik erantziko.

Lar: Alkarri eman ez gabiltz
emen konfiantzak.
Ainbat trago bazuen
pasa dan arratsak.
Lizaso zar onekin
baditut zalantzak
ganbiatuta ekarri
ote ditun galtzak.

Liz: Disputa zelebrian
zertako itz egin,
ezpaitaukagu orain
ainbeste atsegin...
Andrea, etzaidazu
goizean ots egin.
Mozkorra pasatu arte
bistatik aldegin!

Lar: Guztia kontatuta
eztio inporta.
Gorrotxaren kaso
bearko det konta:
Onek zun umorea,
onek zun erronka.
Dantzako sala zala-ta
ibaian saltoka.

Gor: Estropozua nora
ta balantza ara,
nere melokotoiak
daraman jornada!
Adio, lagun zarrak,
ni banoa ara,
salda puskat artzera
azkar Urbiara.

Lar: Neroni arkitzen naiz
gaur gorputz tentian,
dezente edanda sasoi
sufizientian.
Irurotatik bakarra
sasoi dexentian...
Biak sartu berko ditut
basura-potian.

Gor: Zeiñen gauza gozoa den
matsaren zumua.
Lendik ere artzeko
banuen susmua!
Geiegi edan badet
orain det damua...
Mozkorra pasa arte
esertzera nua.

Liz: Ez al da zelebrea
zure parezera?
Kezka geiago ezpadezu
jun zaitetz etxera
Neu atrebituko naiz
potian sartzera.
Ni baiño errezago
kabituko zera.

Lar: Gaurko naikoa serio
dezu itz egiña,
baiña guztiok degu
gaur karga berdiña.
Parrandan egin degu
ortxe alegiña.
Aitona zarrak dauka
kulparik gutxiña.

Gor: Muestrarako naikoa
omen da botoia.
Ori esan zuenak
badu arrazoa.
Gaua oskarbi eta
alare trumoia.
Luzea izaten da
mozkorran sermoia.

Puntutan

Bat-bateko bertsogintzak berez dituen zailtasun eta korapiloak areagotu egiten dira puntutan. Halare, bertsolariaren egiazko baliabideak, bere bizkortasuna eta zirt-zart! egiteko duen abilezia hortxe nabarmentzen dira, bereziki. Saio horiek egin, gai-emaileak puntua jarrita, banaka, binaka edo hirunaka ere egiten dira. Eta puntua eman ahala, bizkor-bizkor eta hitzetzik hortzera erantzunez egiten den saioak grazia aparta izaten du. Bestalde, puntutik punturako tarte eta denborari asko begiratzen dio bertsozaleak.

Bertsoketa honetan maisu trebea dugu Joxe, egiaz. Puntua jarri ordukoxe, instant batean, agudo erantzun ohi dio puntuari, pentsatzen batere denborarik galdu gabe. Eta, bestalde, bertsolarien artean batek besteari puntuka ari diranean ere ez da ibiliko asma litezkeen punturik zailenak jarri eta bertso-laguna estutzen. Bertsotan bizkor, eroso eta argi egiteko puntu erosoak gustatzen zaizkio, nola beretzat hala berarekin ari den edo direnentzat ere. Bat-bateko saiotan bideak ahal den gehiena erreztuta ere nahiko arazo izaten dela esan ohi du, eta inori ez diola mesederik egiten asma litezkeen punturik zailenak jartzeak. Borroka egin bai, baina ahal denik eta gehien luzituz egin behar dela, bertsolari eta bertsozaleentzat hobe delako.

Azkenik, ondotxo dakit zenbait bertsolarik zirt eta zart! jendaurrean erabili ohi duen bizitasun eta erritmo hori nekez erakus daitekeela paperetan; edota nik nekez asmatuko dudala horretan, behintzat. Halare, bertsolari bakoitza zerbait ezagutzen duena berehalaxe ohartuko da Lizaso eta unean-uneko bere bertso-lagunaren erritmo, abiadura eta abileziaz.

Honatx, bada, gai-emaileak puntua jarri ahala botatako zenbait. Lehenengoak 1963ko ekainaren 22an Azpeitiko Soreasun jasoak dira, Prudentzio Egiguren *Artañolak* puntuak jarrita:

Art: Matsarekin eiten da
ardorik onena.

Liz: Beste zerbait bai al da
egin litekena?
Gaurtik jakin nai nuke
orretxen izena,
orixe baita neri
komeni zaitena.

Art: Bertsolari artean
zer elkartasuna!

Liz: Lasartegatik izan da
gaurko batasuna.
Guk egin nai giñoke
gaur laguntasuna,
osatu al baleike
aren osasuna.

Beste hauek, 1965eko apirilaren 4an, Irunen egingdako saio batetik hartu ditut. Fernando Artola *Bordari* izan zen puntu-jartzaile.

Bor: Pazkua kunplitzeko
badator garaia...

Liz: Nere barrena ezta
atzotik lasaia.
Diabruak arturik
animan usaia,
Jaunarekin egin det
goizeko gosaia.

Bor: Etxean badadukat
bear ainbat leku...

Liz: Gonbite eder ori
onek egin digu.
Bazkaltzeko garaia
etorri baitzaigu,
leku ori nun dagon
jakin bear degu.

1968ko martxoaren 10ean, Eibarko Amaia antzo-
kian, Inozentzio Oleak jarritako puntuak:

Ole: Ara emen Lizaso
mutiko bikaiña...

Liz: Jainkoak bertso-tako
propio egiña.
Eibarren utzi nai det
jendia jakiña
saiatuko gerala
emen alegiña.

Ole: Iñoiz jango zenuen
kiloko txuleta...

Liz: Gaur sartu didazu zuk
ziria galanta!
Etzera arrituko
nik ori esanda.
Oraintxe ordua da,
okela da falta.

1984ko Santa Isabeletan Antton Haranburuk Usurbilen:

Har: Oraindik badira
amaika milagro...

Liz: Antton pronto da emen
gauzak esateko.
Nik ori banekien
gaur baiño lenago.
Ori sinistutzeko
tontorik eztago.

1984ko uztailean, Udako Euskal Unibertsitatea zela-ta, Iruñen jarritako puntuak:

Pun: Berorik ez da falta
aspaldi onetan...

Liz: Eguzkia lanian
ari da benetan.
Bai al dakizu orain nik
zer pentsatzen detan?
Badabilela koipea
emakumietan.

Pun: Buru aundia eta
tripa aundiago...

Liz: Gauza ori banekin
oin baiño lenago.
Ni olaxe bizi naiz
mokadu ta trago.
Nere tripa aundiakin
oso pozik nago.

1985eko maiatzean, Legazpiko Santakutzetan:

Pun: Zenbat kostatu zaizu
tripa aundi ori?

Liz: Oraindikan ez diot
kontatu iñori.
Baldin ematen badizu
ainbeste inbidi,
galdetzea obe dezu
nere andreari.

1984ko urriaren 5ean Oñatin, Nikolas Segurolak:

Nik: Madrilen ta Parisen
danak gure aurka...

Liz: Gorrotoa dutela
ezin leike uka.
Norbaitek asmo oberik
ez baldin badauka,
emen puska bateko
badago burruka.

Elkarri puntuak jarrita

Bertsolariek elkarri puntuka egiten dutena oraindik eta ariketa zailagoa da, seguruenik, nahiz eta zenbait bertsolarik egiten duena ikusita erreza dirudien, askotan. Binaka, hirunaka nahiz launaka egin ohi dute, batek puntua jarri eta besteak erantzun, txandaka. Zortziko haundian ere egin daiteke puntutan, zergatik ez? Alabaina, zortziko txikian kantatzen dute, ia beti. Eta geroz gal-tzenago ari ote den nago puntutan egiteko ohitura hori.

Puntutan egiteko talderik egokiena hirukoa omen dela entzun izan diet bertsolariei. Izan ere, puntua jarri duenak badaki ahapaldia nola amaitu nahi duen. Baina amaierako puntu hori beste bietako batek har-ra diezaioke bidean. Eta orduan izaten dira kontuak eta larriminak.

Puntutan egoki egiten den saioa oso joko polit eta atsegina da, noski. Azpeiti aldeko bertsolariena, edo bizi-bizi puntutan egiteko abilezia duen beste edozeinen puntukako saioak gozamen ederra direla aitortu behar da. Baina, lehen esan bezala, geroz saio gutxiago egiten dala nago, entzuleak eskertzen badu ere.

Puntutan egindako beste saio asko ere banuen eskuartean, baina honatx bakar batzuk, labur beharrez.

1967ko otsailaren 12an, *Bertsolari Eguna* egin zen Urruñan, baina bertsozale gutxi samar bildu zen jaialdira. Pena horrekin kantatu zuten Mikel Arozamena, Lizaso eta Xalbadorrek, bistan danez.

Aro: Alkarrekin asteko
artu da ordena.

Liz: Bete bearra dago
agintzen dutena.

Xal: Eguna antzu dena
emaiten nau pena.

Aro: Ezer ez kantatzia
ote da onena?

Liz: Bigarren txanda ontan
auxe det asera.

Xal: Ezta diferentzirik
batetik bestera.

Aro: Kantatu nai duenak
badauka aukera.

Liz: Aspaldian, Xalbador,
gaiztotzen ai zera.

Xal: Ni gaiztotu banaiz ere
zu etzira ondu.

Aro: Lengo orretan eztezu
askorik lagundu.

Liz: Egin bear deguna:
Xalbador jipondu.

Xal: Xalbador gaur eztaike
zurekin konpondu.

Aro: Aspalditikan dago
gaiztotzen asita.

Liz: Ezagutzeko ein det
oraingo bisita.

Xal: Ez naiz batere ondu
jatea utzita.

Aro: Eztegula onduko
nago ni etsita.

Liz: Zartzera ez al dago
Xalbador penetan?

Xal: Jasan bearra dago
askotxo danetan.

Aro: Beti ezin, ba, egon
ogei bat urtetan.

Liz: Gizon petrala dago
astelen goizetan.

Xal: Oso gaiztoak dira
astelehen goizak.
Aro: Zuk esaten dituzu
orrelako gauzak.
Liz: Gabian emate'izka
gorputzai palizak.
Xal: Eskaria egin baina
ahantzi otoitzak.

Aro: Azariari tira,
zakurra iltzen du.
Liz: Eiztaria koskorrak
ola erratzen du.
Xal: Mattin gezurtu dala,
jaunak, ez atzendu.
Aro: Beranduko okerra
ezin du zuzendu.

Liz: Ori're entzun bear
guztien aurrian.
Xal: Ortarako ez gaude
gaur toki txarrian.
Aro: Etxera eraman du
berak bizkarrian.
Liz: Gosiak ildakua
azari aitzakian.

Xal: Zakurra il dut eta
joan azaria.
Aro: Ordun ikusi dezu
zure komeria!
Liz: Erbi asko iltzeko
au dek eiztaria...
Xal: Andriak emango daut
ai zer bazkaria!!!

1974ko abenduaren 15ean, Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan Gorrotxategi eta Lizasok egindako saioa. Biak ere gizaseme bikainak izaki, “*zein ote zerate tripazaia-go?*” galdetu, eta haiek erantzun:

Liz: Neronek izango det
bultorik aundiña.

Gor: Zer afaldu dezun gaur
nago ni jakiña.

Liz: Onek naikorik jan ez,
zalia da baiña.

Gor: Bi kilo txuleta ta
zun ase eziña.

Gor: Joxe, gu ez gerade
moda berrikuak.

Liz: Broman pasa ditzagun
gaur esandakuak.

Gor: Bi metro luze dira
gure gerrikuak.

Liz: Lerden kontserbatu nai
gaur señorituak.

Liz: Au're aspaldi ontan
da rejimenian,

Gor: baiña nik platerara
zuzen-zuzenian.

Liz: Gizenduko ote dan
beldurrez airian.

Gor: Rejimena ein bear
ez dagoenian.

Gor: Porrua ta aza asko
txuletaren partez.

Liz: Txanda iritsiko da,
lasai egon zaitetz.

Gor: Beldurrez jarria naiz
neretzako kaltez.

Liz: Andriak agintzen du
gizonaren partez.

Liz: Onek egin bear du
aren agindua,
Gor: gero izan eztedin
ordu berandua.
Liz: Nik ondo ezautzen det
onen medikua.
Gor: Berak agintzen dulako
tripa aundikua.

Gor: Montekristoarekin
goizean goizetik.
Liz: Orrek auzotarako
eztio inportik.
Gor: Gure Lizaso ezta
apartatzen ortik.
Liz: Nori inporta zaio
nere tripagatik?

Liz: Nola konta litezke
orrelako saltsak?
Gor: Joxe, biok dauzkagu
guk elkarren antzak...
Liz: Aren mende baago
al dekana ein zak.
Gor: Norberantzat aragia,
neretzako azak.

1977ko San Fermin bezperan, Soralueko San Andres auzoan hiru azpeitiarrei gai hauxe eman nien: *Gaur bijilatzaile asko dago hemen, eta ezingo da; baina bakar samarrik bazeundete, zer plan egingo zenukete gaur arratserako?*

Liz: Urrutian bageunde
gu erdi gorderik,

Agi: ez genduke izango
oraingo beldurrik.

Laz: Festarako eztegu
gaba baiño oberik.

Liz: Ez genduke egingo
milagro aundirik.

Agi: Aurkituko bagiña
auzo-erri baten...

Laz: Kanpuan santurikan
iñor ez da izaten.

Liz: Zertan jardun kotxinai
musuak ematen?

Agi: Lizasok ez du ordun
ezetzik esaten.

Laz: Beraz dibertitzeko
prestu aiz, Lizaso?

Liz: Fama ederra orain'e
bearko det jaso.

Agi: Zartzen ari da baiña
zalea da oso.

Laz: Len ere ibillia da
amaika aldiz gozo.

Liz: Berriz ere nai luke
orrek aitatzia.
Agi: Errezena: mingaiña
sarri astintzia.
Laz: Irurok'e berdiña
degu iritzia.
Liz: Atzo're kosta zitzaidan
pinturak kentzia.

Agi: Au dek agure zarran
formalidadia!
Laz: Auek zarrago eta
narrasten ai dia.
Liz: Edozertako dago
nere edadia.
Agi: Zuek erronka ta nik
abilidadia.

Laz: Lizaso ere eztago
oraindik galdua.
Liz: Alperrikan eztaukat
iñor bidaldia.
Agi: Deskuidatutzen danak
ai zer zapaldia!
Laz: Bietatik batek an
irten ber galdua.

Liz: Gazteak gogor samar
ai dira berriketan.
Agi: Zeuk ere faillo gutxi
daukazu orretan.
Laz: Alkarri adar jotzen
orlako arretan.
Liz: Gizon arroa nago
oaindik illunpetan.

Agi: Lizaso au erronkan
asi zaigu beingo,
Laz: baiña milagro aundirik
ez luke egingo.
Liz: Isillik egon banitz
etzendun jakingo.
Agi: Aspertuta ez al dizu
iñork aldegingo?

Laz: Jolasa egiten du
al duen maizena.
Liz: Argatik arrotu da
Lizason izena.
Agi: Garai baten etziñan
alaje zuzena.
Laz: Ia irurogei urte
ta au dek zezena!

Liz: Ni nolaz naizen neurez
olako klasia,
Agi: naiz egon modatikan
piska bat pasia.
Laz: Zabaltzia ona da
olako razia.
Liz: Batzuk estimatze'ute
funtzio luzia.

1978ko otsailean, Zestoako Elizondo antzokian Liza-
so, Agirre eta Mattinek egin zuten saioa. Gaia: *Zein ote
da zuek hirurotan neskazaleena?*

Agi: Geuk erabaki bear
iruron auzia.
Liz: Neri gustatutzen zait
bistan dan guzia.
Mat: Neskatzek maite dute
mutiko txikia.
Agi: Bizkorra ziñan baiña
makaltzen asia.

Liz: Mattinek ere badu
amaika komeri,
Mat: baina inbidia asko
bi auexek neri.
Agi: Burua zuritu ta
gezurra dirudi.
Liz: Edozeiñek uzten dio
oillar txikiari.

Mat: Nitaz gustatzen ziran
leno neska danak,
Agi: baiña eztezu egin
zuk askoren lanak.
Liz: Mantsotzen ari gera
zaliak giñanak.
Mat: Esate'ute oilar txikiak
dirala onenak.

Agi: Mattin gauza ortatik
daukagu ase.
Liz: Sasoirikan onena
aspaldi pasea.
Mat: Oraindik'e sartzen naiz
nesken biotzea.
Agi: *Joxetxo* txikia ta
mingaiña luzea.

Liz: Mattin, ez gaizki artu
gure esanikan.
Mat: Geiago esanta ere
etzait inportikan.
Agi: Geuk'e ez deu esango
santu geranikan.
Liz: Zure txituak ez dute
gandor aundirikan.

Mat: Gizon txikia gustatzen
neska gaztiari.
Agi: Ala komeni zaionak
esaten du ori.
Liz: Gonan azpitik ere
ezin da agiri.
Mat: Neskeri etzaio gustatzen
tripa aundi ori.

Agi: Beraz, tripa ez dala
mesede usteko.
Liz: Alare eztut bildurrik
lanian asteko.
Mat: Ori kendu biarko
zerbait ikusteko.
Agi: Lizasok laguna bear
zapatak jazteko.

Liz: Au ere entzun bear
emen arpegira.
Mat: Asko egoten dira
berari begira.
Agi: Oraindik emango'io
lanari segida.
Liz: Gauzak beti itzalian
kontserbatzen dira.

Mat: Neskak txikiarekin
poz geio artzen du.
Agi: Bai begien bistatik
aldeingo bazendu.
Liz: Biziosorik iñoiz
ezin da gizendu.
Mat: Nai dunian jarri ta
nai eztunian kendu.

1978ko abenduaren 16an, Lizaso, Agirre eta Lazkanok Azpeitian:

- Liz: Nai dana botatzeko
jarri dik esangai.
- Agi: Nik ere ori pozik
aditu diat, bai.
- Laz: Orain iñola al bada
emen luzitu nai.
- Liz: Lazkano pardel onekin
kontuz ibilli ai.
- Agi: Nik ez nekin Lazkano
zer bitxo genduan.
- Laz: Uste ez dana gertatu
izan dek munduan.
- Liz: Gaua pasatu nuen
ezin konponduan.
- Agi: Galtzik ezin erantzi
Lazkanon onduan.
-
- Laz: Lizasok fama txarra
neri zabaldua.
- Liz: Ire eguzkia duk
bapo itzaldua.
- Agi: Itxura danez gaizki
dezu zapaldua.
- Laz: Zalia naiz baiña ez
ain gusto galdua.
-
- Liz: Zirrika saietsean
eta sabelian.
- Agi: Lazkano or konforme
zure epelian.
- Laz: Biok juañ gñaden
galga igualian.
- Liz: Bitxo ederra zaude
santu papelian.

Agi: Zurrutak ekartzen du
amaika olako.

Laz: Okelatikan mardul,
indarretik flako.

Liz: Edozein terrenotan
pronto lanerako.

Agi: Lazkanok arrari kolpe
emea zalako.

Laz: Onek galdu bear dit
nere umoria.

Liz: Orain esango dizut
kontu dotoria.

Agi: Etzaizue mudatzen
bioi koloria.

Laz: Gaba pasatutzeko
au dek, au loria!

Liz: Etzaitezela egon
beldurrez airian.

Agi: Bakit zurrut ondoko
gauzak nola dian.

Laz: Naiago nuen galdu
izan banu bidian.

Liz: Badakit zure lagunak
nun ibiltzen dian.

Agi: Lizasok goguan du
barteko akordua.

Laz: Gezurretan ari dek
aittona lerdua.

Liz: Ik'e akordatzeko
bauen ordua.

Agi: Lazkano baiño obe uen
zaragi ardua.

Laz: Al bada ez det onduan
nai ola lagunik.

Liz: Irekin eleikek pasa
gau eta egunik.

Agi: Biak ezin kunplitu
desio zutenik.

Laz: Lore politaguak
maitatzen ditut nik.

Liz: Gabaz arrua baiña
egunez da triste.

Agi: Nik eztet ezer jakin nai,
or konpon zaitetze.

Laz: Gezurrezkoak dira
onen ainbat txiste.

Liz: Lazkanorekin kontuz
ibilli zaitetze.

Agi: Elkarri ari dira
aundiak esaten.

Laz: Lagunak ez al dira
olaxe izaten?

Liz: Ik ezagutuko dek
alakoren baten.

Agi: Biak sartu litezke
zerritegi baten.

Laz: Azkenik fama txarra
jarri didak neri.

Liz: Gustatzen zaionantzat
goxua dek ori.

Agi: Cadiz inguru artan
omen dek ugari.

Laz: Ni eme zalia naiz,
enaiz atzelari.

Liz: Ez ditzagun gaur utzi
danak nazkatuta.

Agi: Bart bero ziñatenak
orain freskatuta.

Laz: Aitona zar onekin
ez leike disfruta.

Liz: Badezpada're ibilli
ondo tapatuta.

Omenaldiak

Bertsolariaren bizimodua gogorra dela esan digu Joxek. Gogorra da, bai. Baina eskerrak ematen ere badaki sufriarazten dion herri horrek, garaia etortzen denean. Joxe Lizasori esker oneko omenaldi asko egin zaio han-horhemen, merezi zuen-eta. Baina omenaldiak egin, bertso-tatik erretiratzeko garaia etorri baino lehen egin zaizkio. Eta horrek balio berezia du, inolako zalantzarik gabe.

Omenaldi horietan nik ezagutu nuen lehena, 1974ko martxoaren 10ean Azpeitian egin zitzaion. Joxe Lizaso, Joxe Agirre eta Imanol Lazkano omendu zituen Karmelo Etxegarai ikastolak. Helburu bikoitza izan zuen jaialdiak: lehena, herriko bertsolariak omentzea zen; eta bigarrena, beharrean zegoen ikastolarentzat txanpon batzuk biltzea.

Ikusgarrizko jendetza bildu zen Izarraitz pilotalekuan; eta jaialdiaren hasieran bertsolari askok kantatu zuten, horrelakoetan ohi zenez. Haietako bat edo beste aipatzekotan, bi urte inguru isilik zeramatzan Uztapide aipatu behar dut. Inork gutxi uste genuela, mikrofonora inguratu zen egun hartan, eta sekulako txalozaparrada eskaini zion han bildu zan jendeak. Gero isil-isilik mutu gelditu zen, Manuel Uztapidek esango zuena arretaz entzuteko.

Azpeitiko iru bertsolariak
ez dauzkagu apartian,
eta gu ere pozak zorutzen
auetxekin elkartian.
Oraintxe dala momentu batzuk
pentsatzen nere artian:
beste olako iru errege
nun daude erri batian?

Antonio Mari Eizmendi *Loidisaletxeren* bertsoa:

Joxe Agirre eta Imanol,
irugarrena Lizaso;
bere denboran bertso lanian
egin dute kurioso.
Omenaldi au bere erriak
eskeintzen diete gozo.
Len irabazita zeukatena
gaurko egunian jaso.



Joxe Lizaso eta Juli Azpeitiko omenaldian. 1992.05.29

(Arg. Pepe Gil - Sendoa)

Eta honako bi bertso hauek kantatu zituen Joxek jaialdiaren azkenean, eskerrak emanez:

Pozaren pozez, anai-arrebak,
nago ia erorian.
Bat gaizki dago biotzak gainez
egiten dion garaian.
Okerrak ere egoten dira
gizonaren iritzian.
Enuen uste orren maitiak
enuen uste orren maitiak
giñadenikan errian.

Eskerrikasko, anai-arrebak,
biotza bete-betian.
Aurrera ere segi bearko
zor au ordaindu artian.
Lenago ere erriagatik
saiatu gera lanian.
Bildurrik gabe deitu berriro
bildurrik gabe deitu berriro
beartzen zeratenian.

1977an, omenaldi eta aipamen asko egin zioten Joxeri bertsozaleek. Zestoan, Oñatin, Zizurkilen eta abar omendu zuten. Halare, Euskal Herri osoaren izenean urtero egin ohi zen bertso-festa haundia, urtarrilaren 16an egin zen, Donostian. Antolaketa-lana egin, merezi hainbat inoiz eskertuko ez dugun Joxe Salaberria zenak egin zuen, urtero bezala, Donostiako Turismo eta Kultura Ekintzetxearen agindu eta babespean. Eta eguneko bertso-saioa egin zuten zortzirez gainera beste hogei-ta hamabost bertsozaleek kantatu zuten, gutxienez.

Bere omenez kantatu zituzten bertso denak gogoratzeari luze samarra izan daitekeela pentsatuta, bakar batzuk jasoko ditugu hemen:

Egileor: Zorionikan anaikorrena,
Lizaso, iri lelengo,
au omentzera etorri zeran
anai-arrebei urrengo.
Gaur bezelako egunak gutzat
asko ez dira izango.
Zeruan bertan ez gaudenikan
ere ez nuke esango.

Larrañaga: Lagundutzeko premirik bazan
an zan Lizason biotza,
eta erriai etzaio aztu
igaro duen morrontza.
Gizonez eta bertsolaiz aundi,
bizkorra eta zorrotza.
Maitale asko dadukazula
gaur egin zaizu aitortza.

Etxeberria: Len eman giñon sententzi
eta ordua iritsi.
Len eman giñon sententzi
eta ordua iritsi.
Omenaldi bat agindu giñon,
bete gabe ezin utzi...
Zu omentzera etorri gera
euskotar zazpi probintzi,
euskotar zazpi probintzi.

Xanpun: Emen daukagun anaitasun au,
bai, pozgarria da oso.
Erriak nairik bere ume bat
zor zaion mailarat jaso.
Emen gera gaur, denak bai zure
haurride eta guraso...
Agur bero bat deneri eta
gora zu, Joxe Lizaso.

Mugarategi: Lizaso, zure omenaldira
pozez gaude etorriak.
Gizon aundi bat omentzen dela
ondo pentsatzen jarriak.
Zure izkuntzak indartu ditu
euskaldunen jatorriak.
Orregatikan gaur ezagun da
maite zaitula erriak.

Narbaiza: Aizu, Lizaso, gaurko eguna
iritsia zaizu garaiz.
Zure bertsoak entzunda sarri
egon naiz umore alaiz.
Inguru dena betia dezu
emen arreba ta anaiz.
Eibarren partez gaur zorionak
ematera etorri naiz.

Arregi: Lasaitu zazu, Joxe laguna,
pixka bat zeure gorputza,
estu ibiltzen dalako sarri
gizon pin eta on utsa.
Zuk amaikari egin diozu
gure Euskadin laguntza.
Orregatikan azaldu zaizu
ainbeste anai onuntza.

K. Lizaso: Maitasunaren indarrak gaitu
onuntza bilduarazi.
Lengo urtean zuek Lizaso
zenduten gaurko berezi.
Ta gizon onek gutxiagorik
etzuan ezer merezi,
Izarraizpeko irakasle au
txaloak joaz goretsi.

Zeberio: Joxe, zenbat arreba
eta zenbat anai
aurrean daduzkazun
zu eskertzeko zai.
Erria maite dezu,
erriak zu're bai...
Guk zorrak ordaintzea
besteik ez degu nai.
Joxe, egun aundi au
pasa zazu alai.

Aittola: Jakiñikan erria
serbitu dezula,
sinistu au guztia
merezi zendula.
Ikusten da erriak
maitatzen zaitula,
ta egun au etzaizu
aztuko sekula.
Urte askoan Jaunak
lagundu deizula.

Lexo: Gizon jator bat omentzen dugu,
gainera bertsolaria,
betidanikan izandu dena
eusko-borrokalaria.
Beraz gaur zure goratarrea
ez da bate miraria.
erri-langile zeran ezkerro
jaso ezazu saria.

B. Enbeita: Urterik urte Euskadin zear
emona ainbeste pauso,
abestuagaz bertso biribil,
sakon, alai eta gozo.
Aratu dozuz lur maite ontan
uri, baserri ta baso,
garaituagaz eragozpenak
eta etsaien eraso...
Itzartu dozuz euskal baratzen
euskal sendi ta guraso,
bertsotan beti ganoso,
naiz serio ta txistoso.
Zuk erein dozun azi ederra
Euskadik egin dau jaso
eta sinistu Euskalerrriak
maite zaitula, Lizaso.

Basarri: Izarraizpeak emanak ditu
makiñatxo bat landare.
Mardultxoena, Joxe, zu zera,
dudik ez dago batere.
Ainbat urtean erririk erri
beti kantatuaz trebe...
Bertsolaritzan printzipe zera,
gizatasunez errege.

Pujana: Maitasunean gaurko mundua
benetan daukagu gaixo,
baiña bat bada maitasun ortan
biurtzen dana itsaso.
Beartsuentzat esku zabal ta
jausita dagona jaso,
negarrez dana alaitu eta
saminduarentzat gozo...
Gure artean dogu gizon au,
au dogu Joxe Lizaso.

- S. Lizaso: Pozaren pozez zer esan ere
 asmatu eziñik nago.
 Zu omentzeko Euskalerria
 zure aurrean or dago.
 Abertzaletasunak bultzata
 jardun bazera lenago,
 erria serbitzeko badezu
 orain motibo geiago.
- Lazkaotx: Kantari ezin naiz ase
 ta esan bear zeoze,
 kantari ezin naiz ase
 ta esan bear zeoze.
 Mila zorion biotz-biotzez
 nik ematen diat, Joxe.
 Aurrera ere jarrai zak orrela
 orain arte bezelaxe,
 orain arte bezelaxe.
- Mattin: Lapurdi eta Gipuzko biak
 gerade elkarren auzo,
 eta erri untara jitia
 nik arrapatzen dut gozo.
 Ai, Gipuzkoa maitagarria,
 zu ederra zera oso!
 Au da paraje zoragarria
 dana mendi ta itsaso.
 Eta or dagon lore danetan
 ederrena zu, Lizaso.
- Gorrotxat: Lagun Joxe, zuk bein lur onean
 erein zenuen azia.
 Bi landareko famili ederra
 orain daukazu azia.
 Bi oietatik bat plazaz plaza
 bertso kantatzen asia...
 Zure bidetik jokatzen badu
 gainontzarako guzia,
 gure lur onek badu oraindik
 pixka bateko bizia.

Agirre: Agurtutzen aut nik ere, Joxe
lagun zar aspaldikua.
Maiteak asko dizkiat baiña
biotzaren erdikua.
Erririk erri ibillitzeko
beti izan aut gogokua...
I bertsolari bezela ere
aiz ain goiko puntakua...
Eta biotzez esan liteke
berdiñikan gabekua.

Lazkano: Gaur Lizasoren omenaldia
benetan egun aparta.
Jendeak txalo jo gaberikan
berari ezin aguanta.
Era ortako gizona izanik
erriak nola ez maita?
Neroni ere arrotzen naiz gaur
aitaren eguna da-ta.

Azpillaga: Gizon ospetsuren bat omentzen
emen dago ezaguna.
Denen maitea izango dala
gaur besarkatzen deguna.
Alako baten Lizaso bazan
zu agurtzeko eguna...
Zu bezelaxe agurtutzen det
zure emazte kutuna,
bertsolarien amaordeko ta
euskotar danen laguna.

1977an Donostian egindako omenaldi hura zela-ta, bertso-sorta hauxe bidali zidan egun batzuk lehenago Inozentzio Olea bertso-jartzaile finak, Legazpitik. Eta egile berari kantarazi nizkion, Loiolako Herri Irratiz emateko:

Joxe Lizaso, zugana nator
Legazpitik Azpeitira,
maitasunaren egotan ortik
joateko Donostira,
gure biotzak zure oiñetan
jarriko diran tokira
jatortasuna omenduko dan
orduak eldu baitira.

Denbora joan egiten dala
auxe da gauza jakiña,
eta egintzak emen gelditu
beste egi bat berdiña.
Euskalerrriak orra azaldu
garbi bere maite-miña,
aitortu eta eskertuaz zuk
Erriagatik egiña.

Joxe maitea, jator izanak
egin zaitu zu ain aundi,
euskal arrazak dituan zenbait
birtute onen irudi.
Zu ikustean mikrofono bat
aurrean dezula geldi,
gizatasuna berbera antxe
dagola zutik dirudi.

Zuk inguruan zabaltzen dezu
girorikan epelena.
Lagun gozoa zera benetan
ta gizonik zabalena.
Sendotasunez ornitua ta
zeu danetan apalena,
Izarraitz-magal ortan sortu dan
lorerikan mardulena.

Euskalerrria zeïnek maite du
zuk maite dezun ainbeste?
Zure tristurak gure biotza
laster jartzen dute triste.
Omenaldi bat eskeiñi arren
zaitugulako ain maite,
batere zorrik ez diguzu ta,
Joxe, lasai egon zaite.

Nik beintzat gizon zuzentzat zauzkat
maite bai dezu egia.
Gezurra zorrotz salatzen dezu,
ortan badezu begia.
Sentimentuak azaltzen ere
etzera oso nagia.
Kopeta illun samarra dezu
baiña bai biotz argia.

Azpeitik seme jator bat badu
berari dagokionez,
eta gaiñera estimatua
jende guztiak dionez.
Ez naiz arritzen zure erriak
ikustea begi onez,
lenaz gaiñera zu jaiotzean
osatu baitzan gizona.

Bertsolari ta gizon bezela
dezu doai bat aparta:
agintarien aurrean ere
egi esale ausarta.
Gertu askotik ikusia naiz
zure bertso zirta-zarta,
egi mardulei bulartsu asko
ateraziaz txinparta.

Nik ondo dakit zure biotza
liperzalea ez dala,
zure iñori poz eman naia
iñoiz ez dala makala.
Eta sinistu nik beste baten
aotik entzun nuala:
eskubiz eman oi dezula zuk
ezkerrak ez dakiala.

Zure etxean izana naiz ni
bear nun bezin sarririk,
an sartzen danak ez du nabaitzen
sekula plaki larririk.
Zure emazte Juli ta biok,
bera serbitzen jarririk,
ateratzean ez du izango
gose eta egarririk.

Nere omena ere ar zazu,
Joxe Lizaso laztana.
Ez det ukatzen orrenbeste zor
badedala nik zugana,
nola zeran zu neri amaika
mesede merke emana.
Arro-puntu bat daukat nerekin,
zure laguna izana.

Bertso batzuek eman dizkitzut
nola edo alakoak.
Jakiña zegon zenbat zezaken
egin ni bezelakoak.
Artu itzatzu nola dituzun
biotzez egindakoak...
Agur, Joxe, ta urte askoan
gorde zaitzala Jainkoak.

Eta 1977ko urtarrilaren 16ko jaialdi bikain haren
amaieran, bihotza leher eginda, honako bertso hauexek
kantatu zituen Joxek, denei eskerrak emanaz:

Lendabiziko nere burua
nai nuke zerbait aztertu:
nik erria zer egin ote det
gozatu edo aspertu?
Baiña alare poz bat dadukat,
enazutela baztertu.
Oraindik ere gizon nintzake
oraindik ere gizon nintzake
baneki nola eskertu!

Beñere baiño kezka geiago
gaur darabilzkit burutan,
nola arraio ibilli nauten
erri guztiaren autan.
Alegin danak ein badittut'e
ibilli naizen lekutan
jakingo nuke meritu auek
jakingo nuke meritu auek
noiz irabazi ditutan.

Egun au nola eskeiñitzen zun
gaur Euskalerra osuak,
lagun geiago ere banitun
onuntza etortzekuak.
Asko oraindik giltzapian ta
asko erbesterratuak...
Neri ez baiña aiegatikan
neri ez baiña aiegatikan
jo itzazute txaluak.

Anai-arrebak, olako egunak
osasungarri ezta.
Bizia ai naiz alperrik galtzen
amari ainbat kostia.
Biotza daukat taupa ta taupa,
au da komeri tristia!
Badazpadare obeko degu
badazpadare obeko degu
agur egin ta uzta.

Zestoako bertsozaleek ere omendu zuten urte har-
tan, otsailaren 5ean. Gai-jartzearen ohorea neri egoki-
tu zitzaidan, Donostian bezelaxe. Lourdes Unanue he-
rritarrek egindako kuadro eder bat eman zioten
saioaren azkenean. Eta honela eskertu zuen bi bertso-
tan:

Anai-arrebak, ementxe nago
ori ezin sinetsian.
Ameska ere ote nabillen
nago nere iritzian.
Danok dakite: emendik urbil
sortu nintzan Azpeitian,
baiña geiago maite nautela
aita sortu zan errian.

Oraindik ere zutikan dago
Ipintzatarren arbola.
Zuei eskerrak eskeiñi gabe
ezin aldegin iñola.
Aitortzen det nik zuen aurrean
pozak zoratzen nagola...
Jakin zazute bizirik dala
Lizasotarren odola.

Ez ditugu denak aipatuko, baina beste omenaldi as-
ko ere egin zaio Joxeri: 1987ko maiatzean Oñatin, adi-
bidez. Izan ere, urte batzuk lehenago han bertan kan-
tatu zuen bertso batean zioenez, gustora joaten zen
bertsozale txantxikuarren artera.

Eguna pasatzen det
munduai begira,
galdeturik: neretzat
lagunak nun dira?
Arraiak putzura ta
auntzak mendira...
Orrelaxe etortzen
naiz ni Oñatira.

1990ean Lasturren omendu zuten. Eta urte hartako otsailaren 23an Azpeitian ere bai. Herriko bertsolari guztiak omendu nahi izan zituen Azpeitiko Udalak. Eta euskal makila eder bana eman zien denei, azkenean. Joxek, berea hartu zuenean, honela kantatu zuen *makila gora* altxatuz:

Eskerrik asko udal-gizonai
merezi duten moduan.
Etxera joanda an utziko det
ate ondoko kakuan.
Baiña badakit leno bildurrez
ni zergatikan nenguan:
dakidalako zer dadukaten
dakidalako zer dadukaten
berandu juandakuan.

1992ko maiatzaren 29an, berriro omendu zuten Landetako polikiroldegian. Saio hartako lehen agurra, Agirre, Murua eta Sebastian Lizasok honela egin zuten, Laxaro Azkunek aurkeztuta:

Agirre: Ainbat urte bertsotan
pasa dituzuna,
nork eztu ezagutzen
zure oiartzuna?
Badakigu erria
serbitu dezuna,
ta erriak azaldu du
bere maitasuna...
Orregatik izan da
olako erantzuna.

Murua: Urduri asko eman nion nik
bertso-lanari asera.
Gogoratzen det Lizaso zarrak
atzaparra bizkarrera
ta esan zidan: ez apuratu,
gazte, jarraitu aurrera...
Orrexegatik zu neretzako
aita on bat geio zera.

Sebastian: Gabon, entzule, zerbait badaukat
kezka edo eta lotsa.
Aitortu bear: gaurko arrats au
neretzat ez da mingotza.
Ala ta guztiz etxeoari
egin beariko aitortza,
naiz ta puska bat estutuko dan
naiz ta puska bat estutuko dan
ruso zarraren biotza.

Halako gorespenak entzuten isilik egon ezinez, ese-
rita zegoen tokitik jeiki eta bertso hauxe kantatu zuen
Joxek:

Lagun zar auek egin dittuzte
sekulako irrintziak.
Bagenekien ortarakoxe
nola zeuden etorriak.
Lizaso nolako semea izan dan
ondo daki Azpeitiak...
Eztaukazute zer sinisturik
esan dittuzten guztiak.

Ondorengo bertso hauek ere jaialdi hartakoak dira, noski. Joxe jubilatutako berria zen, eta *“orain zertan entretenitu ditekeen edo”* esanez bertsoak kantatzeko eskatu zion Agirrerri gai-jartzaileak.



Joxe, denbora pasa litekeek
 makiñatxo bat moduta.
 Ez daukak zertan ibillirikan
 bizimoduz aspertuta.
 Oñatz aldera pasiatzera
 kezka denak baztartuta,
 bilobatxoak eskutik eta
 bastoi aundi bat artuta.

Serbizioa nun egin leiken
gizonak mundu onetan
asmatutzea zail izaten dek
beti edo geienetan.
Ire andrea ere aspaldi ontan
nekauta zegok benetan.
Ari ere pixkat lagundu'io
bere etxeko lanetan.

Nere ustetan kontseju txarrak
gaur ez aut utzi emanik.
Eztiat uste denborarekin
prolemarik daukakanik.
Esandako oitan billatze ezpadek
euretzako naiko lanik,
gure etxean sasiak mozten
lana emango diat nik.

Sebastianen txanda etorri, eta *“bai al daukak aitari
esateko ezer?”* galdetu zion Laxarok.

Neretzat ere berezia da
omenaldiko eguna,
ta, ai, baneki nola osatu
nere bertsozko jarduna.
Iñor badago ni nago emen
omenduakin zorduna,
nola lotura irukoitza dan
elkarganatzan gaituna:
bera dut aita, bera dut maisu,
bera dut nere laguna,
bera dut nere laguna.

Kezka guztiak zeuretzat gorde
ta bertsolari alai.
Maitale eta maitea izan nai,
ori zendun zure naia.
Lortu dezula entzulegoan
erantzuna da epaia...
Naiz ta malkoak berez oi duten
samintasunan usaia,
pozaren pozez begiak busti,
aita, bazendun garaia,
aita, bazendun garaia.

Esker onezko omenaldiak
eztu egiten gaitzikan.
Zor dizuguna eman dizugu,
eztegu beste gauzikan.
Bertsolaritzan zeure leku bat
badaukazu oraindikan,
eta zugandik eztet entzun nai
erretiroko itzikan,
zure ordezko ezpaigerade,
jarraitzaileak baizikan,
jarraitzaileak baizikan.

Hurrengo txandan, Joxe beregana hurbildu zen gai-
jartzailea, eta galdetu: *Zer erabaki dezu, Joxe: bertsotan
segi ala erretiratu?*

Jakin nai dezu lanean segi
edo betiko artu jai...
Galdera orren erabakia
eztet emango nolanai.
Lagun batzuek deitu ezker
errez esaten diet "bai".
Oraindik ere etxe-zokoan
gordeta eztet egon nai.

Kolkua dantzan jarri didate,
Laxaro, zure esanak.
Disimuluan esan nai zuan:
Joxe, eman dituk onenak!
Alaxen ere ezterizkiot
aspertu'ittudanik danak.
Oraindik ere badauzkat batzuk
estimatutzen nautenak.

Nere ustetan ibilli arren
umil ta gizalegian,
estorbu egiten ote nabil ni
nere lagunen tartian?
Odrietxeberri³ kaskaillu orrek
sartzen ezpanau lurpian,
gerra pixka bat emango diet
beste iru-lau urtian.



Joxe Lizaso. 1992ko maiatzaren 29ko omenaldia, Azpeitian
(Arg. Pepe Gil)

³ Azpeitiko zulozilea

Uztapide eta Lizasoren artean halakoxe kimika eder bat zegoen beti, harreman jator eta gozoa. Ez dago batek nahiz besteak han-hemen kantatu edo idatzi dituenak irakurri besterik. Manuel idolo hutsa izan da Joxerentzat, bai. Eta Lizaso bera ere erruz maite zuen Endoia-koak. Begira bestela, 1976ko negu-atarian argitara eman zuen bere *Sasoia joanda gero* (Auspoa sail nagusia) liburuan emandako hamar bertsoetan nola zioen:

Joxe Lizasorentzat
baditut bertsuak,
esplikatu nai ditut
beraren kasuak.
Beti artu izan nau
zabalik besuak,
gizon gutxi dirade
olako gozuak...
Aren egintzak ditut
goguan jasuak.

Gizon onikan iñor
badago munduan
bertsolari artian
ori bat genduan.
Amaika egun pasa
det bere onduan,
orrek kontrariua
eztakit nun duan;
ni bizi naiz berakin
ezin atzenduan.

Nunai entzungo dezu
Lizasoren sona,
ni sarri nago beintzat
aditzen egona.
Daukana emateko
borondate ona,
izketan izaten dan
kristaurik gozona;
nun billatuko dezu
olako gizona?

Ezagutzen ditugu
alkarren abotsak,
ateratzen giñuzen
sekulako otsak;
batak besteai bota
puntara zorrotzak...
Iñon etzuen txarrik
Lizason biotzak,
ni berriz ere Joxe
ikusteko pozak.

Berriz juntatzen giñan
goiz edo berandu,
festak zirala edo
batenbat ezkondu.
Aruntz joateko zertan
pentsatzen egondu?
Ez genduen beñere
okerrik izandu,
nola ez Joxerekin
itxuran konpondu.

Azpeiti ta Zestua
bi erriak auzo,
gaztetatikan lagun
egin giñan, oso;
alkarrekin emanak
makiña bat pauso,
iñor ez oinperatu,
al dezuna jaso...
Olakoxe gizona
zera zu, Lizaso.

Joxe Azpeitian da
jaio ta azia,
ortxe artu zenduen
Jaunaren grazia.
Ez dezu kosta gabe
eraman bizia,
gaztetan egun latzak
zera ikusia...
Orain bizi izaten
zerbait ikasia.

Gaztetan probatua
ziñaden morrontza,
ikusiko ziñuzen
beroa ta otza.
Orain nunaitik dator
eskutara sosa;
berak ematen baitu
bizitzeko poza.
Zeure familiakin
urte askoz goza.

Familia azi ta
nolatan ez poztu?
Len txarrak pasatako
urte aiek aztu.
Orain ez aiz bizitzen
zenbait bezin estu,
sagardotegietan
trago batzuk ustuu...
Itxuran bizi beintzat
naiz ez aberastu.

Batek menderatzian
bizitzako baza,
orduan lasaitzen da
gizonan arnasa.
Bitarte ortan ez da
izaten jolasa;
orain kezkarik gabe
biziko aiz lasa.
Nere partetik, Joxe,
urte onak pasa.

Joxe Lizasoren omenaldien bilduma hontan beste bertso asko ere sar nezakeen, noski. Oso erraza zen hori. Baina atala amaitzeko, Txomin Garmendiak egin eta eskeini dion sorta hauxe eskertu eta eman nahi nizuke, bere maitasun eta mirespenaren lekuko ederra da-eta:

Azpeiti aldetik etortzen ziran
Lizasoren oiartzunak.
Nik baiño leno aren bertsoak
beste batzuek entzunak.
Egun batean ezagutzeko
izan nitun poztasunak,
eta geroztik lagundu digu
pakea ta osasunak.


Lizartzan Luistar festa bat zan ta
aruntz joan giñan bi anai,
bertsolariak bazirala ta
aieri entzuteko zai.
Txapel zarra ta Lizaso ziran
kantatu zutenak alai;
gozatu nintzan, bertso batzuek
gogoan artu ere bai.

Gazteak giñan ta itz egiten
gu ez giñan ausarditu,
baiña arien argazki ura
neri betiko gelditu.
Andikan urte batzuetara
famili gisa aurkitu...
Jaunari eskerrak, bertsolaritzak
gauza ederrak baditu.

Matxinbentako deia jaso nun,
Lizaso nula laguna;
bildurri samar esan bearke
baiña pozik nintzan juna.
Irugarren Ordenako festa,
frantziskotarren eguna;
antxe izan nun Lizasorekin
lendabiziko jarduna.

Berrogei urtetik gora dira
geroztik joan diranak,
alkar maiteak izan gera ta
ondo ibilli geranak.
Txukun egiten saiatzen gera
egin bearreko lanak;
guk izan degun suertea're
ez dute izandu danak.

Adizak, Joxe, ik ondo dakik
zartuta aurkitzen gerala,
ta ondo dakik gazte bizkorak
asko ugaldurirala.
Baiña oraindik moldatzen gaituk
alkarrekin nola-ala...
Urte askotan jarraitutzea
Jaungoikoak nai dezala.



Lizaso eta Garmendia. Añotan 2001

(Arg. Joxe M. Iriondo)

Zenbait goralmen

Garai bateko bertsoaren azkenak kolpe eder bat behar izaten omen zuen. Eta Joxe Lizasoren aldi bateko kronika eta bilduma ondo errematatzeko, gure artetik joan ziren bertsolari batzuk gogora ekarriz berak idatzitako hauexek eman nahi dizkizut, irakurle. Neurri eta doinu ezberdinetan kantatu zizkidan, laster ohar-tuko zeranez. Honatx, bada, azkenengo sorta, gaurkoz:

Saiburu

Gogoratzen naiz Saiburu zarra
nik nun ezagutu nuan:
Konstituzio plazan, Donostin,
San Tomas bigarreguan.
An jardun nintzan erdi bildurrez
aiton aundian onduan...
Gizon ona zan, eta bizi zan
oso sinismen senduan...
Iru biderrez aitaren egin
bertsotan asterakuan,
iru biderrez aitaren egin
bertsotan asterakuan.

Iturzaeta

Beste aiton bat, Iturzaeta,
bizi zan gure auzuan.
Izen aundian jarriko nuke
bertsolarien graduan.
Berak askotxo maite ninduan,
neuk ere maitatzen nuan...
Gizon bat etzan obeagorik
iñor izango munduan:
egun guztia igarotzen zun
bertsotan ta erreduan.

Txapel

Eusebio Txapel ez nuke utzi nai
aztuta bazterrerako,
bestela pena izango nuke
nere bizi guztirako.
Sinistu zuan bertsolaria
ninduela aterako...
Nai izanda're ametsa etzun
bear bezela lortuko,
baiña etzan izan gizarajua
saiatutzen etzalako.

Zepai

Zepai Txikia maitea nuan,
oraindik det biotzian.
Zer kontatua izaten gendun
elkarrengana biltzian.
Bertsuak ere kantatzen zizkan
sekulako irrintzian...
Bertsuak eta gaiztakeriak
ark erakutsi zizkian.

Uztapide

Manuel Uztapide
nork etzun maitia?
Zentzu ederra zuen
doaiez betia.
Amaika bertso eder
an-emen botia.
Gustatutzen zitzaion
mesede egitia...
Arekin erreza zan
lagun izatia.

Xalbador

Beste batentzat ere
badaukat lekua:
Fernando Aire zana,
Urepelekua.
Bertsoa ibiltzen zun
ain ondo landua!
Au esaten ari da
oraindik mundua:
gizon argala baiña
biotz aundikua

Basarri

Basarri nor zan nik nola esan?
Ia sentitzen det lotsa...
Basarri jaunak deitzen zunian
ura Lizasoren poza!
Erniotikan entzun ziteken
aren zintzuraren otsa.
Gu beste iñork ez genitunak
arek bazitun bi gauza:
urre-gorritzko burua eta
diamantezko biotza,
urre-gorritzko burua eta
diamantezko biotza.

Mattin

Ahetzeraiño junda nai nuke
Mattini egin bisita.
Amaika erri utzi zituen
zeukana erakutsita.
Perretxikua bezela beti
bere txapela jantzita,
zeiñek etzuen irri egiten
ura kantari asita?
Baiña azkenian aldegin zigun
denok negarrez utzita!

Mitxelena

Bertso batian esango al det
nor zan gure Mitxelena?
Bertso ta aragiz beteta zeukan
gorputz aundi ura dena.
Nai ordurako etzan iristen
aren saiuan azkena...
Gauza bat zuan noranaitara
berekin zemakiena:
bertsolaririk onena zala
azkena isiltzen zena.

Lazkao Txiki

Lazkao Txikigana
zailla da iristen.
Ildakoekin ere
asi naiz sinisten.
Enuen uste ildakorik
zitzaigunik pizten,
eta guk Lazkao Txiki
egunero ikusten...
Ilda're atsedentzen
ez dizute uzten.

Arozamena

Mikel Arozamena
berez nafarra zan,
baiña Gipuzkoara
etorri balantzan.
Bertsolari ederra
tabernan ta plazan,
etzan ikaratuko
nai zan dana esan...
Munduan luzaroko
ez genduan izan.

Loidisaletxe

Antonio Mariz itz egitea
neretzako atsegin da.
Arekin pozik joaten nintzan
nunaitikan otseginda.
Garai artako bertsolaritzaz
jarri zaitezte jakinda:
esan liteke joaten giñala
apusturen bat eginda...
Saio galantak egiten giñun
elkar bentzitu ezinda.

Balendin Enbeita

Aitton polit bat banun laguna
Gernikan aldamenian:
Balendin Enbeita deitzen zioten
bertsotan zebillenian.
Amaika sari irabazi zun,
eztakit zenbat urtian!
Irudi eder bat jarri zioten
Bilboko Arenalian.
Txapela erantziz agurtutzen det
Bilbora nijoanian,
txapela erantziz agurtutzen det
Bilbora nijoanian.

Zubeltzu

Banekin norbait falta
nuela buruan.
Joxe Antonio Zubeltzu
ia aztu nuan.
Jaunak bakarrik daki
zenbat maite nuan.
Liburu kaskar ontan
jarri ezpanuan,
bizkarreko galantak
merezi nituan.

<<<>>>



Antonio Zavala *Doctor Honoris Causa*.
Deustu, 1999ko azaroaren 17an.

(Arg. Sendoa)



Joxe Mari Lertxundi, Txomin Garmendia, Antonio Zavala, Joxe Liza-
so eta Nikolas Zendoia.
Deustu, 1999.11.17

(Arg. Sendoa)

A. Zavala *Doctor Honoris Causa*

Antonio Zavalak urteetan zehar egin duen bertso bilketa eta argitaratze-lan eskerbaren irakurle eta laguntzaile izan da Joxe, hasieratik. Hark egindako liburuen harpidedun, *Auspoa* saila plazaratu zen ezker. Hamai-ka bertso eta argazki eman dio honezkero tolosarrari.

1999ko azaroaren 17an Deustuko Unibertsitateak *Doctor Honoris Causa* izendatu zuen egunean hantxe izan zen. Eta honako bertso hauxe eskeini zion:

Aita Zavala zoriontzeko
banuen ainbeste gogo.
Izanez ere jaso zaituzte
zerua baiño gorago.
Au ikusita zure biotza
kezkaturik igual dago...
Lasai, Antonio; etzaituzte igo
merezi baiño geiago.

Auspoa-ren azken liburuak:

264 Joxe Mari Aranalde: *Bertso kontuak*

265 Bizente Barandiaran: *Tratabideak*

266 Sor Justina Aldalur: *Ama Birjiñaren bizitza*

267 Ataño: *Ondareztat gorrotoa*

268 Mariano Ostolaiz: *Senda-Belarrak*

269 Tomas Gerrikagoitia: *Arantza eta Larrosa*


270 Andoni Basterretxea: *Ene Ondarru*

271 Salvador zapirain "Ataño": *Jesusen Bizitza*

272 Mikel Aizpurua: *Hasi, Azpillaga*

273 Emile Larre: *Ene artzain etxolak*

274 Joxe Mari Aranalde: *Xalbadorren barrua*



AUSPOAK, berriro ere, lankidetzan egindako liburua dakar plazara. Oraingo honetan, bi lagun ditu egile, zein baino zein ezagunagoak, nor bere arloan: Joxe Lizaso bertsolaria eta Joxe Mari Iriondo kazetaria.

Iriondok maitasunez bildu ditu bertsolari ugari bezain handiaren ehundaka bertso; eta egoki aukeratu, sailkatu eta papereratu. Baina, horretan gelditu gabe, ahalegin handia egin dute biek ere: batak bizitzaren zenbait gertaera gogoratzen eta kontatzen –ez baitira denak horren gozoak– eta besteak horretan laguntzen lehenik eta transkribatzen gero.

Horrela ondu dute liburu bikain hau, harrigarria egingo zaiona askori. Hain daude egoki kontatuta gertaerak; hain dira batzuk zirraragarri, beste batzuk hunkigarri... Eta halakoak dira Joxeren bertsoak, eta ez soilik edukiaz. Izan ere, gutxiorenak bezain ondo gaintitzen dute paperaren proba beldurgarria.

Baina askoz gehiago ere bada liburua: azken urteetako bertsolaritzaren ispilu eta euskal gizartearen lekuko. Horregatik, egoki dio izenburuak *Nere aldiko kronika*.



Azpeitiko Udala